

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

ERBESTEKO EUSKAL PENTSAMENDUA

BI BELAUNALDIKOEN LEKUKOAK:

EUZKO-GOGOIA ETA ZABAL



AURKIBIDEA

SARRERA	9
LEHEN ZATIA	
KRISTAU-PEDAGOGIA KLASIZISTA: <i>EUZKO-GOGOA</i> (1950-1959) .	13
I. JOKIN ZAITEGI ZUZENDARIAREN NORTASUN INTELEKTUALA	15
II. <i>EUZKO-GOGOA</i> -REN GARAPENA ETA KUDEAKETA	25
1. Guatemalako aldia (1950-55)	25
Orixeren lankidetza kualifikatua	25
Andima idazkariaren bultzada	31
2. Miarritzeko aldia (1956-59)	42
Jokin Zaitegiren bakardadea Miarritzen	49
Aldizkariaren desagertzea	54
III. ALDIZKARIAREN XEDEAK	59
Idazle erbesteratuen topagunea	59
Euskal nortasunaren berreskurapena	63
Hizkuntz nazionalismoaren aldarrikapena	70
Kultura landuaren bidetik Unibertsitatara	73
IV. ALDIZKARIAREN TESIAK	81
1. Euskara gabe ez da Euskal Herririk	81
2. Euskararik gabeko euskal kultura ez da benetakoa	83
3. Euskal Herria euskarak salbatuko du	95
4. Abertzaletasuna "euskaldun-fededun" esloganean mamitzen da	96

V. ALDIZKARIAREN EGITURA ETA EMAITZAK	99
1. Prosa eta poesia	105
2. Gaien sailkapena	106
VI. ALDIZKARIKO LANKIDEEN PROFILA	111
1. Idazleen emankortasuna	111
2. Lankideen urtez urteko jarraitasuna	121
3. Lankideen adina	122
4. Lankideen jaioterria	129
5. Lankideen lanbide sozioprofesionala	132
VII. ITZULPENAK	135
VIII. ALDIZKARIA DESAGERTZEAREN ARRAZOIAK	145
BIGARREN ZATIA	
PEDAGOGIA SEKULARTUA: <i>ZABAL</i> (1973-1976)	149
IX. <i>ZABAL</i> ALDIZKARIAREN TESTUINGURU HISTORIKOA	151
1. Euskarazko kultur plataformen egoera (1950-1973)	153
Aldizkariaren unea	154
Argialetxeen ugaritzea	159
2. Kultur plataforma baten beharra ezker abertzalean	163
3. Krisi ideologikoaren astindua ETA erakundean	168
4. Erbesteko ikasleen presentzia	177
X. ALDIZKARIAREN ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA	181
<i>Zabal</i> kultur elkartearen sorrera eta egoitza soziala	185
<i>Zabal</i> aldizkariaren zuzendaritza	187
XI. ALDIZKARIAREN NORAKOA ETA NOLAKOA	189
Zabala eta kritikoa: gogoeta-aldizkaria	190
Euskal Herri osokoa, baina Iparraldean kokatua	191
Euskalduna eta bustia: Euskal Herritik mundura	196
Sozialista eta independentista	198
Autonomoa eta kritikoa	206

XII. EMAITZAK	209
1. Emanaldiak	210
2. Kultur ekarria	210
3. Lankideak	212
4. Zabalkundea	214
XIII. BIZIALDI AZKARRA ETA BUKAERA AZKARRAGOA	217
XIV. BI BELAUNALDIKOEN ARTEKO LOTURA ZAILA	221
1. Kultur aldizkarien arteko emaitza konparatiboak	221
2. Bi belaunaldien arteko etena	223
3. Bi belaunaldien arteko antzekotasuna	225
HIRUGARREN ZATIA	
ERANSKINAK	227
1. <i>Euzko-Gogoa</i> -ko lankideen izen-abizenak eta izenordeak	229
2. Prosista oparoenak orrialdeka	235
3. Poeta oparoenak lerroka	239
4. Lankideen adina	242
5. Lankideen sorterria	246
6. Lankideen egoera zibila eta ikasketak	250
7. Itzultzaileak eta itzulitako lanak	254
8. <i>Zabal</i> -eko poetak	257
9. Itzultzaileak eta itzulitako lanak	258
10. Lankideen izen-abizenak eta izenordeak	259

TAULEN AURKIBIDEA

1. Gaien sailkapena Guatemalako aldian (1950-55)	100
2. Emaizta orokorrak urteka	103
3. Prosazko eta poesiako produkzioa	105
4. Gaien sailkapena orrialdeka	107
5. Prosista oparoenak orrialdeka	112
6. Poeta oparoenak lerroka	118
7. Poesi urte oparoenak orrialde eta lerroen arabera	120
8. Lankiderik atxikienak jarraitasunaren arabera	122
9. Idazleen adina 1954an	126
10. Idazle-belaunaldien adina 1954an	128
11. Lankideen jaiterria lurraldeen arabera	130
12. Lankideen lanbide profesionala eta ikasketak	133
13. Klero-mota bakoitzaren lankidetza	134
14. Itzultzaileen lankidetza	136
15. Frankismo-garaiko euskal aldizkarien kronologia Euskal Herrian (1950-1973)	155
16. Euskal argitaletxeak (1950-1973)	159
17. <i>Zabal</i> -en emanaldiak urtez urte	210
18. Artikuluen sailkapena gaien arabera	211
19. Lankide emankorrenak urtez urte	213
20. Kultur aldizkari batzuen emaitzak	222

SARRERA

Azken urte hauetan, luzaro isilik egon eta gero, euskal erbesteko kulturgintzaren gainean hainbat asmo eta ekintza ari dira bideratzen, gehienak talde-lanean eta Eusko Jaurlaritzak lagunduta. Han eta hemen jardunaldi edo batzar bereziak burutu dira, horietako bat Donostian 2000ko azaroan eta beste bat Baionan 2001eko maiatzean. Lehenengo zuzenean euskal erbestetuen kultura aztertzeraz zuzendua zegoen; bigarrenak, aldiz, euskal inmigrazioaren arazoa ere ukitzen zuen. Burutuak izan diren batzar horietaz landa, euskal erbesteko egileen antologiak eta biografiak jasotzen dituen liburu-bildumaren asmoa aurrera darama bere argitalpen-lanean José Angel Ascunce editoreak eta, horrekin batera, Saturraran argitaletxe berriak ere euskal erbesteko kulturgintzari buruzko lan kolektiboak argitaratzeari ekin dio. Jadanik baditu bi liburuki mardul kalean. Hasi gara erbesteko euskal kultura zerbait gehiago ezagutzen.

Esan beharrik ez dago lan horiek guztiak beharrezkoak bezain interesgarriak direla eta, ikerketa-lan honi era sistematiko batez ekiten zaion aldetik begiratuta, lehen abiapuntua markatzen dutela. Saio hauek badute, halere, begien bistako muga-pare bat edo gehiago. Agerikoenak egiten zaizkigunen artean ondoko hauek aipatuko genituzke: bat, lan horien esparrua –beharbada kudeatzaileek halaxe erabaki dutelako–, Errepublika-garaiko erbestealdira soilki mugatzen dela; bi, epealdi horren barruan, gehienbat Amerikako lekukoak aztertzen direla; hiru, euskal kulturgintzari dagokionez, erdaraz idatzi dutenen testu

hautatuek euskarazkoen aldean leku nabarmenki handiagoa hartzen dutela. Bilduma horretan agertzen diren autore jakin batzuk erbesteko euskal kulturaren langintzan sartzekoak diren ala ez ebazteko orduan, baditugu geure zalantza handiak, zeren, nahiz eta euskal kultura euskaraz egindakoa baino harago doana den, ez baitakigu, euskal erbesteaz eta euskal kulturaz hertsiki mintzatu ahal izateko, ezinbesteko elementuak zein diren. Marka geografikoaren irizpidea –gure kasura etorrita, euskal lurraldean jaioa izatearena, alegia–, berori bakarrik, elementu bereizgarri gisa, aski al da?

Gure saio hau hor goian aipatu ditugun hutsuneren bat edo beste betetzera dator. Gure hipotesia ondoko suposizio hauek osatzen dute: bat, frankismo-garaian, ez erbestealdi bat, baizik bi egon direla –1936koa eta 1960ko hamarkadako–, eta horietako bakoitzak badi-tuela bere berezitasunak, bata bestearengandik bereiztera eramaten dutenak; bi, erbestealdi bikoitz horren baitan, bi belaunaldien arteko etena ematen dela nola maila soziopolitikoan hala ideologikoan; hiru, eten horren ondorioak, alderdi estatalen eta ez-estatalen artean ez ezik, komunitate nazionalistaren baranoan ere islatzen direla, zeinaren arabera gerraurreko belaunaldikoak nazionalismo jeltzalean lerrokatuak egongo bailirateke eta belaunaldi berrikoak, aldiz, nazionalismo iraultzailean.

Beraz, erbesteko bi belaunaldien atzean bi mundu sinboliko leudeke, bakoitza bere gizarte-ikuspegiarekin eta jokabidearekin. PNV eta ETA bi mundu desberdinu ote dira? Zertan bereizten dira eta zertan batzen? Zer dute batera?

Galdera horiei erantzuteko, material ugari dago erbestean bertan erbestekoek egina. Argitara emandako aldizkariak –gehienak politikoak–, 150etik gora dira. Guk hemen, hipotesi gisa planteatutako galdera horiei erantzuteko, bi aldizkari autonomo hautatu ditugu, *Euzko-Gogoa* eta *Zabal*, hauek iruditu baitzaizkigu, euskarazkoen artean bederen, maila intelektualean ongien ordezkatzan dutenak erbesteko belaunaldi bakoitzari dagokion ikuspegia.

Ikuspegi hori nolakoa den? Izenburuan datorrenez, *Euzko-Gogoa*-ren ekarria jesuiten eskolarekin berdindu dugu, zeinaren filosofia kris-

tau-humanismo klasizistan oinarritzen baita; *Zabal-ena*, aldiz, pedagogia sekulartuan kokatu dugu, zeinaren ezaugarri nagusia sekulartasunari aitortzen zaion erabateko autonomian zehazten baita. Hortxe datza, gure ustez, belaunaldi batetik bestera dagoen aldea. Alde latza, zalantzarik gabe. Baina zubirik gabea?

Hemen, batez ere, aldizkari horien xedeak eta emaitzak aztertuko dira, zergatik sortu eta desagertu ziren, zein izan zen bakoitzaren prozesua, eta zein gai landu zituzten azalduz. Edukien azterketak beste saio bat eskatzen du, beste txanda baterako uzten duguna.

LEHEN ZATIA

KRISTAU-PEDAGOGIA KLASIZISTA:
EUZKO-GOGOIA (1950-59)

LEHEN ATALA

JOKIN ZAITEGI ZUZENDARIAREN NORTASUN INTELEKTUALA

Jokin Zaitegik Guatemalan 1950ean sortutako kultur aldizkari hau aztertuko da azalpen honetan, uste baitugu bere hamar urteko bizialdi aberatsean (1950-59) bera izan zela gerraurreko belaunaldiaren pentsamendua modu kolektiboan ondoenik ordezkatzeko duena eta, bidenabar, baita erbesteko euskaltzale gehienek emaitzak osoenik jasotzen dituen ere. Bi arrazoi hauek izan dira gai hau hautatzera eraman gaituztenak.

Euskara hutsean argitaratutako lehen aldizkari kultu hau zertarako sortzen den azaldu ondoren, lehen hurbilketa kuantitatibo baten bidez, gehienbat datu zehatz batzuk eskaintzera mugatuko gara. Besteak beste, ondoko puntuok landuko dira: aldizkariaren urtez urteko emanaldiak, poesiari zein prosari ematen zaion lekua, lantzen diren gaien sailkapena, itzulpenek duten garrantzia, lankide desberdinen maiztasuna eta oparotasuna, etab. Hemen, aldizkariaren edukia atalez atal, banan-banan, aztertu ahal izateko, oinarritzko lehen urrats hau eman nahi da. Azterketa hau, beraz, beste saio baterako uzten dugu.

Aldizkariaren ekarria bere osotasunean ikusi eta gero, azken balorazio gisa, xehetasun batzuk emango dira haren zabalkundeaz eta eraginaz eta, oro har, baita barruko nahiz erbesteko euskaltzaleen komunitatean izan zuen garrantziaz ere. Mota honetako aldizkari baten sortzailea zergatik izan zen Jokin Zaitegi eta ez beste norbait, puntu honetaz ere zerbait esango da. Baita zergatik hil zen ere.

Nahiz asmoak lehenagokoak izan¹, sinadurarik gabe baina Jokin Zaitegik idatzita, 1949ko udazkenean, Guatemalan finkatu berria zen arrasatearrak jadanik moldiztegian egina zeukan euskarazko aldizkari baten berria helarazten zuen Euskal Herri osora, "Asmoa" izeneko orri batean. Honela aurkezten zuen bere burua: "Arrezkero, euskaraz baka-rrik idatzi nai dugu, eusko-gogoaren barne-muñietaraino eldu gaitez-zen: azkatasunaren giltza galdu bai-dugu, euskera galdu ezkerro, eta bere izkera galdu duen erriak, erri berri eta zindoen artean bizitzerik ez du artze. Soññez iñoren morroi, gogoz, ordea, bere buru-yabe dan erria, inoiz ezpaita iñoren yopu izango, naizta egoera lazgarriena izan. Beraz, gure azkatasun osoaren egun aundirako, urren izaki buruak gertu bear ditugu. Orregatik, atzerrietan barna gabiltzan euskel-idazleok oro elkartu ta *Euzko-Gogoa* deritzaken euskel-aldizkaria sortzea eraba-ki dugu" (*Alderdi*, 35, otsaila, 1950, 9).

Sustapen-orri hori zabaldu orduko inprimatua zeukan lehen zenbakia, 1950ean kaleratuko zena. Orri horretan harpidedunentzat postaetxeko kutxatila baten zenbakia zetorren eta lankide gisa parte hartu nahi zutenentzat, berriz, proiektu-sortzailearen helbidea.

Joseba Intxaustiren hitzekin esateko², orduko euskaltzaleen artean "ezezaguna" ez baina "ezagunegia" ere ez zen hark egindako erronkari erantzungo zionik izango ote zen? Ez gintuzke batere harritu behar batek baino gehiagok galdera hau edo antzekoren bat egin izanak, batez ere, kontuan hartzen bada deia etorri, urrutiko lurralde batetik zetorre-

¹ Andima Ibinagabeitia adiskideari 1947ko uztailearen 6ko gutunean jakinarazten zio-
nez, Estatu Batuetako *Selecciones del Reader's Digest*-en antzeko zerbait ateratzea
pentsatzen omen zuen, Eusko Jaurlaritzaren babesean edo: "Buru-belarri begira ta
begira nabilkizu zuretzako zerbait arkitzen: nik uste, onena, Euzkadiko Yaurlaritzan
zerbait iristea litzaizuke: adibidez, bearrezkoen euskera eustea dugu, baita atzerriak
barna dabiltzan euskaldunen artean ere. Zergatik ez asmatu bideren bat ori buru-
tzeko? Aspaldinanik asmotan nabilkizu, *Selecciones* antzeko aldizkari bat euskeraz,
erderaz eta parantzeraz edo englanderaz sortzeko: Euzkadiko Yaurlaritzaren bebe-
sean edo baranoan, behintzat, obe: or, nondinaiko eusko aldizkariak yasotzen bai-
tira: zergatik asmo ori zeuk ez burutu?" (Velez de Mendizabal, Josemari: *Iokin
Zaitegi*, Egile Editore, Arrasate, 1981, 87-89).

² "Zaitegi eta *Euzko-Gogoa* (I). *Euzko-Gogoa*-ren lankideak", *Jakin*, 12, 1979, 121-122.

la, noiz eta gerraondoko isiltasunik hotzenez, horrelako lan bati ekiteko kuraia normaletik fuerakoa kontsidera zitekeen garaian, hain zuzen.

Horrelako asmoa aurrera eramateko adoretu agertzen zena, bere burua Kixotetzat zeukan Jokin Zaitegi Plazaola jesuita genuen³, kultura humanistan –bereziki, klasikoan– garaiko euskaltzaleen artean inor gutxi bezala trebatua zegoena. Garai hartan Jokin Zaitegi nor zen zekiten gehienentzat, izan, gerraurrean olerki-sari entzutetsu baten irabazleetako bat besterik ez zen, apenas ezer gehiago. Baina ordurako arrasatearrak metatua zeukan curriculum akademikoa, berdin euskal kulturaren esparruan egindakoa, askok uste zutena baino askoz ere handiagoa zen. Jokin Zaitegi “Kixote” autoizendatuak bazeukan kixotekeriak gainditzeko adina gaitasun. Aski da horretarako *Euzko-Gogoa* aldizkariari ekin aurretiko bere bizitzari errepasso txiki bat ematea, horrela eginez bakarrik jabetuko baikara ez zela hutsetik abiatzen. Zetorren eskolatik etorruta, bazuen lankide kualifikatuak bereganatzeko adina itzal eta gaitasunik. Egiazko Kixote bat izan zen, baina zangoak lur zindoan sustraituta zeuzkana, Consuegrako haize-errotekin amesteko betarik izan ez zuena.

Nor eta nongoa dugun Jokin Zaitegi? Berari utziko diogu erantzuten, haren izana ez baitugu aipu labur honetan bezain ongi beste inon adierazirik kausitu⁴: “Sortzez eta gogoz Arrasateko semea nauzue, erri zaarreko arteko kalean iaioa, bizitzez, alabearrez, eta zuzentasunaren alde iokatzearren, bizitzarte osoan erbestean bizi izanda, euskaldun non-naitiar gertatu izan naiz. Zorionez, zaartzaroan bada ere, etxeratu egin naiz”.

Bere bizitzako aldirik luzeena erbestean eraman zuen “euskaldun non-naitiar” hau Arrasaten jaio zen 1906ko uztailaren 26an. Orixek haren *Bidalien eginak* liburuari egindako hitzurrean datorrenez, “kalekume xango xuria” genuen, baina etxeokokin eta lagunekin euskaraz egiten zuen.

Lehen ikasketak herriko eskolan egin zituen Elias Azpiazu eta Frantzisko Urrutia maisuekin, hamalau urteak bete arte. Aita Basabe je-

³ “Zer izan da Jokin Zaitegi bizitzan?” galderari honela erantzun zion berak bat-batean: “Kixote bat” (Velez de Mendizabal, Josemari, op. cit., 235).

⁴ Ibid., 15.

suitak eraginda, baina bere amaren borondatearen kontra, Durangoko jesuiten ikastetxera joan zen 1920ko uztailean eta, ikasketak Victoria Larrinaga izeneko ongile batek ordainduta, bertan eman zituen lehen urratsak latina eta grekoa ikasten, Aita Bitor Iriarteren ardurapean. Nobiziatua Loiolan egin ondoren (1921-23), Burgosko “La Merced” ikastetxean Erretorikari zegozkion ikasgaiak landu zituen bi urtez (1923-25), zehazki hauek: batetik, Hizkuntza klasikoak (latina, grekoa, hebreera), Grezia eta Erromako autore klasiko onenen obrak, Poetika eta Estetika, Literatura espainola eta Historia, –hauek lehen ikasturtekoak–, eta, bestetik, Historia orokorra, Aritmetika, Geografia eta Hizkuntza modernoren bat, –hauek bigarren ikasturtekoak–. Burgosko lurralde berean, baina oraingoan Oñako Ikastetxe Nagusian, Filosofiako ikasketak egiten emango ditu hiru urte (1926-29), hemen gainditu beharreko ikasgaiak hauek izanik: Logika, Metafisika, Goi-matematika, Fisika, Kimika, Psikologia arrazionala eta esperimentalak, Etika, Kosmologia, Biologia, Teodizea, Minerologia, Kristologia, Geologia eta Pedagogia.

Jesuitek, Filosofiako titulua lortu eta gero, maisutza-lanak egiten zituzten, normalean hiru urtez. Ordurako 23 urteko gazte heldua zen Jokin Zaitegik, bere nagusiek hala behartuta, barnetegi gisa funtzionatzen zuen Venezuelako Méridako ikastetxean egin zituen irakasle-tzari zegozkion urte horiek 1929-1932ko epealdian zehar. Handik Belgikako Marneffera etorrira, hemen burutuko ditu bere apaiz-ikasketak, lau urte irauten zuten Teologiako ikasketak gaindituz (1932-36). Jesuiten Lagundian ohi denez, Jokin Zaitegik Teologiako hirugarren ikasturtea bukatzean, 1935eko uztailean 31n, apaiztu zen. Hurrengo ikasturtea (1936-37), Espainian gerra zibila sutan zegoela, Jokin Zaitegik, Antonio Arregi moralistaren ardurapean⁵, “terceronado”

⁵ “Josulagun honen antieuskaltzatasunak biziki markatu zuen arrasatearraren hango egonaldia”, dio Josemari Velez de Mendizabalek (Op. cit., 59). Orixek maisutzako beren laugarren urtea (1917-18) Carrión de los Condesen egin zuelarik, jesuita hori bera izan zuen errektore eta honek ere ez zion Comillastik zetorkion “bizkaitarismoaren” madarikaziotik askatzeko modurik egin (Iztueta, Paulo: *Orixe eta bere garaia*, Etor/Eusko Jaurlaritzak, Donostia, 1991, 58-59).

deitzen zaion nobiziatu antzekoa egin zuen herrialde bereko Morialmeko hirian, zeinetan, batik bat, izpiritualitate jesuitikoa ikasten baita eta berori egiten dutenak jesuita oso izatera pasatzen baitira.

Bere ikaskideek esanda dakigu buru argikoa zela eta oso saiaturia, baina, haren ikasketei buruzko ebaluaketa-ziurtagiririk ez dugunez, ezinezkoa zaigu xehetasunak ematea. Nolanahi ere, esan beharrik ez dago jesuiten prestakuntza intelektuala, orokorrean, beste kongregazioetako erlijiosoena baino hornituago eta jasoagoa zela. Jokin Zaitegik hizkuntza klasikoak ederki menderatzen zituen, baita ingelesa eta frantsesa ere, azken hau Panaman ikasita, San Salvadorren sartu aurretik, 1937an han egindako sei hilabeteko egonaldiaz baliatuz.

Jokin Zaitegik irakasletzan zeukan esperientzia ere benetan aberatsa zen. Arestian esan bezala, lehen urratsak, “maisur txiki” gisa, Méridan egin zituen. Gero, El Salvadorrerako destinoa emango diotelarik, hemengo Apaizgaitegi Nagusia, zeinetan Filosofia eta Teologia ikasten ziharduten Erdialdeko Amerikako apaizgai guztiak –guztira berrehunen bat inguru– biltzen baitziren, zazpi urtez (1938-44) arituko da ondoko gaiok irakasten: Idazteunak, Elizaren Historia, Teologia dogmatikoa, Patologia, Filosofiaren historia, Literaturaren historia, Hizkuntzak (grekoa, ingelesa eta frantsesa). “Echevers” izeneko Institutuan, orobat, Idazteuna, Frantsesa eta Literaturaren historia irakatsi zituen 1940ko ikasturtean. Jesuiten Lagundia utzi eta apaiz sekular bilakatuz gerotik⁶, 1945. urtetik aurrera, orduan Guatemalako artzapezpiku zen Arellanok bere jurisdikziopean hartu zuen eta Ciudad Vieja San Jose elizako ardura eman zion. Pastoralgintzako lanez gain, hiriburuan bertan kokatua zegoen “Instituto América” ikastetxeko

⁶ Jokin Zaitegik, Lagundia uztera eraman zuten arrazoien artean, euskararen aldeko bere hautua behar bezala garatu ahal izateko ezartzen zizkioten oztopoak aipatzen ditu. Oztopo horiek ezartzen zizkiotenen artean, hiru izen hauek dakartza: Lédouchowski jenerala, –Orixerri ere bizitza ezinezkoa egin ziona–, Ponsol donostiarra eta Beriain nafarra. Jokin Zaitegik Ipar Amerikara joan nahi zuen, New Yorken aurkitzen zen Jose Antonio Agirre lehendakariari laguntzera, baina nagusiek ez zitoten utzi (Velez de Mendizabal, Josemari, op. cit., 66).

zuzendaritza eraman zuen, zeinetan hirurehun ikasle inguru baitzebiltzan ikasten, irabaziak Monsanto jaunarekin erdibanatuz. Horixe izan zuen, hain zuzen, bere kontura bizitzen jarriz geroztiko bere lehen irabazpidea. Aldi berean, 1946an hasita, Guatemalako San Carlos Unibertsitatean autore klasikoak ematen arituko da bederatzi urtez. Beraz, Guatemalako sektore askotan, –baita gobernukideen artean ere–, ordurako aski ezaguna zen Jokin Zaitegiren izena. Bera genuen Unibertsitatean zein Institutu Nazionalean irakasten zuen kleriko bakarra.

Gero, *Euzko-Gogoa* aldizkariak zekartzan gastuei aurre egin ahal izateko, 1951n “Instituto América” utzi eta, diru aurreratua Rogelio Muyschondt de Langhe familiari eskatuz, “Liceo Landibar” izeneko ikastetxea erosiko du. Lizeo hau ere hiriburuan bertan zegoen. Bestalde, barneko zein kanpoko ikasleentzat irekia zenez, barnekoentzat “Santa Mónica” izeneko egoitza ere bazuen. Bertan lehen eta bigarren mailako ikasketak ematen ziren⁷. Berriro, hemen ere, zuzendari eta irakasle-lanak egitea tokatuko zaio. Bazuen, beraz, irakaskuntzaren munduan, nola Unibertsitatean hala Institutuan, esperientziarik izateko aski arrazoi. Norbait genuen, eta norbait, gainera, ez bakarrik irakasletzan, baita antolaketaren mailan ere.

Baina Belgika, El Salvador, Guatemala eta horiek ez ote zeuden oso urruti euskaltzaleen mundutik? Hauxe da edozein irakurlek egin dezakeen galderarik normalena. Euskal kulturaren aldeko haren ekarpen entzutesuenen artean, berak 1934ko olerki-sariketan “Tori nire edontzia” poema irabazlearekin jasotako fama aipatzen da. Ziurrenik, batez ere, sariketa horrek zuen omenagatik eta ez gutxiago sariketa horiek egin ziren garaiagatik, orduan eman zen ezagutzera haren izena. Baliteke euskaltzale gehienentzat sari-irabazlearen izena artean ezzaguna izatea. Harritzekoa ere ez da, baldin kontuan hartzen bada, gerraurreko urteak erbestean zeramatzala eta barruko euskal prentsarekin lankidetzaren harremanik ez zuela. Berari ere ezezagunak zitzaizkion Aitzolek antolatutako Eusko-Olerti-Egunetan gailendu ziren poeta

⁷ Ibid., 81-83.

gehientsuenak⁸. Txunditurik zeukan, batik bat, Xabier Lizardi poetak, zeini, Belgikako Marneffetik Tolosara 1932ko azaroaren 14an eginda-ko gutunean⁹, “gure olerkarien zuzi argia” deitzen baitzion eta, bide-nabar, bere poesiak bidali baitzizkion irakur zitzaiz. Ordurako olerki-sorta polita zeukan osatuta: 50en bat berak sortutakoak eta 25en bat beste hizkuntzetatik euskaratutakoak. Handik hilabetera jaso zuen bere poesiei buruzko Lizardiren iritzia¹⁰: “Aolku bat eman nai dizut: nere aburuz, zure lan oietan neurtitz zabarrak edo erderaz ‘prosaismos’ esango nukena aurkitzen da bear baño maizago. Ots: olerkari-arnasa izanik iruditzen zait lanari ez diozula ekiten bear aña astiz, biotzean dezuna laisterregi jalkitzen dezula, ots, neurtitza aski-landu-gabe, bi-txitu gabe”.

Ez dakigu Lizardik irakurri zituen olerki horiek zein izango ziren. Baina ez da gutxi jakitea bi poetok gutun-harremanik izan zutela eta elkarren lanak ezagutzen zituztela. Jokin Zaitegiren poeta-sena hurbiletik ezagutzen zutenentzat, handik bi urtera Zarautzen ospatutako Olerki-Egunean irabazle izatea ez zen kasualitate hutsa izango, ezta, bizi izan balitz, Lizardi handiarentzat ere, nahiz eta honek, bere garaian, gogor samar kritikatu izan haren poesiak.

Gerraurrean, euskal pizkundearen gailurrean, bosgarren poeta saritua izan eta gero, Jokin Zaitegiri norbait izatea tokatzen zitzaion, besterik ezean Lauaxeta, Lizardi eta Loramendi zenduen gerizpean. Gerraondoko lehen hamarkadan, 1937an Belgikatik Amerikara joanda, El Salvadorreko egonaldian euskaratutako Henry Wadsworth Longfellowen *Ebangeline* argitaratu zuen 1945ean Guatemalako “Hispania” argitaletxean eta hurrengo urtean, berriz, *Goldaketan* poema-liburua eta *Sopokel'en antzerkiak* itzulpena, azken biok Mexikoko “Pizkunde”

⁸ Honela idazten zuen *Euzko-Gogoa*-ko lehen zenbakian: “Iñolako olerkari-sailla sortu zun Aitzol'ek Eusko-Olerti-Egunen bidez. Geientsuenak ordurarte olerkari ez-ezagunak izaki, bizkorrenetakoak zirala adierazi ziguten” (“Aitzol'en gizaldia”, I, 1950, IIbeltza, 5).

⁹ Velez de Mendizabal, Josemari, op. cit., 49.

¹⁰ *Ibid.*, 50.

argitalexean, argitalpena azken estatu honetan merkeago egiten ziotelako¹¹. Hiru liburu hauek argitaratzen mila dolar gastatu zituen, baina, 1947ko uztailaren 6an Andima Ibinagabeitiari egindako gutunear datorrenez¹², ez ziren berak nahi bezala zabaltzen ari.

Dena den, kritiken euria argitalpen horien sustapena *Euzko-Gogoa*-n egin aurretik iritsi zen euskaltzaleen zelaira. Pierre Lafitte kalonjeak zorrozki kritikatu zituen lan horiek, bereziki itzulpen-lanak, *Eusko-Jakintza*-n¹³. Bi akats edo arrazoi nabarmentzen ziren harenean. Lehenengoa zen, denbora alfer-alferrik galtzea zela atzerriko autore klasikoak (latindarrak eta grekoak) nahiz modernoak (ingelesak, espainolak, frantsesak edo alemanak) itzultzen jardutea, herri soilak ez baititu irakurtzen¹⁴: “Zaitegi a évidemment fait un gros effort, mais disons que cela se voit beaucoup trop: l’ouvrage, du reste, n’offre aucun intérêt pour la très grande majorité des Basques, et il a beaucoup vielli (...) Certes, il est curieux de voir comment l’eskuara pourrait exprimer certaines pages fameuses; mais inutile pour cela de traduire des tragédies entières. C’est gaspiller un talent qui serait mieux employé à éclairer les Basques ou à les divertir sur des thèmes plus proches ou plus captivants, quand même ils seraient moins sublimes”.

Beraz, zertarako idatzi herriari interesatzen ez zaiona? Hemen Jokin Zaitegiren autore klasiko zein moderno ikasienganako joera da kritikatzeko duena. Hemen, noski, Ustaritzeko kalonjearen ikuspegi populista eta Jokin Zaitegiren kultura landuarena dira garbiki kontrajarrita daudenak. Bi tradizio dauzkagu elkarri begira daudenak, baina plangintza orokor batean bateratu gabe segitzen dutenak: batetik, kazetaritzari atxikitako Iparraldeko idazle gehienen herri-prosa xumea eta, bestetik, gutxiengo bati zuzendutako Jesuiten Eskolakoen prosa kultista. Elitismoa eta populismoa beren urak nahastea beldur diren bi

¹¹ “Guatemalan baino merkeago egiten baitzidaten argitalpena. Horixe da arrazoi bakarra. Pizkunde izeneko euskal Argitaratzailean egin nuen inprimaketa” (Ibid., 72).

¹² Ibid., 81.

¹³ “Jokin Zaitegi: *Ebangeline, Sopokel-en antzerkiak, Goldaketan*”, 1, 1949, 95.

¹⁴ Ibid.

erreka bezala izango dira geroagoko euskararen normalizazioaren proze-
suan bateratuta ikusiko ditugun hasierako jarrera kontraesankor hauek.

Bigarren arrazoiak, ordea, askoz ere gehiago mindu zuen Jokin Zaitegi, auzitan jarri zuena, hain zuzen, bere idazle-jatortasuna bai-
tzen. Euskalkiak batere beharrik gabe nahastu egiten zituelako edo, ha-
ren euskara ulertezina egin omen zitzaion. Horregatik, garbiki esaten
dionez, nahiago luke liburu horiek bere jatorrizko hizkuntzan irakurri:
“Loin du pays natal, il veut chanter tout de même dans la langue de
ses pères, mais nous avons l'impression que sa voix a changé: l'accent
n'est plus le même; il s'est fait un dialecte qui passe pour bas-navarrais
en Biscaye et pour guipuzcoan chez les laburdins; c'est à dire que per-
sonne ne le comprend tout à fait (...) Nous sommes plusieurs à penser
qu'il est plus simple de les lire en grec que dans la version basque”.

Asmoa martxan jarri eta handik lau urtera, jadanik 19 emanaldi
eginda dauzkala, egindako bidez harro eta ezin pozikago, hauxe ida-
tzi zuen 1954ko lehen zenbakiko atarikoan, “*Euzko-Gogoa* ta gu” ize-
nekoan¹⁵: “1949 garrenaren ondarrean agiri bat egin genuen euskeraz,
euskal-aldizkaria sortzeko asmotan. Batek edo bestek erantzun zigan
gure asmoa aizatu nairik. Norbaitek zorotzat jo giñuzan. Alare, esan
eta egin, 1950 garren urtean asi giñan. Bazetozen euskal idazleak aldiz-
kari berriaren asmoetara: Altube errikoiak, Argarate mixiolariak eta
zuzendariak aurrenekoa idatzi zuten. Bigarrenekora Orixe, Andima,
Urrutiatar Gotzon eta Tauer'tar Norberta etorri zitzaizkigun. Nai izan
bezela, oraingo idazlerik bikañenak bertan egin dute batzarre eta lau
urte aunditan, oraingo euskal-idazle ta olerkaririk garaienak guregana-
tu zazkigu: Uarrain, Mitxelena, Jemein, Mirande, Monzon, Onaindia,
Aurraitz, Ibalan, Etxaniz, Leizaola, Garate, Larrañaga, Iratzeder, Bor-
datxuri, Oiartzabal, L. Mendizabal, Antxeta, Peillen, Krutwig, Ibar,
Arantzibia eta abar”.

Eta halaxe da. Aldizkariaren lehen urratsak nahiko bakardadean
emanak izan ziren. Lehen zenbakia, Sebero Altube eta Erraimun Arg-

¹⁵ *Euzko-Gogoa*, 1-2, 1954, 1.

reteren lau orriko bi artikulua izan ezik, gainerako guztia Jokin Zaitegik berak idatzia da. Artikulu bat bakarra izenpetzen du bere izen-abizen eta beste guztietan, idazle-talderik ezaren sentipen nabarmenena estaltzeko asmoz edo, izenorde desberdinak erabiltzen ditu: Etxetxo, Ibartzabal, Urizar, Udalaizpe, Izurtza eta Arrasate. Bigarren zenbakian, bai, lankide berriak agertzen dira aldizkarira, hara nola: Gotzon Urrutia, Andima Ibinagabeitia, Artiz'tar Xabier (Nemesio Etxaniz), Orixe (Nikolas Ormaetxea), Txintxarri (Luis Sagastune), A-Bi (Andoni Arozena), Errexil eta Tauer'tar Norberto. Izen-zerrenda honetan, bistan denez, Jesuiten Eskolako lankideak nabarmentzen dira beste guztien gainetik. Jokin Zaitegik, Orixe eta Andimak osatzen duten hirukote famatuaz gain, hortxe daude Gotzon Urrutia eta Luis Sagastune ere. Baita Martin Oiartzabal apaiza ere, Orixeren adiskide handia. Hauen guztien hastapeneko lankidetza ezinbesteko baldintza izanen da aldizkariaren abiada eta segidarako, batez ere, lehen urtean. Jokin Zaitegik, Orixe eta Andima *Euzko-Gogoa*-ra ekartzearekin, bermaturik du bere jarraipena.

Hirukote honen lankidetza koordinatua izan zen, hein handi batean, *Euzko-Gogoa* aldizkariaren hamar urteko abenturari bizitza eman ziona, haren izateko arrazoia arimaz eta gorputzez jantzi zuena. Esan duguna aldizkari honen garapen-prozesua barrutik ikusiz egiaz-tatu ezinik ez dugu. Egun, eskura dauzkagun iturri bibliografikoei –bereziki, biografikoei– esker egingarri denez gero, hauxe izango da gure lehen egitekoa: aldizkaria gidatu eta sustatu zuten lankide hurbi-lekoenen inguruan txango etnografiko antzekoa burutzea, hain zuzen.

BIGARREN ATALA

EUZKO-GOGOA-REN GARAPENA ETA KUDEAKETA

Aldizkariaren garapenean bi aldi bereizten dira, hots, Guatemala-lakoa eta Miarritzekoa. Bakoitzak bere ezaugarri bereziak baititu, biak bakarka emango ditugu.

Guatemalako aldia (1950-55)

Bi aldi eta hiru izen handi agertzen dira *Euzko-Gogoa*-ren historia labur baina mamitsuan, bakoitzari berea eman ahal izateko, bakarka ekarri beharrekoak.

Orixeren lankidetzaren kualifikatua

Jokin Zaitetik kasualitatez bezala lortu zuen lehenik Orixeren lankidetzaren eta gero haren idazkaritza. OPE irakurriz jakin zuen Orixe Argentinatik barna zebilela, han-hemen ibiltari, eta halako batez, beronen zuzenbidea nolatan eskuratu zuen ez dakigula¹⁶, Berraondon

¹⁶ "Noizpait atzeman nauzu orregatik" esanez hasten da Argentinako Bahía Blancatik 72 kilometrora aurkitzen den Berraondo herritik zuzentzen dion gutuna (1950-02-17).

aurkitu zuen, Avellanadatik horra joana baitzen, hilabete baterako edo, Iparraldeko Indart-Zuburu senar-emazte adiskideak bisitatzera eta, bide batez, bidarraiar emaztearen amak emandako puskak entregatze-ra. Herri honetatik igorri zion 1950eko ilbeltzaren 17an, bertan maki-narik ez zuelako eskuz idatzita, Amerikako bere lehen poema, “Berraondo’ko meza” deitua, hain zuzen, zeina hirugarren zenbakian argitaratu baitzen. Avellanadatik egindako gutunetako batean, handik aurrera bere euskal lanak *Euzko-Gogoa*-rako egingo zituela agintzen zion¹⁷. Handik gutxira, 1950eko apirilaren 29an¹⁸, Avellanadatik lau lan bidaliko dizkio eta horietako batean, “Zaitegi jauna” izenekoan, *Euzko Gogoa*-ren asmoz eta beronen kudeatzaile zuzenekoez, hots, Zaitegi zuzendariak eta Andima idazleaz mintzatuko da bertan eta beste gutun batean baita Mirandez ere. Luzetxo izan arren, ondoko pasarteia ia bere osotasunean transkribatuko dugu, hor garbi agertzen baita berak nola ikusten zuen Guatemalan bideratu berria zen euskarazko kultur ekintza hura¹⁹:

“Gora zu! Kuku berriketontzi oiek!

Askotan esaten dutana, itsaso asarrean asi zera igeriten; bioztoiki. Ez ote zera pulunpatuko? Baiezkoan ari dira emen; baña, nik ez dut etsi mirari ori Jainkoak egiñaraziko ez dizunik.

Lenbiziko gorputz-eragiñak ez dituzu ain txaro ematen; baña, joanago ta txairoago arkitzen zaitut. Aurrera!

Nere egia jakin nai ba’duzu, gizabiderik aski ez ba dut ere (orregatik deitzen naute *Basurde*), gizabiderik edo azal-apaiñik ez nuke nai behintzat. Batzuekin legun eta besteekin latz ari diran gizonak ez dira ari obeki.

¹⁷ “Nere euskal-lanak *Euzko-Gogoa*’rentzat bakarrarentzat utziko ditut emendik aurrera (artikulu, bertso, ta olako); erderazkoak besteetara bialduko ditut. Bat edo batek kopiatu nai ba’ditu, aipa dezala *Euzko Gogoa*” (Gutuna Jokin Zaitegiri Guatemalara, 1950-05-3).

¹⁸ Hala esaten dio data horretan egindako gutunean: “Berraondo’ko Meza” ezkerro, beste lau lan bialduko dituzut, bat egoan eta iru legorrez eta itsasoz: 1) Zure Errebistaz eta hiru liburuetaz; 2) Euskal-aditza (sarrera); 3) Orainaldia; 4) Geroaldia” (Avellanadatik gutuna, 1950-04-29).

¹⁹ *Euzko-Gogoa*, 5-6, Orrilla-Garagarrilla, 1950, 8.

Euzko-Gogoa (zergatik ez s'kin?) irakurtzean, au gogora zait: gazteok gu baño bizkorrago zatoztela, ta atzean uzten gaituzutela. Etorriko dira, ordea, (orrek pozten gaitu euskeraren onerako) zuek 'apurtuko' zaitutenak ere.

Lenbiziko banakoa ia osorik zerorrek idatzia duzu, goxo ta ederki.

Bigarrenean agertzen da nik idazle bezala ezagutzen ez nun bat: Andima. Ori mutilla, ori! Ez ote zaitu edo ez ote gaitu atzean uzten? 'Luzear' zana bezain goxo, ta ua baño askoz aberatsago. Matxinada-aurretik zein euskal-idazle oberik.

Or beste zokoren batetik aterako da besteren bat edo beste zenbait, oraingo kritiku txar auen zentzagarri.

Olabide ederki xurgatu duzute. Aren elur garbia urtu-bearra da erriarentzat, eta asi zerate behintzat.

Eta atzerrian euskera utsez, Euskalerrian ere ezin egin dutena!

Ezer egin gabe eskuak antxumaturik dauden oiek, goratarre aundiagoa merezi al dute? (...)

Badakite, bai, *trigonometria*, *coseno* ta olako itzak, eta eundaka gehiago, naiz literaturan, naiz beste edozer jakingaitan erabiltzen ditutenak, aien erriak ez dezazkela sekulan ulertu.

Baña gu euskera jakintsua egin naiean asten ba gera, gure erriak guzi guzia ulertzea nai lukete. Eskerrik asko, berena baño gure erria aintzatago artzen dutelako. Bitartean, beude lotsagarri, alper oiek!"

Lehen bi zenbakiak irakurri eta gero, aldizkariaren hego luzeko asmo sendoan erabat sinestuta, idazten ditu goiko lerro horiek. Esperantza osoa dauka Jesuiten Eskola gazteak, Zaitegi eta Andimarekin, aurrera aterako duela euskara jakintza-mailara jasotzeko hartua duen erabaki irmoa, mirari hori obratzeko bidean dagoela. Txunditurik bezala uzten du berak Tuteran jesuitagai ezagutu zuen Andima gaztearen lumak²⁰. Miranderi olerkirako ezpala aitortzen dion aldi

²⁰ Hauxe idazten dio Andimaz Jokin Zaitegiri: "Zer esaten didazu? Andima'k Bach aundiaz idatziko dula? Orixe bai irrikaz irakurriko detala! Ni ere Bach-zale amorratua naiz. Ibinagaibeitia da noski? Tudela'n ezagutu nun. Oraifarteko guziok kaxkar utziko gaitula ere iduritu zait bein baño getagotan. Esaiozu berari, biotz ar dezan" (Gutuna Zaitegiri, 1950-05-3).

berean, haren ideologia nahasiari arriskutsua deritzo²¹. Zaitegiri, berriz, bere garaian Lizardiri esandako lelo bera errepikatzen dio: “jo dezagun gorago”. Eta segidan, berak ohi zuen bezala aurpegiaren batere estalkirik gabe, bere hiru liburuez zer pentsatzen duen esaten dio: *Goldaketan* poema-liburua atsegifiaz irakurri duela, *Ebangeline*, irakurtzen hasi eta, ezin pasa izan dela 14. orrialdetik harago, eta *Sopokel*, aski nekez, baina oso-osorik irakurri duela. Orixeren ustez, esaldiaren gozotasuna da prosa akademikoaren elementurik beharrezkoena. Irizpide hau aplikatzen du haren itzulpen-liburu horiek juzgatzeko orduan. Esaldiak, ulerpenaren aldetik begiratura, argiak dira euskara dakitenentzat, baina gogorak, “esana luze danean gogorrago, laburra danean goxoago”²².

Jokin Zaitegik ondotxo daki bere lanak losintxatan ibili gabe, labur eta gordin, juzgatzen dituen Orixe hori nor eta nolakoa den, zein “basurdea” den baina nolako luma duen, alegia, eta bere ondora ekartzeko ahaleginduko da. Eta lortu ere lortzen du bereganatzea. Urterdi eskas egingo du Guatemalan Jokin Zaitegirekin²³, 1950eko ekainetik abendurarte²⁴, *Euzko-Gogoa* aldizkariaren arduratzen, batez ere, haren antolaketa-lanetan. Bere azken hiru hilabeteetan aldizkariaren inguruan daraman burubidearen balantze modukoa egiten du Martin Oiar-

²¹ Alderantzizkoa da haren Miranderi buruzko iritzia: “Mirande aurpegi ez dut eza gutzen, baña bai okerkari bezala. Ba du oiala; baña buru-orratza (ipar-orratza esan nai nuke) ez darabil beti zuzen, eta erne egon bearra dago esaten dituen astakeri batzukin. Siñesgabe, komunista, katoliku... zer naste borraraste ote du bere barruan? Monzon'en bidez ezagutu nun” (Gutuna Jokin Zaitegiri, 1950-05-3).

²² *Euzko-Gogoa*, 5-6, Orrilla ta Garagarrilla, 1950, 8.

²³ “Sei hilabete egin zituen nerekin, –dio J. Zaitegik–, eta gero hark gehiago maite zuen lan bat egitera bideratu nuen: San Salvador-ko nere lagun batzuen etxean (Muyshondt sendiarekin) *San Agustin-en aitormenak* (sic) idazten jarri zen” (*Deia*, 1977-12-8, 8).

²⁴ Ez dakigu zehatz-mehatz zein egunetan heldu zen Guatemalara. Dena den, ekainaren “erdirako or (Guatemalan, alegia) agertu nai” lukeela esaten dio Quitotik Jokin Zaitegiri egiten dion 1950eko ekainaren 1eko gutunean. Guatemalatik El Salvadorrera abenduaren 12an joan zen (Orixeren gutuna Martin Oiarzabali, 1950-12-18).

tzabali Rosariora bidalitako 1950eko abenduaren 10eko gutunean²⁵, zeinetan, dituzten zailtasunen artean, bi nagusiok aipatzen baitizkio: bata, inprimategiko lanek zoraturik daukatela eman-hitza betetzen ez dutelako, eta bestea –ez txikiagoa–, Zaitegi zuzendaria diruz larri dabilela, ustezko lagun batek iruzur egin omen diolako²⁶. Bestalde, nola aldizkariak ez bide duen aski harpidedun autofinantza dadin eta dituenentxo horien kobrantzak egiteko zailtasunak dituen, honek ere haren egoera larriagotu egiten du. Testuinguru delikatu honetan, bada, uzten du Orixek Guatemala eta Jokin Zaitegi bakarrik geratzen da, aldizkariarekin ezin burutuz eta, gainera, “Instituto América”n erabat lanpetuta. Dena den, Orixek bere gogoz utzi zuen ala ez ere ez dakigu gehiegi, zeren berak, Martin Oartzabal adiskideari egindako gutun horretan, “ara eraman nai naute” esaten baitu. Adierazgarria bederen bada esamolde hori.

Ez dakigu Orixeren Guatemalako egonaldiaz hala-halako balorazioa egiteko moduan gaudenentz. Egia bada, esan izan den bezala,

²⁵ Honela dio: “Izan ere ainbesteraño zorazten nau Aldizkari honek! Irakorla dugu ezin-askatuzko korapilloa. Au genun asmo: urtearen azkenerako atzeraldia berdintzea iru zenbaki bikoitze atereaz. Itza ematen prantsesak baño areago dira emen, eta itza jaten ez diteke auek añañakorik. Azkenean ori egin bearko. Bera lanez leporaño beteta dago, ‘Instituto Américas’ orrekin eta nik ezin dezaket zotzik egin arantz-onantza. Bizkor asi giñan, baña ‘arrancada de caballo andaluz, parada de burro manchego’. Irakorla’ra kilometro osoa daukagu: yoan-etorri bi. Egunean lau bider egiten ditut oñez zenbait aldiz, bi aldiz gutxienik, iru aldiz askotan. ‘Busez’ asi giñan, baña diruz gaizki xamar gabiltza iru ilabete auetan. Gizajoak ez du kementik ukatzeko, eta eman dun dirua etzaio berriz etxeratzen. España batek (iges egiña ura ere, gu bezala) txarkeri aundi bat egin dio. Irten-bide polita daukagu. Ni Salvador’a yoan ba nendi (an egotea) argitara-gaiak poliki poliki kopiatu nezazke, ta emen multikopiaz atera ditezke. An sendi bat dugu oso adiskidea. Ara eraman nai naute, beraien landaetxe batera (Itsasbegi edo Miramar). Bakartasun artan asi ninteke nere lan andia egiten” (*Karmel*, 1979-4, 51-52).

²⁶ Begoña Arregi Zaitegiren diruzainak kontaktzen duenez, Orixek dioen delako “españar” hori Gautemalan erbesteratuta bizi zen Errepublikako koronel bat zen. Elkarrekin negozio bat egin behar zutela eta, Zaitegik dirua aurreratu zion, hark, fidantzan, harri bitxiak eman zizkion bitartean, gezurrezkoak gertatu zirenak. Antza, arrasatearra ez omen zen diru-administratzaile ona (Velez de Mendizabal, Josemari, op. cit., 97).

Orixe “genio bizikoa” zela eta Zaitegi “harro eta terko xamarra”²⁷, normalena iruditzen zaigu noizbehinka beren gorabeherak izango zituztela pentsatzea. Kontatzen duena, elkarrekin egindako lana da. Egia esan, sei hilabeteko lanaldian ezin da mirakulurik egin. Halere, bere laburtasun horretan ere nabaria da hark eragindako bultzaldia, lehen urte horretan zazpi zenbaki argitaratzen baitira, inoizko kopururik handiena, kalitatez beteta eta lankide berriz hornituta datozenak.

Jokin Zaitegik “erredakziorako laguntzaile garestia aukeratu zuela” ere esan izan da²⁸. Agian, bai, batez ere, batek bestearentzat bizibidea atera behar duenean. Orixeren alde esan beharko da, honen fitxajea “garestia” izan ala ez, ez gutxi hari esker aldizkariak jadanik irabazirik zuela euskaltzaleen sinesgarritasuna, une hartan zuzendariarentzat erronkarik gaitzema zena. Geroztik, agindu bezala, aldizkari horretan argitaratuko ditu Orixek Amerikako bere lan guzti-guztiak ez bada ere, bai bederen gehienak eta nagusienak. Aldizkari horretan bere izena “geixko” agertzen ote den irudipena ere badauka Orixek²⁹. Zentzu honetan bederen, aldizkariarentzat berarentzat errentagarriago gertatu zen Guatemalan idazkari-zereginetan jardutea baino El Salvadorretik harako lanak igortzea, zeren haren lanek beren itzala egiten baitute erbestean bezala barruan ere. Euskal idazle garaienek ere mirespena diote. Amillaitzek (N. Etxanizek), adibidez, bera dauka maisutzat³⁰: “Zure idaz-lanak, beti maixu-lanak ditugu. Orregatik arreta aundiz jarraitzen ditugu zure esanak”. Jokin Zaitegik berak ere baieztapen bera edo antzekoa egiteko inolako erreparorik ez du³¹: “Idazle-mordo ederra dugu, ta guzian buru Orixe andia: egiñ-egiñean ere, Orixe orri-biko eginda dago guztia Amerika’ko eguaroan ta inoiz bezin mardul

²⁷ Ibid., 98.

²⁸ Ibid.

²⁹ “Zaitegi iaunarekin lengotik ari naiz. Alare, nere izena geixko ageri da oraindik E. G.’n” (Gutuna Martin Oartzabali, Zaragozatik Errosariora, 1951-11-5, *Karmel*, 1979-4, 62).

³⁰ *Euzko-Gogoa*, 5-6, 1951, 46.

³¹ Gutuna Martin Oartzabali, 1952-12-1, *Karmel*, 1980-2, 59.

idazten ari zaigu, osasuntsu ta bizkor”. Orixek, bada, El Salvadorreko bere egoitza berritik *Euzko-Gogoa* aldizkariaren lankide leial eta finko izanez segitzen du.

Jokin Zaitegi langile aspergaitza den arren, batetik, Orixe El Salvadorrera joana zelako eta, bestetik, 1951n bereganatutako “Landibar” lizeoko zuzendaritza-zereginetik hartuegia zeukatelako, denetara ezin iritsi eta, bere ardurapeko aldizkariaren argitalpen-datak atzeratzen hasi ziren, hainbestearino, ezen 1953an atera beharreko zenbakiak hutsik geratu baitziren. Atzerapen hauek zirela bide, “atertuko” ote zen kezka ere agertzen zituen Orixek bere egoitza berrian³². Jokin Zaitegi zuzendaria, ordea, bere lankidea baino baikorrago ikusten dugu “beaztopoak oro” gainditzeko gertu³³.

Andima idazkariaren bultzada

Jokin Zaitegi hain erraz etsitzen ez duen Kixote menperaezin horietakoa izaki, badirudi zailtasunen aurrean, kokildu ordeztu, hazi egiten dela. Dena den, berandu baino lehen, arrisku bizian dagoen proiektuari –bere asmo nagusiari– aurre egin ahal izateko, Jesusen Lagundian ikaskide izandako garaietatik adiskiderik minena zuen Andima Ibinagabeitiarengan zeuzkan ezarriak bere esperantzak eta harengana joko du laguntza-eske. Lizeorako ikas-materialak berak igortzen zizkion Paristik itsasoko nahiz aireko garraio-bidez³⁴. Berarekin batera Lizeoan eta aldizkarian lankide izateko proposamenarekin, lehen eske formala 1951ko abenduaren 24an egin zion, bidaiarako dirua igorriko

³² Honela dio Zaragozatik Errosariora Martin Oartzabal adiskideari egindako 1952-11-7ko gutunean: “Gure *E. Gogoa* gibelatzen asi da berriz ere langille urriz. Ez al da, behintzat atertuko. Oso ongi artzen dute gutarrak” (*Karmel*, 1979-4, 63). Hurrengo urte-bukaeran ere lelo bera errepikatzen dio: “Zaitegi oso atzera dabilla *Euzko-Gogoarekin*” (Gutuna Martin Oartzabali, 1953-12-5, *Karmel*, 1980-1, 35).

³³ “Nekez bada ere, aurrera goaz gure aldizkariarekin, beaztopoak oro itzuriz”, idazten dio Martin Oartzabali 1952-12-1eko gutunean (*Karmel*, 1980-2, 59).

³⁴ Velez de Mendizabal, J. M., op. cit., 83; gutuna Martin Oartzabali, 1953-12-5, *Karmel*, 1980-1, 35.

ziola aginduz³⁵. Antza, Andima Paristik Guatemalara eramateko asmoa Orixe El Salvadorrera joan orduko hartua zuen. Baina Andimak Miranderi 1951ko azaroaren 29an egindako gutunean irakurtzen denez³⁶, hark joan ezina agertu zion. Hurrengo hilean, abenduaren 14an, Zaitegiri egindako gutunean zergatik ez zuen harako bidea hartu zehazten zion³⁷: “Berri beltzak eman bearrean arkitzen nauzu gaur. Ia bi ilabete itxaron ondoren, IROk bere osterakiko ukapenik biribilena eman dit egun ontan. Ez nuen olakorik uste ere. Inguru guziak ukitu ditut, bai emen, baitare Geneven, bainan oro alperrekoak izan dira. Eskatu agiri guziek aurkeztu nizkien, ala ere alperrik. Azkenengoz eman didaten ukoaren zioa ‘Guatemalaratu zenbait erbesteturik gehiago lurralde orreitarra biali nai’. Orratx, ni behintzat, lapur aundi biren erdian gurutziltzatua. Jainkoak ez ote du nai ni ortarazerik?”. Orixek, antza, ez zekien azken gertakari hori eta, Martin Oiartzabali 1951ko azaroaren 5ean egindako gutunean³⁸, Andima Paristik Guatemalarako bidea hartua zuela jakinarazi zion, albiste okerra eman ez, noski. Hurrengo urtean ere deika ari zitzaion berriro Zaitegi eta Andimak, zer egin aholku eske, hauxe idatzi zion Nemesio Etxanizi 1952ko abenduaren 19ko gutunean³⁹: “Zaitegik Guatemalatik idazten dit bere ondora joateko ta joateko. Ba dakizu, Landibar Ikastetxearen jabe dala. Aurten beste bi artu ditu akuran, ikastetxea zabaltzeko, ikasle ugari baiditu. Ikastola artan irakasle bezala nai nau, eta bidebatez *Euzko-Gogoari* indar berriak emango geniozkala ere esaten dit. Egiten didan proposizioa ez da bat ere zokoragarria. Bainan ez dakit zer egin. Nere

³⁵ Velez de Mendizabal, J. M, op. cit., 84.

³⁶ “Nere Guatemalara joera? Ez dakit noiz izanen den bear bada inoiz ere ez, gauzak oker datozkida oraingo ontan behintzat” (Urkizu, P. <prest.>: *Andima Ibinagabeitia: Erbestetik barne-minez gutunak 1935-1967*, Susa, Donostia, 2000, 73).

³⁷ Gutuna Paristik Guatemalara, 1951-12-14 (Ibid., 77).

³⁸ “Ibinagabeitia’r Andima, Zaitegiren lagun ona, gaurgero Paristik irteten da Guatemalara. Laguntza ederra duke, eskolarako ere” (Gutuna Zaragozatik Errosariora, *Karmel*, 1979-4, 62).

³⁹ Gutuna Paristik Azkoitiara, 1952-12-19 (Urkizu, P. <prest.>, op. cit., 119).

adiskide mina duzu Zaitegi aspalditik eta lagundu nai nioke ikastetxean eta *Euzko-Gogoan* ere. Baina ortarako Euskalerritik urrunagotu bear. Zer egin bear nuke?”. Hurrengo urtean ideiak garbiago zeuzkan, antza, eta, gainera, bidaiarako agiri ofizialak eskuan, “gerturik nago zure ondora joateko, eta zure menpean lan egiteko” esanez idatziko dio 1953ko irailaren 29an⁴⁰.

Guatemalara iritsi, Andimak berak bertaratu berrian Jon Miranderi kontatzen zionez⁴¹, 1954ko martxoaren 16an iritsi zen, bidai gastuak Zaitegiren kontura ordainduta⁴². Parisen zazpi urte luzeak egin eta gero, azkenean, San Joseko itsas-portuan zain zeukan Jokin Zaitegi adiskidearekin elkartuko da. Honek baditu bere proiektuak eta hauek gauzatzen laguntzea izango da bere egitekoa. Zuzendariaren une hartako asmoak zein ziren? Zehazki biok: bat, erdi-itzalirik zegoen aldizkariari auspoa eman eta zenbaki atzeratuak egunean jartzea eta, bi, liburu-argitaletxe bat bideratzea⁴³. Lanari ilusio betez ekin bezain

⁴⁰ “Lengo batean Aparicio jaunarekin izan nintzan. Jaun au Guatemalako Kontsul orokorra da emen Parisen. Lendik ere Guatemalazteko baimena nere pasaporte-an ezarrita daukadala esan nion, baina urtebete igaro ondoren balioko ote zuen baimen orrek galdetu nion. Orko Atzerri-Ministerioan berriztea naiko izango zala erantzun zidan, eta gauza errexera ere izango zala (...) Len-bai-len erantzungo al diozu nere sos samin oni. Nik uste luzaroago ezin nezakela emen iraua. Etxera joan al banendi, etxerat joango nintzake, baina ezin zoritxarrez” (Ibid., 145).

⁴¹ Ibid., 158-159.

⁴² Zaitegiri 1953ko urriaren 30ean egindako gutunean aditzera ematen duenez, badi-rudi Zaitegi dela bidaiarako dirua aurreratzen diona: “Ilero omen dago itxas-ontzi bat le Havre-tik atera eta orko San Josea, hamazortzi egunean iristen dana. Zama-ontzia izan arren, kabina egokiak omen dauzka ibilaldia egiteko. Neretzako, orrelako ontzia egokia izango litzake. Orrako ostera \$390 dólara kostatzen omen da, beste zerga batzu gaineratuz, txikiak nunbait (...) Jakina aurreratuko zenidaken dirua, berriz eskuratuko dizut al dudan neurrian eta epean. Ori zer esanik ere ez. Aski duzu aurreratzea ere, txanponak irabaztea zuri ere izerdirik ugari kostatzen zaizu-ta” (Ibid., 147).

⁴³ Gutun berean aurreratzen dio zertara joana den hara: “Alare asi gera zerbait egiten euskal alorrean. Ba zuen Zaitegik ia bi urte ezkeroz, ezin antola zezakeen zenbaki bat, E.-G.rena alegia, dana naspildu ziotelako. Zenbaki ori antolatu dugu, 1952.eneko urtearen azkena izan dedin. Eraman dugu berriz ere linotipiz jo dezaten (...) Egun hauetan gure aldizkariaren zabalkunde aundi bat egingo dugu ludi

laster sortu zitzaizkion lehen oztopoak. Uda-partean, ekainean hain zuzen, estatu-kolpe antzekoa gertatu zen, eta jende askok iheska eta gordeka ibili behar izan zuen. Okerrena *Euzko-Gogoa* argitaratzen zeneko inprimategia miatu egin zutela matxinatuek eta bertan aurkitutako paper guztiak eraman egin zituztela, hauen artean, Andimak saminki dion bezala, “gure originalak”⁴⁴.

Batean arrazoi bategatik eta bestean besteagatik, azken batean, Orixeren garaian bezala, Andimak ere leku berean egin zuen estropozo, inprimategiaren funtzionamendu geldian, alegia, berak esatera, “emengo mandoak oso nagiak baitira”⁴⁵. Urte-bukaeran ere, Nemesio Etxanizi egindako 1954ko azaroaren 3ko gutunean⁴⁶, nazka-nazka eginda segituko du inprimategiko langileekin borrokan: “Ezin dut inolare burutu emengo irarle alperrekin. Oiekin burrukan jardutzea askoz ere nekegarriago zait patxaran exerita euskeraz idaztea baino. Zuek ezin dezakezue asmatu ere zer nolako buru austeak ditugun aldizkaria irarri ta ateratzeko. Orixek zerbait esango dizu ortaz”.

Guatemalako aldiari dagokionez, zer esan dezakegun? Hiru gauzatxo bederen, bai.

1. Gerraurretik hasita, hainbeste urte atzerrian zeramatzan eta bertako euskaltzaleekin harreman zuzenik izan ez zuen Jokin Zaitegik, batez ere, zeharka Orixeren ospearen eta zuzenean Andimak egindako

biribileko euskaldunak inarrosteko. Erantzunik izango dugula uste dut. Baita ere E.-G.ren inguruan argitaldari bat egingo dugu, bospasei liburu urtean argitaratzeko. Oriek dira Zaitegiren asmoak eta jakina, nereak ere bai. Gure gizona, baikor dago eta euskelzaletasunez kuin-kuin. Lanpetuegi dago, eta nik zerbait lagunduko diot, bananatan ez banaiz” (Gutuna Andimak Miranderi, 1954-03-25, *ibid.*, 158-159).

⁴⁴ Gutuna Miranderi Guatemalatik Parisa, 1954-08-10 (*Ibid.*, 167).

⁴⁵ “Baina gudu onek, gure aldizkariari buruz, kalteak ere ekarri dizkigu. Irakorlan geneuzkan bi zenbaki, eta an daude oraindik irartzeke: orra nundik berriz ere atzerapena, ta ez jakin noiz ukanen dugun aurrerapenik. Ari gera lenbailen ateratzeko aleginak egiten, baina emengo mandoak oso nagiak baitira, ez dakit noiz atera al izango ditugun” (Gutuna Nemesio Etxanizi Guatemalatik Donostiara, 1954-07-17, *ibid.*, 165).

⁴⁶ Gutuna Nemesio Etxanizi Guatemalatik Donostiara, 1954-11-3 (*Ibid.*, 173).

proselitismoaren bidez bildu zituela lankide berriak bere aldizkarira, berak ere etxekoanahoriet baitzituen. Andimaren etorrera erabakigarria gertatu zen, hainbestera, ezen berari esker lortuko baita bi urteko atzerapena zekarten 1952ko sei zenbakiak—1953koak zuri utzita— eta 1954ko bostak garaiz argitaratzea. Ez da marka kaskarra 1954ko urte-hasieran etorri eta urtea bukatzerako 11 zenbaki kalean jartzea. Mirakulu hori, gehienbat, Andimaren lan aspergaitzari zor zaio, Zaitegi erabat gaitzua aurkitzen baitzen. Elantxobearra laguntzera etorri izan ez balitzaio, *Euzko-Gogoa*-k izan zuen baino bizitza askoz laburragoa izango zuen. Bestalde, aski da Andimak Jokini egiten dizkion gutunak irakurtzea, oharretako etengabekoa dela Paristik eskaintzen dion laguntza, mota guztietakoa dena: batean Ikastetxerako materiala igortzen dio, bestean aldizkarirako lanak eta harpidedunak inguratzen dizkio, hurrengoan kuraiaz beteko du aurrera segi dezala esanez. Eta horrela. Berak, bere aldetik, beti idatziko du zerbait aldizkarirako. Jokinek berea zuen aldizkariaren proiektua eta, hein handi batean, berari zor zaio haren garapena; baina, Guatemalako aldiari dagokionez zehazki, esan behar da Andima idazkariak haren kudeaketan izandako partehartzea zuzendariaren parekoa bederen izan zela.

2. *Euzko-Gogoa* aldizkariaren atzean Jesuiten Eskola aurkitzen dela esan izan da. Gure ustez, zuzen esana, zeren aldizkarian parte hartzen dutenen artean, —lehen aldian, batez ere—, jesuita, jesuitagai edo ohi izandako dezente aurkitzen baita. “Euskal irutasun deuna” deitu izan zaio Orixek, Zaitegik eta Ibinagabeitiak *Euzko-Gogoa*-n osatu izan zutenari. Hauek ditugu ezagunenak, baina badira gehiago ere. Eskola honetakoak dira ezina egin bilakatzen dutenak: autore klasikoak, nola antzinatekoak hala modernoak, euskaraz ematea, alegia. Hauxe da Eskola honetako berezitasuna, bere Euskal Akademian eginkizuntzat ezarria zeukatena, eta guk hemen azpimarratu nahi duguna.

Izan ziren, halere, *Euzko-Gogoa*-ren lankidetzan parte hartzeari ezezko formala eman zioten jesuita euskaltzaleak ere, Jokin eta Andimarekin Euskal Akademian elkarrekin aritutakoak, hain zuzen. Hurbilekoenak izandako euskaltzale “mistikotu” eta esaneko hauek izango

dira, zalantzarik gabe, Jokini bihotzekorik handiena emango diotenak. Horietako bat, Aita Frantzisko Sarobe da. Honek bazuen ikerketa-lan bat egina, “Euskalerrria Yesukisto’ren garaian Strabon’aren arauz” izeneko, Andimak Jokini 1950eko urtarrilaren 29an esaten zionez⁴⁷, benetan sakona. Aldizkari-zuzendariak, artikuluegilearen oniritzia bazuelakoan, gehiago pentsatu gabe, *Euzko-Gogo*a-n argitaratu zuen⁴⁸, atalka eta “Amayur” izenordea erabiliz.

Asko espero gabe, hura zaparrada etorri zitzaiena! Bere nagusien baimenik gabe eta, beraz, bere borondatearen kontra ez dezatela bere-rik ezer argitara eskatzen die nola Jokini hala Andimari. Frankismoko garai hartan komentuetan bizi zen euskal giroaren kontrako lekuko historiko paregabea baita, osorik dakargu Aita Saborek Jokini egindako gutuna, dena gaztelaniaz idatzia⁴⁹:

“Muy querido amigo:

Me he enterado de que aquellas excelsas cualidades que le dio el Señor no se han eclipsado todavía: el dominio literario y el ánimo indomable con los que, incluso en una Guatemala sin colonia vasca, ha obtenido Vd. una revista redactada totalmente en euskera. ‘El desierto floreció’.

Pido al Señor que le conceda a Vd. un don todavía mayor, mucho mayor, el de renunciar, por su amor, y a favor de las almas por Él redimidas a su sobrepujante maestría del euskera y al afecto natural a su pueblo vasco para consagrar toda su persona a la salvación eterna de dos millones de guatematelcos casi del todo privados de sacerdotes.

Estas líneas que le dirijo han sido motivadas por una carta que he recibido de Andima: en ella me comunicaba que Vd. iba a publicar en

⁴⁷ “Makinaz biraldatzen ari nauzu gure adiskide dan Sarobetar Prantzekaren lan andi bat: ‘Euskalerrria Yesukristoren garaian Strabon-en arauz’. Gai ontaz sakonago eta egokiago inor ez da jardun izan, ezta erderaz ere. Inbestigazio-lan izugarria duzu (30 orrialde bete): oarrak oro eladeraz, orixe okerrenik, argitaratzeko. Dana dala, or bialtzen dizut *Euzko-Gogo*arentzako asikinak ditezen” (Ibid., 30).

⁴⁸ Lan hau lau emanalditan banatuta argitaratzen da 1950eko zenbaki-bilduman, 3-4 zenbakian hasi eta 9-10ean bukatu.

⁴⁹ Velez de Mendizabal, Josemari, op. cit., 91-92.

su revista un trabajo mío. Le he contestado que soy hijo de obediencia y que de ninguna manera puedo ni quiero que se publique nada mío sin censura y sin autorización de mis superiores. Tal es la voluntad de Dios clara y manifiesta. A mayor abundamiento le remito una copia de la carta que le he escrito a Andima. Ruegue por mí como yo ruego por Vd. Siervo en Cristo. XXXXXX”.

Jokin Zaitegiren erantzuna ere errespetuzkoa bezain zorrotza da, hotza bezain zehatza, mundukoak eta zerukoak puntuz puntu bere lekuan jartzen dituen horietakoa. Bakoitzaren argudioak beren argia izan dezaten, Zaitegiren arrapostua ere, luzeskoa den arren, osorik emango dugu. Hau, ordea, hura ez bezala, dena euskaraz idatzia da⁵⁰:

“Aspaldikoa:

Zure idatzia oraintxe bertan yaso dizut. Barkatu, euskeraz idazten ba’dizut, oituago bai-nago ortara egiten, eta len-bai-len erantzutea erabaki dut, zure gogoaren bakerako.

Yaungoikoari esker, *Euzko Gogoa* aurrera doa. Irugarren zenbakia aterea dugu. Euskaldunen gogoak ez ote dituzu Yesukristo’ren odolaz erosiak? Nik baietz uste. Erbesteratuen alde ere zerbait egin bear dugu-lakoan nago, oiek ere Yaungoikoaganatzeko, orkoak baño bear gorriagoa baitute.

Yaungoikoaren alde dagidan apurra, nire Nagusiaren baimenez egiten dut, nire Artzobispo yaunaren baimenez, alegia, ori baitut orain nire nagusi bakarra, Erromako Elizpuruaren mendean. Guatemalakoan alde zerbait egiten dudalakoan nagikizu: ikastetxe baten nagusi nauzu, naiz ta ikastetxea nerea ez izan. Beraz, diru-irabazterik ez dut opa, on egin baño. Ikastetxe Nagusian ere irakasle nauzu, apaiz bakarra bertan. Aurten, gañera, Instituto Nazionalean ere irakasle nauzu, or ere apaiz bakarra. Ta dan ori nire Nagusiaren erabateko baimenez. Egunero meza esaten dizut, naiz ta parroku edo kapellau ez izan. Zer gehiago duzu Guatemalakoan alde egitea?

⁵⁰ Ibid., 92-94.

Orko euskotarren alde beste orrenbeste egiten ba'duzu, nik uste, Yaungoikoak begi onez ikusiko lukela ta badakizu Elizaren agindua: Euskaldunei euskeraz. Zoritxarrez orko apaiz ta Lagundi aunitzek agindu ori ez dute betetzen, lurreko agintarien beldurrez edo koipekeriz. Yardunbide ori ontzat ote duzu?

Zure idaz-lanari buruz auxe diotzut: nik dagidana nire nagusiaren baimenez egiten dizut, beraz, zuk ere horrela egiten zenula nik uste izan nuk bearrik, Andimak bidali zidan zure izenean argitaratzeko eske. Zer egingo nizun nik?, egin dudana ta kito. Argitaratu zure izan eta guzti. Bakoitzari berea, baita zuzenbidea. Egia esan: noizbait ikusiko duzu gogo onez egin nula, ez zuri gaitzik ekartzearren. Batez ere Lagundiaren alde yokatzearren. Uts egin ba'dut, ez da izan yakinaren gañean. Ez orixe.

Nondik ateratzen duzu, ostera, nire Euskalerriarenganako maitasuna *naturala* dala? Zergatik ez uste izan izatez goitikakoa danik. Berretarrak ez al zitun Paul bidali deunak? Ortan utsik yarri al dezaioketu Bidali deunari? Ni gaiztoa izan-arren, Bidali aundi orren antzeko aleginka ari nauzu, nere txatxarkerian. Zergatik zapuztu Yaingoagandik iritxitako onaldeak? Zapuzte orrek zer onik ekarri lezake? Nik ez ikusten, itxuturik nago, nonbait, zure ustez.

Gure burua ta urkoenak gaizkatu, beste egitekorik ez dugu eguzkipean. Arritu zaitu Andima'ren esanak... *errukigabe gañera*. Zoritxarrez ala oldozten dute beste aunitzek. Nola, baña, oien gorrotoa suntsitu? Erderaz idatzita ez nik uste. Euskeraz oien biotzak errezago bigundu ditezke ta garbaitara ekarri. Ez al deritzazu... Nik baietz uste ta zu ere ortan zaudela uste dizut. Oroitu Andima ta lagunak bereak ta asto beltzarenak yasan bear ditutela gixagaixoak. Arrezkero, oiek ere onean iraun dezaten zerbait egin bear beren alde. Onbidean ez al nago?

'Orixe' Yaungoikoaren bideak barna dabil: lengoan, inolako olerki-mistikua bidali zidan argitaratzeko ta zure berri eskatzen zidan, idatzi bai-nion zure lan sakona argitaratzeko nintzala ta erabat pozik zegon, zuek oraindik euskaltzale zifiatela-ta.

Tamalgarría zuri gaitzik egin ba'dizut, ustekabeen izaki. Dana dala, abagune ederra izan dizut zure berri yakiteko. Eskarrik asko zure otoien

orde. Nik ere zure alde egingo, nitaz erabat aztuta zifñala beldur bainintzan.

Lagundikoengandik gorriak ikusia nauzu, zoritxarrez. Ez da arri-
tzekorik. Lagundia bat duzu ta lagunak beste. Inñori gorrotorik ez diot.
Biotzez barkatzen diet neri ere Yaungoikoak barkatu dezaidan.

Oraingoz besterik ez. Goraintzi ezagunei, or ezagunik ba'dut,
behintzat. Yesukristoren baitan zure otsein oni agindu.

Zaitegi ta Plazaola'tar Iokin".

Gutun horretan puntu asko samar dira guztiak banan-banan ale-
tzen hasteko. Nekez da, ordea, ohar-pare bat egiteke aurrera segitzea.
Hasteko, Josemari Velez de Mendizabalen liburutik jaso ditugun gu-
tun hauek ez dakarte data zehatzik. Martxotik apirila bitartekoak izan
bide daitezke, Jokinek hirugarren zenbakia aterea dela esaten baitio
eta, hain zuzen ere, 1950eko 3-4 zenbaki horretantxe ematen baitzaio
hasiera Saroberen lana argitaratzeari. Bestalde, ez da zuzena bere "izen
eta guzti" argitaratua agertu zela, "Amayur" izenordea baitator zenba-
ki guztietan." Andimak bidali zidan zure izenean argitaratzeko eske",
dio bertan Zaitegik. Andimak bazuen ala ez haren lana argitaratzeko
baimena? Hauxe da, hain zuzen, punturik garrantzitsuena eta, aldi
berean, ilunena. Sarobe eta Zaitegiren gutun-bidezko tirabira horien
ostean, xehetasun hauek ematen zizkion Andimak Jokini 1950eko api-
rilaren 23an⁵¹:

"Atzo, zure 11.eko idazkia eskuetaratu zitzaidan, baita ere berari
eraxkitako beste eskutitza ere. Gutxi edo ezertxo geitu nezaioke nerez
Sabore-auzia dalata. Argitara duzun ezkeroz ez dago atzera egiterik, ez
orixe. Lana eman zidanean, Sarobek ez zidan argitaratzea eragotzi. Ja-
kina, garai artan, ez zegoen argitaratzerik, are gutxiago Euzkadin. *Euzko-
Gogoa* sortu zenuanean, bat batean idazlan ortan oroitu nintzan eta
Parisera erakarri nizun. Zuri argitaratzeko bialdu-ala, Saroberi idatzi
nion berri pozgarria emateko, eskubidezko zenun, gainera, idazleari
gazitgatzea. Itzal-gaizka gai ortan jokatu nai izan banu, ederki nere

⁵¹ Paristik Guatemalara (Urkizu, P. <prest.>, op. cit., 34).

burua apaindu nezakean besten lepotik, eta bear-ba, Sarobek etzun lapurreta orren berririk inoiz izango. Bainan, zuk ederki diotsazun bezela, bakoitzari berea eta kito. Badakizu nolako erantzuna bidali zidan.

Arrituta gelditu nintzan, bainan ez nion gora andirik eman. Ametsetan ere ez nun sinistuko orrelako aldakuntzarik Saroberengan. Ludikoetaz eranzterakotan, euskeraz ere zearo erantzi bear ote zitzai-gun antzinako geure adiskide eta euskeltzale sutsua? Or bialtzen dizut atzo bertan igorri nion idazkiaren aldakia. Ez zitzaidan bat ere atsegin izan zuri idatzi dizun eskutitza. Nola bere burua ontzat edo deuntzat daukanak zapuztu ditzake urkolagunak? Sarobek bide aundi onbidean egin duela uste izan arren, erdirik ere ez du egin, nere gardiz. Erantzun ederra eman diozu eta ikasiko aal dute santutzarroko bear bezela oldo-tuz ta urkolagunak neurtzen”.

Hortik garbi zer ateratzen den? Dirudienez, lan hori lehendik berekin zeukan Andimak, Parisa ekarrazi zuen eta Saroberi gaztigatu zion esanez Jokinek bere aldizkarian argitaratuko zuela, ustez berri on bat ematen ziolakoan. Ez da inun garbi esaten baina, dirudienez, haren lehen artikulua argitaratzear zegoela edo, jaso bide zuten biek haren ezezkoa. Behin lehena argitaratuz gero, Andimak uste duenez, “ez dago atzera egiterik”.

Beste euskal jesuita, Peli Korta da, hau ere euskaltzalea eta talde berekoa izandakoa. Honek, Iruñako komentuko nagusiak hala agin-duta, Zaitegik bidaltzen dion *Euzko-Gogoa*, ireki ere egin gabe, etorri-tako bide beretik igortzen du itzulian. Jokin zur eta lur geratu bide zen gertatua ezin sinetsirik. Hainbestearino hasarretu zen Jokin, orduko azioa gerora ere ez ziola barkatu. Behin batez Miarritzen elkarrekin topo egin zuteneko unean gertatua honela deskribatzen du Peli Kortak 1980ko urtarrilaren 8an⁵²:

“Tamalez ni 1946.tik aurrera Iruñan bizi nintzan jesuiten buru-zagi eta eliz-nagusiak Frankorekin elkartuta; oso bildurrez josita bizi

⁵² Velez de Mendizabal, Josemari, op. cit., 94.

giñan ordu artan, gure eskutitz baita errevistak ere nagusien begiak aurretik ikusi bear zituzten.

‘No comprometan Vds. a la Compañía, a la Iglesia, con manifestaciones euskéricas..., no reciban –y si no devuelvan– las revistas sobre o con contenido euskérico’.

Ordu ontan Iokinek azaldu zuan bere *Euzko Gogo*a. Nik pozik jaso nuan berak bialdutako Ingo. zenbakia. Bigarrena neregana eldu zanean, ‘devuelva a su procedencia’ eta berriz arengana bialdu bear izan nuan, eta zuzenbidea nere eskuz eginda.

Nere izkia Iokinek ezagutzen zuan. Jaso zuean, arkaitza bere gain erori bazan bezala, erdi-lerduta geratu zan. Beñere olakorik etzuan uste nigandik... Geroztik ixil-ixil bera nirekin. Oso mindua zegon. Urteak igarota beñi batean Miarritz’en arkitu nun. Beregana jo nuan besarkada egin naiaz. Oso asarre zegon. Berak garbi azaldu zidan bere barruko ekaitza. Pakeak egin gabe, beste bat arte esan eta agur egin nion. Bere barruan ezin siñistu ere nik esandakoak. Eta egiz: etzan errexia adieraztea gure larri-aldea egun aietan prankoren-zaleen ondoan”.

Nolanahi ere, badirudi Peli Kortaren kasu hau zerbait desberdina dela, honek ez baitio uko egiten ez euskaltzaletasunari ez Jokinek daraman lanari. Nagusi frankisten esanekoa izatetik dator hasarre-bidea. Obedientzia santuak hala agintzen omen zielako jokutzen omen zuten horrela⁵³. Jesuitetan, beraz, obedientzia da hitz giltzarria, Orixeren auzian bezala, Peli Kortarenean ere oinarrizkoa izan zena. Amore eman ala ez, horretan zetzan eta datza arazoa. Euskaltzaleen kontra joateko, obedientziaren arma erabiltzea baino bide maltzurragorik ez zen eta, edozein erabaki hartzerakoan, horretaz baliatzen ziren nagusiak behin eta berriro. Honek esplikutzen du betiko lagun minak izandakoak zergatik eta nola urruntzen diren eta hasarretzen.

3: *Euzko-Gogo*a aldizkaria plataforma ezin egokiagoa da erbesterratuak eta ez-erbesterratuak bereizteko. Erbesteari buruzko hitzaldi batean entzun berriak gara frankismoak, lehen hamarkadetan, Euskal

⁵³ Sodupe, Pako (prest): *Andimaren idazlan hautatuak*, Elkarlanean, Donostia, 1999, 20.

Herri osoa bihurtu zuela erbeste-leku. Honela, nolabait ezabatu egiten zuen barrukoen eta kanpokoen arteko bizi-egoera desberdindua. *Euzko-Gogoa*-ren esperientziak garbi erakusten du gauza bat dela barne-erbestea eta beste bat, oso-oso desberdina, kanpokoez egiazki bizi izandakoa. Erbestea ezagutu duenak badaki etxeratu ezina ez dela minik txikiena. Diogunaren adibide garbia da maila pertsonalean Andimaren kasua. Aldizkari-mailan beste horrenbeste gertatu zelakoan gaude: euskal lurraldean egon zenean ere ez zuela egiazki etxeratzea lortu, alegia. Geroago aipatuko dugun hipotesia aurreratzera goaz, eta da, *Euzko-Gogoa ez* dela desagertzen Jokin Zaitetik kudeaketa desegoki eta zabarra eraman zuelako, barruko erakunde ofizialaren sostengua zuen *Egan*-ek lurra jan ziolako baizik. Barruko euskalgintza nagusitzen zaio erbestekoari. Hori da kontua, ez dakigu dramatikoa ala, soilki, halabeharreakoa. Itzuliko gaituzue puntu honetara.

Miarritzeko aldia (1956-59)

Jokin Zaitegi zuzendaria bera da *Euzko-Gogoa* aldizkaria Guatemalatik Miarritzera ekartzeko erabakia hartu zuena. Bi aldiz pentsatu gabe, 1955eko azaroaren 26an etxerako bidea hartu zuen⁵⁴. Ez dakigu noiz iritsi zen bere sorterrira, baina seguraski handik egun gutxitara, bidaia hegazkinez egin baitzuen, Madriletik barna. Aspaldiko partez, Eguberriak amarekin egingo ditu.

Baina zein arrazoik eraman zuten Zaitegi bere aldizkaria Euskal Herrian argitaratzera? Andima Ibinagabeitiarena den “Etxe-aldaketa” atarikoan, azalpen haxe irakurtzen da, ezagunena dena⁵⁵:

“Baina, zoritxarrez, ludi ontan mugagaitzik ez dago, zer guziak, ots, gizaki guziak, sorkari guziak alde batera edo bestera mugatuak dira, eta mugak, ain zuzen, goiz edo berandu bere sare artean atzematen ditu. Eta gure aldizkariari muga etorri zaio orain ari geran erri ontan

⁵⁴ Andimaren gutuna Jon Miranderi, 1955-12-23 (Urkizu, P. <prest.>, op. cit., 184).

⁵⁵ *Euzko-Gogoa*, 5-12, Orrilla-Lotazilla, 1955, 65.

behintzat, eta mugabear orrek beste mugarte batzu billatzera darama *Euzko-Gogoa* orain arte baiño kementsuago, bear bada, bere lanari lurralde berrietan ekiteko.

Aldizkariaren zuzendariak aberriratzea erabaki du eta berakin darama aldizkaria ere gure arbasoen kabira. Eta bearrezko zan. Nork ukatu lezaioke gure zuzendariari aberriratzetik, ia ogeitamar urtez aberritik landa gaztaroko urterik ederrenak euskararen alde erre ondoren? Antxe dauka bere amatxo, hantxe dauzka bere senideak eta antxe dauka gure lur puxketa mintsua ere aspalditik zai. Eta antxe dauka batez ere, ain gartsu, ain laztanki maite duen gure izkera, gure euskera xaarra bero eske, maitasun eske, laguntza eske. Eta ziur gaude gure zuzendariak, orain arte bezela, beroa, maitasuna ta laguntza emango dizkiola.

Ez du aldizkaria bertan bera uzteko asmorik: aintxe aberri naigabetuan, lekuaren gaiñean ikusiko du nola aurrera atera *Euzko-Gogoa* eta askabiderik arkituko dio korapillo maratilla zaillenen aurrean ere amor emateko gizona ezpaita, euskaldun maiteek laguntza pizkat ematen baldin badiote batez ere. Lankide batzu aberritik alde iraun bearran arkitzen gera ordea. Baiña sortuko litzaken tokian ez diogu *Euzko-Gogoari* arnasik ukatuko arazo ta indarrek utziko liguteken neurrian. *Euzko-Gogoa*'k gizaldi berri bat sortu du euskararen inguruan, eta gizaldi orri euskotar eta euskaldun guziok nora-ezean eutsi bear diogu, gizaldi orren auzi ta asmoak zoritu ditezefio, burutu ditezefio”.

1. Arrazoietakoa bat bederen, garbi adierazia dator hor: etxera nahia, alegia. Hainbeste urte atzerrian egin eta gero, herri-mina sentitzen du, lurraren deia, senideartekoen beharra. Batez ere, bere ama zeukan go-goan, etxean bakarrik bizi zena. Nahiz eta erbesteratu politikoa ez izan, zapalkuntza frankistaren beldur baitzen, badaezpada, etxeratzeak “oke-ririk” ekar ote ziezaiokeen galdetu eta gero, ezezko erantzuna jaso bezain pronto hartu zuen hegazkina. Amak batere ez zekiela agertu zitzaion⁵⁶. Amets bat, etxeratzearena, beterik zuen maila pertsonalean bederen.

⁵⁶ J. M. Velez de Mendizabalek galdetu ziolarik zergatik hartu zuen herriratzeko erabakia, honela erantzun zion: “Hona etortzeko asmotan nengoen. Ama bakarrik bizi

2. Zalantzarik ez da etxeratzeko amorratzen egongo zela. Baina berak emandako arrazoi hori, garrantzitsua izan arren, ez zen bakarra eta, agian, ezta erabakigarriena ere. Esanez gatozen bezala, larriak ziren aldizkariak Guatemalan zituen zailtasunak. Handik atera eta beste nonbait, Euskal Herrian bertan, adibidez, baldintza hobegotan argitara zitekeela esaten hasita zeuden lankide batzuk. Andimak A. M. Labaieni 1954ko abenduaren 21ean egindako gutunean jasotzen denez, Nemesio Etxaniz aldizkaria Lapurdin argitaratzea “merkeago ta bana-garriago” izango zelakoan zegoen. Andimak⁵⁷, ordea, bere koskak ikusten zizkion proposamen horri, zehazki biok: “Zuzendariek, zuzendari oso izan nai dute geienetan, eta gureari ere orixe gertatzen zaio; ori alde batetik. Eta bestetik aldizkariaren nekeak iasoko litukenik nun arki? Zuk ondo dakizu aldizkari bat bear bezela eramatea zail xamarra dala, euskera utsezko aldizkaria batez ere, eta eramango lukenak euskalzale gartsu ta kementsu bearko luke, bestela kito”. Andimaren gutun berean datorrenez⁵⁸, Zaitegik ezezko jarrera tinkoa agertuko du asmo horren aurrean: “Non argitarazi asmaketan aldirik ez dut lorrindu nahi. Bizi ta ogibidea emen dauzkadan ezkerero, oraingoz emen argitaraziko dugu aldizkaria”.

Orduan, beraz, aldizkaria lekuz aldatzearen kontu hori bere hartan geratu zen, aipatu arrazoiengatik Guatemalako kudeatzailei bide-raezinak iruditzen baitzizaizkien Euskal Herritik –antza, Etxaniz eta Labaienen bidez– bertara eramateko zetozkien proposamenak. Baina hurrengo urtean, aldizkariaren egoera ekonomikoa txarrera zihoala ikusirik, urtebete lehenago irtenbide desegokitzat jotakoa bakartzat

zen eta honek pentsatzera behartzen ninduen. Amari idatzi nion behin baino gehiagotan asmoa jakinaraziz. Baina amak ez zidan inoiz zuzen erantzun. Pablo Urrutiak, nere lehengusua, Jaime Kerexetarengana jo zuen ni hona etortzeak okerrik ekarriko ote zuen galdezka. Bere erantzuna ‘ezetz’ izan zenez batbatean azaldu nintzen Arrasatera, Madriletik nentorrela, amak ezer jakin barik. Nire amaren poza!” (*Iokin Zaitegi*, op. cit., 115).

⁵⁷ Ibid., 115-116.

⁵⁸ Ibid., 116.

onartu beharrean aurkituko dira biak, zuzendaria nahiz idazkaria. Harrez gero, bakoitzak bere bidea egingo du.

Euzko-Gogoa aldizkariaren lekuz aldatzea, Guatemalan sei urte egin eta gero gertatzen da. Ordurako aldizkariak bazuen zerbeit ondurik. Andimak leku berean dakarrenez, epealdi horretan hainbeste idazle eta hain garaiak bereganatu dituen euskarazko beste aldizkaririk ez bide da izan⁵⁹:

“Zer egin du, ordea, gure aldizkariak bide ortan? Bildumari gainbegiratu bat eman besterik ez daukagu zer egin duen ikusteko. Lenik eta bein euskerari ifiolako esirik iarri ez. Ez du esparru extuetan erabilli aberri izkera: orain arte amestu ere ez zitun zabal-uneak ireki dizkio eta euskerak ederki erakutsi du zabalune ez-oitu orietatik edonungo izkerak bezin txairo ibilli zitekela. Lan zoragarri ortarako euskal-urregin argienak bildu dira. Luma bikaiñenak antxe ari izan zaizkigu euskeraren barne-ondasunak azaleratzen eta bidenabar gaitasunak nabarmentzen.

Irurogeitamar urregin batu ditu aldizkariak bere orrialdeetan. Nungo beste aldizkarik alkartu ditu hainbeste euskal-idazle? Orain arte behintzat, guk dakigula, batek ere ez. Eta gerorako ere, lurralde ontan agertzen dan azken banakoan beren euskal-maitasunaren neurria erakutsi nai dute idazle azkarrok”.

Andimak bazuen pozik sentitzeko arrazoirik, ez baitzen batere aise hain denboraldi laburrean 70 lankide biltzea, berak dioen bezala, ez nolanhikoak, gainera, bikainenak eta argienak baizik. Mingarriena, agian, elkarrengandik aldendu beharra gertatuko zaie. Herriratzen lehena Orixe izan zen, 1954an, eta Guatemalara joan zitzaien agur esatera. Hurrengo urtean, Zaitegi bera izango da etxerako bidea hartuko duena.

3. Arrazoi politikoengatik etxeratu ezinik geratuko den erbesteratu bakarra, Andima da. Honek Eguberriak Caracasen bere ilobaren ondoan egiteko kutizia zeukan eta bizitzen bertan geratzekoa, baina oraindik bidaia bizpahiru hilabete atzeratu beharrean aurkituko da. Izan ere, Zaitegik Arrasaterako bidea hartu zuenean antolatzeke utzi

⁵⁹ Ibid.

baitzituen “zenbait ertz”, bere kudeatzaile Andimaren esku utzi zuen Landibar lizeoko kontu guztiak garbitu eta ordainketak egitea⁶⁰. Hauek guztiak egin eta gero, jasotako dirutza Zaitzegiri bidali zion, esanez artean bazela beste dirutza bat ere kobratzeko geratu zena. Guatemalatik Arrasatera igorritako 1956ko otsailaren 14ko gutunean xehetasun hauek ematen zizkion⁶¹, bere osotasunean transkribatzen ditugunak:

“Atxikita bialtzen dizkizut kontu guztiak, il ontakoak ez. Izan ere il ontan egin dudan bilketa, urria izan da eguno bada! Eun eta akats, nere eralketak ordaintzeko ozta, bada egunotan bestetan baino gehiago eralgi dut, ez dakit zer dala-ta. Mameme-ri eskura eman dizkiot dagozkionak, eta pozik gelditu zan, ezpaizitun itxaron. Kontuetatik ikusiko duzu zenbat tokatu zitzaion. Nerekin joango da San Salvadorra ostegunean, bidenabar.

Zure kitatxoa gaur igorri dizut laurlekotan aldatua Credit Hipotekariaren bitartez. Laister jasoko dituzu nunbait. Mila berreun eta iru-goitamabi dollar dituzu, ingi muturrak dakarren aldaketan. Ez da asko, baina ez dira astantzekoak. Lanak eman dizkit zeregin onek, bainan ezin nindeke kexatu, onturrak ere eman baidizkit, ikusiko duzunez. Beraz oraindik, digorkizudan ingitik dakuskezunez, bi mila irureun eta berrogeitamabi gelditzen dira biltzeko. Egiteko ori, Mamemeri galdetu ondoren, zadorlariari utzi diot euneko amarren alderako. Kontu berezi bat irikitzeke esan diot, eta diruok, bildu-ala an sartzeko, zuen artean banatzeko. Zerbait jasoko du, dana ez dut uste, bada dakizunez nagiak orain ere nagi diraute eta kontu zarrak beti txarrak. Ala ere ez da galtzekoa domu ori, eta aleginak egingo ditu zadorlariak batzeko”.

⁶⁰ Aldizkariak etxex aldatzean, Andimak Caracasa bere ilobarengana joateko asmao agertzen du, baina oraindik Guatemalan zergatik aurkitzen den azalduz, zehaztasun hauxe ematen dio Jon Miranderi 1955-12-23ko gutunean: “Europaratzekoan gure apaizak zenbait ertz antolatzeke utzi zituen, eta ertzok atontzeke emen gelditu nintzan; ez ditut, noski, otsaila bainon lehenago konponduko, beraz orduraino emen egon bearko dut” (Urkizu, P. <prest, op. cit., 184).

⁶¹ Ibid., 185-186.

Guatemalako kontu guztiak garbitu eta gero, diru askotxo bildu zuen: berarekin sakelean ekarriak 60.000 dolar⁶², gehi Andimak igorriak 1.272 eta hartzekoak 2.350, hemendik idazkariarekin banatzeko % 10 kenduz. Beraz, batezbeste, 63.500 dolarretik gora. J.M. Velez de Mendizabalek ateratako kalkuluen arabera, “garai hartarako 100 urteko soldata izan zitekeen” dirutza hori⁶³. Bazen zer bait garai hartarako. Baina eginak, berak eginak zituen Landibar lizeoari esker. Jakizue saldatutako urtean, 1955-56 ikasturtean, 230 ikasle zebiltzala bertan ikasten eta horietatik 25 barrukoak zirela⁶⁴. Baina salmentarekin irabazitako guzti-guztia euskararen faboretan xahutuko du, sosik gabe gertzeraino.

Behin baino gehiagotan esanak gaituzue Zaitegi eta Ibinagabeitia aspaldiko lagun minak zirela. Esanak egia izan ezinik ez du. Baina bakoitzak bazekien ondotoxo zein zen bere lekua, nor noren esaneko zen. Diru-kontuak zirela eta, izan zuten nonbait ezadituren bat, Andimak idatziz –ez ahoz– garbitu nahi izan zuena 1955eko azaroaren 25eko gutunean⁶⁵:

“Aspaldi eztala, zure adiskide ta nere ezagun batek, Atutxak alegia, ia mila dolar esku-erakutsiz eman zenizkidala esan zidan, zeorrek esan zeniola-ta. Ia mila orietan Mameme-n borondatez eman bosteu-netaz gainera ibilaldirako igorri zenizkidan berreun dolarrak sartzen zenitun nunbait.

Adiskideak adiskide ta garratzak garratz esan oi da gure inguruko errialdeetan. Ondo dakit diru-kontuetan garbizale zerana. Ni ere bai. Beraz, anbiolako lareun, dolarron zorra ondo garbituta dagola erakutsi nai dizut. Ara:

⁶² Velez de Mendizabal, J. M., op. cit., 117.

⁶³ “Jokin Zaitegi”, Euskal erbesteratuen kulturari buruzko biltzarra, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunea, 2000-11-7.

⁶⁴ Gutuna Andimak Zaitegiri, 1956-02-14, Guatemalatik Arrasatera (Urkizu, P. <prest>, op. cit., 186).

⁶⁵ Ibid., 182-183.

Aurtengo (1955) ilbeltzean, ez nun ile-saririk jaso. Argi dago liburuetan ere. Azil-Lotazilaretan ere ez. Azken bi ilabete auetako il-saria ukatzeko eman dituzun zioak, ez lukete inortxo konbentzituko, Be-laustegi bera ere ez; irakurri nun Mameme-ri egin zion eskutitza dirugarbitasunak azalduz. Jabeak jabe ta morroiak morroi; ez ditezke ein berean ezarri. Orra or kontua:

1955.eko Ilbeltzean	75
1955.eko Azilekoa	75
1955.eko Lotazilekoa	75
Urte guziko ikastolak (13 dólar, azpitik)	186
<hr/>	
Guziz	411

Orra \$400 dolarren zorra gonburuz garbituta, azterketa-eskubide ta orrelako beste txatxarkeriak zenbatzeke.

Ez al zera minduko eskutitz au irakurtzean, ez nuke nai behintzat. Zorrak garbitzeko asmoa besterik ez dut izan. Eta diruon atzetik nabilela uste ez zenezan ez dizut lenago gutun au egin. Bego, beraz, lareun dolarron zorra garbi, eta kito”.

Gutuna ia osorik transkribatu dugu, hor garbi ageri baita, biak lagunak izanik ere, nor den jabea eta nor morroia. Goiko pasarteak irakurri eta gero, zalantzarako biderik ez da bi maila horiek bereizten zituztela. Horrek ez du kentzen elkarren artean konfidantzarik ez izatea, zeren bestela ez baitzion emango azken kontuen garbiketa egiteko ardura. Ikusia dago diruak ez bide duela lagunik.

“Bost urtetan ez da nornai aberasten” esanez esan zion agur Orixek Guatemalari eta eskerrak ematen zizkion Zaitegiri han irabaziak berari zor zizkiolako. Andimak ere milesker esaten dio, “nere burua aurrera ateratzeko bidea eman didazulako”⁶⁶. Bi hauen poza ez da dirua, bidaiarako ere nolabait biltzen baitute, *Euzko-Gogoa* aldizkaria

⁶⁶ Gutuna Zaitegiri, 1965-02-14 (Ibid., 187).

goren mailara eraman izana baizik. Orixek aldizkari horren 1954ko 64 lankideak txalotzen zituen eta Andimak, halaber, 1955ean 70 izatera iritsi ziren beroriexek. Hauek genituen bi horientzat eta, bereziki, Zaitegirentzat egiazko altxortzat har zitezkeenak. Euskarari hain ziren emanak, ezen nekez baita hiruetan zein zen Kixoteena esatea.

Andima, Guatemalakoak bukatuta, 1956ko otsailaren 16an iritsi zen Caracas⁶⁷. Ezinbestez, oso bere gogoz kontra, atzerrian, hiriburu horretan, hain zuzen, utziko ditu bere hezurak 1967ko azaroaren 2an. Alde horretatik bederen, zorte hobea izan zuten Orixek eta Zaitegik, hauen gorpuak euskal lurak hartu baitzituen bere sabelean. Sentimentukeriak, esango da. Utikan! Erbestearen garratza bere sakontasunean bizi izan duen batentzat horrelako esperientziak serioegiak dira aintzat hartuak izan ez daitezten.

Jokin Zaitegiren bakardadea Miarritzen

Guatemala uztean, Jokin Zaitegi esperantzakor zetorren etxera, bere hurbileko lagunek agindua baitzioten Eusko Jaurlaritzatik ukanen zuela *Euzko-Gogoa* argitaratzen segitzeko adina laguntza. Arrasaten dagoela, bere aldizkaria argitaratzeko lehen urratsak ematen hasten denean, ohartzen da sinestarazi zizkioten agindu haiek ez zirela berak uste bezala betetzen ari. Andimari 1956ko ekainaren 14an egiten dion gutunean⁶⁸, minduraz aitortzen dio Hego Euskal Herrian Guatemalan baino nekezago egiten ari zaiola aldizkaria argitaratu ahal izatea. Etorri berrian, Jose Migel Barandiaranek eta beste zenbait lagunek lanean hasteko esaten diote eta hastapeneko bere baikortasun hartan zenbakiko gutxienez 2.500 ale kaleratzeko ametsak ere egiten ditu. Baina lagun

⁶⁷ Gutuna Zaitegiri, 1956-02-24 (Ibid., 187).

⁶⁸ “Ezina danik oraindiño enizuke esan nai, baiña bai Guatemala’n argitaratzea eun bider errezago zitzaigula emen baiño ta emengo ainitz ta agitz okerrean zirala gure lanari buruz. Oien esanetara makurtuaz etorri nintzan: zer egiteko? Eztakit, naiz ta inor baiño zoliago ari izan bai eliz-agintariekkin, bai erriko nagusiekkin” (Velez de Mendizabal, J. M., op. cit., 116).

aholkuak eta hitz on horiek administrazio-mailako arazoekin topo egin bezain azkar hasiko dira desagertzen eta bera ere, Andimari aitortu bezala, uzkurtzen hasiko da, gero eta larriago. Lehenengo porrotean etsitzen ez duen horietakoa izaki, zazpi hilabete luze eramango ditu han eta hemen aldabak joz, handikiez lagunduta. Euskaltzaindiko Antonio Arrue karlistarekin mintzatu zen, Bilboko Gurgide gotzainarengana ere joan zen birritan eta, hauek huts egitean, azken helduleku gisa, Salamancan Tovar jaunarekin ere hizketatu zitzaigun. Baina alferrik. Azkenean, aldizkaria argitaratzeko inondik ez baimenik ez laguntzarik ez zetorkiola ikusirik, aldizkariaren argitalpena Baionara eramatea erabakiko du⁶⁹.

Horregatik, Hego Euskal Herriko egoera politikoa zen bezalakoa izanda, konbentziturik baitzegoen legalitate espainolean euskal pentsamendu landu eta askearentzat ez zegoela lekurik, oraingoan bai, etsi-ago, bere asmoak aurrera ateratzeko geratzen zaizkion bere esperantzakondarrak Eusko Jaurlaritzaren baitan ezarriko ditu, lagun-laguna duen Jose Antonio Agirre lehendakariaren baitan, batez ere. Honak lagunduko zion esperantzarekin etorria zen. Honela, Hego Euskal

⁶⁹ Jakingarriak dira Zaitegik berak ematen dituen xehetasunak: "Guatemalatik iristean *Euzko Gogoa* ateratzeko asmoa nekarren. Baina ez nenkien nora jotzen (sic). Euskalzain zen Arrue karlistarekin mintzatu nintzen eta Madrileko ministrari batekin hitzegingo zuela agindu zidan. Joxemiel Barandiaran eta beste zenbaitekin ere izan nuen harremanik eta hasteko esan zidaten. Giro baikor hau ikusirik aleko gutxienez 2.500 izeki ateratzea erabaki nuen. Dena dela, laster hasi ziren 'bainak'. Bilboko gotzainarekin, Gurgide zen orduan, egon nintzen bi bider. Eskabidea eraman nion aldizkaria atera ahal izateko baimena eman liezaidan. Aita Arriola ondarrutarrari erakutsi nion aurretik idazkia. Au irakurritz gero ezin du ezetz eman baina ezetz esango dizu izan ziren nere lagun horren itzak. Baita honela gertatu ere. Agintarien esku ei zegoen aldizkariak atera ahal izatea eta eliz-gizon haundiok ezer ezin omen zuten horretan. Hemengo fruitua zein zen ikusirik Salamankara jo nuen, Tovar jaunarekin hitzegiteko. Larramendi irakas-aulkiaren babesean ele-eder gehigarri bezala edo eman ote litekenentz ikusteko. Tovar-ek Madrilera bialdu ninduen harrera ezin hobea egin ondoren. Nahiz eta bere erreferentzia eta Aita Arriolari Bilboko alargun haundiki batek emandako txartela sarbide bezala eraman hitzak hitz gelditu ziren. Zazpi hilabete itxoegiten emanda gero aldizkariaren argirapena Baionara eramatea erabaki nuen" (Velez de Mendizabal, J. M., op. cit., 117-118).

Herrian zer eginik ez zegoela eta, Miarritzera aldatu zen bizitzera, han etxe bat alokatu eta bere asmoak aurrera eramateko asmoz. Etxeko lanetarako Parisen neska aurkitzen zen Lemoako Pelikane Arrese ekarri eta, eguneko zereginak diziplina handiz antolatuz, aldizkaria argitaratzeari ekingo dio 1956ko udan. Bigarren aldi honetako lehen zenbakia, sakelarako neurrikoa, Baionako *Darracq* inprimategian argitaratu zen. Mila ale guztira.



Miarritzeko Aillet kaleko 16. zenbakian dagoen "Gaby's Cottage" izeneko harrizko etxe honetan bizi izan zen Jokin Zaitegi hiru urtez (1956-58)

Zenbaki horrekin, bada, Jokin Zaitetik jarria zuen martxan bere aldizkaria. Handik laster, 1956ko irailaren 23tik urriaren 1.a bitartean, Jose Antonio Agirre lehendakariak egindako deiari erantzunez, Parisko Euskal Batzar Nagusian oposizioko indar errepublikarrak elkartu ziren, atzerrikoak zein barrukoak. Eusko Jaurlaritzak zuzenduriko politikagintzan nabari zen krisi orokorrari erantzun nahi zitzaion eta hausnarketarako hiru sail nagusi hauek zeuden proposatuak: hots, politikoa, ekonomikoa eta kulturala⁷⁰. Batzar hau *Euzko-Gogoa* aldizkarikoentzat parada ezin hobea gertatuko da, beren asmoak azal ditzaten. Batzarra egin aurretik, Andima Ibinagabeitia izan zen, oraindik Guatemalatik, 1955eko lehen zenbakikoan gai honi atariko eskaini ziona, “Euskal Batzarrea” izenarekin. Euskal Herriaren lehenak eta etorkizunak baino gehiago, haren orainaldiak kezkatzen zuen aldizkaria. Begiak iriki eta, euskal nortasunaren zeinurik behinenak han-hemen gainbehera zihoazela egiaztatzen zuen⁷¹: “Euskera lurgaltzen, enda lurgaltzen, oiturak lurgaltzen. Ikuskizun deitoragarria benetan begi-aurrean dagerkiguna, euskal-biotz zurrunena puskatzeko aifiakoa. Ezagunak ditugu noski, galtze orren zergatikoak, ala ere sakonki aztertu bear ditugu osagailu eginkor eta eraginkorrenak billatzeko”. Oraindik ere euskarak baduela etorkizunik uste baitu, hauxe da Parisen batzartuko direnei igortzen dien meua⁷²:

“Iarri ezazute euskeraren auzia bear dan maillan, aintzat ar ezazute mota guzietako euskotarrak bilduko zeraten ezkerero. Izkera alderdi guztien gaiñetik dago, euskeraren auzia ez du politikak andeatu bear (...) Oraindik badu kemen gure izkera ederrak dagozkion gaindegietara igoteko. Bide egin bear diogu ordea, eta bide ori iñun baiño obeto aipatu batzarre orokor ortan egin genezaioko ta egin bear diogu. Ordu

⁷⁰ Eusko Jaurlaritzaren hogeigarren urtemuga ospatzeko xedearekin burutu zen Batzar Nagusi hori Parisko “Palais Quai d’Orsay” hotelean. Hori ofizialki. Egiazki, ordea, ospakizunaren topagunea baino gehiago, euskal politikak bizi zuen krisiari erantzuna eman beharrak eragindako Batzarra izan zen.

⁷¹ *Euzko-Gogoa*, 1-2, Ilbelta-Otsailla, 1955, 1.

⁷² *Ibid.*

da euskerari eutsiko dion eralguntza, aberrian bertan eutsi ere, mundu guztiko euskotar eta euskaldunen artean antolatzeko. Eralguntza opa-garri orren zimenduak eta iauregi sendoa ere eusko-batzarre ortan erai-kiko al da!”.

Goiko aipu horretan ikus daitekeenez, euskararen auzia herritar guztiena denez gero, euskalgintza suspertzeko finantzaketaren ardua bere gain har dezala eskatzen dio Batzar horri. Hauxe da *Euzko-Gogoa*-ren zuzendaritzak, izenpetzen ez duen Andimaren bidez, pensatzen duena. Baina Batzarrera agertzen dena, Guridi da, –Zaitegi jauna, alegia–, bera baita jadanik aldizkaria Miarritzen argitaratzen jarraitzeari ekin berri diona.

Kultur sailean, honen hitzaldia izango da, zalantzarik gabe, hausnartuen, jakingarrien eta, noski, baita eztabaidatuena ere. Agian jadanik Guatemalan Andimarekin batera landuta, euskararen aldeko plangintza oso zehaztua dauka. *Euzko-Gogoa* aldizkariari segida emateaz gain, eta honen inguruan, Baionan bi proiektu erraldoi bideratzeko asmoa aurreratzen du, zeinak baitira Euskal Idazleen Elkarte sortzea eta honen ondoan Euskal Unibertsitatearen lehen urratsak ematea⁷³. Atarikoetan askotan dator –dozenerdi bat aldiz,bai–, euskara Ikastetxe Nagusirako prestatu beharraren kontua. Etxeratu eta gazteri berria jalgitzen ari dela ikustean, hasieran baino ilusio handiagoz eutsi zion isioturik zuzi berari⁷⁴: “Alare, gai zailenetarako ere egokiarazi bear dugu gure euskera, nik uste. Gaztedi buru-iantzi ori bere gaiak, bere kezkek eta irrikak oro euskeraz adierazten asi ta euskerazko ikastetxe nagusia dukegunean, euskera biziko da zoli ta ozen, sendo eta gordin, gozo ta zoragarri. Ori ezean, euskera beti izango dugu il-zorian”.

Baina azken bi asmo horiei buruzkoa gerorako utziz, gatozen berriro aldizkarira, honetaz dugu solasa eta.

⁷³ Iztueta, Paulo: *Orixeta bere garaia*, op. cit., 978-981.

⁷⁴ “Atariko”, *Euzko-Gogoa*, Epaila-Iorrraila, 1956, 2.

Aldizkariaren desagerpena

Jose Antonio Agirre lehendakariak erdi-isilka agindu bezala, Eusko Jaurlaritzak hainbateko diru-kopurua luzatu zion, ez dakigu zenbatekoa, etxe-alokairua eta aldizkariaren zenbaki oso baten argitalpen-kostuak ordainduz. Alabaina, Andimari 1957ko abuztuaren 8an egindako gutunean, aldizkariak irabazpiderik ez zuela sortzen eta dirua erretzen ari zela esaten zion. Arazo nagusia, salmentarena zen, antza, Donostiako prentsa-arduradunek ez baitzioten aldizkaria Hego Euskal Herrian banatu ahal izateko baimenik ematen. Horretarako ondoko baldintza biok betetzea eskatzen zioten: hots, bat, izenez aldatzea, eta bi, inprimategira eraman aurretik Madrilen testuen gaztelaniazko itzulpena aurkeztea. Ez baitzegoen zentsura frankistari men egiteko prest⁷⁵, aldizkariaren zabalkundea Hegoaldean isilka egitea erabakiko du. Bestalde, nola pasaportea Guatemalakoa daukan, hura berri eta aurrerantzean ere mugaz bestaldera joanez segi dezan, harako bidea hartuko du 1959ko urrian, han bere egoera legezatzeko asmoz. Hango euskaldunek diru-puska bat emanda eta bertan harpidedun berri batzuk eginda, *Euzko-Gogo*a egunkari bihurtzeko ametsik ere egingo du bere euforiaren betean. Aupada horrek, ordea, oso denbora gutxi iraun zion, bi kausa zirela medio. Lehenik, Jose Antonio Agirre 1960ko martxoaren 22an hil eta haren ordezkio Jesus Maria Leizaola izendatzean, Eusko Jaurlaritzatik zetorkion laguntza galdu egin zuen⁷⁶. Bigarrenik, aldizkari-aleak mugaz bestaldera pasatu eta Hegoaldean banatzeko bideak ere bilatu zituen, “gauetzko lana” –hau ordainduazein barruko euskaltzaleen “sare sekretua” antolatuz. Sistema honek ere bere arriskuak baitzitu, ez zuen behar bezala funtzionatu eta, ondorioz, aldizkariaren autofinantzaketa bermatzeko modurik ez zegoela ikusirik, azkenean, zentimorik gabe geratzean, ezinbestez,

⁷⁵ Aldizkaria Hegoaldean legez saltzeko baimena lortu nahi du, baina Andimari 1957ko abenduaren 20ko gutunean esaten dionez, “Prankotarren oin kiratspean ibili gabe” (Velez de Mendizabal, J. M., op. cit., 122).

⁷⁶ Ibid., 116-117.

makurtuko du burua. Etsita, herritarren jokabideaz kexu, hauxe idatziko dio Andimari 1960ko maiatzaren 15ean⁷⁷: “Aurrera iarraitu nai nuke, baina, diruaren auzia ariltzekorik ez da ageri gure artean, zoritxarrez”. Hau idaztean, inprimategian zegoen azken zenbakia izango zena, azalean data hau zekarrena: “Imprimé en Juillet 1960”. Atzeratua zetorrenez, 1959ko martxoa-ekainari zegokiona zen.

Miarritzeko 4 urtealditan 17 zenbaki atera ondoren ixten da *Euzko-Gogoa*-ren bilduma. Desagertzearen arrazoa adierazia zion Andimari lehengo gutun horretan bertan: “E.G.k ezin lezake iraun diru-ezagatik”. Zenbakiko 1.000ko tirada egin eta dirurik jaso ez, beharko porrot egin.

Lehenago ere bai, baina, batez ere, 1950eko hamarkada-bukaeran hasi zen handitzen eta handitzen Jokin Zaitegiren bakardadea. Atzerrian hainbeste urte egin zituenak orduan sentitu zuen bortizkie-rik bere barne-erbestearen mindura. Hain berea zuen aldizkaria galduta, norakorik gabe eta porrotaren sentipena barne-zulaka, berriro Guatemalara joateko erabakia agertu zion Andimari 1961eko urriaren 13ko gutunean, baina oraingoan, euskal gaiak utzita, eliz lanak egite-
ra joango da⁷⁸:

“Erabaki gogorra, benetan, besterik ordea enukean. Ezin E.G. argitarazi, dakizunez: Agirre il zan ezkerozko etxe-alogera ordaintzea Leizaola’k bere gain artu arren, eztut txakur txiki bat oraindik iaso ortarako: mila dolar-edo dira. Enoa besterik aipatzen, negarti naizen uste eztezazun. Esan dizudan ori ere bego gure arteko. Beraz, auxe eskatzera ausartzen natzaizu. Badakit zu ere estu ta larri zabiltzana. Non-dik edo andik 500 edo 1.000 dólár aurreratuko dizkidan inor arki al zeneza? Gero ordaintzekotan ordea: euneko onenbeste irabaziz ba’dadi ere, berdin zait. Len-bai-len bear baititut, emengo zenbait zor ordain-duta, nere osterari ori antola dezadan. Nai ainbateko astakeriak esan dit-zakezu nere aurka. Asmoz eta gogoz lengoa nauzu eta euskaltzale eta

⁷⁷ Ibid., 123.

⁷⁸ Ibid., 163.

abertzale bezala edonorekin nere burua alderatzeko gertu, bai baitakit edonor aiñako naizena: baiña besterik ezin dut erabaki”.

Andimaren erantzuna 1961eko azaroaren 26an egindako gutu-nean iritsi zitzaion, ez batere pozgarria. Gaiari dagozkionak bakarrik transkribatuko ditugu⁷⁹:

“Eta argi bezin garbi azaldu nai dizut gaur nere aleginen porrota. Iruzpalau emengo dirudunei zure eskabidea aurkeztu diet, bainan ukoa besterik ez dut jaso aien ezpain zikoitzetatik. Xurikeriz gantzutu-tako ukoak, esan bearrrik ere ez, bainan ukoak. Ez da errexa bizi geran garai auetan mila dólár emen ateratzea. Nik ez ditut, bestela neronek bialiko nizkizun, eske ibili gabe. Gure etxeokoe ere, bolada ontan, oker samar dabilta. Lore dabilkigu makal samar, lanera gabe, eta inguratzten dituten diru guziak ez dira aski bizimoduari custeko. Ez dakizu ondo zenbateraino garestitu dan emen bizitza demokrazi xeblebre onekin. Erostatk eta akiakulak, esango duzu. Zuk ere nai dezuna esan deza-kezu, bainan egia orixe da, garratza baldin bada ere. Emengo dirutsuen artean zure adiskide Lasartearrak dituzu. Zergatik ez zera aiengana zuzentzen. Bear bada, zerbait iritxi zenezake, zeorrek zuzenean aieri idatzi-ta. Ez bitartekoeekin ibili, oiek kaltegarriak izaten gaituzu geie-netan. Orra esan, ontaz esan gogo nizun guzia. Landaburu jauna emen dagoela entzun dut. Au ere ez zen etorriko azak biltzera noski, txan-pon ederrak baino. Ala ere ez dut uste exitu aundirik izango duenik (...).

Ez naute batere arritu zure Guatemalarako asmoak. Lendik ere banekien ortik etorritako batek esanda. Zure adinean arako naiok ala ere, gogorregiak dira. Ezin ote zenezake beste erabatera zure bizitza antolatu? Or duzu Arrasate etxe ederrarekin. Apaizak an ere bizi dira eta zu ere biziko zinake ziur aski, eta Guatemalan baino hobeto (...).

Ni oso nabil makal eta beldur naiz tropiku zital onek ez ote nauen laister ilgo. Nik baino indar gehiago dauka behintzat. Etxerako atea zabal banituke ez nuke egun bat gehiago emen egingo. Badakizu ordea

⁷⁹ Zaitegiri Caracastik Miarritzera (Urkizu, P. <prest>, op. cit., 263-264).

Barrenari gertatu zaiona. Zortzi urteko espetxera galdu dute, amairu urte aundi atzerrian egin ondoren. Eta arena nere auzia bainon samurragoa zan. Nik uste zuk nolarebait antola zenezakela etxerako sarrera, ez duzu bada guk bezelako erantzunkizunik ango agintarien aurrean, naizta zuk beste uste izan”.

Andimak bere herrira joateko aholkua ematen zion arren, Zaitetik betiko lepotik zeukan burua eta, Arce lagunaren bidez 2.000 dolar eskuratzean, 1962ko urtarrilean abiatuko da Guatemalara, hemengo gotzaiaren esanera pastorgintzan jardutera. Han hamar urte eginda, 1972ko uztailaren 20an itzuliko da etxera, zahartzaroko bere azken urteak egitera. Ez asko, 1979ko abuztuaren 17an hilko baita, onenak erbestean emanda.

Jokin Zaitegi zuzendariaren inguruan egindako ibilalditxo honek *Euzko-Gogoa*-ren barne-prozesua hurbilagotik ezagutzeko parada eman digu, ezagutu zituen zailtasunak nolakoak eta nondik etorriak ziren jakiteko aukera ederra izan dugu, zeren, hamaika bider esana daukagunez, datu hutsak, egiazkoak izanda ere, hotzak gertatzen baitira beren testuingurutik at azaltzen direnean. Segidan emango ditugun datu kuantitatiboan azalpenerako, bada, ezinbesteko urratsa emanik dugu.

Curriculum antzeko hau harekin batera egiterakoan, hurbileko lagunkide sentitu garela aitortu behar dugu, aspaldiko oroitzaipenak berritu baitzaizkigu. Izan ere, *Euzko-Gogoa* hiltzeaz zegoela edo, hortxe 1960. urtearen bueltan, izan genuen arrasatearra ezagutzeko zoriona, guretzat norbait mitikoa zena. Nola gu orduan Areatzako Ikastetxe Nagusian aurkitzen ginen eta nola berak bere udako oporrak Lemoako Arrese familian egiten zituen, hara joaten gintzaizkion lagun-pare bat edo *-Arnas*-en inguruan ibiltzen ginenok—, agurtu eta solasaldi bat egitera. Bera, ia beti, kartatan jokatzeko atzematen genuen, sukaldeko mahai handian andrazkoz inguratua. Orain ikasi dugu briskan aritzea gustatzen zitzaioela.



Jokin Zaitegik Lemoako "Harreibi" auzoko baserri honetan hartzen zituen atseden-egun batzuk udako partean, Pelikane Arreseren familieren konpainian

Orduan ere, ziurrenik, horixe bera izango zuen bere joku maitea. Orduan harekin izandako harremanak guztiz emankorrak gertatu zitzaizkigun, zeren belaunaldi berrikoak ginenontzat gerraurrekoekin zubi-lanak egiteko balio izan baitzigun. Harekin solasean ari eta ari, bi belaunaldien arteko etenaren ziztadak noiznahi ateratzen ziren haren ahotik: ETaren aktibismoa, existentzialismoa eta abar. Sozialismoaz hitzik ez. Belaunaldi berrikoek, hain zuzen, *Euzko-Gogoa*-ren kontrarrean eraikiko dute beren kulturgintza. Orduko gure bizipen berri honen *Euzko-Gogoa*-ren mundu sinbolikoan sakonkiago barneratzeko bide ematen digu.

Testuinguru historiko hau burutu eta gero, gatozen aldizkaria zertarako sortu zuen zehaztera, helburuek markatzen baitute aldizkariaren edukia, gaien hautaketan lehentasunak ezarriz.

HIRUGARREN ATALA

ALDIZKARIAREN XEDEAK

Hitzaurreak izan ohi dira aldizkari baten norakoa disenaitzen dutenak, zeinaren ezaugarri nagusiak zuzendariak edo zuzendaritzak normalean lehen zenbakian azaltzen baititu. *Euzko-Gogoa*-ren kasuan, aipatu berri dugun “Asmoa” izeneko orri solte hura eginkizun haxe betetzera zetorren, Jokin Zaitegik aldizkaria bera sortu aurretik hanhemengo euskaltzaleen artean banatu zuena. Hauek horrelako asmo bati zer irizten ote zioten jakin gogo zuen, antza, lehen pausoa hutsean eman ez zezan. Bitxia bada ere, aldizkari honen lehen “Aturrekoa” –gerokoetan “Atarikoak”– 1954ko lehen zenbakian agertu zen, “*Euzko-Gogoa* eta gu” izenarekin, non, lehen esan bezala, 1949an zabaldutako orriaren aipamena egiten baita eta hasierako asmoa areago zehazten. Esan behar da urte horretako atariko hori dela lehena, aurrekoek ez baitakarte. Ziurtasun osoz jakitea zaila bada ere, badirudi, 1955eko zenbakietako atarikoak izan ezik, zeinak Andimarenak baitira, gainerrakoak Zaitegirenak direla. Aldizkariaren norabidean, bada, bien aburuak bateratzen dira, euskalgintzaren filosofiari dagokionez, funtsean, berdintsuak direnak.

Idazle erbesteratuen topagunea

Euskal idazle erbesteratuak elkartzea izango da aldizkari honen xederik nagusietako bat. Izan ere, 1936ko gerrak erabat zatituta utzi

zituen gerraurrean loraldi betean aurkitzen ziren euskal idazle eta intelektualak, batzuk hilda, beste batzuk espetxeraturuta eta gehienak, berriz, erbestean galduta, elkarren berri izan gabe edota, kasurik onenean, bakoitza bere egiteko partikularrari lotua. Gerra zital haren ondorioak mingostasunez oroitzen dira “Euskal Batzarrea” izeneko atarikoan:

“Zori-gabeko gudu gorri aren ondorenak ikaragarriak izan dira gure erri maitearentzat. Orduko zurrumullo zakarrak eraginda, hainbeste eta hainbeste euskotar aberritik aldendu bearrean aurkitu ziran. Arrezkero ere, aize latz arek aleunka euskal- seme sorterrria uztera bortxatu ditu, gure oraingo giroa ezpaita egokiena euskal semeak gure lur atsekabetuan errotzeko euskal-gogo ta izateari eutsiz. Eta diaspora gaizto honek auzi astunak leporatu dizkio Euskalerrinari, luzatu gabe antola bearrak berean iraun nai baldin badu”.

Euskal idazlerik onentsuenak —onenak ez esatearren—, erbestean aurkitzen baitira, euskal kulturgintza umezurtz bezala geratzen da. Dena dago mututurik, dena hilda bezala, dena isiltasun izugarri batek hartua. Horregatik, herri-egoera triste haren zola izoztuan iratzartze esperantzakor baten su pizgarri bezala izanen da *Euzko-Gogoa*-ren lehen agiri hura⁸⁰:

“Atzerrietan barna gabiltzala-ta, gero eta euskera urriago darabilgu. Arrezkero, gure izkeraren etorkizuna goibel ageri da. Erdera nonnai sartu nairik dakusgu. Gerla-ekaitzak yota, Yainkoaren esku-begidunaren mendean, eguzkipeko bazterretan an emen barreatutako euskaldun zintzoenak euskera galtzeko zorian daude. Euskal-idazleak berak aspaldi ontan ixillik daude. Guda-aurrean iñolako gara iritxi zigun euskarak. Bazterrak arrotu ta arritu ziran. Euskeraren aldeko ekiñaldi artan euskel-olerkariak genituen aurrenengo gudari. Orixe, Lizardi, Lauxeta, Loramendi, Yauregi, Barrenso, t.a. Oietako zenbaitek betiko agur egin digute, Yainkoak ala naita. Oraindik bizirik dauden euskal idazle ta olerkariak iratzarri nai ditugu, euskeraren alde bildu

⁸⁰ Zaitegi, J., “Gure asmoa”, op. cit.

gaitezen. *Euzko Gogoa*-k dei eginda gatoz guziok. Non-naiko alderdie-tatik: iparralde, egoalde, sortalde ta sartaldetatik”.

Aipu hori aurrean dugula, ohar-pare bat egin gabe ezin dugu aurre-ra segi. Lehenengoa da, 1936ko gerrak etendako euskal kulturaren loral-diari jarraipena ematera datorrela aldizkari berri hau, eta honen frogarik bistakoena da lehen zenbakian Aitzolen gizaldiko idazlerik garrantzi-tsuenak jasotzen dituela: Orixe, Lizardi, Barrenoso, Loramendi eta. Bi-garrena da, euskaltzale erbesteratuak oraindik 1950eko hamarkadan el-karren loturarik gabe bizi direla, han eta hemen barreiatuta, eta guztiak lan kolektibo baten inguruan elkartzeko ordua heldu dela. Honela, *Euzko-Gogoa*-k deia egin eta berehala, hirugarren zenbakirako, lankide-andana polita biltzen da. Hara hemen nor non aurkitzen den erakusten duen aipu interesgarria: Jokin Zaitegi zuzendaria Guatemalan; Orixe, bere lehen lankide hurbilekoa, Argentinan; Andima Ibinagabeitia, gero idazkari izango dena, Frantzian; Keperin Jemein Frantzian; Santiago Lizarribar Txilen; Sebero Altube euskaltzaina Frantzian; Andoni Aro-zena Venezuelan; Erraimun Argarate Txinan; Jose Migel Barandiaran Ipar Euskal Herrian; Kepa Egibar El Salvador-en; Erramon Ertze Me-xikon; Aita Iratzeder Ipar Euskal Herrian; Feli Irizar Frantzian; Ixaka Lopez Mendizabal Argentinan; Telesforo Monzon Ipar Euskal Herrian; Yon Mirande Frantzian; Norberto Tauer Txekoslovakian; Gotzon Urrutia Londonen; Yon Thalamas Labandibar Ipar Euskal Herrian, Ambrosio Zatarain Ipar Euskal Herrian; Eladio Larrañaga Frantzian; Pierre Lafitte Ipar Euskal Herrian. Hauen izenak lankide-zerrendan aur-kitzen ziren jadanik 1950eko hirugarren zenbakian⁸¹.

Hasierako lankide gehienak, zerrenda horretan ikus daitekeenez, Hego Amerikan, Frantzian eta Ipar Euskal Herrian bizi ziren propor-tzio bertsuan. Horietako askoren bizilekua, ordea, behin-behinekoa baizik ez da izango, erbesteratuen kasuan, batez ere. Aldizkariko idaz-le-zerrenda horretan ez dira aurkitzen, jakina, erbesteko guztiak, baina daudentxo horiek nahikoa ongi ordezkatzan dute garai hartako euskal

⁸¹ *Euzko-Gogoa*, 3-4, Epaila-Yorrailla, 1950, 4.

“intelligentsia”. *Euzko-Gogoa*-k markatua zekarren, bada, haste-hastetik bere norabidea. Amilaitzek Gipuzkoatik igorritako gutun batean, erbesteko idazle horiei maisu-titulua aitortzen zien, Sebero Altube eta Orixeri, bereziki⁸²:

“Guatemala’ko aizeak artu ditugu Gipuzkoako txoko onetan, ta aize oiek osasungarriak ta poz-iturri izan zaizkigu. Euskeraz ta (nolako euskeraz!) Ameriketako urruti oietan. Maixuak batu zerate alderdi oietan, eta zuen zorionez, eskuak aske dituzue euskal-azia zabaltzeko mundu zabalean”.

Euskarari gogotik atxikiriko zenbait kleriko gartsu, euskararekin ezkonduetako bi monogamo –Orixe eta Andima– eta beste zenbait euskaltzale, hauek izan genituen *Euzko-Gogoa*-ren hasierako txingarrari auspoa eman ziotenak. Eta, bereziki, zuzendaria bera, zeinek, Aberri-Egunez, Jainkoaren aurrean zin egin baitzuen Euskal Herriaren alde etengabe lan egingo zuela⁸³.

Erbesteko euskal idazleak elkartzeko aldizkariaren xede hau kumpulituzat eman daiteke, egindako deiari hainbat lekutatik erantzun baitzioten. Sebero Altubek, Frantziatik, eupaka agurtu zuen lehen zenbakia orrierdiko artikuluko erdi-poetikoa⁸⁴. Ez zion abegi makalagoa egiten Norberta Tauer euskaltzaleak Pragatik, idazleen lanak argitaratzeko asmoaren bikaintasuna nabarmentzen zuelarik⁸⁵.

⁸² “Irakurlearen txokoa. Euskalzaleon batasuna”, *Euzko-Gogoa*, 5-6, Orrilla-Garagarrilla, 1951, 46.

⁸³ Honela dio “Opariz” izenekoan: “Egun zoriontsu ortan, berriz ere, Yaungoikoaren aurrean zin egin dugu Euzkadi’ren alde eten gabe lanean yarraitzeko, geroago ta aldi hobegoak gure Aberriak izan ditzan” (*Euzko-Gogoa*, 3-4, Epailla-Yorrrilla, 1950, 3).

⁸⁴ “Gure Aberria, Euskalerra maitea, etsaiaren erpe zorrotz peian, oiñazez intzirika agertzen zaigun garai goibel ontan, aren semeak, ludiaren lau bazterretan, Ama estualdi ortatik atera naiezko lanetan, gogor, zintzo ta pijo ari zaizkigu. Seme oiek ¡Eup! egiten dute iparraldetik, ¡Eup! egoaldetik, eta deadar oien oiartzun bezela, ¡Eup! erantzuten sortzaldetik, ¡Eup! sartzaldetik”. (“Erbestetuek erbestetuei”, *Euzko-Gogoa*, 1, Ilbeltza, 1950, 8).

⁸⁵ “Aldizkari onen asmoa bikain-bikaina da, noski. España-ko guda ikaragarriaren ondoren, atzerrietan an eta emen barreiatutako euskal-idazleek bateratu, ta aici bide

Azkenerako, ehun eta hamazazpi lankide inguru bilduko ditu aldizkariak. Kopuru mardula. Lankide hauek, oro har, 1936ko gerra zuzenean bizi eta ezagutu zutenak ditugu. Nor gutxiago nor gehiago, guztiak dira garaiko euskal pentsamenduaren adierazle eta, horko orrialdeetan barneratuz gero, jakin ahal izango dugu gerraurreko euskaltzaleen belaunaldiak zer-nolako planteamenduak zeuzkan euskal kulturaz eta, oro har, ideologiaz 1950eko hamarkadan. Aldizkari honetan parte hartzen dutenak belaunaldi jakin batekoak izan arren, hura alderdi jakin baten diziplinari loturik ez dagoenez gero, lankideek beren iritzia autonomia osoz azalduko dituzte eta, ondorioz, ez bide dira guztiak guztietan joera berekoak izango. Zuzendariak garbiki bere aldizkariaren autonomia errebindikatzeko du, “inongo eta inolako alderdietan sartuta ez gaudenok ere” dioenean⁸⁶, hemen, noski, bere burua ere sartzen duelarik.

Baina zertarako bildu euskaltzaleak? Zeren egiteko? Jarraian ikusiko dugun bezala, laburki esanda, euskal kultura landuaren bidez Euskal Herria euskalduntzeko.

Euskal nortasunaren berreskurapena

Xede hau Euskal Herriko intelligentsia euskalduntzetik pasatzen da. Jokin Zaitegi zuzendariaren konbentzimendu osoa da euskara ez dela gizarteratuko baldin bertako sektore elitista eta intelektualak kultur tresna gisa ez badu erabiltzen bere eguneroko bizitzan eta lanbidean. *Euzko-Gogoa*-ren proiektua bere neurrian ulertu ahal izateko, esan behar da haren asmoa euskal kulturgintzan nagusitzen den jarrera eta praxi populista gainditzera datorrela zuzen-zuzenean.

“Gerra inguruko pentsamendu eta kultura” gaiaren inguruan, KM kulturuneko hitzaldi-aretoan, 2000ko azaroaren 7an egindako

eman, aien lanak argitaratzeko, eta, onela galtzeko zorian dagoen gure euskara maite maitea bizkortzeko” (“Diosala”, *Euzko-Gogoa*, 2, Otsaila, 1950, 23).

⁸⁶ “Atariko”, *Euzko-Gogoa*, Epailla-Yorrailla, 1956.

mahainguruan partaideetako bat izan nintzen eta, han entzun izan nuenez, *Euzko-Gogoa*, nolabait esateko, hutsetik sortu zen, kasualitate batez Kixote bati halaxe otu zitzaiolako, noiz eta une hartantxe, non eta Guatemalan, esan nahi baita euskararentzako testuingururik desgokienean. Haren sorrerak, antza, ez bide zeukan inolako azalpen-modu arrazoizkorik.

Baina Kixote hori zergatik da Jokin Zaitegi eta ez beste kleriko bat, sekularra zein erregularra? Galdera honi erantzun behar dio euskal kulturaren soziologiak, sinplismo anedotikoa ekidin nahi bada bederen. Gerraurrean baziren euskara hutsean argitaratutako aldizkariak, jadanik banan-banan ikertuta daudenak⁸⁷. Baina horien guztien edukia izan, ez da hertsiki kultura landuari dagokiona, herri soilari zuzendatutakoa baizik. Era berean, gerraondoko erbestean, *Euzko-Gogoa* baino lehenago sortu zen bi urteko iraupena (1946-48) izan zuen *Argia* aldizkaria⁸⁸, hura bezala hau ere euskara hutsean Caracasen argitaratua. Baina aldizkari horiek guztiek ez bide dute kidetasunik *Euzko-Gogoa*-rekin ez asmoz eta, ondorioz, ezta edukiz ere. Zentzu honetan, bada, esan dezakegu bera dela lehen kultur aldizkaria, zeinari antzeko bidetik segituko baitio 1953an elebakar bilakatu zen Donostiako *Egan* literatur aldizkariak.

Euskaltzale intelektualan artean baziren, izan, euskal kultura bultzatzen zutenak; baina, komunikazio-tresna gisa, gehienbat erdarak erabiltzen zituzten nola Ipar Euskal Herrian hala Hegoan. Jose Migel Barandiaranen inguruan Gasteizko Seminario Nagusian sortutako Antropologiako Eskolak bideratutako argitalpen gehienak, adibidez, elebidunak ziren, *Gymnasium*-en kasuan bezala euskararen % 10eko presentzia txikiarekin. *Gure mixiolaria* izan, jatorrizko *Nuestro Misionero*-ren itzulpena besterik ez zen, Manuel Lekuonak egina.

⁸⁷ Diaz Noci, Javier: *Euskarazko aldizkari egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994.

⁸⁸ Aldizkari hau ez da nahastu behar gerraurrean Donostian 1921-36ko epealdian zehar astero argitaratzen zen izen bereko aldizkariarekin.

Jesuiten Eskolak, alabaina, euskal kulturgintza landuari dagokionez, baditu bere berezitasunak beste guztietatik desberdintzen dutenak. Jokin Zaitegi jesuita-ohia dugunez, historia apur bat egin beharra dago garai hartaz, azaldu nahi duguna behar bezala azaldu ahal izateko. Jesuiten Lagundiak argitaratutako *Jesu'en Biotzaren Deya* (1917-36) aldizkari erlijiosoaz aparte, Loiolako Nobiziatu-etxean euskal ikasle-talde batek *Euskal-Ele-Bazkuna* izeneko kultur elkarteak –Euskal Akademia antzeko zerbait– eratu zuen 1924an, zeinaren eragile nagusiak Zaitegi eta Andima izan baitziren Loiolako egonaldian. Gero talde honetakoez 1926ko udan Oñako Ikastetxe Nagusira joango direlarik, hemen ere izen bereko elkarte berean elkarturik segiko dute euskalgintzan, harik eta horietako batzuk maisutzako praktika-urteak egitera Hego eta Erdiko Amerikan zeuzkaten etxetara (1929-32) bidaliko dituzten arte. Geroxeago, Lagundikoak Espainiatik ohilduko dituznean, lehengo ikasle zaharrak berriro Belgikan (1932-36) elkartuko dira ikasketako azken urteak egiten. Jokin Zaitegiren meritu pertsonala da, zalantzarik gabe, han-hemen barreiatuak zeuden jesuitakide horietako batzuk bere aldizkarira bildu izana.

Oñako ikasle euskaltzaleak astero bi aldiz batzartzen ziren, norberak egindako lanak aztertzeko xedearekin⁸⁹. Jesusen Lagundian, beraz, bazen ikasleek sortutako kultur plataforma bat, ongi egituratua zegoena eta xede nagusitzat gai akademikoak euskaraz lantzea zuena, ahoz bezala idatziz. Hau da oinarrizko datua, garai haietan zerbait berritatz jaso beharrekoa eta, hein batean, *Euzko-Gogoa*-ren izateko arrazoia ere esplika dezakeena.

Orixe Xabierreko ikastetxetik bezala, Jokin Zaitegi Durangotik etorri zen Loiolara, agian han ikaskide izandako Estepan Urkiagarekin batera, 1921eko uztailaren 27an eta, hemengo bi urteak Aita Martin Garmendia nobizio-maisuaren ardurapean burutzean, botoak 1923ko uztailan egin eta Burgosko “La Merced” ikastetxera joan zen Erretorika ikastera, Orixe Lagunditik ohildu zuten urte berean, hain

⁸⁹ Uranga, Joseba, “Oña-ko Euskal-Ele-Bazkuna”, *Euskal-Esnalea*, 317, 1930, 85-90.

zuzen. Aipatutako “Euskal-Ele-Bazkuna”, esan bezala, Jokin Zaitegik eta bere lagunak –besteak beste, Lauaxeta, Andima, Plazido Mujikak eta–, sortutakoa zen, Aita Apalategiren zeharkako gerizpean. Jokin Zaitegik berak kontatzen duenez⁹⁰, 60 inguruko ikasle-multzotik 20-24ren bat nobizio gazte euskaltzaletzen hasiak ziren Loiolan, euskal liburuak irakurtzen, euskal aditza ikasten, eta horrela. Euskaltzaletasunetik abertzaletasunerako pausoa halabehear hutsez emango du gazte-multzo honek. Behin batez Andima eta Jokin bera Aita Apalategiren liburutegia miatzen ari zirela –beronen baimenarekin, noski–, ustegabeen Aita Ibero kaputxinoaren *Ami Vasco* liburuxkarekin egin zuten topo eta horretxan isilpeko irakurketak ireki zizkien begiak⁹¹. Xehetasunak alde batera utzita, jadanik emanak baitaizkagu⁹², esan dezagun doktrina nazionalista horrek egindako mirakuluari esker euskaltzaletutako gazte-mordoa biltzen zela elkarte horretan, besteak beste, Andima Ibinagabeitia, Esteban Urkiaga, Iñaki Goenaga, Plazido Mujika, Erraimun Argarate, Frantzisko Sarobe, Korta anaiak, Koldobika Sagastune, Migel Maria Zubiaga, eta gehiago. Eragile handienetako bat, nagusia ez esatearren, Jokin Zaitegi bera izango da. Zigortuenetako bat ere, ziurki, bera. Nolanahi ere, ez ziren urte goxoak haiek euskararentzat eta orokorrean euskal kausarentzat, zeren 1923ko irailaren 13an hasitako Miguel Primo de Riveraren diktadurak

⁹⁰ *Deia*, 1977-12-8.

⁹¹ Hau Jokin Zaitegik emandako bertsioa da: “Baina gauzak nolabait behar eta Aita Apalategik zituen liburuak aztertzeke baimena eman zigunez, egun batetan *Ami vasco* aurkitu genduen Andima eta biok...” (Velez de Mendizabal, J. M., op. cit., 35). Beste pasarte honetan Zaitegik eta Andimak liburutxo hori non eta nola irakurri zuten kontatzen da: “Hala ere Andimak, jakina datekeenez, lozorroan zuen abertzaletasunaren bat-bateko piztuera Loioan kokatzen zuen, Jokin Zaitegi eta besteren batekin –hirunaka ibiltzen ziren- jesuitagaiek astean bitan edo egin ohi zituzten irteeretako batean. Igo ziren inguruko mendixka batera, irakurri zuten Andimaren aitaren espetxeratzea eragin zuen *Ami vasco* aipatua, eta hil artean itzaliko ez zitzaizen txinpartak sutu zituen Jokin Zaitegi bezala Andima sorterrriaganako grinarren garretan” (Sudupe, Pako, “Hitzaurrea”, in *Andimaren idazlan hautatuak*, op. cit., 34-35).

⁹² Iztueta, Paulo: *Orixe eta bere garaia*, op. cit., 490-495.

gogorki zigortzen baitzituen mugimendu nazionalistak eta hauen artean, bereziki, independentismoaren aldekoak. Lagundiko agintariek esaten badute ere hizkuntza eta politika ez direla nahastu behar, baziren euskararen kausa begi onez ikusten ez zutenak. Jokin Zaitegik aitortzen duenez⁹³, latina eta grekoa irakasten zien Aita Errandonea beratarra zen izugarrizko oztopoak jartzen zizkien horietako bat. Areago oraindik: beren euskaltzaletasunean nabarmendu ziren ikasle horietako batzuk, euskararen alde ari zirelako “zigortuta” edo⁹⁴, Amerikara igorri zituzten 1929an: Andima Ibinagabeitia Bucaramangara eta Plazido Mujika Pastora, biak Kolonbian; Jokin Zaitegi Venezuelako Méridara⁹⁵, eta beste batzuk, berriz, El Salvador eta Guatemalara⁹⁶. Zenbait urtez han-hemen barreiatuta ibili ondoren, lehengo Elerti-Bazkunekoak berriro Liejako Marneffen elkartuko dira, hala nola, Andima, Peli Korta, Luis Arrieta eta hauek baino gazteagoak ziren Gaizka Barandiaran, Patxi Etxeberria eta Jose Maria Bollegi bezalako beste batzuk. Baina topaketa hau halabeharrez gertatu zen, zeren urte batzuk lehentxeago Lagundia bera izan zen bezala euskaltzale batzuk atzerriratu zituena, orain II. Errepublikan izango baita jesuitak Espainiako estatu-lurraldetik atzarriko dituenak. Horregatik elkartuko dira, bada, Belgikako Ikastetxe Nagusi horretan Espainian Filosofia

⁹³ Velez de Mendizabal, J. M., op. cit., 36.

⁹⁴ Amerikara bidalia izandako jesuita anonimo batek Josemari Velez de Mendizabali egindako gutunean (1980-02-19) hauxe aitortzen du: “Aldi hartan, guri etzigituen esan, baña Ameriketara zigortuta bezala bialduak izan ginen... euskaltzale eta euskararen alde zer edo zer ari ginanok. Iokin, Ibingabeitia, Goenaga... Hori egiazta-tzeko idazkirik ez duzu aurkituko: ‘Goikoe’ heuren era ba dute, noski” (*Iokin Zaitegi*, op. cit., 45).

⁹⁵ Lagundiko batzuen iritziz, Méridako Ikastetxe hau da jesuitek Venezuelan duten pobreen eta gogorrena, Aita Zumalabe donostiarrek sortua. Jokin Zaitegi hara joatean, bera izango da bertako zuzendaria. Ikastetxeak barnetegi gisa funtzionatzen zuen eta Jokin Zaitegi zen logelako ardura zeramana. Bertan lau urte egin zituen, azken urteetan zuzendari gisa (Ibid., 46).

⁹⁶ Ugalde, Martin, “Elkarriketa Jokin Zaitegirekin”, *Deia*, 1977-XII-8; Iztueta, P.: *Orixe eta bere garaia*, op. cit., 492.

eta Teologia ikasten ari zirenak. Jokin Zaitegi 1932an joan zen bertara Teologia egitera.

Oztopoak oztopo, Loiolan euskaltzaletu zen ikasle-talde honek, berriro Belgikako egonaldian elkartuko denean, hasierako xede berari eutsiko dio, euskal kultura landuz, baina oraingoan gaztegoekin batera, zeren hemen filosofoak ere teologoen batera aurkitzen baitira. Horregatik, bakoitzak bere arautegia zeukanez, talde bi osatu ziren, bata filosofoena eta bestea teologoena eta horietako bakoitzak berari zegozkion gaiak lantzen zituen. Nolahani ere, elkarrekin egotea debekatua zeukaten arren, “euskal batzoki” txiki antzeko baten inguruan biltzen ziren. Hemen ere, taldeko zuzendaria Jokin Zaitegi bera izango da, eskuin-esku Andima Ibinagabeitia duelarik, harik eta honek 1935ean Lagundia utziko dueno. Zoritxarrez, han orduan egindako euskal lanak galdutzat eman behar ditugu, sute batek erre zituelako⁹⁷. Euskaltzale hauen jokamoldea atzerrian ere ez baitzen espainolen gustokoa, ikasleak han ere, antza, bi bandotan banatuta aurkitzen ziren: alde batean euskaltzaleak eta bestean euskaldunen kontrakoak⁹⁸. Betikoa!

Jesuiten Eskola honek bi ezaugarri nabarmen ditu eta hauexek azpimarratu nahi ditugu hemen. Bata da, euskarari dagokionez, badi-tuela bere maisuak. Hasteko, aitzindarien artean, bere Lagundiko euskal idazle klasikoak aurkitzen dira, zehazki Larramendiren Eskolako Mendiburu eta Kardaberaz eta, berriagoen artean, batez ere, Erraimun Olabide. Jokin Zaitegik ez zuen berarekin harreman zuzenik izan, baina bai berak eta bai bere belaunaldikoek gasteiztar euskaldunberri hura zuten gidari. Arrasatekoak akats-pare bat ikusten zizkion, halere: bata, ez zuela sortu lan-talderik bere inguruan, eta bestea ez zituela langile egokiak hautatu. Azken puntu honi dagokionez, Orixe ere bat

⁹⁷ Pako Sodupe dakarrenez, “Marneffe-n eta bestetan egindako euskal idatzien gor-detze-lana Andima Ibinagabeitiaren ardurapekoa zen, baina 1936ko gerraondoa-n, hau Deustuan bizi izan zen etxean izandako sutea zela bide, direlako idatziak, ta-malez, suak erraustu zituen” (“Euskal kultura gerraondo minean”, in Apaolaza, X.; Ascunze, J. A.; Momoitio, I.: *Euskal erbestearen kultura*, Saturrarán, 2000, 235-236).

⁹⁸ Velez de Mendizabal, J. M., op.cit., 51-58.99

zeturten arrasatearrarekin⁹⁹. Haren *Itun Zar eta Berria* itzulpen sonatua argitaratzekoan, irakasle handiei zor ohi zaien gorazarre-aitorpe-
nez, Jokin Zaitegik Aita Olabideri eskaini zion *Euzko-Gogoa*-ko zen-
baki osoa¹⁰⁰: “Olabide’k eta beste euskaldun iator aintzek bezala,
egungo egunean gure aspaldiko zina berrizten dugu gure erritar guzien
aurrean: eskutan (sic), naiz agerian, ixilean naiz gorarik euskera beste-
rik eztugula erabiliko, gure Euskalerrriaren ezagungarririk nabarmena
(sic) bait-da”.

Loiolako nobizio euskaltzale haien kultur elkarte hura, beraz, ez
zen hutsetik sortua izan. Bazituen bere aurrekoak. Lagundian, egon,
bazegoen euskalgintzaren tradizioa eta, esan bezala, hortik edango
dute gehienbat. Kontuan hartzen bada Orixek Lagunditik 1923an kan-
poratu zutela, ageri da ordurako belaunaldi berria bideratua zela eta
luzaro gabe Orixek, Zaitegik eta Andimak hirukote saildua osatuko
dutela *Euzko-Gogoa*-n. Guztien gaintetik azpimarratu nahi duguna da
aldizkari hori, kolektibo baten emaitza den arren, azken batean Eskola
jesuitikoaren ezaugarri guztiak dituela berekin.

Bigarren ezaugarria, guretzat agian adierazgarriena, beste honako
hau da: Eskola honek euskara kultura igoa trebatu nahi zuela, alegia.
Aukeran greziar eta latindar autoreak eta literatura unibertsalean eza-
gunenak zirenak hobesten zituzten, aldeaz, ondoen horiexek ezagutzen
zituztelako eta, aldeaz, kultura landuari irmotasuna klasizismoak ema-
ten ziolako. Irakasleak ere halakoxeak izan zituzten. Aita Errandonea,
antieuuskalduna, bai, baina biziki aditua omen zen kultura greziarrean
eta beste horrenbeste Aita Estefania literaturan. Ez da harritzekoa,
bada, Jokin Zaitegiren belaunaldiko euskal idazle gehienak beren idaz-
lanetan iturri klasikoetara joaten badira eta euskalgintzarako urak han-
dik jasotzen badituzte, pedagogia jesuitikoaren ustea baitzen Grezian

⁹⁹ Geroago ikusiko dugun bezala, Orixek, Aita Olabideren *Itun Zar eta Berria*-ren
argitalpena zela eta, ez zuen onartu jesuitek autore horri zegozkion egile-eskubide-
ak bereganatu izana, argudiatuz obra hori desagertzetik salbatu zutenak beste ba-
tzuk izan zirela.

¹⁰⁰ “Atariko”, 5-6, Iraila-Gabonila, 1958, 437.

aurkitzen zirela Europa zaharraren kultur erroak¹⁰¹. Gerraurrean, Jesuiten Eskola da helburutzat kultura igoa lantzea daukan bakarra, taldekopuruaren nahiz kalitatearen aldetik horrelaxe deitzea merezi duen bakarra, alegia, eta beronen emaitzak, batik bat, gerraondoan emango dira ezagutzera, *Euzko-Gogoa* aldizkarian, hain zuzen. Eskola hori gabe pentsaezina zitekeen Jokin Zaitegiren asmoa. Eskola horretako giza kapitala da aldizkari horren azpiegituran datzana, lehen urteetan, batez ere¹⁰². *Euzko-Gogoa*, asmoz eta obraz izan, Loiola eta Oñan ikaskide izandako euskaltzaleen emaitza kolektiboa da. Hori bai, Jokin Zaitegi izango da euskal kultura landuaren aldeko Eskola hau bideratu eta gauzatuko duena. Haren inguruan gorpuztuko da periodismo populistan oinarritutako euskal prosari gain hartuko dion lehen ekinaldi antolatua, garai hartan egiazki berritasuna dakarrena, zeinaren dinamikak *offside* harrapatuko baititu gai akademikoetarako erderaz baliatzen zirenak eta, halaber, euskara soilki –edo nagusiki– literaturan edo periodismoan erabiltzekoa dela uste zutenak, edota horretan zihardutenak.

Euskara berreskuratzek ondoko bi mailok bederen zaindu eta garatzea eskatzen du, zehazki hauek: bata, euskara nazionalismoaren oinarritzat hartzea eta bestea, euskara kultura landuan trebatuz, euskal Unibertsitatearen sustraiak botatzen hastea. Hipotesia da euskal kultura akademikoak eragingo duela gehien euskararen gizarteratzea. Orduan urrutiko xedek ziren hauek, baina azertu handiz aurreikusten zirenak.

Hizkuntz nazionalismoaren aldarrikapena

Gero areago zehaztuko dugun bezala, *Euzko-Gogoa*-k behin eta berriz errepikatzen duen xedea da hizkuntz nazionalismoarena.

¹⁰¹ Orixez mintzatzean luze jardunak gara jesuiten pedagogi ereduaz eta ez goaz han idatziak errepikatuzera (*Orixe eta bere garaia*, op. cit., 322-336).

¹⁰² Jokabide horretan ez dira bakarrak izango Jesuiten Eskolakoak, bide bertsutik joko baitu Federiko Krutwigek ere. Baina honek, Jesuiten Eskolakoek ez bezala, greziar iturrien berreskurapena hizkuntzaren nahiz pentsakeraren aldetik oso bestelako ikuspegi batez egingo du, hots, jatorrizko helenismoaren paganismoa jasoz, euskal hiztegiari hitz grekoak txertatuz eta modernismoari atek irekiz.

Zuzendariak idatzitako lehen atarikoan, euskararen sustapena garbiki formulatua zetorren¹⁰³: “Euskera iraunerazi, edertu ta zabaldu nai dugu nor bere kitatxoan”. *Euzko-Gogoa*-ren egitekoa, hain zuzen, euskararen aldeko kezka hau gizarteratzen saiatzea izango da, belaualdi berriko gazteenganaino hel dadin¹⁰⁴: “Euskera iraun-erazi, edertu ta zabaltzeko, euskaldun guzcion aleginak oro alkarrerazirik gure zuzi irazekia, eskuz esku gazteagoengana igaroko dugu. Aro berri ontan badukegu su ta txinpart, oldar eta arnas: irakurle ta arpidedunak bildu, idazleak iratzarri, euskaltzale epelak berriz berotu ta onelako eginbidetik lana ekarriko digute, noski!”.

Jokin Zaitegik testu hori Miarritzen argitaratutako lehen zenbakian idatzi zuen, 1956an, ustez, mugak muga, euskaltzale gazteak bereganatuko zituelakoan. Begi-bistakoa da hor Zaitegik belaualdi berriko gazteak bereganatzeko erakusten duen gogoia. Guatemalatik herriratzean, Lazkaoko beneditarrak eta Arantzazuko frantziskotarrak bisitatzen izan zelarik, komentu horietako ikasle euskaltzaleek ongietorri beroa egin baitzioten, jabetu zen gazteen errelebu indartsu zetorrela eta pentsatu zuen, gazteago horiek euskararen kausara irabaziz gero, euskarak bere etorkizuna ziurtaturik zukeela. Datu bitxia baita, jakingarri da, bestalde, Zaitegik Miarritzeko bere lehen zenbakia argitaratu zuen urte berean sortu zutela Arantzazuko ikasleek *Jakin* eta aldizkari honetako lehen zenbakian, hain zuzen, Imanol Urbietak Jokin Zaitegiri egindako elkarrizketa zetorrela¹⁰⁵, zeinetan gaiok ukitzen baitzuten: Euskal Unibertsitatea, Eukal Idazleen Elkarte, *Euzko-Gogoa*-ren zabalkundea, euskara landuaren beharra, gipuzkeran oinarritutako euskara batua, eta besterik. Funtsean, Parisko Batzarrean azaldutako gaiak ziren.

103 “Ataurrekoa. *Euzko-Gogoa* eta gu”, *Euzko-Gogoa*, Ilbelta-Otsaila, 1-2, 1954, 1.

104 “Atariko”, *Euzko-Gogoa*, Ilbelta-Otsaila, 1956, 2.

105 “Zaitegi jaunarekin jardunean”, *Jakin*, 1, 1956, 89-93. Gabon aurrean izan zen Jokin Zaitegi Arantzazun, *Jakin* jaioberriari zorionak ematera joanda. Orduan egindakoa da elkarrizketa hori.

Jabetuta baitzeuden etorkizuna gazteen eskuetan zegoela, hauei zuzendua zen, hain zuzen, 1956ko bigarren zenbakiko atarikoan datoren mezu erdi-poetiko hau¹⁰⁶: “Aipagarri ditugu sortu diran euskal-idazle berriak, besteak beste. Gaztedi ederra ta argia dator atzetik bul-tzaka, ala bearrik. Eguzkia sortzen ikusten duzuen gazte alai ta erneok iaso ezazue, eguzkia sartzen so egiten dugunon euskal-agurrik kartsue-na ta eupadarik zoliena. Sakonago ta giartsuago barnera zaitetze eus-kal-gogoan, eta andik atera itzazue indar eta kemen, gure erritarren oraingoa ta etorkizuna argitan blei-blei ezarteko”.

Benetako poza eman zion *Jakin* aldizkariaren inguruan belaunaldi berri bat sortu zela ikusteak, beraiek ere horixe bera amestu baitzuten gerraurreko 1924-29 urte haietan. Bereganatuko ote ditu gazte horiek, ala beren bidea egingo ote dute? Hau da galdera, oraingoz galdera hu-tsean geratzen dena.

Geroago, 1958an, euskalduntzeak zer duen helmuga zehaztuko du¹⁰⁷: “Euskera iraun-erazi, edertu ta zabaldu nai genuke, gure Erri osoa euskaldun izan dadin”. Baina orain beste pauso bat harago eman-go da helburuen zehaztapenean. Arazoa ez da bakarrik euskara irauna-razi, edertu ta zabaltzea, horiek guztiak eginez batera, euskal lurraldea euskalduntzea baizik. Modu subjuntiboan formulatutako azken esaldi horrek biribiltzen du lurralde-irizpidean oinarritutako euskararen berreskurapena: “gure Erri osoa euskaldun izan dadin”. Hau da hel-muga, hizkuntz nazionalismoari bere eduki betea ematen diona.

Alabaina, xede hori lortzeko plangintzarik ez da eskaintzen. As-moak bakarrik dira azaltzen direnak. Nolanahi ere, ezinbesteko baldin-tzetako bat da, bazterkeriak utzi eta, euskara, herritar guztien ondarea den aldetik, aukera politiko eta ideologiko guztien gaintetik jartzea¹⁰⁸: “Dagoeneko alderdikeriak porrot egin dute gure errian, baitik-bat gudu-osteko Euskalerrian. Beraz, beste bidetik yo nai izan dugu gure

¹⁰⁶ *Euzko-Gogoa*, Epaila-Iorrraila, 1956, 1.

¹⁰⁷ “Atarikoa”, *Euzko-Gogoa*, Orrila-Dagonila, 1958, 241.

¹⁰⁸ “Ataurrekoa. *Euzko-Gogoa* eta gu”, op. cit.

burua euskalduntzat dugunok. Arana-Goiri'k erein zuen irakatsietara, Euskadi dugu gure aberria ta euskera gure izkera bakarra. Erakutsiok non-naiko euskaldunak onartuak ditute". Parisko Batzar Nagusian euskararen aldeko giroa —joera irekia, alegia—, nagusitu omen zela esan ondoren, ezein alderdiri loturik ez zegoen *Euzko-Gogoa*-k ere jokabide autonomo horri jarraitzeko asmoak agertu zituen 1956ko bigarren zenbakiko atarikoan¹⁰⁹.

Arturo Kanpionen ehugarren urtemuga ospatzerakoan, *Euzko-Gogoa*-k haren "ikasle ta jarraitzaletzat" aitortu zuen bere burua, haren "liburu geienak erderaz izan (arren), bere idazlan eta itzaldi guzietan sakon eta kementsu beti euskeraren alde jokatu" zuelako¹¹⁰. Jose Antonio Agirre lehendakaria hil zenean, orobat, omenaldi gisa *Euzko-Gogoa*-k hari eskainitako atarikoan, haren "euskaltzaletasun beroaren eta eraginaren erro giartsua" aipatzen zuen¹¹¹. Bera ere eredugarria da, Bilboko semea izaki, euskara ikasi zuelako eta bere seme-alabei ere irakatsi zielako. Oso gogoko gizona zuen Jokin Zaitetik Jose Antonio Agirre lehendakaria. Guk geuk behin baino gehiagotan berari entzuna genion harekin beti euskaraz hitz egiten omen zuela.

Kultura landuaren bidetik Euskal Unibertsitatera

Hauxe da bigarren xedea, hau ere, aurrekoa bezala, lehen ataurrekoan esplizituki aipatua zetorrena¹¹²: "Euskaldun ikasiak euskeraren ganatuz, guziok opa dugun Ikastetxe Nagusirako gure euskera egokitu ta gaitu nai dugu. Eusko-ikaskuntza ta non-naiko ikasi-bearrak gure-

¹⁰⁹ "Aldizkari ontan, esate baterako, oiera guzietariko idazleak arki ditzakezu, gure izkera geroago ta landuago, geroago ta irakurgarriago adierazteko eginalak egiten. Era berean, inongo ta inolako alderdietan sartuta ez gaudenok ere. Euskera dugula guzian elkarbiderik errezena ta bearrena, argi ta garbi ikusi baitute. Orixe agertu zan Paris'ko Euskal Batzarre Orokorrean" (*Euzko-Gogoa*, Epaila-Iorrraila, 1956, 1).

¹¹⁰ "Atariko. Arturo Campion (1854-1954)", *Euzko-Gogoa*, Azilla-Lotazilla, 11-12, 1954, 163.

¹¹¹ *Euzko-Gogoa*, Epaila-Garagarrila, 3-6, 1959, 122.

¹¹² "Ataurrekoa. *Euzko-Gogoa* eta gu", op. cit.

ganatu nai ditugu. Irakasle ta irakasleak euskerarenganutzen ba'ditugu, euskerak iraungo du bere ederrean”.

Eusko-Ikaskuntzaren VIII. Batzarra dela eta, hurrengo zenbakian erakunde honi eskainitako ataurrekoan, Oñatin 1918an egindako lehen Batzar hartaz gerotzikoak “antzu” gertatzen ari direla baieztatzen da. Zergatik ere esaten da: “Batzarre orietan, maizenik, gure izatearen erro ta gogo dan euskera, lotsagarriro baztertu oi izan dutelako. Eusko-filologiaz, euskal-edestiaz, euskal-folkloreaz, gure erriaren agerkari guztietaz ekin diete, bañan beti erderaz. Euskerak ez du iñoiz ere batzarre orietan bere arpegi ederra erakutsi; alderantziz, noragabe eta eskale ibilli izan da iakitun erdal-zaleen artean zapuztua ta baztertua”¹¹³. Eusko-Ikaskuntzaren Batzar horiek antzutasunean segi ez dezaten, euskal ikertzaileek beren lanak euskaraz azal ditzatela, hori da *Euzko-Gogoa*-k hari eskatzen diona¹¹⁴: “Zertako euskeratzaz erderaz iardun? Garai ori ioana da, ta oraingo euskal-iakitun gazteek olakorik ezin dezakete egari. Ez dute nai euskeratzaz erderaz ari dan batzarrik, ikaskun-mota guztietaz soilik ari direnak baizik. Betoz batzarretara iakitun arrotzak ere. Oriei ez diegu ukatzen beren izkeraz mintzatzeko eskubiderik; ez gera ain ergelak. Bañan euskal-iakitunek, euskeraz mintzo bitez: euskeraz ager bitzate euren txostenak, euskera bedi Ikaskuntza-batzarretako izkera nagusia, beste izkera oro bere menpean dauzkan mintzo garai ta iakintsua. Ori iristen ez dugun artean, orain arte bezala, antzu gertatuko dira eusko ikaskuntza batzarrak oro, kaltegarri ta lotsagarri ez denean”.

Apenas dagoen zorrotzago eta zuzenago ezer gehiago esaterik. Eta orduko salaketa horrek izen bereko gaurko erakundearentzat ere balio dezakeelakoan gaude. Beraz, Jokin Zaitetik irudikatzen zuen Euskal Unibertsitateak ikustekorik gutxi zeukan Eusko-Ikaskuntzak zeraman jokabide-ereduarekin. “Asmoz ta Jakitez bai, baiñan euskeraz”, gaineratuko du *Euzko-Gogoa*-k leku berean.

¹¹³ “Ataurrekoa. VIII.gn. Eusko-Ikaskuntza-Batzarraren inguruan”, *Euzko-Gogoa*, 3-4, Epaila-Yorrailla, 1954, 49.

¹¹⁴ Ibid.

Lehen aurreratu bezala, Parisko Batzar Nagusikoan oso garbi adierazia utziko du Jokin Zaitegik bere betiko tesia, zeina baita euskarari galera handikien eta ikasien hizkuntza ez izatetik datorkiola eta salbazioa, hots, kultur tresna jasoa izatera iristea, nonbaitetik etortzekotan, Unibertsitatetik etorriko zaiola. Froga argigarritzat, Erdiko Amerikako herrien adibideak ekarriko ditu handik etorri berria zenak¹¹⁵: "... Amerika erdiko errietara errien askatasuna nork ekarri zun? Ikastetxe Nagusiak. An ez zan izan gudurik, etzan odolik ixuri; erri oien gorabidean, nor dira zuzendari eta buru? Ikastetxe Nagusi'ko irakasleak eta ikasleak. Ekonomi-gaietan, lege-gaietan, alde guzietan, nortzuek dira eragile? Gizon ikasiek. Beraz, ori ikusi-ta, nik auxe uste dut: bear bada okerrean egon nindeke. Nere ustean, naiz eta aitortu euskera il zorioan dagoala alde batetik, auxe esaten dizuet: Euskal-Ikastetxe Nagusia, gizon ikasiak euskeraren alde ez izan bitartean, euskera beti izango degu il zorian".

Gizarte-bizitza eliteek gidatzen dutela uste baitzuen, ideia hau aurrera eraman ahal izateko, "Euskal Idazleen Etxea" sortzea pentsatu zuen, plataforma honetatik bideratuz *Euzko-Gogoa*-ren argitalpena eta Euskal Ikastetxearen antolaketa, biak batera. Oinarrian, beraz, "Euskal Idazleen Etxea" delakoaren egitasmoa zetzan, zeinaren egitekoak, Andimari agertzen zionez, ondoko lau hauek baitziren¹¹⁶:

“1) Euskal idazle alkartasuna sorterazi, idazle bakoitza, berari dagokion lanean ipintzeko.

2) Udako euskal ikastaroa ilabetez Arantzazu'n edo Loiola'n, edo onelako lekaidetxe batean, gogo-iardunak bailiran. Egitarau zabal zabal bat eginik dizut, izlari bakoitzak bere gaia azaldu dezan, euskal-ikastetxe nagusiaren aisikin bezela-edo; ontarako erri-agintarien baimenik ezkenuke eskatuko.

¹¹⁵ *Euskal Batzar Orokorra/Congreso Mundial Vasco*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzuak, Gasteiz, 1980, 396.

¹¹⁶ Velez de Mendizabal, J. M., op. cit., 137.

3) Euskal-idaztiak antola ta alik eta geien argitarazi; ileko bi argitaraziko genituke, dirurik ba'genu.

4) Aldizkaria aurrera eraman”.

Gainera, noizbait behar eta, Euskal Herri osoko idazleak ziren plangintza honetan parte hartu beharrekoak. Etxearen egoitzak ere bazuen bere kokalekua: Baiona. Eragile nagusiak, diru-arazorik ez zegoela esanez, Jose Antonio Agirre eta Txomin Jakakortajarena izan zituen. Diru-laguntza, antza, Argentinatik etortzekoa zen, berastegiarrari hango andere batek horretarako agindua; baina sobera atzeratzen ari zenez¹¹⁷, gasturik gehienak Jokinek berak ordaindu behar izan zituen. “Bakarzaletasunaren” gaitzak joa zegoen Zaitegi¹¹⁸. Guatemalarako bidea har ez dezan erregutuz, Caracastik kontsolamenduzko hitzak idazten dizkio Andimak 1957ko uztailaren 27an¹¹⁹: “Gainera, Lendakariak beteko du noski eman zizun itza; eutsi xamarra izan arren, ez du noski jango. Eta nork daki Jakaren atsoak ere ondare ori gutxien uste danean jasoko ez ote duen? Beraz zaude or, eta aantzi ezazu betiko Guatemalako lurraldea”.

Diruarena larria izanda ere, larriagoa zen, halere, idazleen artean aldeko girorik ez aurkitu izana. Pierre Lafittek¹²⁰, erdi-txantxan edo, “ez zuen nehor ere atzeman komentu edo falansterio hortan sartu gogo zuenik”, esango du 1979ko urriaren 24an. Asmoak, ikusi bezala, ez ziren makalak, baina mamitzen bai zail askoak.

Euskal Idazleen Elkartearenak huts egiten badu ere, bizirik segituko du Zaitegiren izpirituan Euskal Unibertsitate baten beharrak, hasieran bezala bukaeran. *Euzko-Gogoa*-k hain itsasirik zeraman Euskal

¹¹⁷ Txomin Jakakortajarenari Argentinako andere aberats batek dirua eskaini omen zion kultur etxe horren lanak finantzatzeko, baina agindua ez zen bete ahal izan aski garaiz, zeren hiru urte pasatu baitziren senarrak utzitako ondare-auzia garbitzen, gehiegi, zalantzarik, proiektua gauza zedin (Ibid., 137).

¹¹⁸ Andimaren gutuna Zaitegiri, Caracastik Miarritzera, 1957-05-8, (Urkizu, P. <prest.>, op. cit., 204).

¹¹⁹ Ibid., 207.

¹²⁰ Velez de Mendizabal, J. M., op. cit., 138.

Ikastetxe Nagusiaren ametsa, ezen zenbaki osoa eskainiko baitio 1957ko azken emanaldikoan, bertan hiru herrietako hiru antzerki ar-gitaratzen direlarik: bi klasikoak, Sofokelen *Piloktete* eta Shakespeareren *Macbeth*, hurrenez hurren Jokin Zaitegik eta Bedita Larrakoetxeak itzuliak, eta Otearen (Monzon Olasoren) *Menditarrak*. Eskaintza honetan zein obra-mota sartzen diren ikusteak bakarrik nahikoa garbi adierazten du autore klasikoen eta hauen itzulpenen bidetik doala gehienbat aldizkariaren aukera. Nolanahi ere, bilduma osoan zehar orokorrean klasikotasunak modernotasunari gain hartzen badio ere, garrantzitsua dela uste dugu euskarari berari ematen zaion trataera etorkizuneko Euskal Ikastetxe Nagusiari buruz¹²¹: “ederrez ta iakitez gure buruak iantzi, euskera geroago ta egokiagoa ta ederragoa erabil dezagun”.

Jokin Zaitegik erabateko konbentzimendua zeukan euskararen berreskurapenak euskal intelligentsia euskararen kausara irabaztea inplikatzeko zuela. Bestela esanda, euskal handikiek euskara aintzakotzat hartuko ez duten bitartean, jai dago. Diru-ekasiaz, aldizkariari eutsi ezinda zebilen une beltzetan, bildumako azkenaurreko zenbakiko atarikoan jaulki zituen barruan egosten zeramatzanak. Luzetxoa bada ere, jaso beharrekoa dela iruditzen zaigu pasarte hau¹²²:

“Andikiak aiputan ar ditzadanean, enituke aspaldidaniko aide nagusiak soilik aipatu nai, ezpaitira oraingo euskaldunen artean mazarroak eta larrutxak aintzat artzen. Alabaina, aberats porrokatuak, zorri il biztuak eta buruz iantziak ditugu, egungo egunetan andiki. Andikiok gure euskera aintzat artuko ba'lute, goikoen erakusbidea onartuko luke erri xeak noski baino noskiago. Euskaldun andikiok gure il edo bizizko auzi oni oharturik, euskaldunak euskaldun iarraitu bear dugunaren bearra zain eta muin somaturik, arbasoen izkera edonon eta edonoiz erabiliko ba'lute, lagunabarren artean zabalduko lizake zaletasun ori ta Euskalerrriak euskaldun iraungo luke. Euskera gure andikiek beren izkeratzen ar ba'lezate, erri xea arrotu egingo lizake bere

121 Ibid.

122 *Enzko-Gogoia*, 11beltza-Otsaila, 1959, 1.

euskera dala-ta (...) Andikiok, ordea, badute beren on-gaitza: on bezainbat gaitza, alegia. Gezurra dirudi. Gure aldez beste bakarrik ez, baita beren buruen aldez beste ere ari izan dira zoritxarrez. Arenbaten dabiltz geienetan aberatsak eta ikasiak. Eztute al zutekeanik egin euskera irauarazten, edertzen eta zabaltzen. Besterik esan ba'dezaizuet, eztidazute sinetsiko, noski. Andikiok galgarri ezpalira, ezkenitukean aiputan artuko, nonbait”.

Andikiak esatean, jakina, hor handiki aberatsak, handiki jakitunak sartzen ditu, nola laikoak hala klerikoak. Hizkuntza baten zoria, hala dator idatzia atariko berean, irakaskuntzan aurkitzen da. Beraz, gure kasura etorrita, euskararen oraina eta geroa ziurtatzeko, irakaskuntza bere maila guztietan euskaldundu beste biderik ez da, ondoko aipu honetan garbiro formulatua datorren bezala¹²³:

“Egia esateko, euskeraren oraingoa eta etorkizuna irakaskintzaz uztarturik ageri da. Euskerak bizi bear ba'du, ikaskizunak oro euskeraz ezin egin bear izango ditugu, eskola txikitik eskola nagusirainokoa, alegia. *Unesco*'ren asmoetara, eluke gurasoengandiko izkerak izan bear oztopo, gure buruak iazteko, ikasbide errez baizik. Garai ori gure arte-ra etor dadineko, -ta geuk benetan nai izango ba'genu, elduko ginatete- orainartekoa baino euskera ugariagoa, oparoagoa ta ederragoa erabili bear izango lukete gure andikiek eta gizon ikasiek. Zaila da gure egitekoa, ez, ordea, ezina. Gure gain dago. Ez da utsaren urrena: gure Erria il ala bizi ortan legoke. Ez da norbere burua bezalakorik: ez utz besteei egiten, zerorrek egin dezakezunik. Orixe opa izan du *Euzko-Gogoa*'k amar urte aundiotan: zuzen edo makur, eder edo itsusi, gure artean noiz-nai euskeraz egin dugu”.

Badakigu honezkero zein den *Euzko-Gogoa*-ren xede espezifikoa. Aldizkari bat argitaratzea da, izan, baina hark bere egitekoa prosa akademiko eta landua egitea du, euskarazko unibertsitate-ikasketarako hizkuntza egokia lantzea. Zentzu honetan, *Euzko-Gogoa* izan da goikultura unibertsala osorik euskeraz ematen saiatu den lehen aldizkaria.

¹²³ Ibid., 2.

Landu zituen gaiak ez zirela modernoak? Baiki. Baina hori beste kontu bat da, garaiko euskal testuinguru hurbilean kokatu beharreko zerbait.

Azaldu ditugu *Euzko-Gogo*a-ren xedeak. Baina xede hauek zein irizpidetan oinarritzen dira? Erantzuna tesi gisa formulatuta emanen dugu.

LAUGARREN ATALA

ALDIZKARIAREN TESIAK

Seguraski zuzenago litzatekeen arren zuzendaritzaren tesiak deitzea, hemen aldizkariaren tesiak ezarri dugu. Aldizkari bat, zuzendaritzak bere marka ezartzen badio ere, azken batean, bertan parte hartzen duen idazle-multzoaren emaitza da. Zentzu honetan, han-hemen modu batera edo bestera formulatuta errepikatzen diren tesiak ezaugarritzen dute aldizkariaren pentsamendu kolektiboa. *Euzko-Gogoa*-ren kasu honetan, gainera, gerraurreko euskaltzale-multzo kualifikatuarenari dagokiona da. Nahiz eta guztiak ez izan irizkide, gehienak bat datoz oinarritzko suposizio batzuetan. Aipatzera goazen tesiak aldizkariaren zuzendaritzak formulatuak badira ere bere atarikoetan, iruditzen zaigu aldizkariko lankide gehienek, fiabardura batzuk salbu, bere egin-go zituztela zailtasun handirik gabe idatziak izan ziren garai hartan.

Euskara gabe ez da Euskal Herririk

Tesi nagusitzat jo daitekeen formulazio horrek markatzen du *Euzko-Gogoa*-ren jokabidea. Aldizkari-bilduman aipu asko dira tesi honen alde idatzitakoak. Lehen atarikoan bertan formulatu zen tesi

hau, labur baina zehatz¹²⁴: “Euskaldun euskarak egin gaitu, beraz, euskera gabeko Euskadi’rik eztugu opa”. Euskal nortasunari buruzko beste pasarte honetan esaten denez, euskara da elementurik “egiazkoena” edo bereizgarriena¹²⁵: “Ez du iñork zertan arritu gure erriaren osagailurik egiazkoena euskera dela badiñogu. Euskerak iraun zun bitartean gure erriak ere erri iraun zun, gogo ta lurraren iabe. Euskeraren ondamendiak aldiz, erriarena ere ekarri digu euskal-gogoarekin batera. Etzitekean bestela izan ere, izkera baita erriaren arima ta izkera galduz gero erriarenak ere egin du (...) Euskerak ba’dirau, gure erriak ere iraungo du!”.

Beraz, baldin ontzat ematen bada euskera izan dela beste giza mota guztietatik bereiz eutsarazi gaituena, hemendik ondorioz ateratzen da, euskara galduz gero, Euskal Herriak ere berea egin duela¹²⁶: “Euskaldunenak egin du, euskera galdu ezkeru, euskerak egin baikatu euskaldun”. Horixe bera zioen N. Tauer-ek ere¹²⁷: “Euskara bada du-darik gabe euskal-abendaren zeingi argiena eta eusko-jakintzaren oñarri bakarra (...) Itz batez, euskara ilko bada, ilko da gure Euskalerrri maite-maitea ere”. Ildo beretik zihoan Andoni Agirrezabalen iritzia ere, zioenean “erri bakoitzari jatorriz dagozkion berezitasun guzti auen arteko bat, zalantzarik gabe, norberaren izkuntza dugu(la) garrantzi aundienetakoa”¹²⁸. Andima oraindik urrutiago joan zen hizkuntzari herri-nortasunaren ezaugarri gisa egozten zizkion atributuetan, zeren, euskarak aspalditik txoraturik zeukala aitortu ondoren, berarentzat “euskera euskotarren ezaugarri bakar eta nabariena” zela baieztatzen baitzuen¹²⁹.

Euskara herri baten ezaugarriarik “egiazkoena”, “argiena”, “garrantzitsuena”, “nabariena” eta horrelakoak esatea, ados. Konbentzimendu

124 “*Euzko-Gogoa* eta gu”, op. cit.

125 “Euskal Batzarrea” atarikoak, *Euzko-Gogoa*, 1-2, Ilbelta-Otsaila, 1955.

126 “Atarikoak”, *Euzko-Gogoa*, Ilbelta-Otsaila, 1955, 1.

127 “Diosala”, *Euzko-Gogoa*, 2, 1950, 23.

128 “Nun Euskal-Erriaren nortasuna”, *Euzko-Gogoa*, Epaila-Iorrraila, 1956, 59.

129 “Paper artean ito bearrez”, *Euzko-Gogoa*, 11-12, 1951, 14.

honen adierazle besterik ez dira aipu horietan tartekatzen diren “zalantzarik gabe” eta horrelako adberbioak. Baina hemendik “bakar” dela esatea –guk hau ere zalantzarik gabe diogu–, gehiegi esatea da, beste kultur elementu gehiago ere sartzen baitira haren osaketan.

Euzko-Gogoa-k urrats izugarria eman zuen hizkuntza, gure kasuan euskara, herri-nortasunaren ezaugarri nagusizat hartzean, euskal nazionalismo historikoaren bidean zerbait berria zena. Puntu hone-tantxe egingo du zubi Federico Krutwigek gerraurreko euskaltzale hauekin, nazionalismoa ez arrazan baizik hizkuntzan oinarritzen baita. Haren ustez, Lafon Euskaltzaindian sartzeko hitzaldian esan bezala, euskaltzale eta abertzale izateak euskara jakitea ez ezik erabiltzea ere inplikatzeko du¹³⁰; “Euskaldun batek bere arbasoen hizkuntza ikasi ta irakatsi bear du, bere nazional-hizkuntza delakotz. Euskalherria maite izaita ta euskararen ez-erabiltzea eztoaz elkharrekin; euskaraz mintzatzeko eztago euskalzaletarzunik. Euskalherria maite duenak ‘egin bear dituten gauzetarik lehena’ euskaraz mintzo izaita da”.

Hain da beharrezkoa hizkuntza baten erabilera herri baten kultur bitiztan, ezen bere hizkuntza galtzen duen herriak bere gogo edo izpiritu bereziak galtzen baititu. Horrelako zerbait gertatu bide zen, Andoni Agirrezabalek esatera¹³¹, Euskal Herriko “erdal-lurraldeetan”, zehazki Araba eta Nafarroan, non, haren ustez, beren burua euskalduntzat zutenak banaka batzuk besterik ez baitziren.

Euskararik gabeko euskal kultura ez da benetakoa

Goiko aipu horietan baieztatutakoaren arabera, ildo beretik beste urrats bat harago emanez, herri baten kultura egiazki ezaugarritzen duena hizkuntza dela esango du Andoni Urrestarazuk¹³²:

¹³⁰ “Lafon Yaunari ongi-etorria Euskaltzaindian”, *Euzko-Gogoa*, Epaila-Yorraila, 1952, 53.

¹³¹ Op. cit., 59.

¹³² “Euskera eta euskal-kultura”, *Euzko-Gogoa*, 11-12, Azila-Lotazila, 1954, 187-188.

“Zertan ote datza berezitasun ori, kultura bakoitzari berezitasuna ematen diona? Ez ote da, alegia, erri bakoitzaren izkuntza. Bai, noski; gurezat beñepein, ementxe dago azalpen nabariena, errien eleetan, izkuntzetan. Parantzerak ematen die parantzetarrei beren yakintza ta azitasunaren ikur berezia; españerak, españarrai; englanderrak, englandarrai, e.t. Beraz, Frantzia'ko kultura, España, England, e.t.ekoa, parantzeraz, españeraz, englanderaz, ... egindakoa; alakotz, euskal-kultura, euskaraz eta ez bestez egindakoa. Parantzeraz, españeraz, englanderaz edo beste izkuntzaz egindako kultura, naiz eta euskel-gai utsak erabiliarren, ez da iñoiz izango ben-benetako euskel-kultura, beste ele bakoitzarena baizik”.

Aipu horretan baieztatzen dena onartu ala ez, ezin da ukatu benetan garrantzitsua dela esaten dena, batez ere kontuan hartzen bada noiz idatzia den gazteiztarraren artikulu hori. Ohikoa baita euskaltzaileen artean ere euskal gaiez erderez jardutea, joera nagusi honen kontra jaikitzen da, esanez erdarazko kultura, euskal kasuari dagokionez, ez dela “iñoiz izango ben-benetako euskal kultura”. Horregatik, beste pasarte honetan ondorioztatzen duen bezala, euskal kulturak, benetakoa izan dadin, euskaraz egindakoa izan behar du¹³³: “Beraz, euskal-kultura auxe edo dugu: euskeraz, euskerazko oldozmenez, Ludi'ko ta Yakintza'ren ezagupenak lortu ta edatzeko Euzkadi'n erabiliko den era berezia. Egiz eta ertsikiz ezin euskel-kulturaz mintzatzea, malla guzietako kultura euzkeraz egin eta jaso arte: erriko bizi guztia, goian eta bean, arrunt eta yakintzakoa, euzkeraz okitu arte”.

Dena den, delako “ben-benetako” adjektibo horren edukia, egileak egiten dituen zehaztapenak egin eta gero ere, aski ilun geratzen da, ez baita esaten hizkuntzak zein neurritan mugatu edo ezaugarritzen duen herri bateko kulturaren muina. Helburua, desiren paradisua, badaki zein den: euskaraz egindako kultura. Baina erdaraz egindakoa nagusitzen den une honetan, zer egin behar da? Hona hemen ematen duen erantzuna¹³⁴: “... erderaz egindako lan guztia, gero euskeraz egingo

¹³³ Ibid., 188.

¹³⁴ Ibid.

danaren oinarritzat artu bear dugu. Lan guztietan mallak daude; orobat, bearrez, egiten ari geran gurean ere. Ontzat artu ditugu beti orain arte egindako lan guztiak; areago egitea nai dugu beti ere, baina euskerari gero eta toki geio ta aundiagoz”. Zentzu honetan, bada, erdaraz egindako lan guztia –Eusko-Ikaskuntzak egindakoa, kasurako–, ezin da esan lan alferra denik. Lan onurakorra da, nahiz eta osatu beharrekoa izan.

Beraz, laburtuz, hauxe da haren tesia: hots, euskararik gabe benenetako euskal kulturarik ez dagoela eta, helmuga horretara iritsi ahal izateko, euskal kultura osoaren antolaketa egin behar dela, oso zehatza, euskal kultura osoki euskaduntzeko prozesu horretan mailak ezarriz, zinetan euskararen beharrari lehenetasuna emango baitzaio.

Euskaltzale guztiak ez baitzuten berdin sentitzen euskararen beharra ezta berdin balioesten euskarari euskal kulturgintzan dagokion lekua, maila praktikokan, jadanik euskal pizkundetik hasita, jokabide desberdinak mantenduko dira euskal idazle elebidunen artean. *Euzko-Gogoa*-ko zenbaki desberdinetan zehar maiz aurkitzen gara euskal kulturaren inguruan sumatzen den gehiegizko erdarazaletasuna salatzen duten pasarteekin. Luma batzuk oso minberakor agertzen zaizkigu idazle ustez erdarazaleegien aurrean. Euskarari buruzkoetan nekez barikatzen duen horietakoa den Andimak –hemen “Elentxu” izenordearekin izenpetzen duenak–, noizbehinka zitzada batzuk botatzen ditu. Euskal gaiez diharduten aldizkarien gainean egin ohi duen aipamen laburretako batean, “aldizkari ok, damurik, erderaz ugari eta euskeraz urri dituzu” esango digu, eta aldizkari elebidun horien artean, euskara gutxi darabilela salatzen duen aldi berean, Jose Migel Barandiaranek zuzentzen duen *Euzko-Jakintza* kultur aldizkaria goraiatzen du gehien¹³⁵: “Euskal gaietaz, erderaz agertzen dan aldizkaririk aberatsena auxe. Ba’duke euskaltzaleak gogoa nun ase, yakituri yatorrez eta yakimbideak eskatu ariora idatzi lanez. Euskera gutxi darabilte gure letradunek, baina *Euzko-Jakintza*’ren zuzendariak asmorik garaienak darabilzki utsune ori betetzeko”.

¹³⁵ “Aldizkariak barna”, *Euzko-Gogoa*, 9-10, Iraila-Urri, 1951, 68.

Izan ere, Elentxuren aldizkari-aipamena irakurtzen hasi eta, oharzen gara Guatemalan *Euzko-Gogoa*-k eta Donostian *Egan*-ek beren euskarazko bidea hasi zuten 1950eko hamarkada-hasiera hartan, euskal kultur aldizkari gehienak elebidunak edo erdaldun hutsak zirela: *Gernika*, *Boletín de la R.S. Vascongada*, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, *Gure Herria*, *Alderdi*, *Euzko-Deya*, *Euzko-Jakintza*, etab.

Aldizkarietatik euskararen aldeko kultur erakundeetara etorrita, ikusiak gara nola Andimak idazten zuen 1954ko bigarren zenbakiaren hasieran Eusko-Ikaskuntzaren Batzarrak antzuak gertatzen ari zirela euskararik erabiltzen ez zutelako. Beno, bada: zenbaki beraren bukaeran, salaketa Euskaltzaindiaren Batzarretaraino ere iristen zen. Erakunde honek Arnault Oihenarti buruz Gipuzkoako Foru-Aldundian antolatutako hitzaldiak oinarritzat hartuta, Luis Mitxelena gaztearen hitzaldi “ederra” aupatzen zuen, baina, J. M. Barandiaranen aldizkariarekin egin bezala, honi ere gehienbat erdaraz ari zela gogorarazten zion¹³⁶: “Ezaguna da, dagoeneko Mitxelena iauna euskal arloan, bañan erderaz ari izan da geienbat, gure izkeraren illunbeak argitu naiez. Gure artean gaurkoz dugun izkeralaririk aipatuena dala esango ba’genuke, ez genuke noski, gezurrik ialkiko, ez orixe. Bañan Koldo Mitxelena, euskeraz ere maizu (sic) dugu. Izkera aberats, errex ta ixurkorra darabil bere euskal lanetan. Ez nolanaiko euskal lanetan, iakintsuetan baizik”.

Baina gatozen Andimaren testura eta orduko testuingurura. Euskararen egoera orotara hartuta, ikusten zuen haren idatzizko erabilerara txoko batean baztertuta zeukatela euskaltzale jakintsu gehienek. Baliteke batzuekin besteekin baino zorrotzago jokatzeari, guztiakin neurri bera ez erabiltzea. Jose Migel Barandiaran bati, adibidez, “asmorik garaienak” opa zizkion bere aldizkariari buruz. Andimaren gutunak eskuartearen ditugun honetan, badakigu zergatik zituen ezarriak horrelako esperantzak aldizkari horretan. Batetik, Paristik Zaitegiri 1951ko otsailaren 19an egindako gutunean datorrenez¹³⁷, “Barandiaranek

¹³⁶ “Idazti berriak”, *Euzko-Gogoa*, 3-4, Epailla-Yorrailla, 1954, 71.

¹³⁷ Paristik Guatemalara, Zaitegiri (Urkizu, P. <prest.>, op. cit., 45).

Eusko-Yakintzako administrazioa bere eskuetan” utzia zuela jakiten dugu; bestetik, urte bereko abuztuan, adiskide berari jakinarazten zion “Barandiaran jaunak euskera sartu nai luke(ela) inbestigazio lanetan, eta *Eusko-Yakintzan* euskal lanak argitarazi”¹³⁸. Etxekoa zitzaion aldizkari honek, ordea, euskarazko lanetik gutxi du.

Andimak hori idatzi eta handik bi urtera, 1956ko lehen zenbakian, U izenordearekin izenpetzen zuen Andoni Urrestarazuk, orri batera ere iristen ez zen artikulutxo batean, bere harridura agertzen zuen Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkaria ia osorik gaztelaniaz zetorrelako¹³⁹: “Azkenik eskuetara zait Euskaltzaindia’reñ aldizkaria: ao bete aginekin utzi nau, damurik. Zortzi idazlanetatik bi soilik euskeraz, Altube ta Lekuona euskaltzain iakintsuenak, alegia. Dirudienez, zenbaiten iritzian, euskera zaitzeko biderik ederrena erderaz idaztea da. Nik behintzat, eztut aien begietatik ikusten, ala bearrik. Bazterretan ugari ditugu ainitz ta agitz euskeraz dakitenek: euskeraz, ordea, urri itz egin ta idatzi oi dute-ta, iakintzaren sail geientsuenetan euskera larru gorritan ageri zaigu. Areago euskeraz mintzatzeko ta idazteko garaian bizi gera, euskera dala-ta erderaz baino”. Hizkuntzalaritza euskaltzale-tasunaren beharrea dagoela esanez bukatzen du bere parrafoa: “Euskalariak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak bear ditugu, noski baino noskiago, beste nonbait idatzi nunez”¹⁴⁰.

Nahasketarako bide eman zezakeen Umandiren azken esaldiko iritzi horrek, Andimaren aurreko kilimatxoa aski ez izanda, Koldo Mitxelenaren hasarre-puntua piztuko du, zeinek, salaketa horretan bere burua zeharka aipatua ikuski, *Euskera* aldizkariaren defentsan atearako baita *Egan*-etik sei orrialdeko artikulua batean¹⁴¹: “Beldur naiz orratik, etsai izugarriak eta erraldoi itzalak apurtzen dituelakoan, ez ote den ardi otxan eta aize-errotekin borrokan ibilli”. Arazoa ez duela

¹³⁸ Jokin Zaitegiri Paristik Guatemalara, 1951-08-8 (Ibid., 60-61).

¹³⁹ “*Euskera*. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak I, 1956”, *Euzko-Gogoa*, Ilbeltza-Otsaila, 1956, 115.

¹⁴⁰ Ibid.

¹⁴¹ *Egan*, 5-6, 1956, 157.

behar bezala planteatzen, alegia. Zailtasunak ez dira aurkitzen maila teorikoan, jokabide praktikokoan baizik. Horregatik, beste pasarte batean, berak ere euskarari oinarritutako euskal kultura nahi duela baieztatu ondoren, ikerketa-lanetan erdara arrazoi praktikoen erabilpena erabiltzen duela zehaztu du¹⁴²: “Munduan barrena dabilten esku-liburuak, euskaldunen ikasbiderako, itzultzeari eta aien gisakoak antolatzeari ezin obeki derizkiot. Baiña jakintza-arloan billa ari denak ezer berririk euskeraz adierazi? Zertarako? Kontatzen dakienak ezta orrelakorik egingo”.

Ezin garbiago esan zezakeen Koldo Mitxelena esatekoa. Bi muga gaudienak dauka euskarak: bata, ez dela nazioarteko hizkuntza, eta bestea, diziplina zientifikoak garatzeko ez dagoela behar beste landua. Ikerketa zientifikoek zabalkundea eta kalitatea behar dute. Horra!

Jokin Zaitegi da, ez Umandi, *Euzko-Gogo*-ko editorialetik erantzungo diona, nahikoa gogortxo, gainera: “Bigarren agerraldiko *Euskeraren* lenengo banakoari buruz bere iritzia eman zun U’k. Okerrean ezipagaude, bere lantxoan auxe adierazi nai zien Euskaltzaindi’ari ta bertako euskalariei, beren lanak euskeraz emateko beraren aldizkarian, alegia. Euskaltzaindi’ari ta zenbait euskalariei ori eskatzea, ordea, ONU’ri ta Einstein edo Fleming’i beren erabaki ta asmakizunak euskeraz emateko eskatzea bide da: zentzugabekeri ta quijotekeri utsa, alegia. Ori dala-ta, U. ori astinduka darabil Mitxelena iaunak, eta iseka ta ista onik egiten du bere buruaren pozetarako ta irakurlearen saminetarako”. Inoren kontura farra egitea dela errazena iradoki ondoren, bere ustez euskaltzale baten egitekoa zein den esatera pasatzen da gero, hemen ere hitz-erdika ibili gabe¹⁴³: “Zuzen ala oker, euskararekin bat eginda egon nai genuke, gure erriaren gogoia ortantxe mamiturik ikusten baitugu batez ere. Mintzabide soila eztugu euskera, gure gurasoen gurasoek beren biotz-ezpainetan birloraturik zerabilten izkera baizik: abendaren odolez igortzia ta aren gogoaren arnasez lurrindua baitago, mun eginda erabiltzekoa dugu. Ori dala-ta, euskerak aurrerarik egin

¹⁴² Ibid., 160-161.

¹⁴³ Ibid., 2.

dunean, txaloka asi gera ta horrela iarraituko dugu gure euskal-idazleak arrotuz, oiek baititugu gure erriaren era gure euskeraren aldeko guda-ri berriak, egunero, orduoro, uneoro, nor bere kitatxoan, lanean ari diran euskaldun beinenak”.

Jokin Zaitegik, era berean, beste bi puntu gogoraziko dizkio itzulian Mitxelenari: bat, *Euskara* aldizkarian gaiak euskaraz idaztea ez dela kixotekeria bat, egingarri ez ezik egin beharreko zerbait baizik, eta bi, oraindik ere euskararen sustapena euskaltzaletasunaren beharrean dagoela. Oro har euskalgintzari eta, zehazkiago, kultura akademikoaren lanketari dagokionez, sekula erabat bat etorri ez diren bi mundu dira Zaitegirena eta Mitxelenarena, eta diogunaren frogarik handiena da, beren idazlanak orotara hartuta, arrasatearrak denak euskaraz burutuak dauden bitartean, errenteriarraren euskarazkoak ez direla laurdenera ere iristen. Honek, noski, zerbait adierazten du. Badakigu listoak zer gaineratuko duen: edukien kalitatea. Bego.

Andimak, Urrestarazuk eta Zaitegik salatzen dutena ez da gezurra, ez den bezala desbideratua haiek helburutzat proposatzen dutena: kultura akademikoa euskaraz lantzea, alegia. Gu gaude historiak Zaitegiri eman diola arrazoia. Guk ere, bere garaian, eta espantu handirik gabe, antzeko iritzia agertu genuen Koldo Mitxelena hizkuntzalaria jakitunari eskaini genion atalean¹⁴⁴. Kazetari batek, maisuari errespetua galdu geniolako edo, guk al dakigu zergatik, lauzpabost artikululu idatziz eraso zigun *Zeruko Argia*-tik. Ez genion erantzun, zeri erantzunik ez zegoelako. Gainera, errenteriarrak ez zuen bere buruaren defentsarako inoren beharrik. Bere arrazoiak *Anaitasuna*-n agertu zituen¹⁴⁵, zeinak, funtsean, jadanik *Euzko-Gogoa*-rekin izandako eztabaidan agertutakoak baitziren.

Orduan bezala orain ere berdintsu pentsatuz segitzen dugu, hots, hark bere hautua eginik zeukala: barruko nahiz kanpoko bezero akademikoarentzat erdaraz idaztea, eta bezero euskaldunentzat, berriz,

¹⁴⁴ Begiarmen (Iztueta eta Apalategi): *Sei idazle plazara*, I, Jakin, 1974.

¹⁴⁵ “Epe berri bat?”, 1975-01-15.

euskaraz, bereziki gai arruntagoetan. Noski, hautu hori hertsiegia zerritzon Andimari, baita guri ere, lehen eta orain. Orain areago, UEU eta EHUri esker, prosa akademikoak euskaraz urrats galantak eman baititu. Zorionez, Koldo Mitxelenaren ikuspegia zein jokabidea, biak jadanik ederki gaindituak daude.

Nolanahi ere, aldizkariak eta erakundeak alde batera utzita, hari edo honi maila pertsonalean kontuak eskatzerakoan, emaitzak dira kontuan hartu beharrekoak. Eta maila honetan, estatistikak lekuko¹⁴⁶, askoz gehiago da Mitxelenak euskaraz idatzia utzi duena Barandiaranek baino: hots, lehenengoak % 21,58 eta bigarrenak % 3,11 besterik ez. Alderik bada! Bestalde, Jose Migel Barandiaranek *Euzko-Gogoa*-n lau emanalditan argitaratu zuen “Euskal-mitologiaren ikaspiderako” lana¹⁴⁷, nahiz eta itzulpena dela esaten ez den, Andimak esanda dakigu berak itzuli zuela Guatemalan 1954ko urte-bukaeran¹⁴⁸.

Erdaraz egindako “euskal kultura”, Andoni Urrestarazurekin esateko, “ben-benetakoa” izateko zerbeit falta zaion hori, uste baino indartsuagoa zen gerraurreko euskaltzale ikasien artean. Hizkuntza behar adina menderatzen ez zutelako edota, Koldo Mitxelenak esatera, irakurle birtualak etxean baino kanpoan gehiago aurkitzen zirelako, kontuak kontu, praktikak erakusten zuena zen euskara eta euskal kultura pizkortzeko xedearekin sortutako erakunde nagusiak, hala Eusko-Ikaskuntza nola Euskaltzaindia bera, gehienbat erdaraz ari zirela beren jardunetan.

EAJ/PNV bera ere ez zen erabat salbatzen erdalkeriaren gaitz honetatik, *Euzko-Gogoa*-k 1954ko hirugarren zenbakiko atarikoan hauxe baitzekarren¹⁴⁹: “Gure erriak, berriz, ez du izan iñoiz ere ortarako

¹⁴⁶ Iztueta, Paulo, “Euskal kulturaren kontraesanak: teoria eta praxia”, *Uztaro*, 9, 1993, 127.

¹⁴⁷ *Euzko-Gogoa*, 1954, 9-10, 155-157; 11-12, 198-201; 1955, 1-2, 23-25; 3-4, 56-57.

¹⁴⁸ Hau esaten dio Alfontso Irigoieni Guatemalatik Bilbora 1954ko azaroaren 16an egindako gutunean: “Egun auetan amaitu dut Barandiaranen euskal-mitologi berria euskeraz. Aldizkarian agertuko da zatika” (Urkizu, P. <prest.>, op. cit., 174).

¹⁴⁹ “Amilbera” atariko, *Euzko-Gogoa*, 5-8, Orrilla-Dagonilla, 1954, 74.

kemenik, euskera aintzat artu ta zegokion gaindegira eramateko. Aitzitik, betidanik erakutsi izan du erri-elearekiko arbuiorik lotsagarriena, eta arbuio ortan darraiki oraindik ere. Abertzaletasunak itsualdi ontatik euskotarrak aterako zitula esan edo uste zitekean. Ez ba... Gurean Jel-alderdia izan da abertzaletasunaren arrobia, baita euskararen illobia ere. Ez noski, asmoz ta aikitez, bai ordea, bear bezalako gizontasunik ukan ez duelako izkera-auzi latz ontan; etzun euskera artu alderdiko ele bakartzat, alderdikide guztiak aberri-izkera itzez ta idatziz erabiltzera bearturik, enda-ezaugarri bakar ta garaientzat euskera ezarririk. Erdera izan du ele nagusi; oraindik ere ez du euskeraren miñik bere aratoletan nabaitu. Euskera ez dala aski abertzale zintzo izateko darasate... Eta erdal merkatari etoi biurtu zaizkigu euskaldunok oro”.

Abertzaletasunak berak ere huts egin baitzuen, horregatik zihoan euskara “amilbera”. Editorial honen atzean noren luma ote zegoen? “Ia seguru Jokin-ena” dela pentsatzen du Joseba Intxaustik; guri Andimarena dela iruditzen zaigu, bera baita, beste pasarte batean ikusia dugunez, hemen ere euskara “enda-ezaugarri bakar eta garaientzat” hartzen duena. Batarena ala bestearena izan, zuzendaritza bera da horrela pentsatzen duena. Bazekien, espero zuten, etxekoek etxekoen ajea horrela salatzeak minik sor zezakeela abertzaleen familian, ez baita gustagarri izaten, aurrean etsai handiagoak daudenean, etxekoen zapi zikinak aireatzen hastea. Urte bereko azken zenbakiko “Irakurlearen txokoa” zetorrenez, salaketa hark “sumindura” sortu zuen EAJko sektorerik euskaltzaleenean¹⁵⁰: “Orril-Dagonilleko zenbaki bikoitzean agertu zan Ataurrekoa’k irakurle zenbait mindu edo ditu (...) Ondo genekigun esakera batek maiteen ditugunak naigabetuko zitula, eta hala gertatu da”. *Euzko-Gogoa*-ri handik eta hemendik etorri zitzaizkion erantzunak, baina beti EAJen organoetik. Lehen erantzuna Mexikoko *Euzko-Deyatik* etorri zen, euskaltzalerik maiteenetako baten eskutik, hain zuzen, halaxe baitzen Antonio Ruiz de Azua (“Ogoñope”) idazlea¹⁵¹. Honen

¹⁵⁰ *Euzko-Gogoa*, 11-12, Azilla-Lotazilla, 1954, 205.

¹⁵¹ Miatu ditugun arren 1954ko zenbakiak oro, ez dugu horren aipurik aurkitu.

erantzunari “bidetsu ta neurritsua” zeritzon zuzendaritzak eta bere egiten zuen “euskerak, beste ezeri baiño gehiago, abertzelatasunari zor diola” zioen esaldia. *Euzko-Gogoa*-ren asmoa justu alderantzizkoa zen: abertzale euskaltzaleak ez, erdalzaleak salatzea baizik¹⁵²: “Aberzale aunitz erdel-uiolaren ur zikiñetan narraz dioazkigu, eta orixe eragotzi nai genun gure ataurrekoan. Ez da goxo maiteen ditugunak iotea, baiña noizipein bearrezko gertatzen da gogoz bestera ere”.

Hurrengo urtean, *Alderdi-k*¹⁵³, eztabaida zuzendaritza-mailan kokatuz, beste editorial batekin erantzun zion, zeinetan EAJk euskararekiko duen jokabidean, bi maila desberdineko arrazoiak ematen baitzituen. Lehenengoa soziologikoa zen, zioena, nahi izanda ere, EAJk ezin zuela euskara hizkuntza bakartzat hartu, “bere bazkide geyenak erdeldunak” omen zirelako. Bigarrenak arazoaren alderdi etikoa azaltzen zuen, aitortzean, euskararen alde behar adina egin ez arren, hala egiten gogotik ahalegintzen zela¹⁵⁴. Eta esandakoaren zuzeneko frogatzat, *Euzko-Gogoa* bera ere abertzaleen laguntasunari esker bizi dela baieztatuko da¹⁵⁵.

Beraz, zeharka bada ere, jeltzaleengandik hartutako laguntza legoke *Euzko-Gogoa*-ren atzean. Zuzendaritza prest agertuko da azken 50 urteotan egindako gehiena –egindakoa iñola ere “aski” izan ez arren–, “nolarebait” JEL alderdiari zor zaiola onartzeko, baina errotik ukatuko du *Euzko-Gogoa*-k abertzaleen laguntzarik jaso izana. Azken puntu hau, Jokin Zaitegi zuzendariak ondoegi zekien bezala, ez zen egia, Guatemalan bederen bere izerdiz atera baitzuen aurrera, eta hori irakurri beharrak min izugarria eman zion. Aldizkariarekin abiatu eta hurrengo urtean Zaitegi kexu zen harpidedunek ere ordaintzen ez

¹⁵² Ibid.

¹⁵³ “Nor euzkeraren erailleak?”, Otsailla, 1955, 2-3.

¹⁵⁴ Aipu zehatza hauxe da: “... esan nai badu Jel-alderdiak ez duela bear ain egin, euzkera zegokion malletan ipintzeko, zuzen dago *Euzko-Gogoa*, baiño oker dabill esan nai badu gure alderdiak gogotik euzkeraren alde alegindu ez dala” (Ibid.).

¹⁵⁵ EAJren ustez, ez da “Jel-alderdiak aurretik, barrendik edo gibeletik eragin gabe korik” eta ondoren galdera hau egiten du: “*Euzko-Gogoa* bera, abertzaleen laguntasunik gabe, zer izango ote litzake?” (Ibid.).

zutelako¹⁵⁶: “Bigarren urtean barrena yoan goaz ta oraindik askok ez digute igazko arpidearen saririk ordaindu, are gutxiago aurtengoa. Ez uste *Euzko-Gogoa* aberats porrokatua danik. Guztion laguntzaren bearran gera, bide berriok barna aurrera yo dezagun”.

Zaila da gertatzen dena garbiago esatea: laguntzarik jasotzen ez duelako ari da laguntza eske. Horregatik, bi urte geroago eztabaida hau sortuko denean, harpidedun bizkarroien berri zehatzagoak emango ditu¹⁵⁷: “Abertzale ta jeltkideengandik eskura dugun laguntza utsaren urrengoa izan da zoritxarrez. Mexiko ta Venezuelako abertzale, jeltkide ta euskaltzaleen artean bospaseik bakarrik ordain izan dute beren arpi-de-saria; ta ala besteak”.

Guatemalako azken urtean, aldizkariaren aldeko publizitate-orrian –ziurrenik Andimak egindakoa–, *Euzko-Gogoa* aldizkaria zuzendaria berak bakarrik gidatu eta finantzatzen zuela berresten zen¹⁵⁸: “Aldizkari au sortu ta zuzentzen duenak soilik dakizki zer nolako lan-nekeak izan dituen aurrera ateratzeko. Ala ere, neke ta eragozpen guztiak bakarrik gaintitu ditu, bakarrik, irakurle, euskaldun eta euskotar guztiak izotza baiño otzago aren dei gartsuari erantzuteke zirautelarik”. Euskal amerikanoak ere entera zitezen, gaztelaniaz emana zetorren hurrengo orrian.

Eztabaida honek zenbait arazo argitan jartzen ditu: bat, kokaguneari dagokionez, arazoa EAJ barruan ematen bada ere, bistan da hizkuntz politikaz ikuspegi eta, halaber, jokabide desberdinak daudela, zinetan euskaltzaleak eta erdaltzaleak bereizten baitira; bi, *Euzko-Gogoa*, filosofiaz eta sentimenduz EAJren hurbilekoa den arren, kudeaketa autonomoa eramaten duela, nabarmenki Guatemalako aldiari, agian, ez hainbeste, Miarritzekoan; hiru, euskararen erabilerari dagokionez, irizpide nagusitzat arrazoi praktikoak agertzen direla. Ageri denez, bada,

¹⁵⁶ “Eup! *Euzko-Gogoa*’ren arpidedunei!”, *Euzko-Gogoa*, 5-6, Orrilla-Garagarrilla, 1951, 53.

¹⁵⁷ “Irakurlearen txokoa”, *Euzko-Gogoa*, 11-12, 1954, 205.

¹⁵⁸ *Euzko-Gogoa*, 1-2, Ilbeltza-Otsailla, 1955. Azken bi orriak.

betiko arazoan aurrean aurkitzen gara, orduan bezala gaur ere proiektu egingarrien eta utopikoen arteko sokan baikabiltza dantzan.

Dena den, *Euzko-Gogoa*-ko zuzendaritzak hain zeukan barneratua Euskal Herriaren hizkuntza “bakar eta garaiena” euskara dela eta, hala izan dadin, kultura jaso euskaraz landu beharra dagoela, ezen aldizkariaren hasierako aurkezpenean bertan finkaturik utzi baitzuen printzipio hori¹⁵⁹: “Arrezkero, euskaraz bakarrik idatzi nai dugu, euskogogoaren barne-muñietaraino eldu gaitezen”. Berriro orain, eztabaida honen beroan, inon zalantzarik bada, bere iparra zein den ere zehaztua geratuko da¹⁶⁰: “Argi argia da gure iomuga, ez diteke argiagorik: euskera ta euskera soilik Euskadi’ko bazter eta gizamailla guztietan”.

Berrikitan Gotzon Garatek argitaratu duen “Euskal Herria elebidun” artikulua elektrikoa irakurrita, konturatu gara *Euzko-Gogoa*-ko zuzendaritzaren tesi horrek berealdiko gaurkotasuna duela, zeren Deustuko filologoak ere, euskaldunok euskaraz bakarrik egitea oso kaltegarri izango litzatekeela diotenen kontra, epai salomonikoa bailitzan, zalantzari leku izpirik uzten ez dion uste hau botatzen baitu¹⁶¹: “Ziur egon gaitzke: Euskal Herrian euskera nagusituko da ala erdara. Biek elkarren ondoan irautea ezinezkoa da. Euskal Herria batera euskaldun eta erdaldun izatea zentauro bat bezala izatea da. Zentauroak mitologian bakarrik izan dira. Gizaburua ta zaldigorputza zuten izaki horiek ez dira sekula izan. Euskeraz eta erdaraz ari den Euskal Herria zentaurokeria hutsa da”.

Biribilik bada, biribila esaldia, gurean azken hamarkada hauetan elebitasunaren inguruan eraikitako diskurtsoa hankaz gora jartzen duena eta gu ere aspaldixotik geure eginez gatozena. Horrelako musika noiz entzungo amorratzen geunden.

Eztabaidok, alabaina, familia abertzaleari barnekoak zaizkio eta zuzendaritzari ez zaio interesatzen bere indarrak barne-liskarretan urtzea, ezta kanporatzea ere. Bere ohargabetasunean, adierazgarria da detailetxo

¹⁵⁹ “Gure asmoa”, op. cit.

¹⁶⁰ Ibid.

¹⁶¹ *Jakin*, 121, Azaroa-Abendua, 2000, 83.

hau: editorialean pizten den eztabaida, irakurlearen txokoan itzaltzen da, besterik gabe. Bistan da, aldizkaria lankide-multzo batek osatua denez, honentzat lehenagokoak dira taldearen batasuna eta kohesioa, nahiz eta zuzendaritzak, zenbait puntutan, besterik pentsatu. Oinarritzko puntuan, halere, ez du amore emango, ez Guatemalako aldi mitikoan, ezta etsaiak erraldoi bihurtuko zaizkion Miarritzekoan ere. Betiko leloa errepikatzen dator 1958ko lehen zenbakiko atariko¹⁶²: “Guk geure iardunbidea aukeratua dugu aspaldidanik, argi ta garbi, izan ere: ots, zuzen ala oker, euskeraz egin eta eragin, euskeraren alorrak gorritu, irauli, ta lur zarrak berritu, inoren esanei iaramonik egiteke, ta inoren mutil izateke. Guzien gogoko ba’gina, galduek gindezke, izan”.

Jokin Zaitegi zuzendariak, hitzeko gizona izaki, esana bete egin zuen. Atarikoan idatzi bezala, “zuzen ala oker”, euskaraz egingo du bere bide propioa. Bere garaiko goren mailako euskal idazleen artean, Jokin Zaitegi izango da ehundik ehun euskaraz idatzi duen bakanetakoa, erdaraz sortutakoak ere euskaratuta argitaratu zituen horietako bat. Guztira, 2.627 orrialde¹⁶³. Hara hemen, metaziria baino tenteago, Zaitegik euskal kultura landuari utzitako herentzia ezin aberatsagoa.

Euskal Herria euskarak salbatuko du

Hau aurrekoaren ondorio zuzena da. Baldin onartzen bada euskara dela Euskal Herriaren hizkuntza bakar eta garaiena, beste hau ere onartu beharrekoa omen da: Euskal Herriaren askapena euskararen berreskurapenean datzala, alegia. Andima Ibinagabeitiak 1955eko zenbakietako batean zekarrena da hau¹⁶⁴:

“*Euzko-Gogoa*”ko gizaldiaren auzia Euskal Herria dugu, eta auzi orren askabidea Euskera, Euskera soilik. Orainarteko gure gizalziek ez dute guk bezela Euskal Herriko auzia azaldu. Auzi ori, esan bear, aiek ere

¹⁶² *Euzko-Gogoa*, Ilbeltza-Otsaila, 1958, 1.

¹⁶³ Iztueta, Paulo, “Euskal kulturaren kontraesanak: teoria eta praxia”, op. cit., 127.

¹⁶⁴ “Etxe-aldaketa”, *Euzko-Gogoa*, 5-12, Orrilla-Lotazilla, 1955, 65.

beren barne-muiñetan sentitu zuten, auzi orren askabidea ordea, ez zuten guk bezela izkeraren gainean ezarri, euskararen gain, alegia. Ez dago besterik: gure auzia euskerak askatuko du, ez beste ezerk”. Horregatik, hizkuntza alderdi guztien gainetik dagoenez gero, “euskeraren auzia ez du politikak andeatu bear”¹⁶⁵.

Hizkuntzarena, beraz, ez da politizatu behar. Andima, tesi hau formulatzean, euskal nazionalismoaren inguruan ikuspegi berria, benetan iraultzailea, planteatu zuelakoan zegoen. Eta neurri handi handi batean halaxe zela esango genuke, hizkuntz nazionalismoaren formulazio hain garbi eta hain errotikorik ez baitzen beste inongo kultur plataformetan –gutxiago erakunde politikoetan–, egin. Egun ere indarrean dagoena dugu nazionalismo-mota hau. Hizkuntzarena despolitizatu behar den ala ez, eta baiezkoan, zein neurritan deslotu behar den, puntu hauxe da batere garbi ez dagoena. “Nazionalismoarekiko desidentifikazioa” proposatzen duenik ere bada, baina kontzeptu honi ekarpen berria izan daitekeen ezein eduki berezirik ez diogu atzematen¹⁶⁶. Guk jadanik idatzirik daukagu hizkuntza eta botere politikoa elkarri ertsiki loturik datozela eta gizarte-fenomeno biok ezin direla ulertu elkarren erreferentzian ez bada¹⁶⁷.

Abertzaletasuna “euskaldun-fededun” esloganean mamitzen da

Lehen zenbakian, “Opariz” izeneko zatitxoan esplizituki formulatua zetorren 1970eko hamarkada arte EAJren muin ideologikoa izandako printzipio aranista hau: “Zure semerik maiteenak izan nai dugunok, Aberri laztana, lurretiko guziak baño aintzakotzat zaitugula bada ki gure Yaungoikoak. Gure zaiñetako odol beroa eskeintzeko ere gerturik gaituzu, ala bear ezker. Ez baidugu azturik Arana-Goiri’k agindua: Gu Euzkadi’rentzat eta Euzkadi Yaungoikoarentzat”.

¹⁶⁵ “Atarikoa. Euskal Batzarrea”, *Euzko-Gogoa*, 1-2, Ilbelta-Otsailla, 1955, 1.

¹⁶⁶ Zabalo, Julen: *Abertzaletasun eta ezkertiarak*, Elkarlanean, 2000, 159.

¹⁶⁷ Iztueta, Paulo: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2000.

Askoz ere zehatzago, *Euzko-Gogoa*-k bere lehen atarikoan adierazi-ko du zein den berak hautatzen duen bidea¹⁶⁸: “Alderdikeriak oro bazterreratu ta euskaldun guziak onartu bear dutena onartu dugu. Euskaldun fededun izaki, erdiko bide zabaletik barna jo nai izan dugu”.

Horko aipu horretan agertzen den “euskaldun fededun” hori arnismo jeltzalearen itzulpena besterik ez da, zeinaren arabera nola euskaltzaletasuna hala abertzaleatasuna, biak, erlijio katolikoan oinarritzen baitira eta elkarrekin banaezineko batasuna osatzen baitute. Egiazko euskalduna izateko, bada, fededuna izan beharra dago. Euskaldunaren jatorriasuna fedearekin uztartzen da, 1956ko atarikoan datorren galdera honek islatzen duen bezala¹⁶⁹: “Nor euskaldun iatorra baino Jainkozaleagorik?”. Beraz, zenbat eta euskaldunago orduan eta Jainkozaleago.

Kristau-jatorriasunaren eta euskalduntasunaren eredutzat Eusko Jaurlaritzako Jose Antonio Agirre lehendakaria zeukan Zaitegi zuzendariak. Hari bere heriotzaren omenez eskainitako azken zenbakiko atarikoan, hain zuzen, euskaldun fededunaren eskakizunak bete eta azken ondorioetaraino eramaten bera izan zela gidari esaten da pasarte honetan¹⁷⁰: “Besteak beste, euskaldun fededun aren bizitzarte guzian bi Irakasbide nabarmengarri ditugu, nere uste kaxkarrean: ta baldin labur adierazi nai ba’genitza, ‘euskaldunak bat’ itzetan mamiturik arkituko ditugu. Bai-baitzekien inor ezin ditekeala kristau on izan, bere Erria benetan maite izan ezik. Areago oraindik: euskalduna ezin daitekeala kristau on izan, euskaltzale ezpadaite: endaz beste, euskararengan baitago gure Erriaren besterik ez bezelakotasuna”.

Hara hor, bada, kristautasuna, euskaltzaletasuna eta abertzaleatasuna errealitate bat-berean urtuta. Euskaldun on eta jatorra izateak berekin dakar kristau eta euskaltzale zintzo izatea, hots, norberak bere herria maitatzea. Horrelakoxea izan zen Arana-Goiri maisua. Horrelakoxea, halaber, Jose Antonio Agirre jauna ere, aldizkaria argitaratzen lagundu ziona eta une latzetan herritar guztiak elkartzen jakin

¹⁶⁸ “Ataurrekoa. *Euzko-Gogoa* eta gu”, *Euzko-Gogoa*, 1954, 1-2, Ilbeltza-Otsaila, 1.

¹⁶⁹ *Euzko-Gogoa*, Ilbeltza-Otsaila, 1956, 1.

¹⁷⁰ *Euzko-Gogoa*, 3-6, Epaila-Garagarrila, 1959, 121-122.

zuen: alderdi guztietakoak, ezker-eskubideak, langile eta ugazabak, ikasiak eta ez-ikasiak, agintariak eta menpekoak, elizgizonak eta herri-gizonak, emakumezkoak eta gizonetzkoak. Zuzendariarentzat bera izango da “berrogei ta amar urteotan gure Erriak izan duen gizonik eginena eta eraginena”. Adierazgarria benetan: lehendakaria hiltzean, hilko da *Euzko-Gogoa* ere.

Dena den, “euskaldun fededun” esloganak axioma baten antzera funtzionatzen badu ere eta, areago oraindik, aldizkariko lankide gehienak kristautasunari atxikiak badira ere, esan behar da zuzendaritzak esku aski zabalez jokatu izan zuela agiriko agnostikoekin bezala paganoekin ere. Orixereren antzeko integristentzat Mirande edo Krutwig bezalako idazleak susmagarriak izan arren¹⁷¹, horiek eta horien antzekoek aldizkariko ateak zabalik izan zituzten beren lanak argitaratzeko. Jokin Zaitegirekin egon ginenetako batean, Txillardegik argitaratzeaz baitzuen *Leturiaren egunkari ezkutua*, behin batez, berriketan ari ginea, igerri genion ez zegoela hain ados ez haren ideologia existentzialistarekin eta, agian, ezago haren jokabide politikoarekin. Halere, gogai-de izan ala ez, ongietorri ezin hobea egin zion bere aldizkarian, hasikin gisa, “Negu” atala argitaratuz eta argitalpena goraki agurtuz¹⁷²: “Norberak aukera-bearra du gai ta ardatz. Azalez ta mamiz orrelakorik ez-tugu irakurri euskeraz lenago. Edonongo ele ederrean pozarren atotsiko luketen eleberria, nik uste”.

Euzko-Gogoa-ren jokabidea, orokorrean, aski zabala da bere kanon ideologiko aitortuaren barruan. Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitia bikoteak badakite lankideen aukerak errespetatzen, idazle ortodoxoen ondoan heterodoxoei ere leku egiten. Hau aldizkariaren alde aireatu beharreko meritua bat da.

¹⁷¹ Martin Oiartzabali 1953ko azaroaren 10ean egindako gutunean, hari buruzko iritzi hau agertzen du: “Mirande ori txori bitxia da. Iudutar (heberkera mintzatzen bide du), komunista, nik ez dakit zenbat –ista. Eler edertzale oriek galtzen dute edozer ausarkeri ta gordinkeri ontzat emanaz. Satsa gainzuriturik ere, barnean beti ustel. Zaitegiri esana daukat ez dutala aurrera *Euzko-Gogoa* irakurriko” (*Karmel*, 1980-1,36).

¹⁷² *Euzko-Gogoa*, Uztailla-Daguenila, 1956, 3.

BOSGARREN ATALA

ALDIZKARIAREN EGITURA ETA EMAITZAK

Azalduak ditugu aldizkariaren bai xedeak bai tesiak. *Euzko-Gogoa*-k bere asmo horiek gauzatzeko, zer-nolako plangintza egingo du orokorrean? Bestela esanda: nola antolatuko ditu gaiak eta nolako egitura emango dio? Hau esatean, aldizkariak berak erabiltzen dituen garaian garaiko gai-sailkapenen eta formatuen fluxuaz ari garela oharrarazten dugu. Puntu hau argitzeak ere badu bere garrantzia, zeren, neurri batean, aldizkariak izandako eboluzioaren seinale baitira. Kasu honetan bezala, 1. taulan ikus daitekeenez, bi aldi garbiki bereizten dira: Guatemalako eta Miarritzekoa.

Taula horrek, guztira, 14 sail landu direla erakusten du. “Elerti”, “Euskera”, “Olerti” eta “Yakintza” izeneko sailetan izan ezik, beste gutzietan –batzuetan besteetan baino gehiago–, hutsuneak nabarmentzen dira. “Ederti” saila, lehen urtetik aurrera, desagertu egiten da.

Bestalde, harrigarria bada ere, “Erderaz” saila ere badator bilduma horretan. Badira lehen aldi honetan gaztelaniaz idatzitako hiru bat artikulu edo: 1950ean “Arte galútico” eta hirugarrengoa “El INFOP, esperanza de Guatemala”, lehen eta hirugarren zenbakietan, hurrenez hurren, eta “Hacia el futuro agrario”, hau azkenengoa, 1954ko bigarren zenbakian. Artikuluok, bukaeran, ohar txo hauxe dakarte parentesi artean: “Erdaldunak erosi orria”. Ez dakigu zein arrazoik eraginda baina, onartu zuen gaztelania sartzea bere aldizkarian. Ziurrenik, dirubeharrak.

1. taula: Gaien sailkapena Guatemalako aldian (1950-55)

1950	1951	1952	1954	1955
Atarikoa	Atarikoa	Atarikoa	Atarikoa	Atarikoa
Antzerti	Antzerti	—	Antzerti	Antzerti
Ederti	—	—	—	—
Edesti	—	Edesti	Edesti	Edesti
Elerti	Elerti	Elerti	Elerti	Elerti
Ereserti	—	—	Ereserti	Ereserti
Euskera	Euskera	Euskera	Euskera	Euskera
Gizarte-gaiak	Gizarte-gaiak	Gizarte-gaiak	—	—
Idazti-Deunak	Idazti-Deunak	Idazti-Deunak	Idazti-Deunak	—
Idazti berriak	—	—	Idazti berriak	Idazti berriak
Irakurlearen txokoa	Irakurlearen txokoa	—	Irakurlearen txokoa	Irakurlearen txokoa
Olerti	Olerti	Olerti	Olerti	Olerti
Yakintza	Yakintza	Yakintza	Yakintza	Yakintza
Erderaz	—	—	—	—

Guatemalan argitaratuko zenbakiek kuaderno luze baten gisako formatua dute. Neurritz 20 x 22/23 cm-koak dira, denak inprimatuak, 1950eko 11-12 zenbakia salbu, zeina offsetean gina baita.

Aldizkaria Miarritzera aldatu zenean, ordea, soineko berriz jantzi-ta agertu zen. Oraingo aldizkariak neurri txikiagoa du, 18 x 13 cm-koa.

Formatu hau zergatik hautatu zuten ere zehaztuko du 1980ko otsailaren 16an zabalkunde-lanetan parte hartzen zuen Jaime Kerexeta lankideak¹⁷³: “a) errazago jaso zaitkean, baita bialdu ere; b) errazago irakurri zitekean; d) errazago eroan zitekean sakalean eta, beraz, edonon irakurri aal izan be bai; e) itxuraz be politagoa agertuko zan, egokiago, egunekoago...”. Gehienbat zabalkunde-arrazoiak izan ziren agindu zutenak.

Ez itxuraz bakarrik, gai-sailkapenen aurkezpenean ere aldaketarik eman zen. Miarritzeko aldi osoan zehar (1956-59), inoiz huts egin gabe, beti gai-sailkapen berberarekin agertu zen, zeina ondoko seiko honetan zehazten baita: “Atarikoa”, “Itz neurtuz”, “Itz lauz”, “Idazti berriak” eta “Irakurlearen txokoa”. Aldaketarik nabariena, beharbada, literaturaren barruan prosa eta poesia bereiztean datza. Gaien inguruan egindako sailkapen-portzentaiek erakutsiko digute aldizkaria edukiz zenbat aldatzen den Guatemalatik Miarritzera.

Aldizkariak, azkenik, publizitate-deiak ere bazekartzan. Gastuak arintzearren sartuko dira horrelako deiak, gehienak gaztelaniaz –bakarren bat gaztelaniaz eta euskaraz–, gutxi-gorabehera bederatzzi-hamarren bat iragarki zenbaki bakoitzeko. Guatemalako aldikoetan lekuko produktu edo negozioren baten sustapena egiten da. Hauetan denetarik aurkituko duzu, lekuko edaritegi edo okindegi baten publizitate-ataltxo bezala, berdin beste honako honena ere¹⁷⁴: “*Casablanca. Night Club*. El club de la distinción en Guatemala”.

Noizbehinka, ordea, etxeko produktuari begira, argitaratu berriak diren zenbait euskal idazlaren zerrendarik ere eskaintzen da, irakurleak eroatera bultzatuz. Batean *Euzko-Gogoa* aldizkariak hurrengo zenbakian argitaratuko dituen lanak iragartzen dira; bestean, lortu dituen harpidedun berrian izen-abizenak ematen. Aldizkariari berari hurbilekoenak zaizkion egile desberdinen liburu-iragarkiak ere agertzen dira,

¹⁷³ Velez de Mendizabal, J. M., op. cit., 106.

¹⁷⁴ *Euzko-Gogoa*, 7-8, Uztaila-Dagonilla, 1950, 38.

hasteko 1950ean, zuzendariarenak berarenak¹⁷⁵ eta Orixerenak¹⁷⁶, edo hurrengo urtean Nemesio Etxanizenak¹⁷⁷.

Jokin Zaitegik kuraia izan zuela? Kuraia eta zerbait gehiago ere bai. Geroko historiak erakutsiko du gure Kixote hura ez zela beti haize-errotekin alferrikako borroketan ibili. Gure lana, hain zuzen, berak finantzatu eta zuzendutako *Euzko-Gogoa* aldizkari jasoaren emaitzak eskaintzea izango da.

Aldizkari honek, 1950ean sortu eta 1960ko uztaillean hil, hamar urteko bizialdia izan zuen. Iraupen laburrekoa izan zela? Baliteke. Bere garaikidetakoren batek oraindik bizirik segitzen duela? Baiki. Galdera hauek eta antzekoak egitea jakingarri bada ere, ez dira nolana h nahastekoak, zeren *Euzko-Gogoa*-ren bizi-giroa, erbesteko kumea izaki, arras berezia izan baita, egiazki esanda utopia sano baten zitu paregabea. Euskal Herritik eta hemengo girotik urrun, erbesteko bakardade etsian, euskara hutsean diharduen aldizkari baten argitalpen-baldintzak ezin konpara daitezke inolaz ere Euskal Herrian bertan argitaratzen den eta bere irakurleria ondo-ondotik ukitzen duen beste edozein aldizkariarekin, esaterako *Egan*-ekin. Askotan hala egiten bada ere, arras desegoki gure ustez, ez dira berdintzekoak diktadura frankistapean bizi izandako barne-exilioa eta egiazko kanpokoak. Gizarte-egoera batean zein bestean ematen diren bizi-baldintza soziopolitiko eta kulturalak, soziologiaren aldetik begiratuta, ez dira ez maila ez intentsitate berekoak.

Horregatik, *Euzko-Gogoa*-rena zerbaitekin konparatzekotan, antzeko gizarte-giroan sortu eta garatu izandako beste aldizkari batekin erkatu beharko litzateke. Gu horixe egiten saiatuko gara. Hautatua, hain zuzen ere, *Zabal* aldizkaria izango da, zeina 1960ko belaunaldiari dagokiona baita, hura bezala hau ere erbestekoen mezu-adierazlerik garrantzitsuen dena.

¹⁷⁵ *Ebangeline, Goldaketan, eta Sopokel-en antzerkiak (Euzko-Gogoa, 5-6, Orrilla-Garagarrilla, 1950, 64).*

¹⁷⁶ *Euskaldunak eta Urte guziko Meza-Bezperak (Euzko-Gogoa, 7-8, Uztaila-Dagonilla, 1950, 40).*

¹⁷⁷ *Kanta-kantari eta Kristau-Ikasbidea (Euzko-Gogoa, 9-10, Irailla-Urrilla, 1951, 46).*

Bizialdi luzea ala laburra izan, emaitzak dira garrantzitsuenak eta horiek zifratu azaltzera pasatuko gara jarraian. *Euzko-Gogoa*-ren emaitzak, orotara hartuta, ondoko taula honetan datozenak dira.

2. taula: *Emaitza orokorrak urteka*

<i>Urteak</i>	<i>Zenbakiak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Non</i>
1950	7	332	<i>Guatemalan</i>
1951	6	324	
1952	6	256	
1953	—	—	
1954	5	210	
1955	3	144	
1956	6	720	<i>Miarritzen</i>
1957	5	672	
1958	4	708	
1959	2	296	
<i>Guztira</i>	44	3.658	

Taula horretan ageri denez, 1950-1959 epealdian, 44 zenbaki argitaratu ziren, bilduma osoak 3.659 orrialdeko sorta bipila eskaintzen duelarik. Baina emanaldi horietan, urte batetik bestera, agiriko irregulartasunak nabarmentzen dira zenbakien zein orrialdeen kopuruan. Hilabetekaria izanez hasi zena, berehala bihilabetekaria bihurtu zen, azkenean, atzerapenaren ezinbestekoz, 1953. urtea hutsik geratuko delarik. Guatemalako azken urtean, 1955ean, eta, berdin Miarritzekoan, inoizko gutxien argitaratu ziren: hurrenez hurren, 3 eta bi 2 bakarrik. Datu adierazgarriak biak: lehenengoan zailtasun larrien seinale da eta bigarregoa, berriz, heriotzaren lekuko. Bestalde, emanaldien maiztasuna, joera orokor gisa, urrituz doa lehen urteetatik azkenekoetara:

Guatemalan 27 zenbaki argitaratu ziren eta Miarritzen, berriz, 17; hamar gutxiago. Zenbakien emanaldiak gutxituz etorri baziren ere, honek ez du esan nahi Guatemalako *Euzko-Gogo*a Miarritzekoa baino oparagoa izan zenik. Hau egiaztatu ahal izateko, zenbakien kopurua ez ezik, horien orrialdeak ere kontuan hartu beharrekoak dira.

Horregatik, orrialdeen zutabea aztertzer pasatuz, ikusten dugu Guatemalako epealdian orrialdeak beheraka joan zirela, 1950ean 332 eta 1955ean 144; Miarritzeko epealdian, halaber, zutabearen datorenaren arabera, orrialdeak gutxituz joan ziren, 1957an eta 1958an izan ezik, urte hauetan, hurrenez hurren, 672 eta 708 orrialde argitaratu baitziren. Egiazki, ordea, gutxituz ez baizik gehituz joan ziren orrialdeak, zeren 1957. urte-barruan zortzi zenbakik ikusi baitzuten argia, horietatik 1956. urteari zegozkion lau atzeratuak izaki eta beste lauak garaiz kaleratuak, guztira 960 orrialde osatuz. Esan behar da 1957ko azken zenbakia bi hilabeteko atzerapenarekin argitaratzen dela, azalean bertan abisatzen den bezala: "Imprimé en février 1958".

Lehen begirada batean, badirudi Miarritzeko produkzioak, orrialde-kopuruari dagokionez, ia bikoiztu egiten duela Guatemalako: hots, 2.396 orrialde 1.262ren kontra. Taulako zifra horiek, ordea, ez gaituzte engainura eraman behar, zeren, esana daukagunez, Guatemalako eta Miarritzeko zenbakiak ez baitira neurri berekoak ez formatuaren ez letra-tipoaren aldetik. Horregatik, desberdintasun hori kontuan hartuta, zehatzagoa da produkzio-neurketaren batezbestekoa lerroak eta karaktereak zenbatuz ateratzea. Honela, lehen hurbilketa gisa esango dugu, lehen epealdiko formatu handiko zenbakiak, batezbeste, 48 lerro dituztela eta lerroko 84 karaktere inguru; bigarren epealdiko formatu txikikoek, aldiz, orrialdeko 36 lerro eta lerroko 50 karaktere. Datu hauetan oinarriturik, bada, emaitza hauek jaso ditugu: 1950-55 epealdiko emanaldiak 60.576 lerro eta 106.008 karaktereko kopurua erakusten du eta 1955-59 epealdikoak, berriz, 86.256 lerro eta 119.800 karakterekoa. Diferentzia, beraz, ez da hain handia ere, ez bederen lehen begiradan suma zitekeen bezain handia: 25.680 lerroren aldea batetik bestera, baina 13.792 karakterena besterik ez. Ez da ahaztu behar, azken batean, produkzio-neurketan kontatzen duena

karaktere-kopurua dela. Ondorioz, oso besterik dirudien arren, Miarritzeko produkziogintza zertxobait ugariagoa da Guatemalakoa baino, baina diferentzia handirik gabe.

Prosa eta poesia

Esan bezala, Miarritzeko epealdian, gai-sailkapenean nabari den berritasuna, batik bat, prosaren eta poesiaren arteko banaketan gauzatzen da. “Hitz-neurtuz” eta “Hitz-lauz” direlakoak dira sail nagusiak. Ondoko taulan azaltzen ditugu sail bakoitzaren kopuruak eta berorien urtez urteko eboluzioa.

3. taula: Prosazko eta poesiako produkzioa

Urteak	Prosaz		Poesiaz	
	Orrialdeak	%	Orrialdeak	%
1950	301	9,13	31	8,52
1951	293	8,89	31	8,52
1952	212	6,43	40	10,01
1953	—	—	—	—
1954	182	5,52	28	7,71
1955	113	3,42	31	8,53
1956	636	19,30	84	23,14
1957	621	18,84	51	14,04
1958	671	20,36	37	10,19
1959	266	8,07	30	8,26
<i>Guztira</i>	3.295	90	363	10

Poesiazko 363 orrialde horiek, % 10eko portzetajearekin, prosazko 3.295en aldean oso apal gertatzen badira ere, poesiarako joera gogotsu baten adierazgarri gertatzen zaizkigu. Zehazkiago gero ikusiko dugu nortzuek landu zuten gehienik genero hori. Bestalde, nahikoa agerian dago aldizkariaren orriak zabalik zeudela literatur mota hau sartzeko. Urtez urte eta zenbakiz zenbaki, batzuetan besteetan baino ugariago, beti dator poesi saila polito beteta. Konstante bat da aldizkariaren aurkibidean.

Poesiaren zutabeko orrialdeak orotara hartuta, Miarritzeko aldia Guatemalako baino oparagoa bada ere –202 orrialde 161 orrialderen kontra–, lerroka zenbatuz gero, gertatzen da lehen aldia bigarren-goa baino zertxobait aberatsagoa dela: hots, 7.728 lerro 7.272ren kontra. Zehaztapen hau egin beharrekoa da, taulako datuen irakurketa egokia egin dezagun, batez ere, *Euzko-Gogoa*-ren kasuan bezala, formatu desberdineko zenbakiak dauzkagunean.

Gaien sailkapena

Gaiak sailkatzeko orduan, *Euzko-Gogoa*-k Guatemalako aroan erabili zuena irizpidetzat hartuta antolatu dugu, Unesco-ren terminologiara moldatuz. Aurkezpenean egin dugun aldaketa bakarra da, bakarka joan beharko luketen Filosofia, Psikologia, Etnologia eta Natur Zientziak, lau sailok Jakintza delako multzo berean biltzen ditugula. Miarritzen argitaratuko zenbakietan, lehen ikusi bezala, beste sailkapen-mota bat dator eta hemen, bai, geure ikuspegi pertsonalaren araberak jokatu dugu, beti ere onartuz duda-mudazkoetan ez dela aise erabakitzea.

Uste izatekoa zen bezala, 4. taulak erakusten du literaturaren saila gailentzen dela, askogatik gailentzen ere, berak bakarrik, bere 63,01eko portzetajearekin, erdia baino dezente gehiago osatzen baitu. Eta sail honen barruan, berriz, kontakizunek osatzen dute zatirik handiena, hots, % 43,87koa. Poesiaren % 9,92ko hori ere nabarmentzekoa da, areago oraindik baldin kontuan hartzen bada gerraurreko poetarik onentsuenak zirela bertan parte hartzen zutenak, horien artean zeude-

larik aldizkariak berak antolatutako poesi lehiaketara aurkeztu zirenak. Kritikaren saila da pobreena, bere % 3,99koarekin, baina sail honen garapena ere, bere txikian, benetan adierazgarria da, aldizkari honek hasten baitu euskal liburu eta aldizkari berrien gainean egindako lehen kritika-lan sistematikoa, Andima Ibinagabeitiak zenbakiz zenbaki egiten duena. Zifra hauek orotara hartuta, esan dezakegu prosazko literatura nagusitzen dela, baina poesiak, bere aldetik, antzerkiak eta kritikak ez bezalako indarra erakusten duela.

4. taula: Gaien sailkapena orrialdeka

<i>Sailak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Literatura	2.306	63,01
Poesia	363	9,92
Kritika	145	3,99
Antzerkia	192	5,24
Kontakizunak	1.605	43,87
Arte Ederrak	22	0,60
Historia	229	6,26
Soziologia	38	1,03
Linguistika	450	12,30
Erljioa	121	3,30
Jakintza	329	8,99
Orotarik	163	4,45
Atarikoak	33	0,90
Berriak	130	3,55
<i>Guztira</i>	3.658	100

Ondoren, bigarren mailan, Linguistika dator, Literatura baino askoz apalago, baina beste sail guztiak baino dezente gorago, % 12,30eko portzentajearekin. Euskararen saila ere era sistematiko batez lantzen da

ia zenbakiz zenbaki. Hirugarren lekuan agertzen da Jakintzaren saila % 8,99rekin, zeinetan, lehen esan bezala, Filosofia, Psikologia, Etnologia eta Natur Zientziak barne hartzen baititugu. Laugarren maila batean datoz beste guztiak, zeinetan, batez ere, Historia eta Erljioa baitira aipatzekoak, hurrenez hurren, % 6,26ko eta % 3,30eko portzentaiekin. Sail guztiok batera hartuta, laburpen gisa, lau sail-multzo osa ditzaiegu, ehunekotan honela banatuta:

<i>Literatura</i>	<i>Linguistika</i>	<i>Jakintza</i>	<i>Besteak</i>
Poesia Kritika Antzerkia Kontakizunak	Euskara	Filosofia Psikologia Etnologia Natur Zientziak	Arte Ederrak Historia Soziologia Erljioa Orotarik
63,01	12,30	8,99	15,64

Goiko taula aurrean dugula, ondorio batzuk aterako ditugu, hor ageri baita zein sail nagusitzen den.

Lehenik, Literatura baldin bada ere nagusitzen dena, diziplina akademiko gehienak dira gutxi-asko harrotzen direnak, horixe baitzen, hain zuzen ere, aldizkariaren asmoa. Hor daude lekukotzat Historia, Erljioa, Soziologia eta Arte Ederretako artikulua, aldizkarian hasieratik bertatik agertzen direnak. Guatemalako aldiaren bakarrik argitaratu ziren hauek. Orrialde gutxi dituzte, guztira 289 inguru, baina hauek adierazgarriak. Halere, ohar hau ere egin behar da, sail batzuk batere landu gabe geratu ziren: Zientzia Zehatzak, Ekonomia, Zuzenbidea, Medikuntza, etab. Sail hauek guztiak geroago landuko dira UEU, Elhuyar, UZEIn eta, era sistematiko batez, EHUn.

Bigarrenik, euskara hizkuntza teknikorako trebatzeari dagokionez, aldizkariak xede hau bere sail guztien bidez landu zuen, baina, bereziki, Literaturaren eta Linguistikaren sailean, hauek biek osatuko

baitute guztizkoaren % 75,31koa. Idazle gehienak, bada, Literatura eta Euskararen gainean aritu ziren, esparru horietan aurkitzen baitziren erosoenik, horiek zituztelako ezagunenak. Horregatik, normala ere bada beste sailak gutxi landuta edo batere landu gabe geratzea, zeren gai espezializatuak landu ahal izateko prestakuntza akademiko berezia behar izaten baita eta orduko lankide gehienak, banaka batzuk salbu, hezkuntza formalaren bidez lortu ohi den kredentzial edo titulu espezifikorik gabekoak baitziren. Geroago sortuko da lizentziatuen eta adi-tuen belaunaldia, 1960ko hamarkadatik aurrera. Euskara diziplina berezitu guztietan erabiltzeko trebatu nahi izateak, bada, idazleak diziplina berezitu horietan jantziak izatea aurrekatzten du eta, zentzu honetan, euskarazko trebakuntza tekniko-zientifikoa idazleen prestakuntzak berak baldintzatzen du. Nekez da, ezinezkoa ez esatearren, prosa akademiko zuzena egitea, gaiak eskatzen duen terminologia eza-gutzen ez bada.

Hirugarrenik, lehen esana badaukagu ere, berriro diogu Lite-raturaren sailean prosazko literaturaren nagusitasuna nabarmentzen dela, baina, aldi berean, poesiari ere leku handi samarra ematen zaio-la, adibidez, antzerkiarekin konparatuz. Ibon Sarasolak dakarrenez¹⁷⁸, gerraondoko sorkuntzazko produkzioaren batezbestekoa, 1962-63ko epealdiari dagokionez, poemagintzan % 18,2koa izango da eta antzerkian % 36,3koa. Aurreko hamarkadako *Euzko-Gogoa*-n, aldiz, poesiak ia bikoiztu egiten du antzerkia.

Laugarrenik, jakinda zuzendaritzak euskaldun fededuntzat daukala bere burua eta, bestalde, filosofia neoeskolastikoan hezitakoak direla lankide gehienak, harritzekoa ere gertatzen da aldizkariari da-rion sekulartasun-aira, erlijio-gaiek % 3,30eko portzentajea besterik ez baitute erakusten. Euskal gizartea artean inflazio erlijiosoaren era-ginpean dagoen unean *Euzko-Gogoa* sekularitze-prozesuan sartua ikus-teak bide ematen digu pentsatzeko kultura akademikoaren lanketari pentsamendu laiko eta anitzaren bidetik abiatuta ekiten diola eta,

¹⁷⁸ *Euskal literatura numerotan*, Kriselu, Donostia, 1975, 48.

berea duen erlijioarena erabat baztertu gabe, beste gaiak ere lantzea beharrezkotzat jotzen duela. Azken bi elementu hauek dira, gure ustez, aldizkaria gehien ezaugarritzen dutenak: hots, zuzendaritzak euskal kultura, ordurarteko populismo erlijiosotik aterata, sekularizazioaren eta akademizismoaren bidetik abiarazten duela. Lehen urratsak plata-forma honetantxe ematen dira. *Euzko-Gogoa*-ren sekularitze-prozesu honek, ordea, ez du esan nahi euskal kulturaren egoera orokorra islatzen duenik, geroago ere, 1962-63ko epealdian, erlijio-liburuen porzentajea % 26,9koa izango baita¹⁷⁹. Horregatik egiten zaigu txokagarrri samarra erlijioari buruzko joera hau. Hau esanda, ordea, ez da hemendik ondorioztatu behar *Euzko-Gogoa*-koek pentsamendu sekulartua erakusten dutenik, zeren horko lankide gehienak, aldizkariaren tesiak azaltzarekoan agertu bezala, euskaldun fededunak baitira.

¹⁷⁹ Ibid., 44.

SEIGARREN ATALA

EUZKO-GOGOA-KO LANKIDEEN PROFILA

Idazleei buruz, ondoko puntuok dira banan-banan aztertuko ditugunak: bakoitzaren emankortasuna, adinaren batezbestekoa, urtez urteko jarraitasuna, jaioterrria eta lanbidea. Alderdi hauek aztertuz gero, *Euzko-Gogoa*-ko lankidea nolakoa den ezagutzera iritsiko gara.

Idazleen emankortasuna

Asko idatzi ala gutxi, epe jakin batean bakarrik ala erregulartasunez aldioro, *Euzko-Gogoa*-ren lankidetzan esku hartu zuten idazle guztiak dakartzagu eta ez emankorrenak bakarrik. Zergatik egiten dugun horrela? Bi arrazoi izan zaizkigu jokabide horretara bultzarazi gaituztenak. Batetik, aldizkariaren hedapen soziokulturala zenbaterainokoa izan den jakiteko biderik jatorrenetako bat, dudarik gabe, argitalpen horrek bereganatzea erdietsi duen idazle-kopurua zehazki zenbatzea dela iruditzen zaigu. Zenbat eta lankidetzatza ugariagoa izan, orduan eta handiagoa izango da aldizkariaren erakarpen soziokulturala idazleen baitan. Bestetik, lankide bakoitzaren ekarri kuantitatiboak ez baita neurri berekoa izaten, idazle guztien kopuru absolututik atera dezakegu idazle bakoitzak zein neurritan bat egiten duen aldizkariaren proiektuarekin. Bestalde, bistakoa denez, noizbehinka bakarrik idazten duen lankideak aldizkariaren plangintzan izan dezakeen eragina ezin izan

daiteke inolaz ere erregulartasunez idazten duenaren parekoa. Horregatik, lankide bakoitza bere partaidetza-maiztasunaren neurrian sentituko da identifikatua aldizkariaren asmoarekin. Era berean, idazle-multzo batek zenbat eta gehiago eta maizago idatzi, orduan eta sakonagoak izango dira hark aldizkariaren baitan barreiatuta utziko dituen arrasto ideologikoak.

Goian aipatu dugun paralelismo moduko horrek balio lezake, *a priori* bederen, idazleen aldizkariarekiko atxikimendua eta, bide batez, aldizkariaren kultur hedapena neurtzeko.

Ohar hauek eginda, gatozen datuetara.

5. taula: Prosista oparoenak orrialdeka

<i>Lankideak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Zaitegi, Jokin	570	17,29
Larrakoetxea, Bedita	281	8,52
Ibinagabeitia, Andima	204	6,19
Ormaetxea, Nikolas	175	5,31
Etxaide, Jon	157	4,76
Labaien, Antonio Maria	94	2,85
Larrañaga, Gilermo	76	2,30
Urrestarazu, Andoni	75	2,27
Etxeberria, Frantzisko	73	2,21
Monzon, Telesforo	71	2,15
Garmendia, Jon	65	1,97
Salaberry, Etienne	59	1,79
Sorrorain, Antonio	58	1,76
Kerexeta, Jaime	57	1,72
Onaindia, Santi	57	1,72
Ametzaga, Bingen	54	1,63
Mirande, Jon	48	1,45
Etxaniz, Nemesio	48	1,45
Lekuona, Manuel	44	1,33

<i>Lankideak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Oiartzabal, Martin	35	1,06
Urrutia, Gotzon	34	1,03
Insausti, Josu Besteak...	32	0,99
122	3.295	100

Azterketa honetan murgildu baino lehen, lankideen kopuru orokorrari buruz ohar bat egin beharrea gaude, eta da nekez eman daitekeela zifra zehatzik, zeren ezagunak zaizkigun izenen artean, hauekin nahasian, hildakoenak eta izenordez estalitakoak ere ugari baitira. Izenorde horiek nor diren ez dakigun bitartean, ezin esan da egiazko lankideak –egiazki errepikatzen ez direnak, alegia–, zenbat diren, litekeena baita idazle batek izenorde bat baino gehiago erabiltzea. Dena den, jadanik Joseba Intxaustik aurreratua duen izenordeen azalpenari segida emanez¹⁸⁰, hiru motatako lankide-kopuru hau osatzera heldu gara ahal izan zaigun modurik zehatzenean. Beraz, 1. eranskinean datorrenez, guztira 150 sinadura zenbatu ditugu, hauetatik 122 ezagutzera iritsi garenak, 24 ezezagunak zaizkigunak eta 6 jadanik hildakoak zirenenak. Izenordeak erabili zituzten lankideak, berriz, 76 izan ziren, eta hainbatek bat baino gehiago. Klandestinitateak, antza, lankidea bere egiazko nortasuna ezkutatzera bultzatzen zuen.

Lankide bakoitzaren partaidetza orrialde-kopuruaren arabera neurtuta, 5. taula horretan ikus daitekeenez, lau idazle-multzo bereizten dira zerrenda honetan: beren prosazko produkzioan 4-18, 2-3, 1-2 eta 0-1 bitarteko portzentajea dutenak, alegia. Prosista bakoitzaren emaitzak 2. eranskinean datoz, orrialdeak ehunekotan emanda.

Idazleak horrela sailkatuz gero, ageri den lehen datua da idazle gehien partaidetza behin-behinekoa baizik ez zela izan, zerbait testi-

¹⁸⁰ “*Euzko-Gogoa*-ren lankideak”, *Jakin*, 12, 1979, 136-137.

moniala, alegia, lankidetza urriko idazleak izango baitira gehiengoa osatzen dutenak % 82ko portzentajearekin. Azken zerrenda honetan sartzen dira, gehien aipatzen diren batzuk izendatzearen, Josu Insausti, Luis Villasante. Jon San Martin, Martin Oiartzabal, Jesus Maria Leizaola, Sebero Altube, Antonio Arrue, Salvatore Mitxelena, Piarres Laffite, Plazido Mujika, Iratzeder, Isaak Lopez Mendizabal, Txomin Jakakortajarena, Justo Maria Mokoroa eta, gazteagoen artean, Federiko Krutwig, Patxi Altuna, Gotzon Garate, Txomin Peillen, Luis Maria Mujika eta Juan Maria Lekuona. Multzo honetakoek, guztira, % 29,24ko ekarpena egin zioten aldizkariari.

Lankideen egoera zibilari dagokionez, oso zaila da azken zerrenda luze horretan zenbat diren klerikoak eta zenbat laikoak zehaztea. Ezin bildu ahal izan ditugu idazle bakoitzaren gutxienezko biografi datuak. Nolanahi ere, ziurtasunez jakin badakigu taulan laugarren lerroan datozen 96ko idazle-multzo horretatik 37 bederen klerikoak direla.

Taulan beheko lehen lerrotik gora goazela, hurrengo idazle-multzorik handiena % 1etik 2ra bitarteko portzentajearekin aurkitzen direnek osatzen dute, guztira 11 izaki, % 9,32rekin. Hemen, Jon Garmendia, Jon Mirande eta Bingen Ametzaga hirukotea salbu, beste guztiak klerikoak dituzue, hala nola: Etienne Salaberry, Antonio Sorra-rain, Jaime Kerexeta, Santi Onaindia, Nemesio Etxaniz, Manuel Lekuona, Martin Oiartzabal eta Gotzon Urrutia. Hauetako batzuen izenak euskal letretan puntakoak baldin badira ere, *Euzko-Gogoa*-ren baitan izandako partaidetza ez zen hainbestekoa izan, ezta jarraitua ere, Nemesio Etxaniz eta Jon Etxaide izan baitziren, noiz poesi sailean noiz prosazkoan, aski erregularitasunez idatzi zuten bakarrak. Beste gehienek—hauen artean Salaberryk, Kerexetak, Sorrarainek, Lekuonak eta—, batez ere, Miarritzeko aldian idatzi zuten. Hauen ekarpena, oro har, % 16,91koa da.

Taulako bigarren multzoan, % 2tik 3ra bitarteko partaidetzarekin, bost lankide dauzkagu: Antonio Maria Labaien, Gilermo Larrañaga, Andoni Urrestarazu, Frantzisko Etxeberria eta Telesforo Monzon. Hauen lankidetzak ere baditu orokorrean bere hutsuneak urtez urteko emanaldietan. Erregularrenak A. M. Labaien eta A. Urrestarazu ditugu,

biok bi urtez besterik ez baitzuten huts egin; irregularrenak, aldiz, T. Monzon eta F. Etxeberria agertzen dira, bederatzitik bost urte zurian joan baitzitzazkien. Guztiek batera % 11,78ko ekarpena egiten diote aldizkariari, adierazgarria dena.

Azkenik, baina taulako zerrenda-buruan, lankide emankorrenen multzoa daukagu, zeinaren partaidetzak % 42,07ko ekarpena suposatzen baitu aldizkariaren emaitza orokorrean. Multzo hau ere bosteko batek osatua da, zeinetan aurkitzen baitira aldizkariari hurbilenik zaizkion Jokin Zaitegi, Bedita Larrakoetxea, Andima Ibinagabeitia, Nikolas Ormaetxea eta Jon Etxaide. Guk hauek guztiak multzo berean sartu baditugu ere, bitan banan zitezkeen, zeren Jokin Zaitegi zuzendaria, bere % 17,29rekin, ondoko beste guztietatik oso urruti baitago. Kontu emazu berak bakarrik Andima Ibinagabeitia idazkariaren % 6,19koa ia hirukoiztu egiten duela. Datu honek bakarrik, besterik gabe, ezin garbiago erakusten digu oso berea izan zuela hain nekez sortutako eta ez hain bitarteko urriz bideratutako bere erraietako aldizkaria. Eta ezin izan zitezkeen bestela, zeren *Euzko-Gogoa*-ren asmoa ez baitzuen gorpuztu gauean amets egin eta hurrengo goizean, lehen zerbait azalduta daukagunez, jesuitekin erbestean latzak ikusi eta gero baizik. Ez da ahaztu behar Jokin Zaitegik diaspora mingotsean egin zituela bere bizitzako urterik onenak. Guatemalako aldia gogoratuz, Orixek Jokin Zaitegiren *Bidalien eginak* liburuari egindako hitzaurreko pasarte honetan dotore deskribatzen da zertan ematen zituen honek bere eguneroko orduak goizetik gauera¹⁸¹: “Goizetik arratsera ez tul egiteko betarik gabe ari da. Euskera lanean? Bai zera. Euskerarentzat dirua nondik aterako dun. Bigarren mailako Ikastetxe batean dugu Azterkari, ango ume-moko, oien guraso, Irakasle, guziekin burruka. Berak ere lau eskola ematen ditu egunean. Etxeko lana aski ez balitzaio, Guatemala’ko Ikastetxe Nagusian griego irakasten ari da. Egunez ler txar egin, afaldu, eta... egurastera ioan orde –bein baiño geigotan aterazi nun bear eta bear– neurtitz lanean arituko da, beste buru-austerik ez

¹⁸¹ Itxaropena, Zarautz, 1955, 2.

ba'ðu, Göethe, Uhland eta olakoak euskeraz ipintzen. Euskera gaietan lan egitea goxo litzaioke, baiñan ezin. Sosa bildu bear. Zertako? *Euzko-Gogoa*-arekin zor aundiak egiteko oraino”.

Orixek hain ederki zioen bezala, hainbeste buruhausterekin borrokan eta eztula egiteko ere betarik gabe, harritzekoa ere bada nondik ateratzen zuen euskalgintzan hainbeste lan egiteko ahalmena. “Ipurtandi” deitzen ziotela? Asmatu zuenak bazekien zer bait haren berri.

Horregatik, *Euzko-Gogoa*-rekin nola gorputzez hala gogoz bat eginda inor egotekotan, norbait hori Zaitegi dugu. Urtez urte eta zenbaki bakoitzean, inoiz huts egin gabe eskaintzen dio bere lankidetzaz, askotan artikulu bat baino gehiagorekin zenbaki berean, bereziki lehen urteetan. Etengabeko lankidetzaren ohorea Jokin Zaitegiri bakarrik zor zaio. Bera dugu, bada, zuzendari izateaz gain, lankiderik oparo eta leialena ere, hitz lauz bezala neurtuz ere idazten duena.

Bestalde, lehen idazle-multzo horretako beste lau lankide oparoenak, taulan bigarren lekuan Bedita Larrakoetxea datorren arren % 8,52ko portzentajearekin, Andima Ibinagabeitia eta Nikolas Ormaetxea dira, hurrenez hurren, % 6,19 eta % 5,31ko portzentajeekin; bosgarren, berriz, Jon Etxaide % 4,76rekin. Bedita Larrakoetxearen lankidetzari buruzkoa erraz ulertzen da baldin aldizkariaren formatuaz esandakoa gogoan hartzen bada. Beditak 1957-59ko epealdian zehar bakarrik idatzi zuen, Miarritzeko aldian, alegia, eta orduan aldizkaria formatu txikiz argitaratzen zen; Andimak eta Nikolasek, aldiz, Guatemalako zein Miarritzeko aldian idatzi zuten, bietan, baina lehenengoan gehiago. Horregatik, lau lankide horien testu-masa, ez orrialdeen, baizik lerroen eta karaktereen arabera zenbatuz gero, neurketak ondorio hauek ematen ditu: Andimak 9.396 lerro eta 748.872 karaktere; Orixek 8.268 lerro eta 681.048 karaktere; Larrakoetxeak 10.116 lerro baina 505.800 karaktere; Etxaidek 6.696 lerro eta 476.784 karaktere. Larrakoetxearen eta Etxaideren artean, bada, ez dago egiazki taulako portzentajeek adierazten duten bezain alde handirik. Larrakoetxearen kasuan, gainera, beste desberdintasun bat ere bada: haren lankidetzaz itzulpen-lanetara mugatzen dela oso-osorik, alegia.

Bestalde, partaidetzaren jarraitasunari dagokionez, Andimak 1959an, Orixek 1957 eta Etxaidek 1958an izan ezik, hiru lankideok

urterik huts egin gabe parte hartzen dute aldizkarian. Orixe eta Andimaren kasuan, huts egindako urteak azken aldikoak eta, aldiz, oparoenak lehen aldikoak izateak ere badu bere azalpen aski erraza, eta da biak izan zirela idazkaritzan jardun zutenak eta zuzendaritzari hurbilen loturik egon zirenak, eginkizun horretarako ordainduak. Zentzu honetan, Guatemalako hirukoteaz hitz egiten denean, zuzen hitz egiten da; Lino Akesolok egiten duen bezala¹⁸², hiruko horri Martin Oiartzabalen izena gaineratu eta laukoteaz hitz egiten denean, ordea, desegoki jokatzen da, honen lankidetzaz ez baita besteekin ezertan konparatzekoa. Esana daukagunez, Orixe eta Andimak, bakoitzak bere lekutik eta bere modura, aldizkariari eskainitako lankidetzak ez du parekorik.

Aipagarri da, halaber, Jon Etxaidek Euskal Herri gatibuaren ilunpean agertzen duen kuraia, lehen urtetik hasita, erbesteko aldizkari debekatuan artikulu interesgarri askoak argitaratuz. Izenordeak erabiliz ezkututzen zuen egiazkoa. Behin batez, ordea, Andimak aldizkarian bere izena aipatu omen zuelako, salatua sentitu zen¹⁸³. Une bateko hasarrealdia gorabehera, bera genuen Hego Euskal Herrian bizi ziren lankideetatik *Euzko-Gogoa*-n gehien idazten eta gutxien huts egiten zuena. Aldi berean, inor gutxik bezala parte hartu zuen aldizkariaren zabalkunde-ahaleginetan, halaberharrez muga zitalari desafioka. Berak kontatua duenez¹⁸⁴, *Euzko-Gogoa* eta *Gernika* aldizkariak mugaz hemendik zabaltzeagatik eta horietan parte hartzeagatik, kartzela-zigorra etorri zitzaion.

¹⁸² Honela dio *Euzko-Gogoa*-z: "Ain zuzen, berariz utzi det aipatu gabe euskera utsezko aldizkari ori atera eta zabaltzen geien saiatu zan laukotea: Zaitegi, Orixe, Oiartzabal, Ibinagabeitia" ("Orixeren eskutitzak Martin Oiartzabali", *Karmel*, 1979-4, 49).

¹⁸³ Hala kontatzen dio Andimak Etxanizi 1955eko martxoaren 12ko gutunean: "Orain arte bagenekigun zerbait agitu zela, ez ordea nola. Aurreneko berriak Jon E'k bialdu zizkidan gutun-samin eta aserre baten bitartez bere izena zenbaki artan aipatzen nulako. 'Ez omen daukat bea salatzeo eskubiderik'. Nik salatu? Bide bereziz erantzun nion berea baino eskutitz gogorrago batekin. Errexegi burua galtzen dugula nik uste okerreko zerbait gertatzen zaigunean. Ni urruti nagola esango didazu eta bizkarra ondo babesturik daukadala. Or ere bizi nintzan oraingoak baino aldi larriagotan, eta zerbait egin nun" (Urkizu, P. <prest.>, op. cit., 177).

¹⁸⁴ "Ni neu ere poliziak detenitu ninduen bi aldizkari horien zabaltzailetzat eta kolaboradoretzat salatuz eta Martutene-ko gartzelan sartu ninduten aurrera eta gero

Kartzelaren arriskua berekin duen partaidetzak ez dauka aldizkariarekiko atxikimendua frogatu beharrik, arriskuaren onarpena bera baita aski froga. Jon Etxaideren pasadizu hori, bestalde, euskal kulturak garai horietan bizi zuen egoera ilun eta pesimistaren ispilu garden gertatzen zaigu.

Lehen idazle-multzo hau ezaugarritzen duen beste datu bat ere bada: lau lankide horiek klerikoak –Jokin eta Bedita– edo izandakoak –Orixe eta Andima– zirela; Etxaide zen, beraz, Seminariorik ezagutu ez zuen bakarra. Honek aldizkariaren zuzendaritza eta idazkaritza pres-takuntza klerikalean eta pedagogia jesuitikoan errotua dagoela adierazten digu.

Honaino prosa-mailako lankidetzak bakarrik aztertu dugu. Idazle-leen emankortasuna bere osotasunean besarkatu ahal izateko, ordea, poeten saila ere zertan den ikusi beharrean gaude. Poeten emankortasuna neurtzeko, horixe baita biderik zehatzena, lerroak zenbatu dira eta ez, prosazkoan bezala, orrialdeak.

Taula horretako datuak 3. eranskineko xeheagoetan oinarrituta daudenez, biak aurrean ditugula jardungo dugu geure iruzkinak egiten.

6. taula: Poeta oparoenak lerroka

<i>Poetak</i>	<i>Lerroak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Mitxelena, Salvatore	2.078	11,85
Etxaniz, Nemesio	1.975	11,26
Ormaetxea, Nikolas	1.415	8,06
Aurre-Apraiz, Balendin	1.400	7,98

Gasteizko gartzelara esposaturik eraman” (Garmendia, Elixabete, “Jon Etxaide: garai ilunetan idazle”, *Zeruko Argia*, 198, 22).

<i>Poetak</i>	<i>Lerroak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Olabeaga, Iñaki	691	3,94
Mirande, Jon	655	3,73
Zaitegi, Jokin	644	3,67
Iraizoz, Aita	526	3,0
Iratzeder, Aita	480	2,73
Zerio, F.	426	2,42
Jauregi, Luis	420	2,39
Agerre, Joxe	384	2,18
San Martin, Jon	364	2,07
Kerexeta, Jaime	354	2,01
Etxeberria, Toribio	303	1,7
Jakakortajarena, Txomin	280	1,59
Besteak...		
80	17.535	100

Poesigintzan parte hartu zutenak 80 izan ziren, prosazko literaturan baino 36 gutxiago. Poeta-andana ederra, halafede! Guztien artean 17.535 bertso-lerro osatu zituzten. Eta urterik emankorrena, 1955ekoa izan zen bere 3.882 lerroekin, hots, guztizkoaren % 22,13ko portzentajearekin. Azken urte honetan argitaratu ziren, azken zenbakian hain zuzen, *Euzko-Gogoa*-k deitutako lehiaketan saria eta dedu-aipuak jaso zituztenak, hauen artean, Salvatore Mitxelena, Nemesio Etxaniz, Balendin Aurre-*Apraiz* eta Santi Onaindiaren olerkiak. Beste urteak ere –bereziki, 1956, 1952 eta 1950ekoa–, aberatsak izan ziren, hirurak baitira bi mila lerro baino gehiago dituztenak.

Poesi neurketa orrialdeen arabera eginez gero, 7. taulan datorren bezala, arras bestelakoa da ordenaren zentzua, zeren 1955. urtearen aurretik baitoaz beste lau urteok: hots, 1956, 1957, 1958 eta 1950ekoa, hurrenez hurren, 84, 51, 40 eta 37 orrialderekin. Urte bakoitzaren poesi emankortasuna zehatzago ikusteko, ondoko taulan orrialdeen eta lerroen arabera zutabeak dauzkazu irekita.

7. taula: Poesi urte oparoenak orrialde eta lerroen arabera

<i>Orrialdeen arabera</i>		<i>Lerroen arabera</i>	
1956	84	1955	3.882
1957	51	1956	2.449
1952	40	1952	2.419
1958	37	1950	2.231
1950	31	1954	1.880
1951	31	1957	1.512
1955	31	1951	1.382
1959	30	1958	939
1954	28	1959	841

Orrialdeen arabera azkenekoen artean dagoen urtea nola gerta daiteke lerroen arabera lehena izatea? Nondik nora horrelako desegokitasun nabarmen hori? Lehen emandako azalpen bera aplikatu behar da hemen ere. Formatu handiaren eta txikiaren arteko diferentziaz gain, formatu handikoaren artean, zenbaki batzuk eta, bereziki, 1956koak bertso-lerroz oso kargaturik datozelako gertatzen da hori, oso kargaturik nola luzeka hala zabalka. Zehazki 1955eko zenbaki batean, hiru zutabeko bertso-lerroak aurkitzen dira.

Poesigintza bere osotasunean neurtu eta gero, prosazko produktzioigintza neurtzerakoan egin denaren antzera, poeten emana multzoka azalduko dugu, 6. taulan datorrenari jarraiki.

Lehen multzoan Salvatore Mitxelena, Nemesio Etxaniz, Nikolas Ormaetxea eta Balendin Aurre-*Apraiz* datoz zerrendaren buruan, lauen artean % 39,15arekin. Lau hauek garbiki nabarmentzen dira beste guztien gainetik, beraiek bakarrik ia guztizkoaren erdira arrimatzen baitira. S. Mitxelenaren urterik emankorrena 1955ekoa izan zen, 1.588 bertso-

lerroekin, orduan argitaratu baitzen saritua izandako bere “Bizi nai” poema luzea. Poesigintzan S. Mitxelena, N. Etxaniz baino zertxobait oparoago bada ere, lankidetzaren jarraitasunari dagokionez, oso besterik da, N. Etxanizek 1950ean bakarrik huts egin baitzuen. Orixek ere urtero idatzi zuen Guatemalako aldian; gero, ez. Aurre-Apraizen partaidetzak ere ez zuen etenik izan, lehen urtekoa izan ezik.

Bigarren multzoan datoz, azkenik, beren emaitza % 4koa baino apalagoa duten gainerako beste guztiak, ezagunenak eta, aldi berean, emankorrenak izaki, hurrenez hurren, Mirande, Zaitegi, Aita Polikarpo Iraizozkoa, Iratzeder, Luis Jauregi, Joan San Martin, Kerexeta, Txomin Jakakortajarena, Gabriel Aresti, Santi Onaindia, Eusebio Erkiaga, etab. Multzo honetako beste poeta gehienen emana benetan txikia da eta maiztasun urrikoa, % 70 baitira, -zehazki 56-, %1ez azpiko partaidetza izan zutenak. Azken zerrenda honetan dauzkagu, besteak beste, Juan Mari Lekuona, J. Inazio Goikoetxea, F. Artola, F. Krutwig, Bitoriano Gandiaga, Luis Maria Mujika, Erdozeintzi eta Monzon. Hauek guztiak edertu zuten aldizkariaren poesi atala, baina ez, esan bezala, maila berean.

Idazle-multzoaren emankortasuna nola prosazko literaturan hala poesiazkoan bakarka aztertuz gero, jarraian eta ondorio orokorrak atera aurretik, *Euzko-Gogoa*-ko lankideak adinaren arabera sailkatuko dira, partaidetzaren zein jarraitasunaren aldetik begiratuta, atxikienak zein belaunalditakoak zaizkion ikusi ahal izateko.

Lankideen urtez urteko jarraitasuna

Lankidetzaren jarraitasunari hurbilagotik so eginez, aldizkariari zein lankide zaizkion atxikienak ikusiko dugu. Honetarako, idazleak taldeka sailkatuko dira urtez urteko partaidetzaren arabera. Eta ez guztiak, garrantzitsuenak baizik, ondoko 8. taulan izendatuak datozenak.

Taulan izendatuak datozen 27 idazle horiek ditugu, beraz, *Euzko-Gogoa*-ren sostengu eta sustatzaile izan direnak, horiexek, agian, aldizkariaren proiektuan gehien sinestu izan dutenak.

8. taula: *Lankiderik atxikienak jarraitasunaren arabera*

<i>Lankidetza-urteak</i>	<i>Idazleak</i>	<i>Zenbat</i>
9	Zaitegi, Etxaniz	2
8	Ibinagabeitia, Orixe, Etxaide, Tauer, Aurre- <i>Apraiz</i>	5
7	Labaien, Urrestarazu, Mirande	3
6	G. Larrañaga, Kerexeta	2
5	Monzon, Garmendia, Insausti, Oiartzabal, Altube, Mitxelena	6
4	Sorrarain, Onaindia, Ametzaga, Jemein, Batiz, Iratzeder, Laspiur, F. Etxeberria, San Martin	9
1-3	Besteak	90

Lehen prosista eta poeta oparoenen zerrendak bakarka hartuta emanak baititugu, interesgari deritzogu, hemen, prosan zein poesian, bi alor horietan, jardun dutenak nor izan diren zehazteari. Guztira 30 lankide dira beren lanak poesian nahiz prosan eman dituztenak. Batzuek poesian gehiago prosan baino, adibidez, Mitxelenak, Aurre-*Apraizek* eta Iratzederrek; J. Garmendia, Monzon, Leizaola, Krutwig eta beste hainbaten kasuan, aldiz, alderantziz gertatzen da. Badira, halere, sail bietan azkarki aritu izan direnak, izen nagusiak aipatzeko, Zaitegi, Orixe, Mirande eta Etxaniz.

Baina nolako lankideak dira aldizkaria sostengatzen dutenak? Zein adinetakoak eta nongoak? Galdera hauek zehaztuko ditugu segidan.

Lankideen adina

Lankideen emankortasuna oinarritzat hartuta, hiru motatako idazleak bereiz ditzakegu: batetik, Guatemala edo Miarritzeko aldi-tako batean bakarrik idatzi zutenak eta, bestetik, beren lankidetzari aldi bietan zehar eutsi ziotenak.

Guatemalako 1950-1956ko epealdiari dagokionez, 28 lankideren datuak bakarrik bildu ahal izan ditugu, baina badakigu gehiagok ere parte hartu zutela¹⁸⁵. Lankide hauen adina, batezbeste, 48 urtekoa zen 1952an. Gehienak, nor zaharrago nor gazteago, gerraurreko belaunaldikoak ziren: Gotzon Urrutia, Erraimun Argarate, Arriandiaga, J. M. Mokoroa, J. Garate, Lino Akesolo, Erramun Bera, Luis Jauregi, J. I. Goikoetxea, F. Artola, A. Zatarain, I. Lopez-Mendizabal, J. M. Barandiaran, J. A. Irazusta, Emeterio Arrese, etab. Oso gutxi baino ez dira gerraondoko idazletzat jo ditzakegunak: F. Krutwig, A. Irigoien, G. Aresti, A. Astigarraga, B. Gandiaga.

Miarritzeko *Euzko-Gogoa* lankide-kopuruz hornituago da Guatemalako baino, azken epealdi honetan 40 idazle izan baitziren parte hartu zutenak; hots, izen-abizenez identifikatu ahal izan ditugunak bakarrik kontatuta¹⁸⁶, aurreko aldi baino 12 idazle gehiago. Hauen adina 41 urtekoa zen, batezbeste, 1957an. Epealdi honetan, bada, idazle gazteagoen odolaz zainberritu zitzaigun aldizkaria, zeren 1935ean 5-20 urte bitarteko adina zuten 18 idazleren partaidetza bereganatzea lortu baitzuen, hauen artean, Luis Villasante, Joan San Martin, Karmelo Iturria, Nikolas Altzola, Felix Bilbao, M. Juaristi, Txillardegi, Bitor Kapanaga eta Patxi Altuna aurkitzen zirelarik. Gerratekoan eta honen ostean sortutakoak ere badira. Jesus Gaztañagak, adibidez, 2 urte eta Sabino Aiestaranek 1 besterik ez zituzten urte horretan; Gotzon Garate, Sabin Berasaluze, Manex Erdozeintzi, Luis Mari Mujika eta, jaiotzekoak ziren artean. Azken aldi horretan, bada, ohiko lankidetzaz zaharragoaren ondoan, uholde berriko idazle-talde gazteago batek egiten du bere sarre-ra aldizkariaren orrialdeetan. Hauetako gehienak –Txillardegi, J. San Martin eta Bitor Kapanaga eta beste banaka batzuk salbu–, klero erregularrekoak zein sekularrekoak dira: Iturria, Altzola, Mujika, Bilbao, Aiestaran, Berasaluze, Erdozeintzi, Altuna, Garate, Gaztañaga, etab.

¹⁸⁵ Hemen zenbatzen ez ditugunen artean ordurako hilik ziren sei idazle eta izenordez edo talde-izenaz datozen beste hamaika sinadura inguru aurkitzen dira.

¹⁸⁶ Egiazki izan, ordea, gehiago dira, zeren izenordez izenpetzen dutenak edo nor diren ez dakigunak, guztira, 13 baitira eta hauek, noski, zenbaketan sartu gabe utzi ditugu.

Arantzatzuko Jakin aldizkaria sortu zuten fraile-ikasleen noizbehinkako lankidetzeta nabarmentzen baita gehienbat, baliteke hori Jokin Zaitegik bertara egin zuen bisitak eragindako ondorioa izatea.

Gazteagoen belaunaldi honen presentzia guztiz garrantzitsua izanik ere, oro har, gerraurreko idazleak dira nagusitzen direnak. Talde batean 1935ean 20-35 bitarteko adina zutenak daude, guztira 12 idazle, hauen artean batzuk gazte hasiberriak eta beste batzuk, berriz, ordurako ibilaldi luze samarra eginda zeukatenak: B. Larrakoextea, E. Salaberry, J. Beiztegi, A. Arrue, P. Lafitte, J. A. Goiria, Agustin Miner, J. Arostegi, E. Erkiaga, Ziartso, Ziriako Andonegi eta Aldabe. Bestean 8 lagunez osatutako idazle-taldea dago eta hauen adina, urte berean, 35-50 urte bitartekoa da. Adin heldua eta buru-lanetarako sasoi betekoa, beraz. Beren produktziogintzari dagokionez, uda-giroan aurkitzen dira azken taldeki-deok, hala nola, F. Etxeberria, M. Lekuona, I. Mendiola, J. Zunzunegi, P. Muxika, Arrutza, Julene Azpeitia eta Toribio Etxeberria.

Nolanahi ere, eta hau da ateratzen dugun ondorioa, azken epealdi honetan gazte-andana polita inguratzen bazaio ere, *Euzko-Gogoa*-k helduen aldizkaria izanez egingo du bere bidea azkenera arte.

Azkenik, bi aroak, Guatemalako eta Miarritzekoak, besarkatzen dituen lankidetzaren kopurua daukagu, hiruretan murriztena dena. Talde hau 1954an 46 urte zituzten 39 lankidek osatzen du¹⁸⁷. Oro har, lankide-talde hau da emankortasunaren zein jarraitasunaren aldetik aldizkariari atxikienik zaiona. Eta idazle-multzo honen baitan, era berean, hiru belaunalditakoak sailka genitzake, erreferentzi puntutzat, lehen bezala, 1935. urtea hartuz.

Zaharrenen artean –gerraurrean 35-50 urte bitarteko adina zutenen artean, alegia– 13 idazle aurkitzen dira, hauetatik batzuk itzal handikoak, zalantzarik gabe: Orixe, Labaien, Etxaniz, Oiartzabal, Leizaola, Altube, Aita Iraizoz, etab. Hauen segidan, 20-35 urte bitarteko adina duten 11 laguneko idazle-multzoa dator, hau ere aurrekoa bezain gotorra eta produktziogintzari dagokionez, berriz, emankorrena. Multzo honetan aurkitzen dira Zaitegi eta Ibinagabeitia bikotea,

¹⁸⁷ F. Zerio eta Sorne Unzueta-ren datuak ezin bildu izan ditugu.

Gilermo Larrañaga, Andoni Urrestarazu, Telesforo Monzon, Santi Onaindia, Jon Garmendia, B. Ametzaga, Josu Insausti, Aurre-Apr aiz, J. Goikoetxea, Jakakortajarena, etab. Nahiko salbuespen gisa datozki-gu idazle-mundura gerraondoan agertzen diren hirugarren multzoko-ak: Etxaide, Kerexeta, Sorrarain, Mirande, G. Barandiaran, S. Mitx-elen, Peillen, J. M. Lekuona, Iratzeder eta Laspiur. Hauek guztiak 20 urtez azpikoak genituen 1935ean. Zaharrenak, onenean ere, orduan hasiko ziren beren lehen urratsak ematen.

Hiru epealdi horiek bateratuz gero, bi idazle-multzo nabarmen-tzen direla esan dezakegu:

Lehenik, lankidetz aroka hartuta, 1950-56ko epealdian bakarrik idatzi zutenen kopurua dezente txikiagoa da 1956-1959ko epealdian idatzi zutenena baino; eta 1950-1959ko epealdian zehar parte hartu zutenena, berriz, are txikiagoa. *Euzko-Gogoa*, hain zuzen, idazle gero eta gehiago eta gazteagoak datozkion unean hiltzen da. Baina zergatik?

Bigarrenik, aldizkariak lankide helduen adina du. Idazle gehienak gerraurreko belaunaldikoak dira, nabarmenki izan ere, ez bakarrik Gua-temalako lehen aroan, baita aldizkariaren bizitza orotara hartuta ere. Aldizkaria argitaratu izan zeneko epealdi hura (1950-59) hurbilegi zegoen gerraondoko belaunaldiarentzat, hots, beren lantxoak 1960ko hamarkadan agertzen hasi ziren gazteentzat. Belaunaldi honetakoek *Euzko-Gogoa* ezagutzen zuten, irakurtzen eta miresten ere bai, baina ez zuten parte hartu haren proiektuan, eta hori arrazoi sinple honengatik: horrelako konpromisu bati ekiteko artean oso gazteak zirelako. Ez da ahaztu behar belaunaldi honetako gehienak gerraz geroztik jaiotakoak direla. Aldizkariaren desagerpenean ez ote du bere zerikusia –agian uste baino handiagoa–, belaunaldien arteko erlebu-aldaketarik ez izate hauek? Zergatikoen bila, gure hipotesietako bat hortik doa.

Idazleen adina aipatu orduko, belaunaldiaren kontua datorkigu gogora, Escarpit-ek¹⁸⁸ “ekipoarena” deitzen diona. Ekipo hau adin guztietako idazlez osatutako idazle-multzoa da, gertakari historiko ba-tzuk direla eta, literatur munduan bere “hitza hartzen duena” eta,

¹⁸⁸ *Sociologie de la littérature*, PUF, 1968, Paris, 37.

oharkabeen edo ohartuta, bere konpromisoak denbora batez talde baten barruan hartzen dituen. Ekipoaren sorrerak gertakari historiko bati erantzuten dio, beraz. *Euzko-Gogoa*-koak ere bai. Aldizkaria euskal gizartea mota guztietako zapalkuntza sistematikoak azpiraturik zeukan une historiko jakin batean jaio zen, urrutiko erbestean jaio ere, lehen esan bezala, 1936ko gerrak etendako euskal pizkundeari jarraipena eman eta euskara kultura landutik abiarazteko xedearekin.

Euzko-Gogoa osatzen duen ekipoaren adina, batezbeste, 44 urtekoa da 1954ko ekainean. Adin hau 107 lankideren batezbestekoa da, 4. eranskinean ikus daitekeen bezala, beste 15en jaiotza-datak ez baititugu jaso ahal izan. Osoa ez bada ere, errealitatera asko hurbiltzen gaituena da lortutako datuen % 87,70 hori. Kontuan hartu beharreko beste datua da, hamarkada bereko 1958an, *Jakin* sortu eta handik bi urtera, hor idazten dutenen batezbestekoa 25 urtekoa dela eta belau-naldi berri honen norabidea erabakigarria gertatuko dela *Euzko-Gogoa*-ren iraupenean¹⁸⁹.

9.taula: Idazleen adina 1954an

<i>Ehunekotan</i>	<i>Adin-tarteak</i>	<i>Idazleak</i>
0,93	85-90	1
	88-84	
3,73	75-79	4
0,93	70-74	1
5,60	65-69	6
7,47	60-64	8
5,60	55-59	6
13,08	50-54	14
12,14	45-49	13

¹⁸⁹ Intxausti, Joseba, "Zaitegi eta *Euzko-Gogoa*. *Euzko-Gogoa*-ren lankideak", II, *Jakin*, 12, 1979, 131.

<i>Ehunekotan</i>	<i>Adin-tarteak</i>	<i>Idazleak</i>
10,28	40-44	11
6,54	35-39	7
7,47	30-34	8
8,41	25-29	9
9,34	20-24	10
8,41	15-19	9
100	5	107

Idazlea, ekinaren ekinez eta urteen poderioan, egin egiten da, lumaren trebetasuna ez baitzaio inori debalde emana sortzetiko grazia misteriotso bati esker. Idazle izateak aurretik prozesu aski luzea eta, gainera, konplexua garatzea eskatzen du. Idazleak bere heldutasuna 40 urterekin edo, lortzen duela esan ohi da literatur soziologian¹⁹⁰. Nolanahi ere, urte-data hori aldagarria bada ere, indikatzaile xume gisa bederen baliagarri izan daiteke. Beraz, *Euzko-Gogoa*-n idazten dutenen adina, batezbeste, 44 urtekoa baldin bada, buru-lanerako sasoirik onean dagoen lankide-ekipo baten aurrean aurkitzen gara.

Xehetasunetara jaitsiz, 9. taulan sei adin-tarte nabarmentzen zaizkigu, eta horietatik gehienak helduen adin-tartean, hots, 44-54 bitartekoetan kokatzen dira 1954an. Laburki esanda, *Euzko-Gogoa*-n lankide helduak idazten du, % 38k berrogei urtetik berrogeita hamabost urte bitarteko adina baitu. Honek adierazten du idazle-multzo honek jadanik ongi finkatuak dauzkala bere ideiak. Jende eginaren aurreran gaude, beraz.

Euzko-Gogoa-ko idazle guztiak belaunaldi berekoak ote dira? Ez ote dago 15 urtetik 90 bitarteko adin-tarte horretan belaunaldi bat baino gehiago? Gerraurrekoak eta ostekoak bereizita, konforme geratu izan gara, baina ez da nahikoa. Bestalde, zehaztasunak ematen hasi orduko agertzen dira zailtasunak, belaunaldi berri baten gorpuztea

¹⁹⁰ Escarpit, op. cit., 37.

zenbait urteren buruan gertatzen den mugatzea nahiko zaila baita. S. Michaudek esaten duenez¹⁹¹, “belaunaldien erritmo alternatua” ematen da. Zenbait idazleren jaiotzak pilatu egiten dira literatur historiarren garai jakin batzuetan, baina idazle-multzoak une jakin horietan pilatzeak ez dira gertatzen tarte erregularren arabera. Bestela esanda, –eta beti ere Michaud aipatuaren ustez–, belaunaldi batetik bestera pasatzeko erritmoa ez da izaten erregularra, sinusoidala eta helikoidala baizik, gutxi-gorabehera, 70 urte inguruko zikloa hartzen duena. Bidenabar, belaunaldien alternantzia erregular horien baitan 18 urteko beste 4 erdi-belaunaldi bereizten dira. Gurera etorrira, 10. taula hone-tan, 20 urteko ziklotan banatuta sailkatzen ditugu belaunaldiak.

10. taula: Idazle-belaunaldien adina 1954an

<i>Ehunekotan</i>	<i>Adin-tarteak</i>	<i>Idazleak</i>
4,67	85-90	5
	80-84	
	75-79	
19,62	70-74	21
	65-69	
	60-64	
	55-59	
42,05	50-54	45
	45-49	
	40-44	
	35-39	
33,64	30-34	36
	25-29	
	20-24	
	15-19	
100	20	107

¹⁹¹ *Introduction à une science de la littérature*, 252-258.

Lau belaunalditan sailkatutako taula horrek erakusten digun lehen gauza da, kultur belaunaldiak ez direla belaunaldi biologikoekin berdintzekoak. Populazio jakin baten adina neurtzen denean, normalean, demografi ikerketek erakutsi bide dutenez, adin-piramideak “kanpaiaren” itxura hartzen du. Kulturgileen adin-piramideak, ordea, ez du derrigorrez lege bera segitzen, zeren, batzuetan zutabearen besoak zabaldu eta beste batzuetan bildu, kanpaiarena ez beste edozeinen itxura hartzen baitu¹⁹². Puntu honetan ere *Euzko-Gogoa*-ren adin-piramide hori ez da salbuespen bat. Taulan ikus daitekeenez, 35-55 urte-bitarteko belaunaldiari dagokion zutabea dugu idazle-kopuruz ugariena % 42,05kin. Belaunaldi honetako zaharrenek -14 gutzira-, 1936ko gerra hasi zenean 19 urte baizik ez zituzten artean. Ondoren, gazteagoen belaunaldia dator % 33,64kin, zeina gerraz geroztik jaiotakoek osatzen baitute. Batera hartuta gehiengoa osatzen duten bi belaunaldi hauek, bada, gerraondokoak bailiran har genitzake, zeren oraindik 19 urterekin idazlea lehen urratsak ematen edo ematear baitago. Lehen belaunaldi-koek gerraren oroitzapena bizirik gordeko dute; bigarrengeok, aldiz, ez hainbeste. Hementxe legoke, hain zuzen, bi belaunaldi hauen arteko desberdintasunik handienetako bat, frankismo-garaiko erbesteaz hitz egiterakoan 1936ko gerra ezartzen baita abiapuntutzat.

Lankideen jaioterria

Kultur geografiak idazleak non jaiotak diren erakusten digu: zein estatutan, zein naziotan, zein eskualdetan, zein herritan. Bakoitzaren sorterrria oinarritzat hartuta, *Euzko-Gogoa*-ko idazleak probintziak edo eskualdeka banatzera pasatuko gara.

Esan beharrik ere ez dago gu hemen egitera goazen idazle hauen geografi sailkapena, idazle-multzo mugatu bati aplikatua denez gero, partziala dela garai bereko euskal idazle-multzo orokorrari buruz.

¹⁹² Escarpit, op. cit., 35.

Baina bere mugen barruan, idazle-multzo kualifikatua den aldetik, argigarria izan daiteke eta merezi du hemen agertzea. Zenbaketa hone-tan ere, guztira 107 idazleren datuak bildu ahal izan ditugu, 11. tau-lan zehazten direnak. Xehetasunak, berriz, 5. eranskinean datoz.

11 taula: Lankideen jaioterria lurraldeen arabera

<i>Lurraldeak</i>	<i>Kopuru absolutua</i>	<i>%</i>
Gipuzkoa	66	61,68
Nafarroa	6	5,60
Bizkaia	26	24,29
Araba	1	0,93
Lapurdi	2	1,86
Nafarroa Beherea	2	1,86
Atzerrikoak ¹⁹³	3	2,80

Taula horrek zerbait garbi erakusten badu, zera da: euskal lurral-dearen erdia baino gehiago lankidez ia zuri kausitzen dela, euskal idaz-lerik gabe, alegia. Iragan ez hain urrutikoan euskaldunak izandako lurralde historiko horietan euskara galdua edo indargetua dela adiera-zi bide du horrek. Araba, Lapurdi eta Nafarroaren kasuan, garbiki. Euskararen mundua, beronen kultur ingurunea, Euskal Herriko leku jakin batzuetara bakarrik mugatzen da. Horregatik, ez da kasualitatea *Euzko-Gogoa*-ko idazle gehienak Gipuzkoan eta Bizkaian jaioko izatea, hurrenez hurren, % 61,68 eta % 24,29ko portzentajeekin. Euskal idazleak, bada, euskara egiten den harrobi naturaletik ateratzen dira.

¹⁹³ Atzerriko lurraldean kokatu ditugun 3 idazle hauek Norberto Tauer, Jon Bilbao, eta Arymbat, hurrenez hurren, Txekoslovakia, Puerto Rico eta Argentinan jaioko dira.

Bestalde, Hego Euskal Herriak frankismo-garaian bizi duen egoera soziopolitiko eta kultural berezitasuna adierazten du, *Euzko-Gogoa*-ren lehen asmoetako bat erbestetuak biltzea baita. Erbesteko idazle gehienak bilduko ditu, bai, baina ez Iparraldekoak, hemengo 4 besterik ez baitira aldizkarian parte hartzen dutenak eta hauek, gainera, oso gutxi eta oso noizbehinka.

Zergatik diren aldizkariko lankide gehienak Gipuzkoa eta Bizkaikoak? Idazle-bokazioen sorreran, idazteari ekiteko faktore eragileztat, idazle birtualaren inguruko kultur giroa aipatu ohi da, zeina ikastaroek, akademiek, unibertsitate-campusak, hiriek eta hauen antzeko beste kultur plataforma erakundetuek osatzen baitute beren hizkuntza nazionala normalizatua daukaten estatu-nazioetan. *Euzko-Gogoa* atzerrian sortu zen unean –gerora ere bai–, euskal kultura Euskal Herrian umezurtz-egoeran bizi zen, basamortuan baino lehorrago, egiturazko gabezietan beheko zuloraino jauntsita. Euskal Herriak zeukan gabeziarik larrienetako bat, hain zuzen, bere unibertsitate-barruti autonomoa ez izatea zen eta, ez izateaz gain, erdiz erdi zatituta egotea: Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba Valladolidekoari atxikiak eta Nafarroa, berriz, Zaragozakoari. Euskal geografian, bereziki Bilbo inguruan, euskal oligarkiak berarentzat eraikitako zientzia aplikatuetako zenbait fakultate bakarrik aurkitzen ziren. Horregatik, fakultate gehienak Madrilen zentralizaturik zeudenez, goi-ikasketak egin nahi zituzten euskal ikasle gehien-gehienek herritik kanpora joan beste erremediorik ez zuten. Euskal idazleak, bada, bere herrian ez, baizik atzerrian edo emigrazio-egoeran izango du bere gaitasun intelektuala lortzeko aukera ia bakarra. Hauxe zen, ez besterik, beren goi-ikasketak egin zituzten % 34,67 idazleren kasua. Idazle hauek, beren ikasketak egin zituzteneko garaian, neurri handi batean bederen, bihotza eta burua Euskal Herrian, baina soina, halabeharrez, beste nonbait eduki behar izan zuten. Honi emigrazio intelektuala deitzen zaio.

Baina arestian aipatutako ikasle-tipologia hori, bere ikasketak estatu-unibertsitatearen batean burutu zituen ikasle laikoari bakarrik aplikatu dakiok. Izan ere, geroago zehaztuko duguna aurreratuz, *Euzko-Gogoa*-ko idazleen erdiak baino zertxobait gehiago, % 54,20ko por-

tzentajea garaiarekin, klerikoak dira. Eta kleriko sekular eta erlijioso gehienen prestakuntza intelektuala euskal geografian bertan kokatuak zeuden Seminario eta Ikastetxe Nagusietan –klero sekularraren kasuan zehazki Gasteizkoan eta Iruñakoan– burututako eliz ikasketetara mugatzen zen, ikasle banaka batzuk bakarrik baitziren nagusiek atzerria –orduan, batez ere, Erromara, edota baita Comillasera ere– Filosofian edo Teologian unibertsitate-tituluak ateratzera igortzen zizutenak. Orixek, adibidez, Comillasen ezagutu zituen Nemesio Etxaniz eta Martin Oiartzabal apaizgaiak.

Bestalde, 1950-1959ko epealdi osoan zehar aldizkariari oparotasunaren zein jarraitasunaren aldetik atxikienak izan zitzaizkion idazle gehienak, lehen esan bezala, gerraurrekoak ziren eta, gainera, klerikalak. Honek esan nahi du *Euzko-Gogoa*-ko idazle finko eta atxikienak gerraurrean Eliz Ikastetxeetan nagusitzen zen kultura erlijiosoan presatuak izan zirela eta euskalgintzarako gogoak eliz erakunde horietan jaso zutela. Gasteizko Seminario Nagusia lekuko¹⁹⁴.

Lankideen lanbide sozioprofesionala

Euzko-Gogoa euskara kultur hizkuntza bihurtzeko asmoz jaioa izaki, unibertsitate-ikasketak egiteko gaitua nahi zuen zuzendaritzak, gai berezitetan trebatua. Gaur esaten den bezala, hizkuntza normalizatua, baina, bereziki, prosa akademikoan.

Baina helburu hori lortzeko gaitua ote zegoen aldizkariko ekipoa? Bertan idatzi zutenek zein lanbidetan ziharduten eta, bidenabar, nolako prestakuntza profesionala zeukaten aztertzeraz garrantzitsua galdera horrek. Hezkuntzaren Soziologian egindako gaurko ikerketek erakusten duten bezala, egia bada ere langileak neurri batean lan-munduan bertan lortzen dituela lanpostuari egokitutako trebetasun bereziak eta

¹⁹⁴ Ikus Paulo Iztuetaren “Euskal eliza eta seminarioak”, *Rikardo Arregi. Gizona eta garaia*, M. Larramendi Kultur Bazkuna, Andoain, 1996, 121-198.

bertan hobetzen duela bere gaitasun profesionala, ukaezina da, halaber, goi-mailako prestakuntza intelektuala, teknologikoa nahiz humanistikoa, hezkuntza formalean lortutako giza kapitaletik eratorria dela. Bidezkoa da, beraz, *Euzko-Gogoa*-ren giza kapitalaz galdetzea. Horretara dator hurrengo 12. taula, 6. eranskineko datuak laburbiltzen dituena. Taula honetan, lankideak lau taldetan sailkatuz, ekipoa-ren curriculum-a zein den marrazten da urrats luzetan.

12. taula: *Lankideen lanbide profesionala eta ikasketak*

<i>Lanbideak</i>	<i>Kopuru absolutuak</i>	<i>%</i>
Liberalak	36	33,64
Autodidaktak	12	11,21
Letrak eta Arteak	1	0,93
Eliz ikasketak	58	54,20
Guztira	107	100

Taula horretako datuek, gerraondoko epealdi berari buruz lehen-dik eginda dauden beste azterketek dakartena berretsi besterik ez dute egiten, eta da, euskal kulturgintza orokorrean bezala¹⁹⁵, klerikoak direla *Euzko-Gogoa*-ko lankidetzaren erdia baino gehiago osatzen dutenak beren % 54,20ko portzentajearekin. Klerikoak diogunean, sekular eta erlijioso apaiztuak ez ezik, orduan apaizgai eta erlijiosogai zirenak ere halakotzat hartzen ditugu. Beheko 13. taulan zehazten da kleriko-mota horietako bakoitzak aldizkarian duen partaidetza.

¹⁹⁵ Sarasola, Ibon: *Euskal literatura numerotan*, Kriselu, Donostia, 1975, 68-75.

13. taula: Klero-mota bakoitzaren lankidetzaz

<i>Motak</i>	<i>Kopuru absolutua</i>	<i>Ehunekotan</i>
Sekularrak	17	29,31
Erljiosoak	28	48,27
Apaizgai eta erlijiosogaiak	13	22,41
Guztira	58	

Azken taula honetan datu bi ditugu ohargarri: batetik, idazle erlijiosoak gehiago direla sekularrak baino % 48,27rekin eta, bestetik, gehienek beren eliz ikasketak bukatuak dituztela. Ikasle klerikalen portzentajea ez da laurdenera ere iristen. Ez dakiguna da kleriko horietatik zenbat ziren unibertsitate-tituludunak, batez ere, zaharrenen artekoetan. Ikasleek Miarrizteko aldiari idazten dute gehienbat eta hauen artean ia gehienak erlijiosogaiak dira, batik bat, frantziskotarrak eta jesuitak. Erljioso apaiztuen artean, berriz, 9 jesuita kontatu ditugu.

Klerotik at, 12. taulan ikus daitekeenez, lanbide liberaletan ari den % 33,64ko idazle-multzo sendo batek goi eta erdi-mailako ikasketak eginak ditu¹⁹⁶; autodidakten kopurua, norbere gaian aditua izatea eskatzen duen goi-mailako kultur aldizkari batean, aski nabaria da bere % 11,21eko portzentajearekin¹⁹⁷. “Letrak eta Arteak” sailean, Orixe dugu lumatik bizi den bakarra. Esatera goazena euskal idazlee-kin ezertan konparatzekoa ez bada ere, derragun datu bitxi gisa, 1954an, Frantziako 128 idazletatik % 41 zela lumatik bizi zena.

¹⁹⁶ Tituludunak honela banatzen dira sail akademikoen arabera: Merkatal peritutza 4, Industri peritutza 4, Arkitektura 1, Injinerutza 1, Filosofia 2, Zuzenbidea 7, Hizkuntzalaritza 3, Irakasletza (bizibidea) 6, Ekonomia 1, Biologia 1, Medikuntza 2, Pintura 1, Enpleguak (bizibidea) 3. Hemen nahasirik datoz ikasketa-motak eta bizibideak. Irakasle eta enplegatuen ikasketa-motak ezin zehaztu izan ditugu.

¹⁹⁷ Hamabi autodidakta horietatik 3 batxilergoa eginik dutenak dira.

ZAZPIGARREN ATALA

ITZULPENAK

Hizkuntza baten garapenean munta handiko puntua dugu itzulpenena. Itzulpenetara jo beharrak, euskara bezalako hizkuntza minorizatuena kasuan bederen, hizkuntz menpekotasuna adierazten du. Kulturaren aldetik aitzindarritza daramaten hizkuntzak izan ohi dira edozein motatako sorkuntzazko emaitzetan emankorrenak eta horiek baino ahulagoak diren beste hizkuntzek, hauek ofizialak eta erlatiboki indartsuak izan arren, hizkuntza “pivot” horietatik edaten dute. Zenbat hizkuntza ez dira egun ingelesaren esaneko! Bestalde, badira kultura unibertsalean jadanik kontsaktuak diren obra klasikoak. Hauen erreferentzia jasotzea ezinbestekoa du aurrera egin nahi duen hizkuntzak.

Esanak esan ondoren, garbi dago euskarak baduela zerikusirik itzulpenaren arazoarekin. Euskara gehienbat nekazal giroan landutakoa eta betidanik babes ofizialetik baztertuta egondakoa izaki, normala zen noizbait euskaltzaleek ondare unibertsaletik zati hautatuak euskaratzeari sistemaz ekitea. *Euzko-Gogoa*, zuzendaritza-mailan bederen, arazo honen garrantziaz oso ongi jabetua baitzegoen, haste-hastetik irekiko du itzulpenen saila, bereziki Literaturan. Zein neurritan heldu zion, hau da jakin behar dena. Gero baloratuko da, beste nonbaiten, itzulitakoa nola itzulia den. Lehen hurbilpen gisa, 14. taulan, itzulpenlanaren begirada orokorra eskaintzen da. Datu osoak 7. eranskinen aurkitzen dira eta horiek begien aurrean ditugula eginen dugu puntu honi buruzko geure aurkezpena.

14. taula: Itzultzaileen lankidetza

<i>Itzultzaileak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Larrakoetxea	281	37,46
Zaitegi	157	20,93
Larrañaga	68	9,06
Ametzaga	53	7,06
Onaindia	28	3,73
Insausti	18	2,4
Mirande	18	2,26
Zaitegi-Ibinagabeitia	17	1,86
Ibinagabeitia	14	1,73
Juaristi	13	1,06
L. M. Mujika	8	0,93
Julibe	7	0,8
Etxaniz	6	0,66
S. Garate	5	0,66
Irigoiñ	5	0,66
Sorrrain	4	0,53
Arrutza	4	0,53
F. Etxeberria	4	0,53
Mokoroa	4	0,53
Aresti	1	0,13
Erkiaga	1	0,13
Iturriotz	1	0,13
Labaien	1	0,13
23	750	100

Kontuan hartzen bada *Euzko-Gogo*a-k orotara hartuta 3.658 orrialdeko sorta osatzen duela, horietatik 750 itzulpenek betetzen dituzte. Portzentajetan emanda, guztizkoaren % 20,50. Indize hau alderatzen bada 1950eko hamarkada berean emandako euskarazko

produkzio osoarekin, ageri da hemen itzulpenen kopurua zertxobait apalagoa dela: hots, % 17,53koa¹⁹⁸. Ez da ahaztu behar, bestalde, hamarkada horren barruan argitaratu zirela Orixeren itzulpen-lan nagusi gehienak (*Urte guziko Meza-Bezperak*, 1950; *Aitorkizunak*, 1956), Ametzagaren *Hamlet* (1952) eta Olabideren *Itun zar eta berria* (1959), denak ere orrialdez txinaurriak bezain ugariak. Baina *Euzko-Gogoa*-n oraindik handiagoa da itzulpenerako joera. Zeren seinale ote da hau?

Koro Nabarrok Donostiako 1983ko Udako Ikastaroetan emandako datuen arabera¹⁹⁹, ageri zen euskarazko produktziogintzaren historian zehar itzulpenaren esparrua murriztuz zetorrela jatorrizko sorkuntzaren amoretan. Proportzioak hauek ziren, epealdiz epealdi proportzio honetan: 1545-1879an % 47,93, 1934-35ean % 26,66, 1962-63an % 14,85, 1972-73an % 12,87, eta 1982-83an % 14. Azken epe honetan, ordea, badirudi beherazko joerari eutsi egiten zitzaiola eta berriz ere indartzera zihoala, hizkuntzaren normalizazio-prozesuak hala eskaturik. *Euzko-Gogoa* joera orokor horren harian beste argitalpenak baino murgilduago agertzen bazen itzulpenen uretan, egiteko hori bere helburuetan sartzen zelako zen, hasieran bertan eginik baitzeukan euskara landuaren aldeko apustua. Apusturik gaitzenetako bat zen, hain zuzen, klasikoen obrak jatorrizko hizkuntzetik zuzenean eta duintasunez itzultzea. Eta *Euzko-Gogoa*-k egin ere, halaxe egiten du. Eta aldizkari honen orduko asmo honek, itzulpen-teknikaren erabileran asmatu zuten ala ez alde batera utzita, badu zerikusi zuzenik oraingo hizkuntz normalizazioan itzulpengintzari ematen zaion garrantziarekin.

Arestian emandako 14. taula horretan Bedita Larrakoetxea dator buruan % 37,46ko portzentajearekin. Bera itzultzailerik emankorrena izateak ez du deus harritzekorik, zeren aldizkariari egindako bere ekarri gutzia itzulpen-lanetara bakarrik mugatzen baita. Berak itzuliak dira Shakespeareren zenbait lan: *Macbeth* 1957an, *Lear Errege* 1958an

¹⁹⁸ *Euskal idazleak, gaur*, 1977.

¹⁹⁹ "Euskal itzulpenaren iragana eta oraina", Donostia, 1983-09-3.

eta *Ekatxa* 1959an. Baina sorkuntzazko lanik ez du eskaintzen. Jokin Zaitegik jarraitzen dio ondoren % 20,93rekin. Bi autore hauek burutzen dute itzulpen-lanaren zatirik handiena, erdia baino gehiago % 57,39rekin. Zaitegik, zenbait poesia moderno euskaratzen ahalegintzen bada ere, batez ere, greziar klasikoak hautatzen ditu: Sopokel-en *Aiatz*, *Tarakin'go emaztekiak* eta *Piloktete*, hauek denak 1957ko zenbakietan emanak. Hirugarren sail batean sar daitezke beste itzultzaile guztiak, zeren, Larrakoetxea eta Zaitegi kenduta, beste inor ez baita iristen produkzio osoaren % 10era, Gilermo Larrañaga eta Bingen Ametzaga portzentaje horretatik nahiko hurbil badabiltza ere.

Ikusi dugu nor diren itzultzailerik oparoenak. Segidan beste galdera hau dugu egin beharrekoa: *Euzko-Gogoa*-k zein itzulpen-mota du gogokoen? Itzulpenetan, oro har, literatura nagusitzen da eta honen barruan, batik bat, ondoko hauek:

— Antzerkia: Shaspeareren *Macbeth*, *Lear Errege* eta *Ekatxa*; Sopokel-en *Aiatz*, *Tarakin'go emaztekiak*, *Piloktete*; Aiskilu'ren *Prometeu burdinetan*; Benaventeren *Abere-indarra* eta *Gaitzetsia*, Bergiliren *Unai-kantak (Bukolikak)*, etab.

— Poesia labur ugari: Eichendorffen *Irukoitza*, Costa Lloberaren *Formentor'ko lerrondoa*, Dehmelen *Bi gogoen eresia*, Uhlanden *Arroz-tetxeko alaba*, Sully Proudheren *Begiak* eta *Sinisten dut askatasunean*, Poeren *Bela*, Von Hofmannsthaten *Lekhoreko biziarena*, Verlainen *Udazken kantua*, Baudelaireren *Gauontza*, Maragallen *Bei itsua*, Goetheren *Linkeus dorrezaia*, etab.

— Ipuinak: Shakespeareren *Neguko ipuia*, *Milla ta bat gauetako ipuiak*, etab.

— Kontakizunak: Collodiren *Pinotxo'ren biurrikeriak*, Barojaren *Angelus*, *Mari Beltza*, *Tellagorri*, Kanpionen *Itzaltzuko klobaria* eta *Erraondoko danbolinteroa*, Saroyaren *Zaldi zuriaren edestia* eta *Antziñako maitasun edestia*, Kafkaren *Legearen aitzinean*, Lagerlofen *Gau donea*, etab.

— Nobela-zatiak: Barojaren *Altzateko Jauna*, Sternen *Neskazarra*, etab.

Eta besterik, Virgilioren *Enea'rena* epopeia barne.

Itzulpen guztiok, bada, hertsiki literaturari dagozkionak dira. Badira, halere, nolabait saiakera-sailean sartuko genituzkeen beste zati batzuk: Zizeronen *Adiskidetasuna*, Kanpionen *Izkuntza eta Abenda*, Hilckmanen *Europako erri zaharrena*, etab. Orokorrean hauxe esan dezakegu: itzultzaile hauek kanpoko iturrietara jo zutenean, literaturan zeuzkatela jarririk beren begi-bihotzak. Beste hizkuntzetatik egingdako ia ekarpen guztia antzerki, poesia eta narratibara mugatzen da. Jakintza-mailako informazio-kezkarik apenas ageri den. Eta dagoen apurtxo hori, berriz, politika-esparrukoa dugu gehienbat, Euskal Herriaren gizarte-egoerarekin zerikusirik baduena, noski. Aipagarriak ditugu, zentzu honetan, Zaitetik itzulitako *Siñesten dut askatasunean* (1956), Hilckmanen *Europako erri zaarrena* (1959), Gotzon Garatek itzulia. Kezka politikoa badutela, zalantzarik ez da. Baina euskarak bere salbabiderako gorabidean eskatzen duena ez da, gizarte-zientzietan ohi denez, gai soziopolitikoak eta kulturalak elkarri josirik lantzea, literatura klasikoa etxeratzea baizik. Euskara jantziak, Lizardi poetak zernahitarako gaitua amesten zuen hark, literaturazko soroak urratu behar ditu lehenik. Bestela esanda: hizkuntza baten garapenean literatura dela tresnarik eragingarri eta beharrezkoa pentsatzen dute. Beraz, itzulpenetan nolako aukera egin zuten ikusi eta gero, esan dezakegu euskeraren normalizaziorako irizpidea gehienbat literaturaren baitan ezartzen zutela. Joera hau berresten da, ez bakarrik gaien sailkapenean, baita itzulpen-lanetan ere.

Beraz, literatur gaiek markatzen baitute lehenetasuna, ez beste zientzi gaiek, itzulpen-lanetan ere bide hori jorratu behar da. *Euzko-Gogoa*-ko kudeatzaileak konbentziturik daude, egon, itzulpenak egin beharrekoak direla euskara kultur bidean jarriko bada. Sorkuntzazko lanak garrantzitsuak badira, ez gutxiago itzulitakoak. Zentzu honetan, bada, ez da harrigarria gertatzen Jokin Zaitegi zuzendariaren idazlanetan itzulpen-lanak sorkuntzazkoak baino gehiago izatea. Esanez gatozenaren harian zuzen dator guztia.

Literatur generoaren aldeko aukera egin eta gero, komeni da jakitea, atzerriko autoreak itzultzerakoan, nondik nora doazen aldizkariko itzultzaileen gustuak. Puntu hau zehazteak idazle-multzo garrantzitsu

baten aukera estetiko eta ideologikoa zein den adieraziko digu. Hau itzultzaile bakoitzak zein autore eta honen zein lan hautatzen duen ikusiz egiaztatzen da, 7. eranskineko taulan xehetasunez azaltzen duguna. Atzerriko autoreen zerrendan, klasikoak aurkitzen dira, greziarrak (Eskilo, Sofokles) eta lantindarrak (Zizeron, Virgilio, Petronio, Ovidio). *Euzko-Gogoa*-k antzinateko literaturari eskaini dizkio orrialderik gehien, Zaitegi, Ametzaga, Ibinigabeitia, Onaindia eta Arrutzaren eskutik. Autore hauek, bada, tradizioaren erro-errora doaz estetikaren bila. Eredu greziar-latindarra hartu izanak badu zerikusirik, beharbada, itzultzaile horiek zeukaten prestakuntza-motarekin eta ikasketa-garaian bizi izan zuten kultur giroarekin. Eta hau esatean, gerraurrean eta ostean klerikoentzako Elizako Ikastetxe Nagusietan grekoaren eta, batez ere, latinaren ikasketari eman ohi zitzaizkion ordu luzeak datozkigu gogora²⁰⁰. Ez da harrizkeoa, beraz, trebatuenak ere literatur gaietan izatea eta esparru zabal horren barruan, berriz, kultura moderno eta garaikidean baino gehiago klasikoan eta eskolastikoan. Zentzu honetan, jesuiten pedagogian eskolatuak ildo bertsutik dabil-tza bai *Euzko-Gogoa*-n bai hemendik kanpora ere. Olabide, Orixe, Zaitegi, Ibinagabeitia, Gaizka Barandiaran eta abarren artean bada nolabaiteko kideretasunik, zeren horien lumatik itzulpen asko sortzen baita, gehienak, esan bezala, iturri klasiko eta erlijiosoetakoak²⁰¹. Kointzidentzia honetan talde-homogeneotasun gehiegixko kausitu iduri zaigu kasualitate hutsez esplikatu ahal izateko. Orixe bere *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra* eta Zaitegik bere *Platon'eneko atarian* saioretan, bakoitzak bere modura, arrazoiak ere ematen dituzte bide hori zergatik hautatzen duten esanez.

²⁰⁰ Hizkuntza klasiko hauekin, Martin Oiartzabalek Orixei eskainitako *Omenaldi* liburuan (Donostia, 1965, 121) dioena gertatzen da: "Apaizgai etxeetan ikasten bada ere, apaiz eginda gero, geinetan aantzi egingo da, ta urte askoren buruan, irakurten ere aantzi". Latinarekin ez hainbeste, baina grekoarekin, batez ere, horrelako zerbait gertatu izan da. Baina ez zen horrelakorik gertatu *Euzko-Gogoa*-ko lankide klerikalekin eta, modu berezi batez, Jesuiten Eskolatik zetozenekin.

²⁰¹ *Jakin*, 21, 1981, 151.

Beste autore pribilegiatua, Shakespeare dugu, Mendebaldeko Europako sorkuntza dramatikoa bere gailurrera eramanez poeta eta dramaturgo ingelesa. Bakarka hartuta, haren lanak izan dira gehien itzuliak, askogatik gainera; baita maitatuena ere, haren ezititik milizkatu baitute Arestik, Ametzagak, Larrañagak eta, bereziki, Larrakoetxeak. Hauek guztiek, Shakespeare euskaratzean, bere garaiko gizarte-egoera ispiluan bezain argi islaturik ematen duen eta, aldi berean, tragikotasun, komikotasun eta sekulako zain poetikoaren jabe den norbait etxeratzen digute. Norbait puntuala, dudarik gabe. Gaur egun, Shakespearek literato handien erreferentzi puntu ezinbestekoa izanez segitzen du, baita gurean ere. Bat aipatzearren bakarrik, Sarrionaindiaren harenganako gogominak bitez lekuko. Kartzelako bere oroitzapenak jasotzen dituen haren *Intxaur azal baten barruan* izeneko pieza tragikoa, hain zuzen, *Hamlet*-en inspiraturik dago²⁰².

Autore alemanen artean, Antonio Maria Labaienek Goethe dakarkigu, joera klasikoko poeta eta dramaturgoa, herri-poesiaren maitalea eta Shakespeareren mireslea. Zaitetik, berriz, poeta erromantikoak aukeratzen ditu, hala nola: Ludwig Uhland poeta lirikoa, gai erromantikoak darabiltzana eta, estiloaren aldetik, herri-kantetan oinarritzen dena, eta Joseph Eichendorff, Alemaniako erromantiko berantiarren artean garrantzitsuenetakoa, hau ere herri-kutsuz betetako poeta lirikoa dena. Zaitegirengan erromantizismoa gailentzen bada ere, badi-rudi, aldi berean, Richard Dehnel bezalako poeta bat euskaratzean, inpresionismo-joerako lirikari eta eduki sozialeko poesiari ere ez diola muzin egiten. Frantzia Parnasotik hurbil dagoen Sully-Proudhomeren lirika hartuko du, lirika pesimista, sentimenduak hunkitzen dituenena. Eta Italian, berriz, gizarte-gaiak eta nekazal bizitza kantatzen dituen Giovanni Pascoli liriko eta melankolikoaren zatiak ematen dizkigu. Katalan literaturatik, Mallorcako Costa Llobera apaizaren poesia lirikoa jasotzen digu, baretasunaren kantaria. Arrasatearrak euskaratzeko zein poeta hautatu dituen ikusiz gero, esan beharrik ez dago

²⁰² Puerto de Santa Maríako kartzelatuek 1983ko irailean argitaratua.

haren gogoko poesi mota zein den: erromantikoa, psikologikoa, bukolikoa, herrizalea, inpresionista, gizatiarra.

Gabriel Arestik itzulpen arras gutxi du *Euzko-Gogoa*-n emana, baina, Charles Baudelaire eta Paul Verlainerekin, sinbolismo eta surrealismoaren aire berriak dakartza aldizkarira. Miranderen dastamen poetikoa, halaber, adierazgarria gertatzen da. Aresti Frantziara doan bezala, Mirandek Iparrameriketatik mundu zankar eta zoritxarrekoaren adierazle bizia den eta frantziar sinbolismoari bidea irekitzen dion Edgar Poe idazlea ekartzen digu eta, honekin batera, Eugene O'Neill dramaturgo errealista eta espresionista, sakoneko psikologiaz eta pesimismoz kutsaturik dagoena; Austriatik, berriz, Hugo van Hofmannsthat eta Franz Kafka apartatzen ditu, lehena indar liriko handikoa eta neorromantikoa eta bigarrena, berriz, giza existentzia paradokiko eta absurdoaren erakusle nabarmena. Miranderen aukera ere, ezin uka, oso loturik doa bere pentsamoldearen ardatza den filosofia negatiboari.

Josu Insaustik, bere aldetik, William Saroyan iparramerikar idazlearen zenbait lan itzultzen ditu –honenak, batez ere–, zeina istorio laburretan eta haur-literaturan sentsibilitate fineko idazlea baita. Berari zor diogu, baita ere, paisajeari eta ipuin-tradizioari hertsiki atxikirik dagoen Serma Lagerlof emakume suediarra ezagutu ahal izatea. Laurence Sterne ingeles idazle sentimentalista ere haren lumaren bidez sortua da euskal literaturan.

Gaztelaniazko literaturan, besteak beste, hiru dira begiz jotakoak: Venavente antzerkilari kostunbrista eta errealista, eta gure lurrean Pio Baroja eta Campion. Bitxia: Unamunorenik ez dator.

Ez dugu, noski, aldizkarian euskaratuak izan diren autore guztiak banan-banan aipatzeko asmorik. Nolanahi ere, eskura datorkigunez, esan dezagun Luis Mari Mujikak Carlo Collodiren *Pinotxo* euskaratu zuenean, haur-liburu moderno baten egilea etxeratu zuela. Era berean, Gilermo Larrañagak autore ezezagunaren *Milla ta bost gauetako ipuiak* itzultzean, Indiatik omen datorren eta hemen Mendebaldeko Europako XVIII. mendean ezagutzera eman zen ipuin-bilduma, benetan estimagarria, jarri zuen euskal irakurlearen eskuetan.

Itzulitako lan horiek aski adierazgarri gertatu zaizkigu *Euzko-Gogoa*-ko itzultzaileak, beren gogoan ase behar horretan, norantz jo zuten egiaztatu ahal izateko. Askok laburtuz, hauxe da esan dezakeguna: itzultzaile-kopurua erreferentzetan hartuta, gehienak Europako aro modernora begira zeudela, ez hainbeste garaikidera; testu-masa erreferentziatzen hartuta, aldiz, ageri da klasiko greziarrak eta latindarrak nagusitu zirela, Shakespeareren salbuespenarekin.

Euzko-Gogoa-ren itzulpenarako joera hori, ordea, ez zen euskarazale guztiak onartu. Ezta gutxiagorik ere. Koldo Mitxelena²⁰³, adibidez, gehiegikeria zeritzon hainbeste jende itzulpenetan jarduteari²⁰⁴. Betikora gatzoz: sorkuntza ala itzulpenak, zein bide lehenetsi behar da? Orduko arazoa gaurkoaren antzekoa da inondik inora. Biak beharrezkoak, zalantzarik gabe. Ikerketari dagokionez, sail honetan kontsultatu beharreko bibliografia espezializatua beste hizkuntzetan idatzia dago gehienbat eta gurea hizkuntza horiez hornitu edo horietara zuzenean joan beste biderik ez da gelditzen. Hala edo honela, informazioa lortzea da kontua. Bestalde, gurean prosa akademikoaren lanketan azkenaldiotan asko aurreratu den arren, nola oraindik ere unibertsitate-esparruko hainbat diziplinatan euskal lerroa finkatze dagoen –zenbait ikasketatan erabat birjin ez esatearren–, esparru horietan euskarak guztien beharra du. Badirudi itzulpenen arazoa, garaian garaiko beharren arabera, beti beharrezkoa izanik ere, funtzionaltasun koiunturalen esanekoa dela.

Egun, gainera, gutxi-asko hizkuntza guztiak dira maila batean zordun, aro jakin batzuetan gehiago beste batzuetan baino. Hona hemen datu bat esaten ari garena hobeto ulertzeko: frankismoaren aro autarkikoan, zehazki *Euzko-Gogoa* sortu zen 1950. urte berean, zientzi sailean soilik argitaratu ziren liburu guztietatik % 54 izan ziren gaztelaniaz sortutakoak eta % 46 itzulitakoak. Handik hamabost urtera, 1965ean, proportzioa, hurrenez hurren, % 33 eta % 67koa zen²⁰⁵.

²⁰³ "Osaba zaharren baratza", *Egan*, 3-6, 1960, 121-134.

²⁰⁴ *Jakin*, 21, 1981, 151.

²⁰⁵ "Le drame du clergé espagnol", *Études*, avril, 1968, 370-371.

Datu hauek interpretazio bat baino gehiagotarako bide eman dezaketen arren, esan dezakegu, Espainiaren kasu honetan bederen, ezarria dagoen kontrol ideologikoarengatik, pobrezia zientifiko eta intelektual baten aurrean aurkitzen garela eta, testuinguru honetan, itzulpengintza irekidurarako tresna bihurtzen dela. Hizkuntza baten garapenerako zenbat eta sorkuntza gehiago orduan eta hobeto, ekuazio honek ez bide du beti balio. Sorkuntza kalitatezkoa bada, orduan bai, orduan beste hizkuntzetara itzulpen-bidez esportatzeko ere balio dezake. Eta hizkuntza batek bere gizarte-eginkizunak betetzeko sorkuntza landu eta gaitua eskatzen badu eta, gure kasuan bezala, oraindik normalizatu bidean edo gabe dagoelako, helburu horri erantzuteko gauza ez bada, arrazoizkoa dirudi itzulpenetara jotzea, are gehiago autore klasikoan lanik funtsezkoenak itzultzeke daudenean, horien ekarria jadanik edozein kultura landutan emana baitator. Lehen esan bezala, elebitasunaren politika hezkuntza elebidunean eta maila apalago batean administrazioan finkatuz joan ahala, euskal liburugintzan itzulpenak berriz ere ugaritzen hasten badira 1982-83ko epealdian, hori seinale da euskararen normalizazioak itzulpenen beharra duela eta argialetxeek merkatu horretan leiatzera jotzen dutela. Dena den, itzulpenen inguruko argitalpen-estrategian urrats disfuntzionalak nabarmentzen diren arren hamarkada batetik bestera, joera gisa, kurba gorantz egiten du, 1982an liburu itzuliak % 14 izatetik, 1999an % 20,3 izatera pasatzen baitira.

Beraz, prosa akademikoa egin, sortuz egiten da, itzuliz baino gehiago, sorkuntzak ematen baitio garaitasuna hizkuntza bati; baina itzulpenak ere beharrezkoak dira, eta izanen, hizkuntza autoaskirik ez baita ematen, gutxiago oraindik euskara bezalako hizkuntza minorizatuaren kasuan.

ZORTZIGARREN ATALA

ALDIZKARIA DESAGERTZEAREN ARRAZOIAK

Badakigu zergatik eta zertarako sortu zen *Euzko-Gogoa*. Beharbada ez da oraindik beharbeste argitu zergatik hil zen. Arrazoi batzuk eman izan dira: bat, ez zela desagertu idazleen zahardadez, zuzendariak zabalkundearen arazoa sekula ongi askatu ez zuelako baizik²⁰⁶; bi, *Euzko-Gogoa*-ren tiradak harpidedunen kopurua baino handiagoak izaten zirela eta horrela, bera hil zenean, 1956, 1957 eta 1958 urteetako 1.034 ale aurkitu zituztela bere etxean alfer-aferrik pilatuta²⁰⁷. Honela uste dutenez, Jokin Zaitegi diru-administratzaile koxkorra izan zelako edota behar bezala gizarteratzen jakin ez zuelako jo zuen lur aldizkariak. Badirudi Jokin Zaitegi zuzendariaren erru pertsonala izan zela aldizkariaren heriotza goiztiarra.

Baina beste arrazoi batzuk ere badaudelakoan gaude gu, agian oinarrizkoagoak direnak eta ibilaldi honetan, han-hemen, azalduz etorri garenak.

Zuzendariak bazekien, jakin, aldizkariaren bizitza irakurlearen baitan zetzala neurri handi batean eta ahalegindu ere, ahalegindu zen haste-hastetik ahalik eta gehien zabaltzen eta lurralde desberdinetan

²⁰⁶ Jose Intxausti, "Zaitegi eta *Euzko-Gogoa*. Hamar urteko lana (1950-1959)", II, *Jakin*, 13, 1980, 111.

²⁰⁷ Velez de Mendizabal, Josemari, op. cit., 120-121.

arduradunak ezartzen. Bigarren zenbakian arduradun hauen izenak datoz: Peli Irizarrena Parisen, Andoni Arozarena Caracasen, Galindezena New Yorken. Harpidedunak egiten ere saiatu zen. Guatemalako aldian, guztira, 339 harpidedun egitea lortu zuen, honela banatuta: Euskadin 180, Espainian 10, Europan 41 eta Amerikan 108. Kopuru polita erbestean argitaratzen den aldizkari batentzat. Baina zuzendariak, aldioro, aterabide zaila zeukan arazo batekin egin zuen topo, eta zen 339 kopuru hartatik 64k, hots, % 18,8k ez zuela ordaintzen²⁰⁸. Kobratzeko zailtasunik handienak Europa eta Amerikan zituen. Garaiko erbestetuen artean euskaltzaleenak jeltzaleak baitziren, harpidedun gehienak ere giro horretakoak ziren. Ikusi dugun bezala, Jokin Zaitegik eta Andima Ibinganabeitiak behin baino gehiagotan azaldu zuten “jeltzale” diruzale horienganako haserrea. Andimak, aldizkariaren idazkaritza hartzean, hirurogeiren bat izen ezabatu zituen harpidedunen zerrendatik. Zenbaki bakoitzetik ale gehiegi atertzen zituela? Agian, bai. Guatemalako aldian, 500 ale guztira. Ez da gehiegi ere, baldin kontuan hartzen bada horietatik 400en bat harpidedunentzat zirela²⁰⁹. Gauzak horrela, huts egiten zuena ez ote zen jeltzaleen euskaltzaleen eskasa eta ez hainbeste, esan izan den bezala, zuzendaritzaren antolaketa nolabaitekoa?

Miarritzeko aldian, 874 harpidedun izatera iritsi zen aldizkaria, Guatemalako aldian baino 535 gehiago, honela banatuta: Ipar eta Hego Euskal Herrian 554, Espainian 21 eta Europa eta Amerikan 299. Bigarren aldi honetan, mila ale atera zituen eta horietatik, 1957ko datuen arabera, 800dik gora banatzen. Baina hemen beste arazo-mota bat sortu zitzaion: harpidedunek ez zituztela eskuratzen aldizkariak, alegia. Hori batetik, eta bestetik, muga isilpean pasatu beharrak kosuak handitu egiten zituela eta bidean ale batzuk galdu egiten zirela²¹⁰.

Ipar Euskal Herriko erbeste-egoera hartan, zabalkunde-sarea antolatzen ahaleginak egin arren, hari-punta guztiak lotzea ez zen batere

²⁰⁸ Ibid., 111-112.

²⁰⁹ Ibid., 111.

²¹⁰ Ibid., 119-120.

erraza gertatzen, zuzendaritzaren eskutik at aurkitzen baitziren aurreikus ezin zitezkeen hainbat zirkunstantzia. Horregatik, zuzendaritzaren diru-iturri pertsonalak ahitzearekin batera desagertu zen aldizkaria ere.

Litekeena da Jokin Zaitegik horrelako egoera latzak eskatzen zuen zuhurtzia guztia ez erabili izana bere aldizkariaren kudeaketan. Baina haren alde esan beharra dago –arras goitik esan beharra, gainera–, erbestean beste inork ez bezala sortu zuela dirua euskararen alde. Zaitegik dirua erruz sortu zuen eta dena euskal kulturaren zerbitzura-ko. Landibar lizeoa sortu eta gidatzeko kuraia eta gaitasuna izan zuen eta, neurri handi batean, horri esker bideratu zuen *Euzko-Gogoa*, Orixe eta Andimaren lankidetzak ordaindu, bere idazlanen argitalpenak finantzatu, eta beste hainbat ekimen burutu. Ez da zuzena, arinegi esan izan den bezala, Jokin Zaitegi diru-kontuan nolabaitekoa zelako, dirutza handiak xahutu zituela. Nire ustez, *Euzko-Gogoa* desagertzearren arrazoiak, ez Jokin Zaitegiren zuzendaritzari legokiokeen maila pertsonalean, erbeste-egoerari berari dagozkion egiturazkoetan baizik kausitu behar dira. Azken honetan, batez ere. Erbestean aldizkariak laguntza nonbaitetik jasotzekotan, instituzio-mailan, Eusko Jaurlaritzatik espero zezakeen. Ez dakigu zenbateko diru-laguntza hartu zuen, baina, bai, Jose Antonio Agirre lehendakaria hiltzean, laguntza hori bukatu egin zela. Jeltzale dirudunek, berriz, aintzakotzat ere ez bide zuten hartu euskararen aldeko kausa. Parisko Batzar Nagusikoan proiektu dotoreak agertu ziren, Ipar Euskal Herrian burutu beharrekoak, baina dena amets hutsean geratu zen. Hemengo euskaltzale populistentzat ere Jokin Zaitegiren kultur asmo igoak ahuntzaren gaueko eztularen pareko ziren eta entzungor egin zien.

Labur esanda: *Euzko-Gogoa* bezalako aldizkari batentzat ez zen ez dirurik ez aski onarpenik euskaltzaleen munduan ere. *Euzko-Gogoa*, azken batean, Jokin Zaitegiren obra pertsonala zen eta izan zen, berak finantzatua, izpirituz eta sentimenduz jeltzalea, baina antolaketa eta kuadeaketaren aldetik erabat autonomoa. Horregatik, jeltzaleen erbesteko beste aldizkari politiko eta sindikalak ez ziren hil; *Euzko-Gogoa*, ordea, bai. Haiek erakundeak ziren; hau, euskarazkoa izateaz gain, autonomoa. Biziraupenerako zailtasun bikoiztua.

Bada beste arrazoi bat ere —hau ere, nire ustez, garrantzi handi-koa—, eta da Hego Euskal Herriko bizi-girotik aldendua geratu zela *Euzko-Gogoa*, moztuta bezala, eta, horregatik, ez zuela lortu belaunaldi berria bereganatzea. Bestalde, ez da ahaztu behar *Egan* aldizkariak idazle berriak bereganatzeko aukera askoz hobekak zeuzkala, batetik, finantz sostengu osoa zuelako Foru-Diputazioaren aldetik eta, bestetik, zuzendaritzak bedeinkazio politiko guztiak zituelako bere kudea-ketarako. Ez zeukan ez harpidedunen arazorik ez bestelakorik. Errazegi ahazten bada ere, erbesteko bizi-baldintzak eta barrukoak ez ziren berdinak, batetik bestera legalitatek klandestinitatera dagoen tartea aurkitzen baita. Ez da ahaztu behar *Euzko-Gogoa* aldizkariari frankismoak ate guztiak itxi zizkiola. Barne-erbestea gauza bat da, frankismoak modu berezi batez ezarri zuena euskal gizarteko maila guztietan eta, bereziki, kulturean, baina hortik egiazko erbestera jauzi kualitatiboa dago, testuinguru batean eta bestean gizarte-koordinadak erabat aldatzen baitira. Errazago da gastuak iturri publikotik ordaintzea norberak egindakotik jokatu beharra izatea baino.

Horixe da Jokin Zaitegiri *Euzko-Gogoa*-rekin gertatzen zaiona: azken batean, bakarrik geratu zela eta, pordiosero-moduan, berriro Amerikara emigratu behar izan zuela. *Euzko-Gogoa* aldizkariaren desagertzean, bada, zuzendariari maila pertsonalean legezkiokkeenak baino askoz harago, gure ustez garrantzizkoagoak diren beste faktore batzuk gurzutzen dira, batik bat, politikokulturalak eta ekonomikoak. Arazo bakarra ez zen izan frankismoak ezarritako zentsurarena. Nolabait laburtu beharrez, egiturazko arrazoi horretaz aparte, beste biok ere aipatuko nituzke: bat, erbesteko komunitate jeltzalean ez zuela aski onarpenik izan, ezta Iparraldeko euskaltzaleen artean ere, eta bi, Hego Euskal Herriko euskaltzaleek beste kultur proiektu alternatibo batzuk bideratuak zituztela —legalitatean eta diru-iturrietan babestuagoak zeudenak—, eta, ondorioz, barrutik, laguntza ez, baizik konpetentziaren eraso eta etorri zitzaiola. *Euzko-Gogoa* ez zen aurkitzen *Egan* edo *Jakin*-en lehiakide izateko egoeran. Hauxe da kultura erbesterratuaren patua: bakardadearena. Eta biziko bada, aldioro eta nonahi, kanpoko eta barruko indarren kontra borrokatu beharra. Jokin Zaitegiren erbesteko bizitzan zenbat eta barrurago sartu, gero eta barrurago sustraitzen zaizkigu horrelako sentipenak.

BIGARREN ZATIA

PEDAGOGIA SEKULARTUA:

ZABAL (1973-76)

BEDERATZIGARREN ATALA

ZABAL-EN TESTUINGURU HISTORIKOA

Zabal zergatik sortzen den esplikatzetik hasiko gara, harenean eragin zuzen-zuzena izan zuten arrazoien bila abiatuz. *Zabal* izan, bokazioz eta izatez, kultur aldizkari bat izan da. Baina ez zen hutsetik sortu, goizetik gauera norbaiti bat-bateko inspirazioak halaxe eman ziolako. Ez horrelakorik. Haren sorreran garai hartako Euskal Herria sakonetik inarosten zuten gizarte-faktore desberdinek —hertsiki kulturelek adina soziopolitikoek— eraginda sortu zen. Zeren 1970eko hamarkada aurretik eta ondoren krisian sartua zegoena ez baitzen Espainiako egitura politikoa bakarrik, frankismoa alegia, baita gizarte-bizitzan hain eragin erabakigarria izan zuen eliza bera ere. Euskal gizarte osoa zegoen geldiezineko eta norakorik gabeko metamorfosi dardarakor batean barneratua, egitasmo eraldatzaile baten ametsak akuilatuta. Gizarte-iraultzaren mistikak edota ezker izaerako korronte-paradigma berrien xarmak beren habia egina zeukaten belaunaldi gaztearen buru-bihotzetan eta koloreanitzetako ezker berri hori bere neurriko kultur plataformen eta erakunde soziopolitikoaren bila arranguratsu zebilen.

Kultur taldeak jada antolaturik zeuden aukera politikoen harira finkatuz etorri ziren emeki-emeki. Formulazioetan nahasketa izugarria agertzen bada ere, aldizkari edo argitaletxe baten atzean zuzendari-taldearen ikusmoldea aldeztu aurretik finkatua dago. Kontrol-zereginak bere esanahi hertsia zuen kultur plataforma berriak sortzeari edota

zaharrak berritzeari ekin zitzaion une hartan. Eta normalena zen halaxe izatea, zeren kulturgintzarenak, baldin hau gizarte-egituraren ikuspegitik begiratzen bada, soilki sorkuntza izpiritualari ez dagozkion beste esparru batzuk ere ukitzen baititu: ekonomiarenak, politikarenak, teknologiararenak, eta besteak. Esparru horiek, desberdinak eta, areago oraindik, beren artean autonomoak izanik ere, gizarte-praxian, ordea, elkarri loturik datozenak ditugu. Horrela gertatzen da politikaz jardutean kulturaz ere aritu beharra izatea, eta alderantziz.

Hegoaldean, batez ere, Burgosko epaiketa aurreko bi urteak (1968-69) biziki mugituak, nahasiak eta esanguratsuak izan ziren. Alde batetik, gazteri kezkatu eta politizatuena arreta handiz jaso zituen nazioarteko albiste handiak, hala nola: Parisko 1968ko Maiatza, sobietarren Txekoslovakiako inbasioa, Alemaniako Baadder talde armatuaren agerpena, Estatu Batuetan Luther Kingen hilketa, Medellinen ospatutako askapen-teologiari buruzko Batzarra, hauek denak, katean bezala, 1968an gertatuak. Bestetik, eliz mugimenduen, ikastolen, alfabetatze-kanpainen eta, bereziki, gizarte-eskolen babesean eta horien kariaz antolatutako ikastaro eta hitzaldietan, kolore desberdinetako autore aurrerazale anitz agertu ziren, hala nola: Garaudy, Althusser, Marx, Lenin, Freud, Morgan, Malinowski, Beauvoir, Teilhard de Chardin, Camus, Sartre, Simone Weil, Malraux, etab.¹ Zerrenda honetan Frantziako autore-izenak nagusitzen dira gehienbat; bestalde, pisurik gehien idazle marxistek badute ere, badira hor Espainiako nazionalkatolizismoak nekez irents zitzakeen Camus bezalako existentzialistak edo Teilhard eta Weil bezalako kristau aurrerakoiak. Autore horietako askoren izenak, agian, lehen aldiz entzungo zituzten hitzaldi haietara joan zirenek. Kanpoko korronte askatzaileak sar ez zitezten, frankismoak bere ate-sarrailak itxi-itxi eginda zeuzkan bere "Opus Dei"ko garai hartan, kolpetik pentsalari haien ikusmolde heterodoxo -laiko, ateo, ez-erlijioso- eta iraultzaileak gizarteratzen hasteak,

¹ Lopez Adan, E., "Rikardo Arregiren garaiko mugimendu politiko-sozialak", *Rikardo Arregi: gizona eta garaia*, op. cit., 240.

pentsa zitekeen bezala, lehen unean norakorik eza ekarri zuen, nahastea. Izan ere, autore horien diskurtsoak entzun eta gero, norberak bere sintesi koherentea egin eta berori izpiritu kritikoz asimilatu ahal izateko, noizbehinkako hitzaldi bat entzun edo artikulua bat irakurri baino zerbait gehiago egin behar zen. Harrobi horietan hartutako oinarrizko prestakuntza horrekin barneratzen ziren gazte militanteak ETaren inguruko mugimendu politikoan. Normala zen, bada, giro nahastu hartan, erakunde politikoen eraginez, taldeak korrante ideologikoen arabera antolatuta egotea. Talde antolatu horien ideologiak islatzen dira euskal kultura idatzian.

Atal honetan *Zabal* zergatik eta nola sortu zen galderari erantzun behar baitiogu, arrazoen bila orduko testuinguru soziopolitiko eta kulturalera joan beste biderik ez dugu. Hasteko, euskal kulturaren egoera deskribatuko dugu, produkzioa nondik eta nola bideratua zegoen azalduz eta, segidan, kultur plataforma horien koordinada soziopolitikoen nortze-seinaleak emango ditugu.

Euskarazko kultur plataformen egoera (1950-73)

Euskal kulturaren abiada biziki azkarra da 1960ko hamarkadatik aurrera eta, orokorrean esanda, anizkoitza bai bideratzen diren plataformen bai kultur lanean murgiltzen den jende-kopuruaren aldetik begiratuta. Mota askotako ekintzak daude bideratuak: Ikastolak, alfabetatze-jardunaldiak, aldizkari eta argitaletxe berriak, gau-eskolak, gizarte-eskolak, eliz mugimenduak, eta beste hainbeste ekintza. Militantismo-karga ikaragarria metatzen da euskal mundu horretan, oraindik ere behar bezala aztertzeke dagoena². Koloreanitzeko kultur

² Badirudi, zenbait testu irakurrita, gizarte-eskola horiek ETaren inguruko giroan funtzionatu izan zutela eta beroriek izan zirela ETako ekintzaileen harrobi nagusia edo, bederen, nagusienetakoa. Beharbada hobe litzateke piska bat erlatibizatzea hori guztia, hor ibilitako jendea uste baino heterogeneagoa baitzen. Bihoaz arrazoi-pare bat esanaren froga gisa: bat, eskola horietan hitzaldiak ematen ibili ziren

plataforma eta ekintza horien azterketa kritikoa egiten da, hain zuzen, *Zabal*-eko hainbat pasartetan. Xehetasunak hor emanda badatoz ere, aurrera dezagun kultur mugimendu honen bilakaeran, produkzio idatzari dagokionez, bi aro bereiz daitezkeela: 1960ko hamarkadan, batik bat, aldizkariak ugaritzen dira eta 1970ekoan, berriz, argitaletxeak. Aldizkariak eta liburuak dira, beraz, euskarako produkzio idatziaren iturri nagusiak eta horien egoera azaltzera mugatuko gara hemen, baina gainbegiratu ki, zeren lehendik ere aski xehetasunez landua baitugu gai hau bera beste lan batean³. Izpiritu kritikoa sortu ahal izateko, alabaina, interesatzen zaigu, sarrera gisa, euskal kulturaren orduko panorama orokorra eskaintzea.

Aldizkarien unea

Aldizkarien egoera zer-nolakoa zen begi-ukaldi batez ikusi ahal izateko, 15. taulan aurkezten dugu, zutabetan sailkatuta bakoitzaren izaeraren arabera, 1950-1973ko epealdian argitaratutako aldizkarien zerrenda. Guztiak ez badatoz ere, gehienak bederen hor egongo dira, ezagunak eta ez hain ezagunak.

Horietako batzuen bizitza aski laburra izan zen: *Gordailu*-k hiru urte iraun zuen, *Igela*-k bi, *Urrats* lehen alea bakarrik atera zen. Bestalde, *Egan*, *Igela* eta beste bakarren bat kenduta, beste guztiak klero erregular eta sekularren eskuetan zeudenak dira. Vatikanoko II. kontzilioaren ondotik mundu zabalean –eta, bereziki, Europa aurreratuan– orokortzen den sekulartze-prozesua bere erroak botatzen hasia bada ere euskal gizartean 1960ko hamarkadaren azken aldera, euskal kultur gintzaren gidaritzak, oro har, laiotzeke dirau oraindik. Argi-

batzuk –adibidez, Rikardo Arregi eta–, ez ziren ETA girokoak; bi, batere abertzaleak ez ziren beste gizarte-eskola batzuk ere baziren, adibidez USOrenak, berorien zuzendari Rikardo Alberdi apaiza zelarik. Bestalde, egia bada ere ETako militanteen harrobi izan zirela, beharbada Herri Gazteriarena harrobi hornituagoa zatekeen eta, zalantzarik gabe, azpiegituraren aldetik, askoz sendagoa.

³ “Euskararen adierazpen soziala gerraondoan (1936-1984)”, in J. Intxausti (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo*, II, Lan Kide Aurrezkia-EFA, 1985, 392-403.

talpenok, *Egan* eta *Igela* bezalako kasu bitxiren bat edo beste salbu, edukiz eta izpirituz klerikalismo-kutsua darienak dira eta aski da taulan begiratzea gehienak –eta, agian, entzutetsuenak–, erakunde klerikalen eskuetan daudela ikusteko nola Ipar hala Hego Euskal Herrian. Frantziskotarren jabetzako aldizkari-zerrenda nagusitzen da, bereak baitituzte *Jakin*, *Anaitasuna* eta *Goiz-Argi*. Garai honetako euskal aldizkarien egoera soziologikoa azaldu beste asmorik ez dugu hemen. Halakoxea zen, izan, belaunaldi berria non eskolatua zen kontuan izanda, ziur aski bestelakoa ezin izan zitekeelako.

15. taula: Frankismo-garaiko euskal aldizkarien kronologia
Euskal Herrian (1950-1973)

<i>Aldizkari-motak</i>	<i>Aldizkariak</i>
Kultur aldizkariak	<i>Euzko-Gogoa, Jakin, Komentualak</i> ⁴
Literatur aldizkariak	<i>Egan, Olerti, Igela</i>
Pedagogi aldizkariak	<i>Gordailu, Urrats 0, Ikastola</i>
Erlijio-aldizkariak	<i>Othoizlari, Karmel, Jaunaren deia, Gazte</i> ⁵
Haur-aldizkariak	<i>Pan-Pin, Kilikili</i>
Berriemaileak	<i>Herria, Zeruko Argia, Anaitasuna, Goiz-Argi, Agur, Principe de Viana</i>

⁴ Hemen erlijioso-ikasleek argitaratutako aldizkari hauek sartzen dira: frantziskotarren *Gure izarra* (1950-74), pasiotarren *Laiaketan* (1959-69), sakramentinoen *Arnas* (1959-67), laterandarren *Erein* (1960-66), karmeliten *Gogoz* (1965-68). Aldizkari hauen berri zehatza “Eliz ikastetxeetako aldizkariak” lanean (*Jakin 25 urte euskal kulturari*, 21-extra, 1981, 49-71) ematen dugu.

⁵ Bi *Gazte* argitaratu ziren: bata Iparraldean 1947-63ko epealdian, eta bestea Hegoaldean 1960-73koan.

Kultur aldizkarien sailean, hutsunea ezin nabariagoa da. *Euzko-Gogoa*, erbesteko euskal intelligentsiaren ahots bakarra, jadanik aspalditxo hila da. Barruan, gehienbat literaturari emana dagoen *Egan*-ek lehengo bizitasuna eta ospea galduxeak ditu, 1966-68ko epealdian urteko zenbaki bat baizik ez baitu argitaratzen. Komentu-aldizkariak –*Gure izarra* salbu–, 1969an desagertzen dira, ez lege-hertsapenez, halaberharrez baizik, 1968-69ko ikasturtean, erlijioso-ikasle gehienak, beren ordena eta kongregazioetako ikastetxe nagusiak utzi eta, Deustuko Unibertsitatera bilduko direnean. Harrez gero abiatzen den barreiatzeak, kasurik gehienetan, atzerriko edo barruko unibertsitateetan izango du jarraipena.

Zalantzarik gabe, 1960ko hamarkadan *Jakin* izango da pentsamendu-aldizkaririk dinamikoenetako bat, berak bereganatzen baititu komentu-aldizkarietan diharduten idazle gehientsuenen lankidetzeta eta baita belaunaldi berriko beste laiko batzuen ere, harik eta administrazioak 1969ko abuztuaren 29an debekatuko duen arte⁶. Hamarkada honetan bertan, 1967an jasaten duen krisiaren ondotik, erredakzio-kontseiluan Karlos Santamaria eta Rikardo Arregi bezalako figura ilustratuak sartuz⁷, zuzendaritzak ahalegin handiak egingo ditu aldizkaria txerto laiko izerdi-berritzen. Baina oraindik 1964-69ko epealdian *Jakin*-en lankideen % 56ak jatorri klerikalekoa izanez segitzen du. Debekatua izan ondoko epealdian (1969-75) bakarrik laikotuko da % 69ko portzentajearekin, baina orduan –1969an ireki eta 1977an ixten

⁶ Bigarren aldiz, administrazio estatalak debekatu egiten du aldizkaria 1969ko abuztuaren 29an (ibid., 273). Idaz-kontseilua desegiten da, eta *Jakin*, berriro ere, fraideen eskuetan geratzen da. Aldizkaria desagertu eta gero, zuzendaritzak liburugintzari ekiten dio.

⁷ *Jakin* aldizkaria krisi sakon batek bortizki astintzen du 1967an. Erasoa bi aldetatik dator. Batetik, euskal gizartean gertatuz datozen aldaketak direla eta, gatazka politikoa areagotu egiten da kalean. Langile-gatazkak gogortu eta ugalduz datoz, nazionalismoaren familian nazionalismo historikoa eta iraultzailea ez dira konpontzen, ETArekin barruan lehen zatiketa ematen da eta “Felipe” deituak erakundetik ohildu egiten dituzte. Elizaren baitan, orobat, jokabide kontraesankorrek ematen dira. Honela, komentua eta seminario gehienak husten hasten direnean, kurioski joera pietista indartzen da Arantzazuko ikasle frantziskotarren artean. Koiuntura

den epealdian zehar, alegia-, aldizkaria ez den beste zerbaitek funtzionatuko du. *Jakin*-ek, batetik, saio-liburuaren argitalpen-politika hasten du eta, bestetik, aldizkari-liburuena, *Jakin sorta* bilduman, zeina, lehen-goaren jarraipen gisa, funtsean aldizkari bat baitzen itxuraz eta egituraz, talde-lanean egina. Bi sail bereizi, beraz. Lantzen dituen gaiak, hiruok izango dira: kultur eta ideologi kritika, Euskal Herria eta euskara, eta erlijioa. Gaien trataeran erlijiozko eta ideologiazko kritizismoa eta aurrerakoitasuna zaintzen ahaleginduko da. Nolanahi ere, frankismo-ko azken epealdi honetan, *Jakin*, izan, argialetxe bat gehiago da euskal kulturaren baranoan.

Larria da, beraz, dagoen hutsunea kultur aldizkarien sailean. Esateko, ez dago ia ezer. Hau da azpimarratu nahi dugun datua.

Aldizkari berriemaile nagusiak, bestalde, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* dira Hegoaldean eta *Herria* Iparraldean. Hauek ere, gehiagorik ezean, beren egitekoa duintasunez betetzen dute, baina bakoitzak aski agerian darama bere marka ideologikoa. Donostiakoak kristau-demokrasiari atxikia segituko du, berdin Baionakoak; Bilbokoak, 1970eko hamarkada-hasierako zuzendaritza gorriaren garaian, zalantza edozein albiste edo gertaera politiko aski izango du burgeskeriaren aitzakiaz euskal nazionalismoa bere orokortasunean kritikatzeko. *Zeruko Argia*-ko "Astez aste" eta "Zenbat gara" izeneko zutabeak, berdin *Anaitasuna*-ko "Euskaldungoa" eta "Gure munduko albisteak" deituak, zekarten aire zirikatzailearengatik agian, jendeak morboz irakurriko ditu horko pasarteak. Garai bateko "Gazte naiz" saileko artikulu ausartak bezala. Zenbaiti, agian, horko gehiena zirto-saio burutsua irudituko zaio, beste batzuek, aldiz, luma-berokeria iritziko diote, baina, hori bai, garesti saldua. Patentea zen halakoxea: kasu batean laikotasunarena eta bestean internazionalismoarena.

Ordurako euskal gizarte teokratikoaren gainbehera hasia baitzegoen, horregatik atera zuten aldizkari horietako zutabetxoetan harro-

honetan, alde guztietatik gauditua sentitzen denean sortzen da *Jakin*-en laikotzeko burutazioa. Karlos Santamariak salbatu omen zuen aldizkaria "Felipeen" eskuetan erortzetik (Azurmendi, Joxe, "Joan Mari Torrealdai: 25 urte *Jakin*-en zuzendari", *Jakin*, 102, 1997, 67).

tutako olatu-etzabaidek horrelako aparra. Desakralizazioaren ofizioan gazte laikoei tokatu zitzairen ausartenak izatea, orokorrean bederen, nahiz eta belaunaldi berriko batzuk beren mezu ideologikoa moderotu eta sekularitzen saiatuko diren.

Amorrazioaren kontzeptua erabili zen orduko joera kontrajarriek sortutako ideologi egoera nahasia deskribatzeko orduan. Aldizkari berriemaile hauek gertatu ziren, sarrienik, kritika-gune nagusienak kulturaren zein politikaren alorrean. Denetatik irakur zitezkeen: artikulua probokatzailerak –honelakoak ez gutxi–, Arestik hasi eta Haranburuk segitutako bidetik; salakuntza pertsonalaren ospina zeramatenak ere bai, adibidez, aldizkaritik aldizkarira Amatiñok eta Zelaietak izan zituzten mokoka haiek, arestian aipatuak. Tarteka-marteka euskal ezkerren desbideratzeak –”izkierdismo” famatuaren okerrak– zuzentzera zetozen zutabe erudituak irakurtzeko parada ere izaten genuen, horietako gehienak atzerriko lankideek idatziak ohi zirenak.

Dena zegoen, bada, auzitan: euskara, erlijioa, pedagogia, politika, kultura. Esaten zenez, dena zen ideologi kontua. Zientifikoa ez zen zerbait, alegia; zerbait konbentzionala. Serioak beren diskurtsoetan zientzia teknologikoen neutraltasunaz eta objektibotasunaz zihardutenak ziren. Haiek, bai, sakonak genituen, jakintsuak. Orain Hezkuntzaren Soziologian, sail hau ezagutzen baitugu ondoen, horko paradigmatan –izan dadila kritizistan, neomarxistan edo bestelakoan–, ia inork ez du aipatzen zientziaren esparru neutro eta objektibo hori badenik ere. Gaur kultur erreproduktzioaz eta produktzioaz ari dira, eta gara. Kultur emaitza bera bezainbat –edo, agian, gehiago–, haren prozesua interesatzen da eta sorketa zientifikoa, prozesu gisa hartuta, badirudi ez dela neutroa, egileek interes kontrajarriek zeharkatutako testuinguru eta esparru jakin batean burutua den zerbait baizik. Gaur politikan sakratutzat jotzen den “demokrazia” hitza bera, beste askoren artean pentsamendu-korronte bat gehiago dela esaten da⁸. Ideologia hutsa.

⁸ Autore batzuek (García Cotarelo, R./Paniagua, J.L.: *Introducción a la ciencia política*, 1995, 632-460, 632-460), adibidez, ideologia politiko garaikideen artean, hamabiko

Polemika, berez, interesgarria zen, aberatsa. Giroa zegoen gaizto-tua eta honek, arazo delikatuak ukitu eta arrazoitzeko orduan, zaildu egiten zuen hoztasunez eta jendetasunez jokatzeari. Blokismoak galara-zi egiten zuen elkarri entzutea. Baliteke bere zipritzinak alde guztietara barreiatu zituen ekaitzaldi ideologiko hartan batzuk besteak baino kaltetuagoak gertatu izatea. Eusebio Osaren izena ez ote da berresku-ratu beharko litzatekeen horietako bat izango?

Argitaletxeen ugaritzea

Argitaletxeena heldutasun-maila garaiagoa eskatzen zuen kultur proiektu bati zegokion erronka bat zen. Gutxienezko azpiegitura fisi-koa ez ezik, giza kapitala ere eskatzen zuen. Urrats hau kazetaritzan urte batzuk egin eta gero eman zen, 1970eko hamarkadaren inguru-marian. Belokeko *Ezkila* (1950), *Kuliska Sorta* (1952) eta *Auspoa* (1961) kenduta, gainerako beste guztiak orduan bideratu ziren. Berorien ezaugarri nagusienak 16. taulan ikus daitezke.

16. taula: euskal argitaletxeak (1950-1973)

<i>Izenak</i>	<i>Noiz</i>	<i>Non</i>	<i>Izaera</i>	<i>Kudeatzaileak</i>
<i>Ezkila</i>	1950	Beloken	Erljioa	Aita Iratzeder
<i>Kuliska Sorta</i>	1952	Zarautzen	Literatura	Untzurruntzaga
<i>Auspoa</i>	1961	Donostian	Herri-literatura	Aita Zavala
<i>Gordailu</i>	1968	Donostian	Testu-liburuak	J. F. Setien
<i>Lur</i>	1969	Donostian	Literatura	Aresti, Saizarbitoria, Arregi, Sarasola, Kintana, etab.

zerrenda hau eskaintzen dute: liberalismoa, demokrazia, anarkismoa, kontserbadurismoa, hasierako komunismoa eta sozialismo utopikoa, anarkosindikalismoa, sozialismoa, komunismoa, kristau-demokrazia, populismoa, faxismoa eta izkierdismoa.

<i>Izenak</i>	<i>Noiz</i>	<i>Non</i>	<i>Izaera</i>	<i>Kudeatzaileak</i>
<i>Irakur Sail</i>	1969	Donostian	Saiakera	I. Beobide
<i>Etor</i>	1970	Donostian	Saiakerak	E. Aierbe
<i>Euskal Elkargoa</i>	1971	Donibane Lohitzunen	Saiakerak	Txillardegi
<i>Jakin</i>	1971	Arantzazun	Saiakerak	Intxausti, Agirrebaltzategi
<i>Iker</i>	1972	Bilbon	Testu- liburuak	J. Zuloaga, X. Mendiguren, J. R. Etxeberria
<i>Elkar</i>	1972	Baionan	Literatura Diskak	Manex Pagola
<i>Gero</i>	1973	Donostian	Saiakerak	J. Lizundia

Argitaletxeen gorakada hau justu Rikardo Arregi hil eta *Jakin* aldizkaria debekatu eta gero ematen da. Une honetan kulturgintzak giro arras politizatua bizi du. Talde politiko bakoitzak bere plataformak sortzera jotzen du edota, jadanik, daudenetan beren eragina izaten ahaleginduko dira. Polarizazioak gertatuko dira argitaletxeen artean, *Lur* eta *Irakur Sail*-en artean bezala, arrazoi ideologikoengatik, edota zatiketak, familia politiko berekoen arteko *Etor* eta *Gero*-ren kasuan bezala, euskara-ereduari buruzko borrokarengatik; jatorri anitzeko polarizazioak, orobat, euskal kanta berrian, Gipuzkoako *Ez Dok Amairu* eta Bizkaiko *Herrikoi* taldeen artean⁹, beste horrenbeste Arratiako *Oihartzunak* eta Bilboko *Oskorri* taldeen artean. Euskal kulturgintzako iritzi publikoak talde horietako bakoitzaren atzean sigla jakinak begiztatzen zituen. Ez baziren garbiki ETarenak, ELarenak,

⁹ Bitor Egurrola, Maite Idirin, *Beti Alai*, *Zintzoak* eta beste batzuk zeuden hor azken talde horretan. Zapalkuntzak ezinduko du horren jarraipena. Zenbait taldekide kartzelaratuak eta erbesteratuak izan baitziren, kantaldi batzuk eman eta nahikoa laster, desegin zen.

PCErenak, horien ingurukoenak behar zuten izan. Etiketak jartzen ere, aitor dezagun ozenki, artista hutsak ginen.

Kulturgintzan ziharduen barruko gazte-sektore batek –frankismoaren zapalkuntzak ukitu ez zuenak, hain zuzen–, profesionalismoa inauguratu nahiko du, ordura arteko boluntarismoa eta kaotismoa gaindituz. *Lur* argitaletxearen sorrerakoan, adibidez, amateurismoarekin behingoz bukatzeko izpiritu hori presente egon zen¹⁰, xedetzat hartuz dibulgazio-liburuak argitaratzea eta, bidenabar, alfabetatze-lana testu egokiz hornitzea. Horiekin batera, taldearen beste bi ardatz nagusiak, euskara batuaren aldeko aukera eta laikotasunaren aldarrikapena izan ziren. Proiektu honetan buru-belarri murgilduta agertuko dira Rikardo Arregi, Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Arantxa Urretabizkaia, Endrike Villar, etab. Baina sorrerako talde hau ere, zuzeneko protagonistek argitu beharko dituzten arrazoi oraingoz ezezagunengatik¹¹, sakabanatu egingo da gerora.

Beraz, Hegoaldean profesionaltasunaren joera hori nagusitzen da kulturako beste sailetan bezala kantuan ere. Ezaguna da, zentzu honetan, *Ez Dok Amairu* taldekoen adibidea. Liburugintzari ekiten diotenek ere asmo bera dute.

Kultur plataforma hauek gauzatzeko une honetan, testuinguru politikoak berak behartuta, euskal kulturgintza normaltzeko prozesu horretatik kanpora geratzen den sektorea, maila handi batean bederen, ezker abertzalearena da. Honek ez dauka ez non eta ez nola eraiki bere

¹⁰ Hor esaten da nola 1968-69 urte horietan elkartzen ziren Donostian, *Jakin*-en inguruan, Karlos Santamaria, Rikardo Arregi eta Joan Mari Torrealdei, eta hauekin batera, askotan, baita Ibon Sarasola, Andoni Iturria eta beste batzuk ere. Solas haietan sortu omen zen kulturgintzaren “planifikazioa” egitea, amateurismoa utzi eta profesionalismoa bultzatuz: “Han piztu eta eztabaidatu da, gero beste forma batzuetan errealtate bihurtuko den hainbat asmo: *Lur* argitaletxeak gauzatzeko duen dibulgazio testuen ideia...” (Azurmendi, J., *Jakin*, 102, op. cit., 88).

¹¹ Pedro Alberdiren *Satorrak baino lurperago* liburua (Alberdania, 2000), historian baino gehiago nobelan oinarrituagoa dagoena, kultur egitateak esplikatzen ez dituen anekdota-sorta bat da, zeinetan kulturaren eta politikaren mailak inolako loturarik gabe elkartzen baitira.

neurriko kultur bideak: hots, aldizkariak eta argitaletxeak. Euskal ezker abertzaleak ez du lekurik. Ez al zituzten, bada, alderdi eta mugimendu politikoek beren organoak? Bazituzten, bai, 150etik gora, izan ere, baina gaindiezinezko beren mugekin: bat, gehienak elebidunak zirela % 54ko portzentajearekin, % 40 inguru erdarazkoak –funtsean, gaztelaniaz idatzitakoak–; eta bi, guztiek atzerrian edo klandestinitatean ikusten zutela argia. Erbesteko aldizkari-sail honetan sartzekoak dira, besteak beste, hauek: Eusko-Jaurlaritzaren *Euzko-Deya* eta PNVren *Alderdi* eta *Euzkadi*, ELAren *Lan Deya*, Buenos Airesko ANVren *Eusko Lurral/Tierra Vasca* (1956-75), Caracasko Jagi-Jagi-koen *Irrintzi* (1958) eta *Eman* (1967); Belgikan ETAkoak izandakoen *Branka* (1965) eta *Gatazka* (1971) –azken hau gaztelaniaz–, Parisen *Saioak* (1970), Iparraldean *Enbata* (1960), ETAren *Zutik* (1960). Eta beste hainbat eta hainbat, beste saio batean azalduko ditugunak¹². Euskaraz iraupen laburreko lau hauek bakarrik argitaratu ziren: *Argia* (1946-48) Caracas-en, *Ekin* (1950) eta *Euzkadi Azkatuta* (1956-57) Mexikon, eta *Euzko-Gogoa* (1950-59) Guatemalan.

Kultur mugimendu politizatu honetan kontraesan nabariak baldin badaude ere –kultur taldetxoen kaperak, alegia–, esan beharrean gaude, desberdintasun horien gainetik, maila orokorragoan, elementu-pare bat bederen badutela batera. Eta da, lehenik, kultura idatzia, aldizkarietakoa zein liburuetakoa, gehienbat Hegoaldean gauzatzen dela, oso gutxi Iparraldean, bereziki hemengo gazteen artean, eta, bigarrenik, euskarazko kultur produkzio hori, funtsean, legalitate frankistaren esparrura murriztua dagoela. Beraz, 1969-75eko epealdi honetan, gerraosteko egoera errepikatzen da maila batean: hots, belau-naldi berriko sektore bat, aski zabala, erbesteraturik aurkitzen dela eta, atzerriko unibertsitateen inguruan, lagunarteko kultur taldeak eratzen direla: Parisen bezala Belgikan, Suitzan eta Alemanian. Kultura erbestetu honek ez du bere organo propiorik. Eta hauxe izango da, hain zuzen, *Zabal*-en sorreran kausitzen den arrazoirik nagusienetakoa bat.

¹² Erbesteko aldizkari hauen berri zehatza beste argitalpen monografiko batean eman-go dugu.

Kultur plataforma baten beharra ezker abertzalean

Arestian esan bezala, ETaren inguruan sortutako ezker abertzalearen kulturgingtzak ez du ez non eta ez nola bideratu bere pentsamendua. Klandestinitateak zailtasun handi eta mota askotakoak ezarzen dizkio bere plataformak bideratu ahal izateko asmoari. Badaude, bai, goian aipatutako aldizkariak eta argialetxeak, baina ez du horietan ordezkatua ikusten bere burua. Ezker abertzaleak bere pentsamendu autonomoa, bere-berea, sortzeko plataforma egokiak behar ditu. Eta horiek falta dira. Garbi esanda: zeudenek ez zuten balio edo, nahiago bada, ez ziren aski.

Kontrako arrazoi modura, orduan ere beste hau esaten zen: zegoen produktiorako, zeuden argialetxeak eta aldizkariak aski zirela, alegia. Hau bezain egia zen, ordea, bazirela, ezein argialetxetan sarbiderik ez zutelako, itzalean zeuden liburuak. Horregatik, zeudenak beren lekuan zeuden eta beren eginkizuna betetzen zuten, beren bezeriari erantzuten zioten, baina haietan –berriro diogu–, ezker abertzaleak ez zuen bere ahotsa entzuten. Eta orduko protagonista haiek, mende-laurdena pasa eta gero ere, lehengo berean egonez segitzen dute. Izatez ez dira aldatu. Plataformak dira izenez aldatu diren bakarrak. Xakeko piezek, funtsean, bere hartan diraute. Gainera, norberaren hautu politikoari dagokionez, egun inork ez dauka ezer ezkutatzekorik. Gaurkoa ordukoa baino joko askoz garbiagoa da, gardenagoa esan nahi dugu.

Baina goazen aurrera. Zeuden kultur plataforma horiek zergatik ez zuten balio eta berriren bat sortu ahal izateko nolako zailtasunak zeuden arrazoitzen ahaleginduko gara jarraian.

Arazorik larriena, pellokeria badirudi ere, kultur plataforma egoki baten beharra justifikatzea zen. Zentzu honetan, lehen zailtasuna jadanik martxan dauden legezko plataformetan beren lekutxo hartuta zeukaten ezkerreko euskaltzaleengandik –jatorriz eta pentsamoldez hurbilekoenak zaizkigunengandik, hain zuzen–, zetorrena izango da, hauek esaten baitziguten, inon eta ezertan zikindu nahi ez izatearen ondorioz, jokabide honek, azkenean, isolamendura eramango gintuela eta aukera horretatik on baino kalte gehiago etorriko zitzaigula. Justuen linboan bizi omen ginen eta ez omen genuen barkaziorik merezi.

Bekatu larria zen gurea. Bagenituen eskuartearen Parisko lehen egonaldian (1969-72) euskal kulturaz, irakaskuntzaz eta nazio-arazoaz egindako apunte gisako lan batzuk, baina ez zitzaigun Hegoaldeko kultur plataformetan argitaratzeko burutaziorik sortu, eta horietan ez argitaratzearen arrazoietako bat –nagusiena–, zera zen: zeudenak, argitalexteak bezala aldizkariak, ez zirela ezker abertzaleari zegozkionak. Hau zen oinarrizko arrazoa. Gerora begira, guk orduan uste genuenez, artean tradizio intelektualik ez zeukan ezker abertzaleak hasi beharra zeukan bere kabuz pentsatzen, areago oraindik, Europako ezkerak –orokorrean marxismoak– bizkar ematen zionean hainbat puntutan ezker abertzaleari, zehazki, nazio-arazoaren gainean. Puntu hau Parisko puntako pentsalari akademikoekin zuzenean kontrastatzeko modua izan genuen, haiekin eztabaidan sortu eta mamitua baita *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian* saioa¹³.

Nazio-arazoari buruzkoa oso zegoen kili-kolo euskal politikaren esparru teoriko zein praktikoan. Euskal Herrian, ezker estatalen bertsioak oro estrategiaz espainolak eta frantsesak ziren, Lenin estrategari ikasiak, eta taktikaz soilik genituen autodeterminazioaren aldekoak. Hau batetik, eta bestetik, euskal nazionalismo historikoaren kultur ideologia geneukan aurrean, zeina, nazionalismoari zegokionez, autonomismoaren geltokian stop eginda baitzegoen eta, pentsamoldeari zegokionez, berriz, kristau-demokrazian sartua. Horregatik, ezker abertzaleari erantzuteko beste kultur proiektu berri baten beharra ikusten genuen eta asmo honen atzetik genbiltzan.

¹³ Parisko VIII. Unibertsitatean (Vincennes-en) Nicos Poulantzas eta Michael Lowy irakasleek ikastaro ezin trinkoagoa eman zuten marxismoaz eta nazio-arazoaz 1971-72ko ikasturtean. Azken autore honek berak, G. Hauptekin batera, *Les marxistes et la question nationale* liburua argitaratu zuen Maspero argitalextean, 1974an. Lehen atala da G. Hauptena, izenburuan “Les marxistes face à la question nationale: l’histoire du problème” (9-61) daramana. Marxismo klasikoak nazio-arazoaz zeukan ikuspegiari buruz, jakina, ikertzaileen artean ere ez baitzen ematen erabateko adostasuna, liburu horri egiten zaion sarreran irakurtzen da aipatutako bi autore horiek ez dituztela berdin interpretatzen autore klasikoek lanak: “Le lecteur sera certainement frappé par centaines de divergences d’appréciation entre l’étude de Georges Haupt et celle de Michael Lowy. C’est que les auteurs du présent volume

Bigarren oztopoa, ETAREN egiturazko antolaketan bertan zetzan. V. Biltzarreko bigarren ekinaldian (1967ko martxoan) argitaratutako Agirian datorren bezala¹⁴, lau fronte edo adarretan zatitua zegoen haren egitura. Langile-frontea, Militarra, Politikoa eta Kulturala ziren haren hezurdura osatzen zutenak. Nola Burgosko epaiketaz geroztik –harez geroztik, batik bat, eta ez gutxi likidazionista espainolisten jorkabideak behartuta–, Fronte Militarra nagusitzen den ETAREN zuzendaritzan, erakundea bere krisi sakonetik salbatu zuen militargintza tinko huraxe bera bilakatuko da oztoporik handienetako bat kultur-gintza autonomo baten garapen egokia bidera dadin. Jadanik ETAREN inguru bereko ezkerreko euskaltzaleen artean aski onartua zen kultur esparruak autonomia osoa behar zuela. Baina jokabide oztopatzaile hau, derragun bidenabar, ETA zuzendaritzako sektore batek bakarrik protagonizatzen zuen. Honek osoki bere esaneko nahiko ditu, erakundekoak izan gabe, beraren inguruan eraikiak edo eraikitzeakoak diren plataformak oro. Ikuspuntu hori onartu ala ez, hortxe zetzan, eta datza, oraindik ere behar bezalako erantzunik eman ez zaion arazo sakon baten katramila.

n'ont pas cherché à éluder les problèmes posés par l'étude de la pensée marxiste sur la question nationale" (ibid., 8). Pierre Vilar-ek berak, urte-pare batez edo, "Classe et nation" gaiaz eman zituen bere ikastaroak École Pratique des Hautes Études-en. Autore marxista klasikoen inguruko eztabaida hurbiletik segitzeko aukera bederen izan genuen. Noizbehinka zuzendariak gonbidatu ospetsuak ere ekartzen zituen gai monografiko horren inguruan eztabaidatu eta sakontzera, horien artean behin batez Nicos Poulantzas bera. Benetan biziak, su egiteko modukoak, izaten ziren han sortzen ziren eztabaidak. Guztira hogeik ikaskide inguru elkartzen ginen han, dezente Hego Amerikakoak, banaka batzuk arabiarrek. Euskal Herritik zenbat? Bosten aurpegiak bederen badauzkat gogoan: elkarrekin ibiltzen ginen Martin Etxeberria eta Jose Mari Larramendi euskaltzaleenak eta beka-laguntzarekin doktore-tesia egiten ari ziren Emilio Fernández Piñedo eta Luis Maria Bilbo historilarienak. Hauek, beren ikerketak euskal gaiez egiten ari baziren ere, izpirituz euskal mundu nazionalistatik oso urrun zeuden. Gure mundutik bederen, bai. Lehenengoak, batez ere, sarritan ekiten zion euskal nazionalismoari handik eta hemendik erasoka. Jakina, oso intelektualki.

¹⁴ *Euskadi Eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad*, II, Txalaparta, Tafalla, 1993, 261-262.

Esandako arrazoiengatik, 1970eko hamarkada-hasieran, ezker abertzalean ETA erakundekoa ez zen baina haren esparru sinbolikoan mugitzen zen idazle-sektore aski zabala aurkitzen zen galduta bezala, lekurik gabe, identifikazio-arazo larriekin. Erakunde armatuari buruz jardutean, beti bereizi izan dira ETA erakundea, hemen zentzu herztian ulertuta, haren militantziara mugatzen dena, eta ETA gizarte-fenomenoa, non honek aldarrikatutako xedeekin identifikatu izan den ezkerreko sektore askoz zabalago eta pluralagoa sartzen baita. Berrikitan idatzi izan da, arras alegera, noski, eta argitalpen akademiko batean¹⁵, gainera-, ETAREN aktibismoak bazuela frankismo-garaian euskal gizartearen isileko onarpena, honekin aditzera emanez totalitarismo-garai hartan estatu-bortxaren aurrean ETARENA justifikaturik zegoela, baina ez frankismoaz geroztiko erregimen demokratikoan.

Frankismo-garaiko totalitarismoa eta oraingo erregimen demokratikoa kontrajarriz egiten den ETARI buruzko irakurketa honi oinarri historikoa falta zaio, ez baita egia ETA orduan orain baino askoz onartuagoa zenik ez euskal nazionalismo historikoen familia politikoan –nahiz hauetako batzuegan babesak aurkitu–, ez “nazionalismorik gabeko” joera liberaleko ezker laizista eta euskaltzalean, ez eliz erakundeetan –hauetan herri-mailako sektore-gutxiengo batean izan ezik–, ezago oraindik, jakina, ezker estatalean. Bazuen, bai, nolabaiteko itzala herri soilaren mailan, baina garbiki esateko, ETAREN inguruko nazionalismo iraultzaileak, zeuzkan konnotazio ideologikoarengatik eta zeraman borroka-metodoarengatik, nonahitik kondena-kritika zorrotzak jasotzen zituen. Hainbat peneuvista eta eladioren aldetik jasotako erasoen lekuko izanak gara. Euskaltzale “ez-abertzaleek” haizu zuten euskal nazionalismoa salatzeke, baina ez zitzairen gustatzen berekin zeramatzen nazionalismo espainolaren mozorroa beste inork ken ziezaien. *Arragoa*-koentzat abertzale guztiak, zaharrak zein berriak, burges txikiak ziren. Euskal kulturaren horizontean zehar internazionalismo arras gorri eta arras liberaleko haizeak gogor astintzen zuen garai heroiko haietan, norbaiti edo tal-

¹⁵ Pérez-Agote, A.: *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*, CIS/Siglo XXI, 1987, 1-80.

deren bati “españolismoaren” salakuntza egitea –honek frankismoari zerion kirats atzerakoi eta zapaltzailea iradokitzen zuen heinean–, egin zitekeen irainik mingarriena zen¹⁶. Ispilu politikoan islatzen ziren ondoenik kultur mailako polarizazioak oro, jadanik aipatuak.

Esanez gatozenarekin adierazi nahi dugun ideia, hauxe da: bat, gaur bezala, orduan ere bazela ETA erakundearen inguruan mugitzen zen kultur mugimendu zabala, bere homogeneotasunaren barruan aniztasun aski zabala zuena, halere; bi, bazirela beren buruak ETA gizarte-fenomenoaren barruti politiko eta ideologikotik at kokatzen zituzten euskaltzale abertzaleak ere, horietako batzuk noizbait erakundekoak izandakoak –gero aldenduak–, eta beste batzuk inoiz izan ez zirenak; hiru, ETAREN inguruko euskaltzale abertzaleen artean, ez bakarrik klandestinitateak zekartzan oztopo objektiboengatik, baita antolaketa mailako jokabide jakinengatik ere –eta, agian, azken hauen-gatik–, ez zela gauzatu ahal izan kultur plataforma koordinaturik.

Beraz, ETA inguruko ezker abertzale horrek ez du bere kultur adierazpide landurako tresna egokirik. *Euzko-Gogoia* eta *Jakin*, kultur aldizkari gisa, desagertuak ziren. *Egan*-ek berriz, pentsamendua ez, literatura lantzen du gehienbat. Baina hori baino garrantzitsuagoa, beste hau da: horietako inork ez zeukala zerikusirik ez ETAREN sorre-arekin, gutxiago haren ideologiarekin.

Bestalde, berriro Hegoaldeko aldizkari berriemailetara etorritz, esan behar da hauek garai hartako hainbat arazo biziren balkoi gertatzen direla herriko plazan, lehen esan bezala, eztabaidarik bizienak aldizkari horietan pizten baitira. Hori hala da. Baina aldizkari horiek, legalitateak ezarritako gogoeta-mugen barruan ibili beharraz gain, ez dira ezker abertzale iraultzailearen uhinekoak, ez dira berorietan isla-

¹⁶ Oroitzen naiz nola, Gabriel Arestik Bilboko Santiago ikastetxeko antzerki-aretoan eman zuen hitzaldi batean –ez dut gogoan noiz, baina 1968an izan behar zuen–, entzuleen eserlekuetatik “Eladioen” taldeko batzuek “español-español”ka erasotu zioten. Garai haiek gogoratuz, *Lur*-en idazten zuen batek kontatua da honako hau: “En el 69 empecé a colaborar en *Lur*, la única editorial que se dedicaba a promover una literatura moderna en euskera. Pues bien, esta decisión me costó dos despidos de dos ikastolas. Para los que me echaron, los que publicábamos en *Lur* éramos unos rojos y unos españoles” (Alberdi: *Satorra baino lurperago*, 218).

tzen –agian salbuespen batzuk aparte–, zehazki ETA mugimenduaren inguruko ezker abertzalearen aburuak. Uste zuzenean egon ala ez, aitortu beharrean gaude sentimendu hori oso barneraturik generamala Burgosko epaiketa famatuaren ondoko urte haietan. Noski, euskal kultura zegoen egoeran egonda, zegoentxo hura biziki estimatzekoa zen, artoski zaintzekoa. Honek ez zuen esanahi, ordea, etorkizunari begira bide berriak ireki behar ez zirenik. Eta gure hautua hortik joan zen.

Krisi ideologikoaren astindua ETA erakundean

Baina une hartan ETAREN krisia gehien eragiten zuena ez zen, inolaz ere, antolaketa-mailakoa, ideologi mailan zegoen nahasketa izugarriak zekarrena baizik. Izugarria zen ETAK jasaten zuen krisi ideologikoa, inoizko larriena. Ezker abertzaleak V. Biltzarrekoan marxismoa eta abertzaletasuna ezkondu zituenez geroztik, disidentzi taldeak hantzen, nonahi, sortu eta antolatu ziren, jadanik Burgosko epaiketaraian, areago oraindik ondoren. Eta elementu hau aipatu gabe ere ez dugu asko argituko garai hartako kultur testuingurua. Aspaldiko kontuekin ari garenez, bakoitzak atxiki biezaio pizturik bere kandelari. Eta guk geureari. Guztientzat argia egingo dugunaren batere esperantzarik gabe, ordea. Esana baitago, biribil esana ere, bakoitzak nahi duena bakarrik ulertzen duela. Oroimenean harrian baino zizelatuago geratu zitzaigun esaldi hura, jatorriz eskolastikoa izan arren, egun ere baliozkotzat daukagu: “Quidquid recipitur ad modum recipientis recipitur”.

Euskal nazionalismoaren barruan, historikoan bezala berrian, barne-zatiketen prozesua indartu zen 1970eko hamarkada-hasieratik aurrera. Espainiako errepublikarren familian goxo eserita Franco noiz hilko zain zegoen PNVren baitan ere –EGIRENEAN zehazki–, emango da etena, Iñaki Ezkerrak gidatzen zuen taldea ETA erakundean sartuko denean. Era berean, ETA jatorriko ezkerrekoen artean, bi joera nagusi bereiz daitezke, bi ardatz bezala: internazionalistena eta abertzale independentistena. Eta azken hauen inguruan, bidenabar, belau-naldi zaharrekoek eta berrikoek osatutako beste bi talde nabarmenduko dira. Orduko ETAREN inguruko egoera aski nahasia baita, ondo etorriko da zerbait gehiago zehaztea.

Talde internazionalista edo, modu arruntago eta negatibo batez, “españolista” esaten zitzaiona *Zelula Gorriak* eta ETA VI.a deituek osatzen zutena zen. Hauen historia ezagunagoa denez, bego hor. ETAREN inguruko orduko egoera politikoa bere testuinguruan behar bezala ulertu ahal izateko, ordea, ondoko hiru puntuok bederen aurreratu eta gorriz azpimarratu beharrekoak dira: bat, murrizturik, bai, baina oraindik bizirik geratzen den barruko ETAREN zuzendaritza erbestean aurkitzen dela eta une honetan hemendik zuzentzen direla barruko ekintzak; bi, erbestean bi talde –Jose Maria Eskubi eta Patxo Unzueta– aurkitzen direla, erakundearen gidaritza nork hartuko lehia bizian; hiru, barruko ETAKIDEAK gehien kontrolatzen dituen talde dinamikoenak –Patxo Unzueta–, 1969ko erorketa masiboaren ondotik, erakunde berrantolatzeari ekiten diola, momentuz militarizazioa balaztatuz.

Garai hartan Belgikan bizi zen Jose Maria Eskubik, ETA VI.aren Biltzarra aurretik jadanik agertua zuen bere ezadostasuna ordurarte ETAK eramandako estrategia politikoari buruz. Buruzagi historiko honen taldekoek urtebete inguru zeramaten atzerriko leku geografiko desberdinetan elkartu eta marxismo-gaiak aztertzen. ETAKIDE ezagunak zeuden bertan, horietan artean Jose Maria Eskubi eta Mariasun Goenaga, Jose Maria Agirre, Jose Maria Matxain, hauek Belgikako Brusela eta Lovainan, Mikel Azurmendi, Landaburu eta Bikufia Parisen, Iñaki Arin zena eta, Baionan. Talde hauei *Zelula Gorriak* deitzen zitzaien eta guztiak ziren ETAKOAK edo, bederen, izandakoak. Taldekideok, gero bakoitzak bere bidea egingo zuen arren, Parisen argitaratutako *Saioak* aldizkarian azalduko dituzte beren burutazioak, orokorrean, ETAREN antolaketa PCEren ur handitan itotzeko asmoak eraginda¹⁷, euskal nazionalismoa desmitifikatzera joko dutenak¹⁸.

¹⁷ Parisko taldeak harreman zuzenak zituen Santiago Carrillorekin eta honen alderdikoekin. Imanol kantariari berehala egin zioten ohorezko lekua, Pako Ibañezen ondoan. Lehenago, Parisa iritsi orduko, eskaintza bera eginga zioten afari batean Maite Idirin kantariari ere, baina honek ezezko biribila eman zien (*Argia*, 1.216 zk., 1988-10-16, 37).

¹⁸ *Zelula Gorrikoek* leku desberdinetan zituzten beren bilguneak: Talde honen eraketan Mikel Etxeberriak parte hartu zuela esaten da *Euskadi eta Askatasuna. Euskal*

Argitalpen honetako ideologo nagusia eta, bide batez, taldekideen teoriaririk agirikoena eta ezagunena, Mikel Azurmendi zen, V. Biltzarrean izandako huraxe bera.

ETA VI.aren planteamendua ere enbor ideologiko bertsutik, hots, nazionalismoa gainditutzat ematen duen marxismo klasikotik zetorrena zen. Hauek ere haiek bezala internazionalistak genituen, baina diferentzia honekin: *Zelula Gorriak* taldekoak PCEkoak ziren bezala, hauek troskistak izanez bukatuko dutela beren ibilbide militantea. Herriak sorbalda eman bezain laster, ETA VI.a izatetik ETA VI.a-LKI (Liga Komunista Iraultzailea) izatera pasatuko dira. Baina, esan bezala, eboluzio mantoago eta maltzurrago baten bidez emango dute nazionalismotik internazionalismorako urratsa. Hasieran, ETA erakundea berrantolatu behar zela eta, militargintzari hegoak moztu nahiko dizkiote, baina ez erabat. Geroxeago, 1970eko abuztuaren 31n Itsasun egingo duten VI. Biltzarrean –hemendik ETA VI.a deitura–, talde honetako Patxo Unzueta buruzagia eta Jose Maria Eskubi, politikarikusmolde berekoak izan ez arren, biak ziren langile-alderdia sortzearen aldekoak. Alderdi horren esparru geografikoak nolakoa izan behar zuen, espainola ala euskalduna, puntu honetaz ez zetozen bat. Dena den, biak bat etorriko dira ETA zaharrean buruzagi izandakoak kanpoan uzteko orduan. Zentzu honetan, zerbait sinbolikoa izango da Julen Madariaga, orduko zuzendaritzatik Biltzarrera joan zen bakarra, traidoretzat hartu eta, bertatik bota izana. Baina azkenean, erakundeak behar zuen ideologiaz eta antolaketa geografikoaz ez baitzetozen ados, *Zelula Gorriak* taldekoek Biltzarra utzi eta alde egin zuten. Nolanahi ere, nola artean barruan ETA VI.ak bere azpiegitura zeukan, ondoko

Herria y la libertad (III, op. cit., 74 or.) liburuan. Gauzak erdizka esatea edo nolabait kontatzea bezalakorik ez dago dena nahasteko. Gertakizun haiek ezin hurbilagotik bizi izan zituenak oso ongi daki talde honetako batzuekin harremanik izan zuela. Baina harreman horiek erabat zirkunstantzialak izan ziren eta neurri handi batean, –une hartako nahasketa politikoak alde batera utzita–, ihesari leku eman ahal izateko ezinbestekoak. Interpola segika zeukan ETAn ekingizailerik bakarra zen garai hartan, Europa “demokratikoa” legezko errefuxiatu-egoera lor ez zezakeen bakarra.

urte-pare batean zehar jarduera politikoa bizia bezain polemikoa eramango du, proselitismo-lanetan bi fronte batera landuz: hots, kartzelako jendea eta barruko basekoa, biak kontrolatzeko informazio-sare egokiro koordinatua eratuz¹⁹.

Lan hori VI. Biltzarra egin aurretik hasia zuten. Honela, 1970eko maiatzean, "A todos los macos" izeneko txostena kartzelaz kartzela zabaltzeari ekin zioten, zeinetan zetorren mezua ezin garbiagoa baitzen: militargintzari alto eman eta langile-alderdia bideratuz gero, ordurarteko independentziaren lekuan, autodeterminatzeko eskubidea aldarrikatu behar zela, alegia. Bestalde, Burgosko epaiketa egingo zeneko, kanpotik Patxo Unzuetak zuzenduta, barruan ziharduen komando batek –horko partaideetako bat Argala izaki–, Burgosko presoak ateratzeko "Botella" izeneko ekintza prestatu zuten. Honek, ordea, oso aurreratuta zegoelarik, huts egin zuen. Ez horrela Joan Jose Etxabek prestatutako Beihl kontsul alemanaren bahiketak. Donostiako ekintza hau izango da arrasatearraren azkenekoa, 1971ko abuztuan utzaraziko baitiote.

ETA VI.ak, hastapenean, Burgosko epaiketaren ondoko giro nahasi hark asko lagunduta, gero abertzaleen taldera pasatzen ikusi izan ditugun hainbat militante bereganatu zituen. Baina gerora, 1972tik aurrera, ETA VI.a sinesgarritasuna erabat galduz etorriko da, batik bat, 1971ko polizi zapalkuntzak behartuta, barruko ETAkide ekintzaileak –Argalaren taldekoak–, Iparraldera pasatuko direnean, hauek orduan ohartzen baitira erakundeak hartua duen norabideaz. Klandestinitatean zeudenean egiaztatu ezin zutena beren begiz ikusi eta belarriz entzun ahal izan zuten.

Abertzaleen eta ez-abertzaleen arteko bereizketaz landa, pentsatu izan da ETAREN baitako batasuna erabatekoa izan dela, erabat koherentea nola maila ideologikoan hala antolaketarenean. Eta hau ere ez da guztiz egia, zeren, ETAZALEEN artean ere, gutxienik beste hiru joera ematen baitziren.

¹⁹ Haien mezulari-lanak egiten egun HB inguruan dagoen jende dezente ikusi genuen garai hartan, gaurko belaunaldi berrikoen artean harridura sortuko luketenak.

Belaunaldi zaharreko ETAkideen artean, bi talde zeuden intelektualki eta politikoki aski ongi tipifikatuak. Horien korrante-eraginaren epizentroa Belgikan, bereziki Bruselan, kokatua zegoen. Hemen, batetik, *Branka*-koak geneuzkan, esan bezala, marxismoa ez onartzeagatik V. Biltzarrekoan erakundetik kanpora geratu zirenak²⁰. Talde honek bazituen bere ezaugarriak, eta nagusia zen, ETA erakundetik aski hurbil ibiliko den arren, bere ibilbide ideologiko propioa garatuko duela sozialismo eta fronte nazionalaren inguruan eta, antolaketa-aren aldetik, bere kultur bizitza autonomoari irmoki eutsiko diola, bere argitalpenak nagusiki gaztelaniaz emanaz. Baina aldi berean, ezker abertzalean presio-talde gisa jokatu du eta zeharka ETako sektore batean ere –bereziki Joan Jose Etxaberen inguruko giroan–, bere eragina izatera iritsiko da, batez ere, ETA VI.aren eraso ideologikoak eragindako krisia sortuko denean.

Beste talde batean, ETA erakundea utzi eta hortik aldentuta zeuden *Gatazka*-koak aurkitzen ziren, Federiko Krutwig eta Emilio López Adanen harikoak. Hauen pentsamendua ere heterogeneoa bada ere, hortxe anarkismoaren eta etnismoaren artean mugitzen dena, guztiz homogeneo bihurtzen da *Saioak*-en eta ETA VI.aren tesi antinazionalistak ikuspegi kolonialista eta inperialista batetik begiratuta errefusatzeko orduan. Beste batzuek, azkenik, Edur Arregik eta Julen Madaariagak bezala, ETari atxikirik segitzen zuten eta azken izendatuak, beste eginkizunen artean, militanteak dialektika materialista ortodoxoaren argira doktrinatzeko jarduten zuten²¹.

²⁰ Beste batzuek, Joan Jose Etxabe abertzale puruak bezala, marxismoa irentsi egin omen zutela esaten da. Ez bakarrik V. Biltzarrekoan, geroztik ere hainbat ETAkide –horietako batzuk buruzagi ezagunak–, ezagutu izan dugu marxismoa zer zen edo zer izan zitekeen asko enteratu gabe fin asko borrokatu zena. ETAkideak eta ingurukoak oro marxistekin berdintzea, zalantzarik gabe, gehiegikeria onartezina dela iruditzen zaigu.

²¹ Xede praktiko honen emaitza da haren *Ekai-arauketa dialektikoari buruz* liburuxka, 71 orrialdekoa, erbestean 1971n argitaratua.

Honela, abertzale batzuk Txillardegiren *Branka*-ra biltzen ziren bezala, beste batzuk Beltzaren *Gatazka*-n aurkitu zuten beren Meka, baina hauek denak erakundetik aldenduta zeuden ordurako. Horregatik, gertatzen da, ETA VI.aren Biltzar Nagusia ospatzen denean 1970eko abuztuan, ETA V.aren Biltzar Txikiko bost kideak –Eduar Arregi, Emilio Lopez Adan, Julen Madariaga, Federiko Krutwig eta Joan Jose Etxabe– izango direla ETA VI.a likidazionista eta espainolizatza hartu eta, horien Biltzarra ezetsiz, lehengo ETA V.aren siglari eustea erabakiko dutenak. Baina horiek guztiak, Euskal Herriak barruan zeraman iraultzaren eguneroko dinamikaren barruan, gehienez ere ohorezko buruzagi ohiak ziren, errespetagarriak, baina erbesteko erretagoardian trankil zeudenak. Beltzak, gainera, erakundea utzia zeukan 1970eko ekainerako²². Horregatik, ETA VI.aren kontrako “Agiria” nortzuek izenpetzen zuten ikusita, konprengarri gertatzen da ETAkide askorentzat –bereziki barruan borrokatzen ziren militanteentzat, berdin preso zeudenentzat–, susmagarri izatea kondena hura. Zegoen nahastea oraindik areagotzeko bide bat gehiago izan zen –diogun berriro–, zuzeneko informaziorik ez zuten askorentzat edo gehienentzat.

Dena den, horiek guztiak beren bizitza erbestean zeramatenak ziren eta ETAREN estrategia egiazki bideratzen zutenak ez ziren preseski horiek –kasuren bat edo beste salbu–, barruko borroka praktikoan sartuta zeudenak baizik. Hauek izango dira, hain zuzen, Burgosko epaiketaz geroztik eraturako ETA V.a osatuko dutenak, guztiak belaualdi berrikoak, zeinetan bat egingo baitute “Botella” operazioan zein Beihl kontsularen bahiketan parte hartu zutenek. Orduan, ETAREN izena nazioarteko prentsan zabaltzen hasten denean, alegia, agertuko dira buruzagi berrien izenak: Txikia, Argala, Txomin, Peixotorena, etab. Txikiak fronte militarrean Handiaren errelebu hartu eta honek erakundea utziko duenean 1971ko abuztuan, egoera asko argitzen da;

²² Ixilla, Roberto eta Beltzak 1970eko ekainerako utzia zuten erakundea (*Zertan ari*, 1, 1970-06-7).

geroago, ETA erakundea eta EGI-Batasuna elkartuko direnean 1972ko irailean, lehengo zatiketa hartatik biziki sendotua aterako da. Honela, batez ere 1971tik aurrera, ETAk ongi zehaztuta utziko du bere ideologiaren nondik norakoa 1971ko *Zutik*-eko 63. zenbakian, zinetan bi arazo argitzen baitira: bat, euskal borrokak izaera nazionala eta soziala duela, –funtsean, V. Biltzarrekoa errepikatu besterik ez da egiten hor–, eta bi, zenbaki bereko beste lan batean²³, aterabide gisa Euskal Herriaren askatasunerako fronte nazionala osatzea proposatzen baita, burgesia nazionala barne hartuko duena, baina borroka langile-riak zuzenduta. Zenbaki hau izango da geroztiko bidea markatuko duena, gaur arte markatu ere.

ETAren erbesteko militantzia leku askotan barreiatua aurkitzen bada ere, Iparraldean –batik bat, hemengo kostaldean–, aurkitzen zen pilatua euskal errefuxiatuen mundu konplexua, “ETAren santutegia” deitu izan zaiona. ETA erakundeak bertan zeuzkan finkatuak bere aktibismorako kuadroak eta harreman-sareak. Donibane-Lohizunen aurkitzen zen, halaber, “Anai-Artea” elkarte eta beronek argitaratutako *Euskal Elkargoa*-ren egoitza soziala, errefuxiatuei behin-behineko aterpe-zerbitzuak emateko 1969an sortu zena eta Telesforo Monzonek eta Piarres Lartzabalek zuzentzen zutena.

Honaino politika-taldeak. Hauen mundua barrutik azaltzen saiatu gara, gu ezagutzera iritsi ginen neurri apalean. Segidan zenbait ohar egitera pasatuko gara.

Lehenik, garai nahasi honetako jarrera ideologikoez, hauxe esan dezakegu: ETako ideologoak, orokorrean hitz eginda, marxismo klasikotik abiatzen zirela nazio-arazoa interpretatzeko orduan, baina azkenean –askotan bederen– ondorio erabat kontrajarrietara heltzeko. Abertzale marxistek –orobat anarkistek– nazionalismoa defendatzeko, hirugarren munduko koloni askapenen kasuetan aplikatzen zen eredu

²³ Honen izenburua “Burgosko epaituen eta beste zenbait marxista-marxistaren tesia” da (Documentos ETA, 12, Lur, Donostia, 1981, 352-354). ETAk bere egiten duen lan hau lehen aipatutako *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian* liburuko hirugarren atala osatzen duena da, Jokin Apalategik idatzia.

komunista aipatzen zuten bitartean, internazionalista likidazionistek, Leninen zentralismo demokratikoa aldarrikatuko dute, zeina komunistek Errusiako Iraultzan eta Mendebaldeko European praktikatzen zuten politikan islatzen baitzen ondoen. Sekulako nahasketa dagoela esan beharrik ez dago. Gure ustez, azken hauek –likidazionista deituek, alegia–, egiten zuten marxismo klasikoaren irakurketa zuzena. Onartu ala ez, besterik da. Nolanahi ere, begien bistakoa zen nazio-arazoari buruzko literatura marxista areago sakondu beharra zegoela. Iluntasun-egoera honek gogoeta-leku egoki baten premia oraindik ere ageriagoan jarri zuen eta, hain zuzen ere, testuinguru honetan sortu ziren *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* (1971), *Marx eta nazioa* (1972), *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian* (1974), hurrenez hurren *Euskal Elkargoa, Etor* eta *Zabal*-ek argitaratuak, eta hirurak erbestean burutuak. Lehenengoak, Marxek gizabanakoari ematen dion garrantzia azpimarratzen duen aldi berean, ahalegintzen da Lenin estrategia zuhurraren nazio-arazoari buruzko alderdi ilun eta kontraesankorrak bereizten, beti ere haren alderdi onak eta, orokorrean, Alderdi komunistek koloni herrietan –zehazki Vietnamen–, aldarrikatutako politika nazionalista beretuz. Bigarrenengoak ateratzen duen ondorioa, aldiz, oso bestelakoa da, uste baitu marxismo klasikoak, Marxengandik hasita, nazioarena ez zuela inoiz ez aintzakotzat hartu eta ez zuzen planteatu. Geroago, *Maoren marxismoa: maoismoa* (1977) liburuan, komunistek koloni lurraldeen kasuetarako aldarrikatzen zuten estrategia pronazionalistaren ipuina ere hankaz gora botako du, Txina handiak bere menpeko Tibet nazioarekin daraman jokabidea aztertuz.

Bigarrenik, beren bizia aktibismoaren erruletan jokatzen zuten haiei, egia esateko, Europako hiri handietan ikasten ari ginenok ez gintzaizkien hain begikoak ere, zeren, heroitasuna ezarritzaren neurritzat, gu bezalakoek jokabidea ihesbidearen ondoriotzat baitzeukaten. Beren bizia jokatu –eta batzuek galdu– zuten orduko ekintzaile zintzo eta leialen alde esan beharra dago –apal-apal eta esker-ronez esan ere–, krisi ideologikoak inoizkorik gogorren astindu zuen une hartan, argitasun teoriko batzuk egin beharra ikusi eta horretan ahaleginik egin bazen ere, ETA barruko zatiketak gehienbat ekintzen bidez gaingitu ahal izan zirela. Ideologoak bazuen erakundearen ize-

nean txostenak, propaganda-lanak eta horrelakoak egiteko bere lekua; baina praxi politikoan agindu, buruzagitza militarrek agintzen zuen. Armen hitza zen fidatzeko bakarra, ez hitzen hitza, hau hurrengo itzulian haizeak eraman baitzezakeen. Nolanahi ere, denborak frogatu ahal izan du ordutik hona egindako bide latz hori, odolez gorritua eta sufri-menduz belztua izan bada ere, ez dela debalde egina izan.

Zalantzarik ez da, beraz: beharrezkoa zen praxi politikoa, honek gauzatzen baitu politika. Eustakio Mendizabal hil zuteneko 25. urtemuga ospatzeko Ondarroan antolatu zen kultur astearen barruan, 1998ko apirilaren 23an hain zuzen, ohartuki aitortu genuen, arestian deskribatu dugun erbesteko panorama hori begien aurrean geneukala, alegia, ETAre krisialdirik larrienean Txikiak eta beronen taldekoek mirari antzeko bat egin zutela haren jarraitasuna ekintzen bidez salbatuz eta ziurtatuz²⁴. Aktibismo hutsa izan zen orduko eraso ideologikoari gain hartu ziona.

Nolanahi ere, eguneroko politikagintzak ezinbestekoa du, bere norabidean iparra gal ez dezan, bere oinarri politikoak lantzea ere, zeren bestela norakorik gabeko ekintza itsua izanen bailitzateke hura. Eta aurre-lan hau aktibismo hutsarekin ez da egiten, kultur-gintzan lana latz eginda baizik, gisa honetako jokamoldea garai hartan oso modan ez bazegoen ere.

²⁴ Banekien hitzaldikoan Eustakio Mendizabalen erretratua egin nezala eskatuko zidatela eta, asmatzen ibili gabe, idatziz prestatua eraman nuen nire hari buruzko iritzia: "Nik, harenetik, batez ere, aktibismo zintzo, koherente eta heroikoa miresten dut. Agian gaur orduan baino garbiago ikusten dut zein oinarrikoa, zein garrantzitsua izan zen haren eskaintza, hark eragindako aktibismo suspergarria, eraso ideologikoen bidez zetorren likidazionismoari aurre egin eta ezker abertzale sozialistaren bideak ireki, garbitu eta sendotzeko. Agian, ETAk ezagutu duen krisirik sakonena ordukoa izan zen. Ni horretan nago. Eta berori gainditzen, nire ustez, Txikia puntala izan zen". Dena den, ETAre gainean kanpotik eta barrutik asko idatzi bada ere, haren historia oraindik historia bizia baita, atal asko geratzen dira osatu, zuzendu eta gehitu beharrekoak. Seguru gaude ETako zerrenda hagiografikoan geroagoko historiografiak egun ezkutuan dauden lekuko dezente aterako dituela argitara.

Hirugarrenik, eta azkenik, ETA erakundeak bazituen bere argitalpen-organoak, baina horiek, besteak beste, muga handi hauek zituzten: elebidunak izanik ere, gehienak gaztelaniaz eginak zirela, edukia- ren aldetik hertsiki politikoak eta militantziari zuzenduta zeudenak. Ez zuen, bada, gogoeta-organorik eta, agian oraindik garrantzitsuena dena, kultur adarretik sustatutako ekimenek ere ez zuten ezein auto- nomiarik. Alderdi eta mugimendu politikoek sustatutako kultur pla- taformetan egiazko arazoa zen autonomiarena, batez ere, haiek finan- zatutakoetan. Eta da. Eta edonon.

Erbesteko ikasleen presentzia

Badirudi 1970eko hamarkada aurretik edo ondoren euskal kul- turgintzan bideratu eta mamitzen diren asmorik bikainen eta aipaga- rrienak Hegoaldean gertatzen direla eta, gainera, kultur gune oso jaki- netan. *Lur, Jakin* edota *Ez dok hamahiru* esanda, dena esango dagoela uste izan da. Atzerrian ikasten ari zirenen errepasso historikoa egitera- koan, Ramon Saizarbitoriak eta Mikel Lasak beren ikasketak Suitzako Friburgon egin zituztela gogoratu da, ederki dagoena, baina ez dugu jakingo, adibidez, Gotzon Garatek marxismoari buruzko bere ikerla- nak han burutu zituela. Badirudi, erbesteko errefuxiatuen artean ere, *Branka*-z landa, sustantziakorik deus ez dela egin. Horrelako kronis- tek, beren kontakizunean betiko topikoak errepikatuz eta betiko san- tuak gurtuz, mesede kaxkarra egiten diote euskal kulturaren historiari, daturik oinarrizkoenak ere ez baitituzte jasotzen.

Madril eta Bartzelonako euskal ikasleek euskal erresistentziaren alde zeukaten jarrera ona aipatzen da. Atzerrira joandakoa ere bazen kopuru ederra eta ETArekin inguruan zebilena, bestalde, ez hain txikia. Baldin 1969an 1.953 lagun bazeuden atxilotuta Hego Euskal Herrian ustez ETAKoak zirelako eta ETArekin harremanak izan zituztelako²⁵, askoz ere kopuru handiagoa zen, zalantzarik gabe, ihesi joandako gazte-samalda. Zenbat, ez dakigu.

²⁵ *Euskadi Eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad*, III, op. cit., 14.

Gazte asko zegoen 1970eko hamarkada-hasiera hartan Europan zehar barreiatuta. Batzuk, zapalkuntzak eramanda, errefuxiatu gisa, halabeharrez zeuden; beste batzuk –hauen artean, kleriko, erlijioso edo apaizgai izandako ez gutxi–, ikastera eta, bidenabar, mota askotako barne-loturak askatzera joanak. Liberalizazioaren ordua ere bazen hura. Atzerriko bi talde horien mundua –errefuxiatuena eta besteena, alegia–, bakoitzak zeraman bizimodua edota zeukan sentikortasun politikoa nolakoa zen ikusiz gero, garbiki bereizteko modukoa zen. Talde bakoitzak zeukan bere *modus vivendi* berezia. Erbestean, bertan bizi izan eta gero ohartzen zara ondoen, bere marka berezia uzten du, gerora ere irauten duena. Ikasle gehienak ezkerrekoak ziren, baina ez horregatik aber-tzaleak. Unibertsitate-ikasketak egiten zebiltzanak ez ziren gutxi. Talde heterogeneoa genuen hura. Horrela, atzerriko urruntasun-egoerak sortzen zuen adiskidetasun-giro komunaren barruan, Europan zehar kultur taldetxo heterogeneoak sortu eta antolatu ziren, kokapen geografiko desberdinen arabera, modu batera edo bestera funtzionatu zutenak.

Alemanian Fernando Mendizabal, Joxe Azurmendi, Jose Luis Narbarte, Lontxo Oihartzabal, Jesus Maria Mujika, Pako Garmendia, Joseba Arregi eta, aurkitzen ziren, hara, besterik gabe, unibertsitate-ikasketak egitera edo lehengoak sakontzera joanak. Talde honetako batzuek *Jakin*-eko saio-bilduman parte hartzen zuten. Alemaniako eskola hau oso presente egon zen Hegoaldeko kultur eztabaida gehienetan, Joxe eta Josebaren sinadurak –hauenak bereziki–, maiz samar agertzen baitziren hango aldizkari berriemailetan ere.

Ziurrenik Parisen aurkitzen zen, talderik ugariena ez ezik, ziurrenik baita heterogeneoena ere, beronen osaketa soziologikoaren aldetik begiratu. Han bildu ginen, polizi errepositoriak eramanda, hasieran *Gogor*-eko talde gisa funtzionatu genuen batzuk –Luis Maria Ibarra zena, Luzio Aurrekoetxea, Amadeo Rementería eta–. Tomas Saitzar herrikidea ere gurekin izaten zen²⁶. Maite Idirin eta Imanol Larzabal

²⁶ Erbesteko *Gogor* taldekoak banatu egin ginen hasieratik bertatik: Julio Araluze je-suita eta Tomas Gaztelurrutia Rennesa joan ziren; Joan Maria Arregi, Josu Baran-dika, Jon Olabarria eta beste batzuk berriz, Iparraldean geratzea erabaki zuten; Xabier Gorostiaga,

kantariak ere handik zebiltzan, baina bakoitza bere aldetik. Donostiakoak, Alisa Serna eta Pako Ibañezekin batera, PCEk Europa osoan antolatzen zituen frankismoaren kontrako jaialdietan kantatzen zuen; Ugaokoak, aldiz, estaturik gabeko nazioek herri zapalduen alde antolatzen zituzten kantaldietan. Askotan deitzen zuten kantatzera Britainia, Okzitania, Flandria eta beste hainbat lekutara. Bizi behar eta, gauero, lau bat urtez edo, Migel Arozenak Parisen zeukan “Candelaria” izeneko kafe-antzokian kantatu zuen, beti euskaraz. Bakoitzak zeukan, bada, bere auditorium-sarea. Unibertsitate-taldea zen, ziurrenik, hedatuena eta barreiatuena. Izen batzuk bakarrik aipatuko ditugu, gero *Zabal*-en beren partaidetza izango dutenak: Jokin eta Joxe Martin Apalategi anaiak, Jon Sudupe, Karmelo Arroiabe, Koldo Aristegi, Jesus Maria Larrazabal, etab. Osaketa soziologikoaren aldetik askoz zabala goa zen eta ideologiaren aldetik koloretuagoa, Duban kaleko Euskal Etxera biltzen zen euskal jendea. Hura izaten zen Iparraldeko zein Hegoaldekoen bilgunea igande-arratsaldez. Han ezagutu genituen Battita Larzabal eta Kattalin Idiart senar-emazteak, han Beñat Oihartzabal abokatu-ikaslea, hauek ere *Zabal*-eko lankide izango zirenak. Klase guztietakoak aurki zitezkeen bertan: ikasleak bezala langileak, azken hauek –zeinen artean Hegoaldeko neskameak ez baitziren gutxi–, emigrazioak bertara eramanak.

hau ere jesuita, Cambridgeko Unibertsitatera joan zen ekonomi ikasketak egitera eta geroztik gaurdaino Hegoamerikan daroma bere bizia, Nikaraguako arazoetan murgilduta. Besteok, esan bezala, Parisen. Baziren beste apaiz sekular batzuk ere Parisen zeudenak, ikasten eta horrela, baina hauekin, nahiz eta adiskidantzak egin, ez genuen horrelako harreman berezirik izaten *Gogor*-ekoek. Taldeek, klerikoen artean ere, gehienbat lagun-taldekoak izatearen zentzuan funtzionatzen zuten. Luis Maria Ibarra, Zeberioko semea, barruan eta erbestean *Gogor* taldearen arima izan zen. Berak formulatu zituen taldearen planteamenduak. Tomas Saitzar berastegiarra, berriz, ETAko belaunaldikoen arteko lehen erbestertua izan zen, 1968an Tolosako aita sakramentinoen etxea utzi behar izan zuena. Marseille-ko sakramentinoen etxetik Pariskora pasatu zen 1969an eta han elkartu ginen biok, udako partean, Avenue Friedland-eko 23. zenbakian. Azken biak jada hilak ditugu, biak oso isilik, bizi izan ziren bezala, gipuzkoarra 1994ko abenduaren 29an. Euskal historiari noizbait bereganatuko ahal ditu horien izenak!

Horixe da, labur esanda, Parisko geure bizilekutik ikusi uste izan genuen ETAREN belaunaldiko euskal erbestearen mundua, zalantzarik gabe mugatua dena eta, dena esateko, gehienbat ETA berrituari atxikia. Noski, jakina da garai hartan atzerrian zeudenak askoz gehiago ere bazirela eta bazituztela beren taldetxoak²⁷, baina hauek, berriro diogu, ez ziren errefuxiatuak. Gure jarduna erbestetuen esparrura mugatzen da.

Zabal sortzeko zeuden arrazoi batzuk azaltzeko asmoz, deskribapen honekin 1970eko hamarkada-inguruko euskal erbeste politiko eta ekonomikoaren alderdi baten azala urratu besterik ez da egin nahi izan.

²⁷ Parisen bertan behin edo beste topo eginak gaituzue Jesus Lezaun, Andoni Lekuona, Jose Luis Zamalloa, Felix Ibarondo, Joseba Ulazia, Euken Arsuaga eta beste kleriko batzuekin, edota Rikardo Arrue, Etxabe eta Iñaki Azkuna medikuekin, eta beste ikasle-andana batekin.

HAMARGARREN ATALA

ZABAL-EN ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA

Aurreko atalean kultur plataforma berri bat sortzeko zeuden arrazoiak eman dira. Han esan da kultur plataforma horiek –legalitatean ari zirenek, bereziki–, ez zutela betetzen euskal ezker abertzalearen esparruan zegoen hutsunea. ETA erakundea eta ETA fenomenoaren bereizi izan dira, azken honen esparru soziologikoa harena baino zabalagoa dela adierazteko. Esan da, halaber, nola orduan euskaltzale asko ziren ezkerrekoak, oso liberalak, oso demokratikak, ideologian oso aurreratuak, baina, aldi berean, ETArekin oso kontrakoak. Alderdi hau ez da nabarmendu izan ia inoiz garai honetako euskal kulturaz idatzi izan denean²⁸. Eta alderdi hau azaldu gabe, ezin da ulertu *Zabal*-en sorrera. Bestalde, aldizkari honen egitasmoa osoki nire gogoan erne eta gauzatu izan baitzen, horren inguruko hainbat gai zehatzen gainean maila pertsonalean jardutea beste biderik ez zait geratzen. Halaber, baina, arraz gogoz kontra. Nire kontakizuna sinesgarri izan dadin, zuzeneko lekukotasunaren babesa eskatzen duelako. Horregatik bakarrik.

Nire egitekoa euskal kulturagintzan ikusten bainuen, ez politikan, hor ezker abertzaleak zeukan hutsune erraldoia betetzeko asmoak era-

²⁸ Diogunaren adibide tipikoa da “60etako euskal kultura” gaiaren inguruan *Argia* astekariak antolatutako mahaingurua (*Larrun*, 48, 2001eko urria).

man ninduen, arlo horretan urrats berri bat irekitzen saiatzera, ordu-
rarteko kultur isolamendutik atera eta, kultur proiektu berri baten biz-
karrezurra euskal gizartearen gorputzean haragitzera. Jakitun nintzen
Guatemalan jaiotako *Euzko-Gogoa*, han bost urte egin eta gero,
Miarritzera etorri zela bizitzera, euskal lurrera, etxe-giro epelago baten
bila. Doluz, zeren, lehen esanda dakigunez, bere aldizkariak egoitza
berrian beste bost urteko bizi-iraupena besterik ez baitzuen ezagutu.
Porrotaren sentipen etsia miazkatuz, lehengo lekura itzuli zen, orain-
goan ogi bila.

Hori guztia jakinik ere, antzeko proga egin nahi izan nuen, pen-
tsatuz beste garai batzuk zirela ordukoak, gure belaunaldikook euskal
kulturari ohartuagoak gintzaizkiola haren garaikoak baino. Neure
buruari osoki maila pertsonalean egindako desafio antzeko bat izan
zen hura. Honela, Parisen Soziologiako Lizentzia 1972ko ekainean
bukatu, hango euskal mundua utzi eta Ipar Euskal Herrira jaitsi nin-
tzen. Buruan zenbait asmo nekartzalako hartu nuen erabaki hori, ez
beste ezergatik. Izan ere, ikasketarako Paris hiriburuan bezalako giroa
nekez aurki nezakeen beste inon.

Iparralderako bidea Tomas Saitzar gidari eta lagunak ireki zidan,
bera, bi urte lehenago joanda, Ustaritzeko Seminario txikian aurkitzen
baitzen. Bizi egin behar eta, 1972ko ikasturte-hasieran Hazparneko
Saint-Joseph eskola teknikoan hasi nintzen jagole-lanak egiten eta, aldi
berean, hasitako ikasketari jarraipena ematen²⁹.

Iparraldeko gizarte-indar eta euskal kultur egile saiatuenekin
harremanetan jartzeko gogoak ekarri ninduen, bada, euskal gizartera,
beti ere pentsatuz nire kultur asmoak, inon ernetzekotan, hango lurre-
an ernetuko zirela. Bizialdi berrian, berehala egin nituen loturak
barrualdeko jendearekin, bereziki laborari-borrokan sartuta zebiltzan
Peio Iralurrekin eta, xede bertsuekin, orduan Eskualdun Gazterian

²⁹ Han lanean ari nintzela defendatu nuen "Matrîse"ko lana 1973ko otsailaren 15ean
eta, geroztik, doktorego-tesirako dokumentazioa biltzeari ekin nion.

zebilen Mixel Berhokoirigoin eta honen taldekoekin³⁰. Baina nik, batez ere, kultur aldizkari baten proiektua nenkarren eta hori bideratu arteko onik ez nuen. Hazparneko ikastetxean irakasle-lanetan ari ziren Jean-Louis Davant, Ramontxo Kanblong, Kattalin Idiart, Xarlot Etxezaharreta eta beste batzuk, lehendik ere ezagutzen nituen eta ez zitzaidan batere zaila izan horiekin harremanetan jartzea. Haiekin harreman oso zuzenak izan nituen, beti neuzkan edozertan laguntzeko prest. Gaur ez dakit nola eskertu ezin ordaindu diedan zorra. Honela, 1972-73ko ikasturtearen hasieran bertan, aldizkari baten plangintza maila pertsonalean landu nuen, hurbilekoenak zitzaizkidanekin aurrez aurre hitz eginez eta zer nahi nuen adieraziz. Hasteko, oroimenak huts egiten ez badit, J-L. Davantekin, Battita Larzabal eta Kattalin Idiartekin mintzatu nintzen eta gero handik Baiona aldera zabaldu nuen zirkularen orubea, Beñat Oihartzabal, Mattin Larzabal, Gexan Lantziri, Manex Pagola eta beste batzuegana.

Enbata mugimendua, *Zabal*-eko artikuluetan irakur daitekeenez, bere onenak emana zegoen eta une zailak bizitzen ari zen, marxismoaren uholdeak eta ETAkoen Iparraldeko presentzia fisiko-emozionalak barrutik aski ukitua zeukaten hango belaunaldi gaztea ezin bereganatuz. Zerbait egin beharra sumatzen zen. Gogoia ere bazegoen. Politikagintzak alde guztietatik gainezka egiten zuen une hartan, nire proiektua funtsean kulturala izaki, hertsiki euskal kulturara zuzendua, beldur nintzen dei hura ez ote zen galduko basamorturik idorreanean.

³⁰ Pello Iralur Garaziko Donahazarreko Legarretenian, bere etxaldean, ezagutu nuen, barazkiak eta loreak lantzen zituen berotokietan eta haren inguruan gazte-andana bat mugitzen zen hara eta hona ari. Berak geroztik elkarrizketa batean aitortu duen bezala (*Argia*, 1.689 zk., 1998-10-23), orduan, Parisko maiatzak (1968) barreiatuako ezker ideologia klasistari, gizarte-egitura kapitalista irauli beharri, alegia, ematen zion lehentasuna. Izpiritu horrek bultzatuko du gero sindikalgintzan jardutera, ELBn, koherentzia osoz, eta hori utzi gabe ABko hautagai ere izatera helduko da Garaziko hauteskunde kantonelatan, arrakasta handia erdietsiz. Mixel Berhokoirigoin ere –hau gazteagoa–, laboragintzan ari zen bere gurasoen etxaldean, eta hau, Peilo Iralurrek utzitako lehengo militantziari segida emanez, Euskaldun Gazteria eliz mugimenduan sartuta zebilen une hartan. Erakunde honetakoek talde bizia osatzen zuten gero artzaingoari lotuko zitzaion Talet Ouret apaizaren inguruan.

Orokorrean erantzun baikorra jaso nuen elkarrizketatu nintzen ia guztiengandik eta, zain egon gabe, aurrera egitea erabaki genuen. Asmo hark talde baten oniritzia bereganatu zuen eta handik aurrera taldea izango zen lehen proiektu haren hazia ernaraziko zuen lurra.



Jatsuko "Telleria" etxea, Tomas Saitzar eta Paulo Iztueta berastegiaren bizitoki izandakoa (1972-73). Hementxe egin zen Zabal-en sorrerako bilkura.

Aldizkaria bideratzen hasteko lehen bilkura, Tomas Saitzar eta biok alokatuta geneukan Jatsuko "Telleria" etxean egin zen eta han eratu zen —era aski informal batez—, erredakzio-kontseilu baten antzeko

zerbait³¹. Han erabaki zen aldizkari bat argitaratzeko asmoa onartzea, berori bideratzeko legezko urratsak ematea, horretarako arduradunak izendatzea eta, azkenik, baita *Zabal* izenez kaleratzea ere. Bilkura hura izan zen, bada, egiazko abiapuntua. Ez dut gogoan noiz izan zen, ezta zenbat lagun bertaratu ginen ere. Batzuen aurpegiak, halere, oraindik begi-errainuetan itsasiak dauzkat: Gexan Lantziri, Beñat Oihartzabal, Mattin Larzabal, Grazi Etxebehere erizainarena. Gehiago ere baginen. Baliteke Battita Larzabal eta Kattalin Idiart ere han izatea, agian Jean-Louis Davant bera ere bai, baina ez naiz oroitzen. Idazkari-lanak orduan burokrazi kontuak baitziren, ez dut uste inon badenik bilkura hartako dokumentu idatzirik edo aktarik.

Taldearen xedea, hastapen hartan, aldizkaria ateratzea zen. Horretarako, ordea, legezatu egin behar zen. Kultur elkarte baten babes ofizialik gabe ezin zitekeen aldizkaririk sor. Beraz, *Zabal* esatean, haren sorrera eta bilakabidean hiru gauza desberdin berezi behar dira, sarritan nahasten direnak: elkartea bera, aldizkaria eta liburu-denda.

Zabal elkartearen sorrera eta egoitza soziala

Esan behar dugun lehen gauza da, *Zabal* aldizkaria izen bereko elkartearen baitan ateratzen zela eta *Zabal*-kideok haren arautegiaren esanekoak ginela. Zentzu honetan, erabat bestelakoa zen *Euzko-Gogoa*-ren

³¹ Ni bertaratu baino lehen, esana daukadanez, urte-pare bat edo bazeramatzan Tomas adiskideak Ustaritzeko Seminarioan eta, aspaldiko partez, asteburuak bederen elkarrekin egin genitzan, Jatsuko etxera biltzen ginen ahal genuen guztietan. Orduko argazkiak begiratu, ikusi ahal izan dut etxe hartatik Hegoaldeko jende asko pasa zela, lehengo laguntasunak asko hurbilarazten gintuelako. Geroko zori-oreko trantsizioak batzuen arteko sakabaneta politikoa ekarriko zuen arren, oraindik ere lehengo laguntasun haren garrak pizturik darrai. Zorionez, zeren gauza bat baita kidedasun ideologikoak dakarren lagunartea, eta beste izaera batekoa, desberdina, laguntasunetik datorrena. Derradan, bidenabar, baserri gisako etxe xarmant hura Ustaritzeko Manuel Intxausti familiarena zela, Donostiako Ana Belen Larrauri alargunarena, eta hango alaba Mirenek, hain zuzen, ingeleseko eskolak ematen zituela Hazparneko Saint Joseph ikastetxean, hango laborantzako sailean.

lege-egoera, hau osoki Jokin Zaitegiren jabetzakoa baitzen. Bera izan zen aldizkariaren nagusi eta zuzendari bakar. Bere hurbilekoenak hau ondotxo zekiten.

Euskal kultura indartu eta sustatzeko xedearekin, kultur elkartearen sortzeko eskaria Kattalin Idiart emaztekiak egin zion Pirinio Atlantikoetako prefektu jaunari 1973ko martxoaren 9an eta Administrazioak, 1901eko Legeak dakarrena aplikatuz, baiezko erantzuna hil bereko 23ko datarekin aldarrikatu zuen bere organo ofizialean³². Estatutuetakoko 6. artikuluan zetorrenez, Elkarteak hautatu behar zuen Batzorde-Zuzendaria. *Zabal* kultur elkartearen lehen zuzendaritza, bada, honela osatua geratu zen hastapenean: lehendakari Kattalin Idiart, lehendakariorde Beñat Oihartzabal, eta idazkari Grazi Etxebehere. Elkarte sortuberriak artean ez baitzeukan bere lokalik, haren egoitza soziala Baionako Bourgneuf karrrikako 31. zenbakian egongo da lehen urteetan, Kattalin lehendakariaren etxebizitzan, hain zuzen. Gero ordea, 1977ko urtarrilaren 8ko bileran hartutako erabakiaren ondotik, *Zabal* liburutegira, Pannecau karrrikako 52. zenbakira aldatuko da. Bestalde, Estatutuetakoko 6. artikulua agindu bezala, zuzendaritza gutxienez hiru urtez behin izendatu behar zen. *Zabal*-en kasuan, gertatzez, administrazio-bulegoa handik hamar urtera berrituko da, 1983ko ekainaren 6an egindako Batzar Nagusian, oraingoan zuzendaritza honela eratua geratuko delarik: lehendakari, Daniel Landart; lehendakariorde, Beñat Oihartzabal; idazkari, Gexan Alfaro.

Zabal elkarteak 1974ko abuztuaren 14an ireki zuen izen bereko bere liburu-denda berria Baionako parte zaharrean, Pannecau karrrikako 52. zenbakian, egun desagerrarazia dena. *Herria* astekariak³², hain zuzen, honela eman zuen berria Jokin Apalategi eta Joseba Jaka zenari,

³² "9 mars 1973. Déclaration à la sous-préfecture de Bayonne. Association culturelle *Zabal*. Objet: développement et promotion de culture basque. Siège social: 31, rue Bourgneuf, 64100 Bayonne" (*Journal officiel de la République Française*, 70 zk., 23 Mars 1973).

³³ "Euskal kultur etxe berri bat Baionan", 1974-VIII-29.

orduko liburu-dendako kudeatzaileei, egin zien elkarriketa-buruan: “Joanden astezken astirian egin da Baionan *Zabal* batasunak Pannecau karrikan ideki duen liburu dizka-saltegiaren estrenatzea. *Zabal* batasuna jadanik ezagutua da alde askotan bi hilabetetarik ateratzen daukun izen bereko agerkarien gatik: hau beti garratz eta bipil ari baitzauku euskal alorren iraultzen edozoin gogoeta sail eta ikertze erabiliz eta beti denak euskaraz”.

Zabal aldizkariak liburu-denda inauguratu zen hil berean kaleratu zuen bere 8. zenbakia. Ordurako, beraz, bere lanen erdiak eta onentsuenak emanik zituen eta haren izena aski gizarteraturik zegoen. Euskaltzaleek berehala lotu zituzten izen bereko aldizkaria eta liburu-denda, biak etorri ere elkarte beretik zetozenak baitziren. Elkartearen zenborra eta adarrak besterik ez bestek.

Hemen eta orain, *Zabal* aldizkariaren ari baikara, liburu-dendarena beste txanda baterako utzi eta, gatozen lehengo arrastora.

***Zabal* aldizkariaren zuzendaritza**

Jatsuko bileran, lehen esandakoaz aparte, aldizkariaren barruko funtzionamenduaz ezer finkorik erabaki ez bazen ere, praktikan, legezko prozedurari jarraiki, haren kudeaketa hango egoerara moldatzeko jokabidea nagusituko da hasieratik bertatik.

Zabal aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu, 1973ko ekainean kaleratu zen, elkartearen ofizialdu eta berehala, udako partean. Aldizkariaren lehen sei zenbakiak Beñat Oihartzabalen zuzendaritzapean kaleratu ziren. Hurrengo urtean haren lekua Kattalin Idiartek hartu zuen, 1974ko maiatza-ekaineko 7. zenbakiarekin hasi eta 1975eko urtarrila-otsaileko 16. zenbakia arte. Inprimategian argitaratu zen azken urtean, 1976an, bi zuzendariren izenak zetozen azalean: Gexan Alfarorena 17. zenbakian, eta Battita Larzabalena 18. eta 19. zenbakietan. Dena den, zuzendaritzan bat baino gehiago txandatu baziren ere, eginkizun horretan denborarik gehien eman eta euskaltzaleen artean zuzendari-irudiarekin geratuko dena, izan, Kattalin Idiart izango da, esan bezala, zenbaki gehienak haren ardurapean argitaratu baitziren. *Enbata* aste-

kariak³⁴ 1975eko otsailean berari egindako elkarrizketan, arduraduna zen aldetik, berak azaldu zituen aldizkariaren ezaugarriak eta xedeak. Kasu honetan, gainera, berrikitan *Zabal*-kide batek idatzi bezala, emazkumezkoa izateak bere berezitasuna ematen zion kargu horri.

Nolanahi ere, zuzendaritzakoa izan ala ez, ageri da jende batek sarbide erraza zuela aldizkariko erredakzioan. *Zabal*-eko zenbakiak banan-banan irakurri ondoren, azkenean ez duzu jakiten erabakiak nork hartzen zituen, edo aldian aldiko zuzendariak ala aldizkariaren izenean izenpetzen zuen beste norbaitek. Esate baterako, lanaren azkenean *Zabal*-en sinadura daramaten 25 titululatik, 7 bakarrik dira ohiko aitzinsolasei dagozkienak; gaineratiko beste lan guztien buruan, siglak, propaganda-pasarteak, berriak, hiztegi-gaiak, eta horrelakoak agertzen dira, nahas-mahas. Dena den, *Zabal*-ek ez zuen bere lan ikeragarria egingo, baldin, talde-lanean jardunez, zuzendaritza eraginkor batek artez eta eguneroko lanez zuzendu izan ez balu. Eta meritu hau zor zaie haren zuzendaritza eraman zuten guztiei.

³⁴ “*Zabal* ou le renouveau culturel basque”, *Enbata*, 27 fevrier 1975.

HAMAIKAGARREN ATALA

ALDIZKARIAREN NORAKOA ETA NOLAKOA

Bere lekuan *Euzko-Gogoa*-rekin egin dugunaren antzera, atal honetan *Zabal*-en tesiak zein diren eta nolako barne-izaera nahi duen aztertuko da, uste baitugu, horrela eginez gero, hobeto agertuko dela belaunaldi batetik besterako eboluzioan zer-nolako aldaketak eman diren. Hau guztia aldizkariaren aukera ideologiko, bokazio politiko eta jokabide akademikoari dagozkionak puntuz puntu harrotuz egingo dugu, sare honetan aldizkari baten funtzionamenduan parte hartzen duten alderdi teorikoak eta praktikoak nahasten baitira.

Arestian *Zabal* aldizkaria kultur planteamendu berri baten eska-bidez sortu zela esan da. Haren ezaugarriak, asmoetan bederen, hauek ziren: ideologiaren aldetik abertzalea eta sozialista izatea, naziotasunaren aldetik Euskal Herri osokoa eta euskalduna eta, azkenik, funtzionamenduaren aldetik erakunde politikoekiko autonomoa. Lehen zenbakiko aitzinsolasean, sorrerakoan hain zuzen, zehazten ziren aldizkari berriari ezarri nahi zitzaizkion ezaugarri horiek. Bertan azaltzen genuen zergatik sortzen zen eta zein gai landuko zituen.

Aurkezpena oso labur formulatuta dator, dena orrialde batean, espreski halaxe kalkulatuta. Izan ere, hitzaurre hori idatzi aurretik, euskal kulturaren orduko egoerari buruzko azterketa luzexko bat idatzia geneukan, zeina bitan zatituta agertuko baita. Hor ematen ditugu *Zabal* bezalako aldizkari baten beharra justifikatzeko zeuden arrazoiak,

orduko giroari atxikiak. Berorien azalpena beste baterako utzita, muga gaitezen hitzaurrekoa azaltzera.

Zabala eta kritikoa: gogoeta-aldizkaria

Gure artean aldizkari bat gehiago sortu dela esanez hasten du bere ibilbidea, bietan, izenez eta izanez, zabal izan nahi duela aldarrikatuz³⁵: “*Zabal* du izena. Izana ere hala nahi luke: zabal mugaren gainetik bere begiradan eta, bide batez, zabal bere herri mezuan”.

Jatsuko “Telleria” etxean egindako lehen bilera hartan erabaki zen aldizkariari *Zabal* izena jartzea. Nik neuk, ordea, *Uztarpetik* izendatzea neukan pentsatua. Idatzita ere, nire artxiboko paperetan egiaztatu ahal izan dudanez³⁶, halaxe idatzita neukan aldizkari honen sorreraren zergatikoez eta xedeez egindako jatorrizko artikuluan.

Esan beharrik ez dago, izenak berak adierazten duen bezala, *Uztarpetik*-ek eta *Zabal*-ek elkarrengandik aparte leudekeen bi sinbolo-mundu dirudite semantikaren orbitan. Baina garai hartako euskal munduaren errealitate soziopolitiko eta kulturala orduko begiekin ikusita eta ordukoa oraingo oroimenaren mandiotik begiztatuta, esango genuke bi izen horiek, lehen bistan hala irudi arren, ez zeudela hain urrun ere. *Uztarpekoaren* konnotazioak, bere zentzurik zabalenean, menpekotasunetik askapenerako jomugaren ideia iradoki nahi zuen. Gorputzez eta arimaz erbesteratua sentitzen zen idazle-multzo gazte baten mezu militantea zeraman barruan gordeta, ezin genion entzungor egin askapen-mugimenduak gure ondo-ondoan hedatzen zuen borrokaren deiarri. Pentsamendu aske eta askatzailearen soro idorra jorratu nahi genuen, baina lumak egiazko gizarate-arazoetan bustiz,

³⁵ Iztueta, Paulo, “Aintzin-solas”, *Zabal*, 1, 1.

³⁶ “Aldizkari berri bat sortzen delarik, usantza da zergatik sortua den erraitea. Lehen aldiz *Uztarpetik* irakurtuko duenari egungo euskal kultur abiadaren aintzinean gu nola kokatzen garen agertu nahi genioke aintzin-solas honetan” (Iztueta, Paulo: Apunteak. Artxibo pertsonala).

landareak, ez bakarrik desira onez, obraz ere ureztatzen ahaleginduz. Orduan esaten zen bezala, soziologia “engagé” horietakoa lantzea genuen xede. Halakoxea zen gure orduko militantismoaren mistika: dirudienez, errotiko samarra. Errefuxiatuak ginen –egia esateko, bertako euskaltzaleentzat ere jende-kasta aski berezia–, eta erbestetua izatearen zama zapalgarriegia egiten zitzaigun irudi hori bihotzaren zein gogoaren muintetik saihas genezan. Beraz, neure egunkari biografikoan apuntatu beharra daukat *Uztarpetik* izen baztertuaren hautapenean ezkutuko karga animikoez eragin bortitza izan zutela. Iparraldekoak, ordea, nirea ez bezalako beste egoera batean bizi zirenez, haiek –zalan-tzarik gabe izpiritu zuhurragoz jokatu–, gizarteratzera gindoazen kultur eskaintza hura bertako euskaltzaleen taupadak erne zainduz eta hango kultur testuingurura ahalik eta egokien moldatuz egitea erabaki zuten. Hortik etorri zen jaioberria *Zabal* izenez bataiatzea, zabal-tasuna ulertuz, batetik, eraiki nahi zen ezkerreko euskal pentsamendua- ren zelaian eta, bestetik, begirada nazionalen. Gaur argiago ikusten dugu orduko dinamikak horrelaxe jokatzeko eskatzen zuela.

Euskal Herri osokoa, baina Iparraldean kokatua

Baziren arrazoi sendoak *Zabal* Euskal Herri osokoa izan zedin eta, gainera, Iparraldean kokatua. Aitzinsolasean datorrena hartuz, *Zabal* Ipar Euskal Herrian sortu izanaren arrazoi nagusiak, ondoko xede hauek lortu nahi izatera mugatzen dira:

Lehen: Iparraldeko eta Hegoaldekoen artean proiektu bateratu eta orekaturik gauzatu ez zenez gero, ez gerraurreko ez osteko belau-naldikoen artean, komeni zela behingoz xede horren finkatzeari atxi- kitzea.

Espainiako gerra zibilaren ondotik euskal kulturak erbesteratu behar izan zuenean, Hegoaldeko euskaltzale eta politikari errefuxiatu gehientzat –banaka batzuen salbuespenak eginda, noski–, Ipar Euskal Herria gune geografiko hutsa izan zen, ez beren kultur gune naturala. Euskal erakunde eta alderdien aldizkari garrantzitsuenak, hala nola Euzko Jaurlaritzaren *Euzko-Deya*, PNVren *Alderdi*, ELAren

Lan-Deya, edota Jose Migel Barandiaranen *Ikuska* eta *Eusko-Jakintza* aldizkari espezializatuak, Isidoro Fagoagaren *Gernika* gogoeta-aldizkaria, etab., hauek guztiak Iparraldean argitaratu ziren eta, gehienbat erdaraz idatziak izateaz aparte, horko lankide gehienak –aldizkari politikoetan bereziki–, Hegoaldekoak ziren. Bestalde, Euskaltzaindiaren berritzea zela eta, erbesteko euskaltzaleen eta Iparraldekoen arteko harremanak anitz zakartu ziren³⁷. Azken arazo honetaz jabetzeko, aski da orduko eztabaida *Gernika* aldizkarian jarraitzea. Erbestearen hala-beharrak hala aginduta, hurbiltasun fisiko eta humanoa eman, eman zen, baina handik ez zen sortu mugaz bi aldekoen arteko proiektu komunik. Bakoitzak bere lan autonomoa eginez segitu zuen, bere dinamikari, bere euskara-ereduari eta bere pentsamoldeari eutsiz.

Esana daukagu nola Jokin Zaitegik, Guatemalatik etorrira, kultur plangintza ongisko pentsatua azaldu zuen Parisko Euskal Batzar Orokorrean (1956), onbidez Ipar Euskal Herrian garatzekoa. Hemen, bere proiektu horren barruan, *Euzko-Gogoa* aldizkariari segida jantzia-goa emateaz gain, Euskal Idazleen Elkarte sortu eta Euskal Unibertsitatearen oinarriak finkatu nahi zituen. Horretarako, amets urdin haren zorabioan, artean Argentinan zegoen baina etortzekoa zen Txomin Jakakortajarenaren eta Iparraldeko euskal kultur erakundeen laguntzarekin kontaktzen zuen³⁸. Ezaguna da gertatua: buruan sortutako esperantzak eta Batzarrean agindutakoak inoiz ez zirela gauzatu eta, oraindik okerrago dena, Guatemalako isolamendutik bizirik etorritako *Euzko-Gogoa*, Miarritzen hilko dela. Jokin Zaitegi kixoteak azkenean etsi egin zuen eta, buru-makur eta uzkur, igeri egiteko ur biziaren ezaz itotzen den arrainaren antzera, haren ametsak ere hantxe izoztu ziren.

Hegoaldeko erbestetuek Iparraldekoekin izandako kultur harremanetan, bada, ez zen sortu plangintza bateraturik eta, sortzeko esperantzak izan zirenean –Jokin Zaitegiren kasuan bezala–, huts egin zuen.

³⁷ Iztueta, P.: *Orixe eta bere garaia*, op, cit., 816-832.

³⁸ *Ibid.*, 976-981.

Iparraldeko idazleekin harremanak sendotzeko hurrengo ahalegin serioak Arantzazutik etorri ziren, bigarren belaunaldiko idazle-taldekoen eskutik. Ez da ahaztu behar hauek bazituztela adiskideak eta ikaskideak Donapaleuko komentuan bezala bertako euskaltzaleen artean, aspalditik aldizkariaren ibilbideari emanak zeudenak. Horregatik, *Jakin*-ek, aldizkari-liburuak eta liburuak argitaratzeari ekiten dion hirugarren aroan (1969-76), Iparraldearen kezka oso nabarmen agertuko du bere lanetan. *Jakin sorta*-k argitaratzen duen bere lehen liburua, *Ipar Euskal Herria* (1969) deitua, hain zuzen, bertakoek bertako gaiez egindako lehen lan monografikoa da. Liburukiak dakarren sarrean³⁹, Iparraldea eta Hegoaldea kultur mailako zenbait sailetan –zehazki aldizkari-lanetan, ikastoletan eta alfabetatze-plangintzan–, estrategia bateratua emateko proposamena dator. Lehen argitalpen honen ondotik, liburu-bilduma berean, hango literaturari buruko besteok etorriko dira: Aita Luis Villasanteren *Axular* (1972) eta *Axular-en hiztegia* (1973), Jean Hiriart-Urrutyren *Zezenak Errepublikan* (1972) eta Joseba Intxaustiren *Iraultzaren hildotik* (1972). Egia da, argitalpen horiekin eta segidan etorriko diren Juan Tartasen *Ontsa hiltzeko bidearekin* etas Junes Casenaveren pastoralekin, tradizio txiki bat irekitzen dutela *Jakin*-ekoek Iparraldeko euskal kulturaren. Baina argitalpen hauek, hango gizarte-egoera soziologikoaz diharduen lehen lan monografikoa eta Joseba Intxaustiren historikoa kenduta, besteak literaturaz ari dira. Zerbait egiteko kezka agertzen da, zerbait egin ere egiten da. Baina *Jakin*-en bidetik Iparraldeko kultur arazoetara heltzeko egiten den ahalegin honek ere huts egingo du. Eta halaxe egiten du, *Jakin*-en eragin-gune nagusia Hegoaldean kokaturik zegoelako, hementxe baitzeukan bere egoitza soziala eta bere argitalpen-politika ere bertatik zuzentzen baitzuen. Iparraldeko lankide batzuk une batez bereganatzea

³⁹ Hala dio: “Liburu honen esangura neurtuaz, eta planifikatze hori pittin bat bederen egokitzeko asmoz, zenbait proposaketa egitea bidezko iruditzen zait (...) Sekretu guzia hau da: mugaz haraindiko eta hemendikoen har-emanak sortu, ugaldtu, errotu eta planifikatu (...) Honen arabera, hiru mailatan ikusten dut, hasiera baten, gure kultura-lana” (“Atarian”, *Ipar Euskal Herria*, *Jakin* sorta, EFA, 1969, 6).

lortuko du, hori bai, baina ez da iristen Iparraldean bere kabuz jokatuko duen kultur talde iraunkorrik sortzera. Ez da gauzatzen, bada, zuzendaritzak agindutako elkarren arteko plangintza koordinaturik. Bigarren porrota.

Bigarrena: Iparraldeko gazteen sektoreari euskal kulturaren zego-kion lekua aitortzea.

Ikasle euskaltzaleen multzoa leku eske zetorren atzetik, zeina gehienbat "Mendeberri" elkartera hurbiltzen baitzen. Horiekin sarritan biltzen ginenez gero, gazte-sektore horixe genuen gogoan, hain zuzen, ondoko esaldi hau osatzerakoan⁴⁰: "Gauza bistakoa da, bestalde, gazteri bat dela ari iratzartzen Ipar eskualdean. Aski nabarmena da ikasle giroan hauen kultur iraultza baterako lehia. Seguraski ba luke multzo honek zer esanik, ez agian nun esanik".

Esan beharrik ez dago, noski, *Enbata*-ko belaunaldia aspalditxotik zetorrela gogor eta gogoz lanean. Baina horko euskaltzale sagaratuak, arestian esan bezala, Hegoaldera itzuliegiak zeuden bere kultur ekarpenetan. Horien ondoren, ordea, 1970. urte-aldera, beste gazte-andana ederra biltzen da Baionako "Mendeberri"n eta horiek euskal kulturara bideratzea izango da, besteak beste, *Zabal*-en asmoetako bat. Oso erdizka baizik ez zuen lortu, Mattin Lartzabal eta Beñat Oihartzabalez aparte, beste gazterik ez baitzen hurbildu haren orrietara. Baina talde hartatik hainbat dira egun kultur lanetan dihardutenak, idazten, edota euskal irakaskuntzan, edo herrigintzan.

Hirugarrena: Iparraldeko idazle-taldearen autonomia ziurtatzea.

Izan ere, Hegoaldeko produktzio-gintzaren ugaritasunak eraginda, Iparraldeko luma gehienak hara begira zeuden, hango kultur plangintzara plegatuak. Menpetasunezko egoera honek, funtsean, Iparraldeko idazleen ahulezia handitu besterik ez zuen egiten, bertan kultur dinamika propioa sortzea ezinduz. Kultur morrontza horri bukaera eman nahi zitzaion, ondoko aipuan datorren bezala⁴¹: "Besteak

⁴⁰ "Aintzin Solas", op. cit.

⁴¹ Ibid.

beste, Hegoaldeko produkziogintzaren ugaritasunak eskualde honetako ahuleziaren aintzinean paratzen gaitu. Izan ere, lumarik pizkorrenak denbora luzetxoan Hego aldera begira egon dira. Eta hango (Hegoaldeko) plangintza kulturalak hemendik zerbitzatzen ari izanak ez bide dio mesede handirik egin eskualde honetako kulturagintzaren azkartzeari”.

Laugarrena: Ipar Euskal Herriko kultur egileak egitasmo aurrerakoi baten aldeko langintzan elkartzeko tresnatxo bat bideratzea.

Izan ere, gauza nabaria zen idazleak erabat sakabanatuak zeudela, batzuk *Herria* aldizkariaren inguruan bilduta, eta beste batzuk, berriz, Hegoaldera begira. Bazegoen, egon, ezkerreko pentsamenduaren erne-muin izan zitekeen idazle-talde polita; baina, damuz, bakoitza bere aldetik zebilen, euskarazko plataformarik gabe eta, gainera, organo politikotetan murgilduta eta egunerokotasunean galduta. Horregatik, eskuinak bere astekaria zeukan bezala, ezkerrek ere berea behar zuela pentsatzen zen, pentsamendua lantzeko balio zezakeena. Xede hau jasotzera zetorren aipu hau⁴²: “Iparraldeko euskal kulturagileen indar sakabanatuak elkartu beharra gartsuki sentitzen du; honela, arian arian, bertako hutsune kulturalak betetzen zerbait egiten ahal da. Zerbait egin Herriarekiko gure helburu aurrerakoiak marxan jarri nahi badira, beharrezkoa bilakatzen da luma berrien eskuhartzea. Pentsakera aintzindarien bideratzeko eta luma berrien pizkortzeko, beraz, lanabes hautatua dateke kazeta hau”.

Bosgarrena: Ezker abertzaleari egokituriko pentsamendua askatasun osoz lantzea.

Honela, 3. zenbakiko hitzaurrean zehazten den bezala⁴³, Hegoaldean zentsura frankistak agintzen baitu eta Iparraldean, berriz, kleroaren eskuetan baitago euskal kultura, ezker abertzalearen pentsamendu bere-berea landu eta eginkizun horretan gutxienezko askatasunez jokatu ahal izateko giro egokia Iparraldean kausitzen zuen *Zabal*-ek

⁴² Ibid.

⁴³ *Zabal*, 3, 1973, 1.

une hartan: “Mugaz bestaldeko astekari ta agerkarietan ezin delakotz, gobernu-zentsuraren gatik... Eta mugaz hunaindikoetan (*Herria, Gure Herria, Otoizlari...*) apezten eskuetan direnez gain, hauen zentsuraren gatik!”

Hara hor arrazoiak. Laburtuz, Iparraldeko kultura landuaren mailan planteatzen zen arazoa, aitzinsolasean formulatua zetorrenaren arabera, bikoitza zela esan dezakegu: batetik, Iparraldeko idazle sagaratuak Hegoaldeko plataformen zerbitzura zeudenez gero, hemendik zuzenduak, alegia, horiek biltzea; bestetik, gazteak ere leku eske zetozenez gero, luma barreiatu horiek koordinatzea egitasmo bateratu eta autonomo baten inguruan.

Horregatik, kontuan hartuta 1936ko belaunaldikoek nola jokatu zuten Ipar Euskal Herrian, politikan bezala kulturari –beren plangintzak beti Hego Euskal Herrira begira eginez, alegia–, Ipar Euskal Herriaren nortasuna aintzakotzat hartu, bertakotzen saiatu eta, ahal zen neurrian, bertako belaunaldi gaztearekin batera lan egiteko amorratzen geunden. Eta lan egin, bereziki, bertatik eta bertakoentzat. Eginkizun hori betetzera zetorren, bada, *Zabal* aldizkaria. Hemengo idazle eta irakurleen lagunartean denetarik aurkituko duzu: intelektulak, ikasleak, ekintzaile politikoak, sindikalak eta kulturalak. Hone-lakoetan normala denez, mota askotako eta maila desberdinetako lan-kideak bilduko ditu.

Euskalduna eta bustia: Euskal Herritik mundura

Euskalduna, osoki euskalduna, hizkuntzaren zein gaien aldetik begiraturata. Euskal Herriko gaiak erabiliko ditu, egunero bizi dituenak. Euskal Herrian bizi dituen arazo politikoak, ekonomikoak, erlijiosoak, pedagogikoak, etab., izango ditu aztergai, beti ere alde aurretik onartuz euskal gizartea, herri menperatu bat den aldetik, egoera gatazkatsuan aurkitzen dela, interes kontrajarriak dituzten klase eta taldeetan zatitua dagoela eta, horrelako testuinguru soziologiko batean egonda, zail egiten zaiola kulturgintzari neultraltasunean babestea. Kulturaren esparru neutroa –inorena ez den hori, alegia–, inbokatu, inboketzen

da, baina nornahiren kultur lana, kultur praxira jaisten den une berean, nonbait kokatzen da. Euskal gizartearen izaera gatazkatsua espreski adierazia ikusiko duzu aitzinsolaseko pasarte honetan⁴⁴: “*Zabal*, Euskal Herria gizarte maila orotan deuseztatua den aldetik, herri zapaldu batek bizi dituen arazo kontrajarrietan lekuratzen da. Ezin izan daiteke neutroa”.

Zabal-ek, bada, gizarte-arazo bizi eta kontraesankor horietatik abiatuz, horien gainean egindako gogoeta-saioak eskainiko ditu. Atzerriko gaiak ere landuko dira, nazioarteko gizarte-mugimenduetara eta korrante berrietara aiduru egonez, baina, kanporako leihoa irekita edukitzean, beti etxe-barruko zokogune ilunak argitzeko xedearekin egongo dira horrela. Gainera, euskal arazo horiek kulturaren ikuspegiatik aztertuko dira. Aldizkariak bere geroko ibilbidean izango duen egitura zedarriturik dator jarraiko pasarte honetan⁴⁵: “*Zabal*-ek, kazetari dagokion egitura aldetik, ba du Euskal Herria kulturalki hezurtzeko bere bide bat. Hona hemen zein den. Lehenik Euskal Herria bera du gogoan. Hemen, eta Euskal Herria bere osotasunean harturik, egungo problemarik larrienak emanen dira, etxeko kontraesanetan lehertzen direnak hain zuzen ere. Gizarte mailako labe beroan girotzen diren gaiak oro izanen dira azter-bide eta kritika-bide: arazo politikuak, sozio-ekonomikuak, erlijiosoak, pedagogikuak eta abar. Ondoren, mundu zabalean xoko bat betetzen dugula jabeturik, nonahiko herrialdeetara hedatuko da gure jakin mina. Hemen gaurkotasuna luketen gaiak erabiliko dira: ideien gora beherak, gertakizunak, albisteak eta beste. Eta, azkenik, euskal kulturgintzako alorra landuko da. Euskaraz baka-rrik egindako alorra noski. Kritika aldetik joanen da batipat gure ikerketa. Hemengo egungo joerarik seinalagarrienak markatuko dira: literatur saioak, saiakerak, beste kultur agerpideak eta abar”.

⁴⁴ “Antzin Solas”, op. cit., 1 or. Kattalin Idiartek, aipatutako elkarrizketan, *Zabal* ez dela neutroa berresten du, esatean: “*Zabal* n’est pas neutre, mais reste ouvert au débat et accepte tous les textes que les lecteurs lui envoient soit en tribune libre soit en courrier des lecteurs” (*Enbata*, 340, 27-II-1975).

⁴⁵ *Ibid.*, 1-2.

Gaiak atalka zatitzean, *Zabal*-ek egitura berttua gorde izan du bere aurkibidean, goiko testuan datorren bezala, hiru sail garbiki bereiziz: a) Euskal Herriko euskal arazoak orokorrean, b) nazioarteko gai zabalak, c) euskal kulturari buruzkoak; azken saila, irakurleen txokoa, 4. zenbakitik aurrera agertzen da. Azken urteko hiru zenbaki inprimatuetan bakarrik galtzen da gaiak sailka aurkezteko sistema hau, horietan, inolako bereizkuntzarik gabe, denak multzo berean ematen direlarik.

Esan eta egin. *Zabal*-ek oso hurbiletik segitzen ditu nazioarteko gertakariak bezala etxekoak. Txile, Iran, Brasil, Guatemala, Indonesia, Grezia, Vietnam, Laos, Kanboia eta beste hainbat lekutako egoerak aipatu eta aztertzen dira. Euskal presoek eta hildakoek ere badute beren lekua, berdin euskal geografian ematen diren langile-borrokek. Hizkuntzaren sailean bezala ekonomian ere, zazpi probintzien arteko batasuna egin behar dela esaten da. Nolabait esateko, Euskal Herriaren kultur eta lurralde-batasunaren aldarrikapenak egin da geratzen dira.

Sozialista eta independentista

Euskal Herri menperatu batez aritu baikara arestian, zapalkuntza hori, jarraiko pasartean zehaztuko denez, bikoitza da: soziala eta nazionala. Horregatik, azken helburu gisa, *Zabal*-ek ere bere gogoetak sozialismoaren eta abertzaletasunaren erreferentzian egingo ditu, azken horrena independentismoaren zentzuan ulertuta: "Hori dela eta, eta aurrez onarturik herri eta gizarte zapalduetako askatasun bidean sozialismak eta abertzaletasunak egineko historiku bat betetzen dutela, *Zabal* kazetak bide hortarik abiatuz aztertuko ditu Herriarekiko bere ikusmoldeak. Eginik du jadanik bere hautapen kulturala".

Norbaitek galde dezake: baina zertara dator *Zabal* sozialismoa eta independentismoa errebindikatu eta lantzera? Ez ote zeuden lehenik ere pentsamendu-korronte horiek aski landuta euskal kultura eta politikan? Aztergai horiek aipatuak baziren, bai, baina ez behar adina, ezta ezker abertzalearen ikuspegitik begiratuta ere. Horregatik, *Zabal*-en landuko diren atal bizi eta aberatsenetako bat izango da gai jakin

horien inguruan idatzitakoa, askogatik emankorrena. Honek adierazten digu ezker abertzaleak bazeukala zer esana, baina ez non.

Zabal baino lehen, *Jakin* eta *Branka* aldizkariak ere sozialismoaren eta nazionalismoaren ideologian kokatu izan dira, hura hertsiki maila kulturalan, hau gehiago politikoan. Ez baitira biak ez izaera ez eduki berekoak, bakarka hartuta, ohar batzuk egingo ditugu orokorreki egindako zenbait baieztapen zehazkiago aztertuz. Euskarazko kultur aldizkarietan sozialismoak eta independentismoak tradizioz ez zeukatela pentsatzen genuelako, ezker abertzaleak bere gogoeta-lekua izan dezan, horregatik eta horretarako ere sortzen da aldizkaria.

Jakin-ek landutako gaien zerrendan, zehazki marxismoari, sozialismoari eta komunismoari buruzko bere ikuspegi orokorrean, aro desberdinak ezagutu ditu. Lehen aroa (1956-1961) ez zen batere proposa izan gai horiek ulertzeko, ez Elizaren aldetik, ez egoera politikoaren aldetik. Bigarren aroa (1964-69), hasierako tabu hura gainditu eta, komunismoarekin elkarrizketan hasten da. Epealdi honetan artikulu dezente agertzen badira ere, izan zuten oihartzunagatik, Rikardo Arregik eta Txillardegik 1967an argitara eman zituztenak aipatu behar dira. Hark zioen sozialismoa modan zegoela; honek erantzuten zion marxismoa modan egon zela. Joxe Azurmendik, berriz, marxismoak –bereziki, sobietarrak–, erlijioari egindako kritika aztertzen zuen. Sozialismoaz ezkerretik egindako gogoeta sistematikorik, ordea, ez da ematen. Gerrogo, 1968-69ko epealdi beroan, Euskal Herrian arazo soziopolitikoak, nazionalak, erlijiosoak, kulturalak, linguistikoak eta ideologikoak bere garraztasun osoan planteatuko direnean, hain zuzen, *Jakin*-ekoek garai hura ezker berriaren lekukotzat joko dute, aldizkariak orduan hartu baitzuen, batez ere, Karlos Santamaria eta Rikardo Arregiren mentu laikoa. Aldizkariaren orduko norabide editoriala ezaugarritzen duten elementuak honela deskribatzen dira⁴⁶: a) inperialismoaren eta kolonialismoaren kontrako eta herrien eskubideen aldeko aldarrikapenak egiten dira; b) ezker berriaren aldekoa eta sozialismoaren mezuaz kezkatua

⁴⁶ Elkar-lanean: *Jakin. 25 urte euskal kulturari*, *Jakin*, 21-extra, 1981, Arantzazu, 134.

agertzen da; c) Europaren eta Espainiaren mailan, federalismoa eskatzen da; d) erlijio gizatiarraren eta kristautasunaren eta jainkogabeen arteko elkarrizketa defendatzen da; e) ideologi korronte desberdinen aurrean, irekitasuna, euskal kulturaren europartasuna, kultura herritarrak eta herri-jakintza indartu beharra aldarrikatzen dira; f) euskara batu eta trebatuaren bidetik abiatzen da.

Hori da *Jakin* aldizkariaren jarrera ideologikoa. Nolakoa ote da Rikardo Arregirena? Eta nolakoa Karlos Santamariarena?

Rikardo Arregik, bere garaiko gazte politizatu gehienen antzera, bere burua ezker berriaren ezarri zuen, nahiz oso zaila den zehaztea ezker horren edukia. Haren pentsamendu politikoaren sintesia egin ahal baledi, eman izan diren interpretazioen arabera, badirudi esan litekeela, batetik, zorrozki kritikatu zituela esentzialismo-kutsua zerioten sozialismo eta nazionalismo-motak oro⁴⁷, eta, bestetik, harenean euskaltzaletasunak eta sozialismoak egiturazko batasuna osatzen zutela⁴⁸. Bizi izan balitz, euskaltzaletasunean oinarritutako ezker abertzalean bukatuko omen zuen. Dena den, sintomatikoa da haren hiztegiaren ez direla agertzen nazio-arazoari buruzko literaturan oinarritutakoak diren zenbait hitz: aberria, abertzaletasuna, independentzia, eta horrelakoak. Esaten denez, nahiago omen zuen “herria” hitza erabili. Bitxia benetan! Haren militantzia politikora bagatoz, berriz, EGItik zetorrela gauza jakina da. Baina bere burua non kokatua ikusten zuen, baldin nonbait ikusten bazuen, batere ez dakigu. “Felipismoaren” uretan murgilduta zegoela ere esaten zen. ETAren ez aldekoa ez kontrakoa zela esateak ere, rikardoazale askok dioten bezala, ez digu gauza handirik argitzen. Posibleago da, beharbada, alderantzizko hau formulatzea: Rikardo Arregik ez zuela ordezkatzeko ETA jatorriko ezker abertzalearen ikusmoldea, alegia.

Bestalde, *Jakin*-ek aterabide politikotzat proposatzen duen federalismo-sistema, Karlos Santamariaren pentsamendu politikoan oina-

⁴⁷ Rikardo Arregi. *Gizona eta garaia*, op. cit., 384-385.

⁴⁸ Ibid., 269.

rritzen dena da. Harentzat nazionalitatea, izan, herri baten nortasunak osatzen du eta nortasun horri eusteko, estatu federala da formula politikorik egokiena⁴⁹. Harentzat independentismoa ez da, beraz, aterabide posible bakarra, ezta egokiena ere euskal kasuan. Esan beharrik ez dago federalismoak ez duela tradizioz ezker abertzalearen historian.

Txillardegik eta bere taldekoek Belgikan 1965ean sortutako *Branka*-ren herentziak, aldiz, eragin zuzena izan zuen ezker abertzalearen sorrerarekin zein haren geroztiko garapenarekin⁵⁰. *Branka*-koen tesiak, honela laburbil daitezke: a) sozialismo humanista, pluralista eta autogestionarioa, eta b) fronte abertzale sozialista, EGI-Batasunarekin.

Beraz, Txillardegik, *Branka*-koekin batera, “sozialismo humanista” defendatu izan du betidanik. *Branka* aldizkaria bera, 1. zenbakian, “euskaldun sozialista” autoizendatu zen, pluralista eta autogestionarioa. ETA erakundea utzi ere, *Branka*-koek berek aitortzen dutenez, V. Biltzarrekoan⁵¹ (1967) joera marxista-leninista nagusitu zelako utzi

⁴⁹ Modu esplizitu batez, ondorio honetara iristen da nazio-arazoaren gainean 1978ko urtarrilaren 30ean emandako hitzaldi batean, dioenean: “Un Estado plurinacional no tiene por qué ser necesariamente un Estado federal, aunque, en general, ésta sería la forma que mejor pudiera convenirle. Creo —en efecto— que a España le convendría más la forma de Estado federal” (“La estructura política del Estado”, *Iglesia Viva*, 71-72, 1977, 462).

⁵⁰ Esan behar da, *Branka* aldizkariak 14. zenbaki atera zituela 1965-1972ko epealdian. Beraz, *Zabal* hurrengo urtean kaleratu zen, justu hura itzaltzean. *Zuzen* izenekoa ere kaleratu zuen. Belgikan sortu eta argitaratu zen 1971. urtea arte. Aldizkari honetako lehen lankideen artean egon zen Federiko Krutwig ere, baina honek bere azken artikulua 1967ko III-IV. zenbakian ematen du. Hain zuzen, urte honetan bertan sartzen da Krutwig ETA erakundean. Handik aurrera, beraz, *Branka*, bere V. zenbakitik aurrera, V. Biltzarren ondotik dimititu zutenen organoa izango da (Txillardegi, “Unas palabras de introducción”, *Branka*, I, Ediciones Vascas, Donostia, 1979, o/g.).

⁵¹ Honetaz hau idazten du Biltzar hartan presente egon zen Beltza lekukoak: “Han ziren (V. Biltzarrean, alegia) *Brankako*ak, sozialismo humanista nahi zutenak, espainolismoa marxismo-leninismoarekin identifikatuz, abertzaletasuna oroz gainetik emanez; hor ere aktibistak, Juan Jose Etxabe bezala, nazionalistak oroz gainetik, Cabrasen argudioak entzunak, borroka nazionalista areagotzeko marxismoa irentsi behar ba zen, prest, nahiz eta bigarren mailako gauza bezala kontsideratu...” (*Rikardo Arregi. Gizona eta garaia*, op. cit., 245).

omen zuten. Arrazoia, beraz, ideologikoa izan zen. Aldizkariak ez zuen onartzen marxismo-leninismoa, hau sozioinperialistatzat zeukalako⁵². Esan dezakegu, bada, haren helburu nagusienetako bat –obsesiboa esango genuke, baina ez arrazoirik gabe–, sozialinperialismoa borrokatzea izan zela⁵³. *Branka*-koek, 1971ko urte-bukaeran, mugimendu abertzale sozialista autogestionarioa sortzea pentsatu zuten, oinarriztat EGI-Batasuna hartuta⁵⁴. Berralgitalpenaren aurkezleak dakarrenez, aldizkari honek euskalduna, intelektuala eta aurrerazalea izan nahi zuen. Xedeok lortu ala ez, ezaugarri horiek zituen, beraz, aldizkari honen inguruan biltzen zen talde honek⁵⁵.

Ezker abertzalearen pentsamendua sortu eta garatu, gure ustez, ETArekin egiten da nola sozialismoaren bidetik hala independentismoarenetik. Zuzen ala oker azalduak izango dira, baina nazionalismo iraultzailean dute beren oinarri teorikoa bi kontzeptu horiek. Zentzu honetan, V. Biltzar Nagusian markatutako estrategia politikoa, egiazki erabakigarria izango da ondoko urteetan. Bi urteren buruan (1966-67) egindako Biltzar Nagusi honetan⁵⁶, hiru joera kontrajarri ziren: bata espainolista deitua, likidazionistatzat hartu izan zena; besteak biak, berriz, ezker abertzalekoak. Hiru joera eta, ondorioz, hiru talde zeuden. Lehen joera Patxi Iturriozen taldekoek idatzitako “Por una izquierda socialista revolucionaria” txostena defendatzen zutenena zen. Txosten hau ez zuten eztabaidatu ere egin eta, besterik gabe, talde horretako lau kideak erakundetik ohilduak izan ziren. Jose Antonio Etxabarrietak Biltzarrera aurkeztutako “Análisis y crítica del españolismo social-chovinista” txostenean egiten zitzaizen salakuntza zen, batetik, Espainiako erakunde politikoekin –zehazki, FLP edo ESBArekin–, harremanetan

⁵² Txillardegí, “Unas palabras de introducción”, op. cit.

⁵³ *Rikardo Arregi. Gizona eta garaia*, op. cit., 237-238.

⁵⁴ Txillardegí, “Unas palabras de introducción”, op. cit.

⁵⁵ “Hitzaurre”, *Branka-2*, 83.

⁵⁶ V. Biltzar Nagusiko lehen zatia 1966ko abenduaren 7an egin zen, Gazteluko erre-tore-etxean; bigarrena, berriz, 1967ko martxoan, 21etik 26a bitartean, azken hau Getariako jesuiten gogarte-etxean.

zeudela eta, bestetik, espainol sozialistak zirela, politikagintza legalitatean egin nahi zutenak⁵⁷.

“Felipeak” erakundetik Biltzar Nagusiko lehen aldian bota eta gero, bigarrengean “Grupo socialista” izenekoak –gero *Branka*-koak izango direnak–, gertatuko dira erakundetik kanpora, hauen sozialismo humanistari eta fronte nazionalari buruzko proposamenak ezetsi eta artxibatzeko erabakia hartu baitzen aldeko % 98 boturen bidez. Biltzar Nagusian nagusitu zen joera, bada, hirugarrena izan zen, hainbat ETAKidek elkarrekin idatzitako “Posiciones ideológicas” izeneko txosten berdean landua zetorrena⁵⁸. Baina gehiengo-talde honen ideologia jaso, Biltzar Nagusiaren bukaeran egindako “Agiria”n jasotzen da. Hor mugatzen da nazionalismo iraultzailearen edukia, esanez Euskal Herriaren aldeko askapen osoan bateraturik datozela iraultza nazionala zein soziala⁵⁹, biak, zeina Euskal Herri Langileak bideratuko baitu, gizarte-sektore horretan hauek sartuz: bertako euskal langileria

⁵⁷ Txosten honetan aztertu eta salatzen dira “Felipeen” tesiak, hauek, batez ere, *Zu-rik*-eko 42. eta 43. zenbakietan agertzen dituztenak, zeinetan jarraiko lau salakuntza hauek egiten baitira hitzez hitz: “a) ETAren reboluzio bidearen aurka espainolkeri eta legezalekeri rebisioa izatea; b) Realidadetik urruti dagon ideoloji sistema bati eustea; ETAren reboluzio joeraren aurka egotea; c) ETA’n azpikeriz sarturik eusko joeraren aurkako izatea; ta ortarako bere espainol sozialista izaera izkutatzea; d) Sozial-komenientzi joera berri bat sortzea; eta beraz, ETAren reboluzio joeraren aurka egotea” (*Euskadi Eta Askatasuna*, II, 1993, 251 or.). Egile honek berak, V. Biltzarrerako egindako txosten hartaz aparte, baditu beste lan batzuk eginak, ETAREN garai honetako norabidea markatzen dutenak: “Un planteamiento, un problema, una opinión” (1960), “Estudio histórico de Euskal Herria: 1939-1959” (1967-68), “Breve resumen de la historia de ETA” eta “Qué significa ser vasco”, azken biok 1968an idatziak (*Euskadi Eta Askatasuna*, II, op. cit., 274).

⁵⁸ Txostengile-talde honetan aurkitzen dira Julen Madariaga, Federiko Krutwig, Jose Maria Eskubi, Xabier Bareño, Jesus Mari Bilbao, Mikel Azurmendi eta Txato Agirre.

⁵⁹ Agiriko hirugarren eranskinean, dotrinan bezala emana dator nazionalismo iraultzailearen mugaketa, gaztelaniaz: “La Liberación Nacional del Pueblo Vaco es la liberación integral del Pueblo y del hombre vasco; es la negación total de una realidad actual opresora. Esa negación total sólo la puede efectuar el Pueblo Trabajador Vasco a través de su situación de clase explotada. Por eso, la lucha nacional del Pueblo Vasco es una afirmación socialista (Nacionalismo Revolucionario)” (*Euskadi Eta Askatasuna*, II, op. cit., 257).

eta inmigratua, lur-jabe txikiak eta maizterrak, nekazal langileria, burgesia txikia eta intelektualak.

ETAk V. Biltzar Nagusiaren inguruan lantzen duen euskal marxismo honek, marxista likidazionisten eta sozialista humanisten desbiderapenak xahutu eta gero ere, aita bat baino gehiago du. Etxabarrieta anaien lanek zedarritzen dute gehienbat ETArek ideologia nola V. Biltzarrerako egindako txostenean hala *Zutik* erakunde-organoaren erredakzioan. Biltzar Nagusiko bi jardunen arteko epealdian idatzi zituen Txabi Etxebarrietak *Zutik*-en 44. zenbakia, sozialismoa eta abertzaleen batasuna aldarrikatzen zuena⁶⁰, eta, halaber, *Zutik*-en 46. zenbakia, zeinetan, Maiatzaren Lehenak orokorrean eta Euskal Herrian sinbolizatzen duen langile-iraultzaren egitekoa azaldu ondoren, erreformismo soziala eta nazionala salatzen baitzituen. *Zutik*-en 47. zenbakia (1967), berriz, Jose Antonio Etxabarrieta anaiak idatzi omen zuen. Bi anaien ukitu ideologikoa hor dago, bereziki Euskal Herri Langilearen inguruan egindako teorizatze-saioa. Baina ez horiena bakarrik, zeren, lehen aipatutako “Agiria”n –euskal etnia, nazioa eta herria bezalako kontzeptuak mugatzen diren testu-zatian, zehazki-, nabarmen agertzen baita Krutwigen eskua, honen lanak lehendik eza-gutzen zituenarentzat bederen. Azkenik, aipatzekoa da Jose Luis Zalbidek (“K. de Zunbeltz”ek) Cáceres-ko kartzelan 1968an landutako “Hacia una estrategia revolucionaria vasca” lana, hurrengo urtean *Iraultza* izeneko lehen zenbakian argitaratu zena, zeinetan sostengatzen baita, ETAk, gainera datorkion zapalkuntza gainditu, sarturik dagoen isolamendutik atera eta bere etorkizun politikoa ziurtatu ahal izateko, “ekintza-zapalkuntza-ekintza” espirala martxan jarri behar duela, horretarako bere aktibismoa masa-ekintzetan oinarrituz. Nolanahi ere, honen ustez, gerrilarena borroka-taktika bat da eta, hala

⁶⁰ Langileria bakarrik da bi frontetako borroka hori bidera dezakeena: “Jakifia da, langile-taldea dagola osotara interesaturik euskal-sozialismoaz, bera bakarrik baitago joa gaurko kapitalismoaren bi esplotatze erataz: aberri menperatze eta giza-maila menperatzeaz” (*Euskadi Eta Askatasuna*, II, op. cit., 266 or.). Lan laburrak dira, saio antzera eginak.

izanda, ezingo baitu etsaiaren armada nazionala garaitu, azkenean, negoziaketaren bidea baizik ez da geratzen. Hementxe, puntu honetantxe, egiten du talka Federiko Krutwigek proposatutako zuzeneko eta aurrez aurreko estrategia militarren ikuspegiarekin⁶¹.

Aita asko edo gutxi izan, V. Biltzarraz geroztik Burgosko epaiketa arte, esparru teoriko berria finkatzen da ezker abertzalean: a) Euskal Herri Langilearen baieztapena egiten da, hau zentzu klasistan ulertuta, eta orobat, b) euskal nazioarena, hau zentzu etnikoan ulertuta; c) borroka-taktikari dagokionez, militargintza proposatzen da, baina honen egitekoaz irakurketa desberdina egiten da. Koloni ereduaren aldeko tesi batek –Krutwigek eta honen eskolakoek– zuzeneko estrategia militarra proposatzen duten bitartean, Euskadi koloniatzat ez daukatenek –Zumbeltzen ildotik– egokiagoa ikusten dute ekintza militarra Espainiako testuinguru espezifikora moldatzea. Gerora ere, 1970eko hamarkada-hasierako eztabaidetan, aldaki txiki batzuk gorabehera, bizirik segituko dute tesi hauek ia bere osotasunean. Halere, orokorrean nazionalismo iraultzailea deitzen zaion ideologia hau komuna izango zaio ezker abertzaleari eta hori izango da ETAREN jokabidea markatu-ko duena Espainian trantsizioari bide emango zaion arte bederen.

Maila teorikoan, zehazki nazio-arazoari dagokionez, Burgosko epaiketaren ondotik emango da berrikuntza ideologikoa, zeinaren arabera, independentziarena marxismo-leninismoaren ikuspegi klasikotik askatuz gero, aldarrikatzen baita sozialismoaren eta nazio-askapenaren

⁶¹ Lan honi bere kritikak egin zizkieten bai F. Krutwigek bai E. Lopez Adanek. Lehenengoak haren estrategia militarrean Régis Debray-ren ikuspegia ikusten duelako kritikatzeko du, zeinaren arabera gerrillaren bidez ezingo baita garaipen militarrik lortu; E. Lopez Adanek, beste ETAKide batzuekin batera, 1969ko abenduan, bi barne-txosten aurkeztu zituen, “Notas para una teoría del nacionalismo revolucionario” eta “A los revolucionarios vascos” izenekoak, eta hauetan Euskadiri koloni iraultzaren eredu aplikatzen zaion aldi berean, esaten da Iparraldeak 1789an eta Hegoaldeak 1839an armen indarrez galdu zutela beren independentzia. Puntu honetan, jakina, Federiko Krutwigen ikuspegi bera sostengatzen zuen (*Euskadi Eta Askatasuna*, III, op. cit., 36-38). J. L. Zalbidek, 1969an egindako berragitalpenean, “Fines y medios en la lucha de liberación nacional” izeneko lanarekin osatu zuen aurreko urtekoa.

xedeak nazio menperatuetakoz langileriak eta klase herritarrek zuzendutako borrokaren bidez lortu beharrekoak direla. Estrategia politikoa hau, jakina, asko urruntzen da, erabat, alderdi komunistek Mendebaldeko Europan daramaten politikatik.

Zabal-ek ere, ezker abertzalearen tradizio berri hori hartuta, Euskal Herriak bizi dituen arazo horiek, nazionalak zein nazioartekoak, nazionalismo historikoaren kontrakarrean, ezker abertzale berriak Euskal Herri osoaren askapen-mugimendua independentismoaren eta sozialismoaren ikuspuntutik begiratuta aztertzea hautatzen du, gehienbat ildo horretatik, baina, beti ere, gogoeten mailan dogmakeriaren kateak hautsiz. *Zabal*-ek, bi ezaugarri hauek bere egitean, gogotak maila hertsiki politikotik maila akademikora aldatu nahi ditu, hemen, izpiritu kritikoz baina positiboki, esparru zabalago batean eztabaidatu eta areago landu ahal izateko. Hori zen asmoa. Lortu zuen ala ez, besterik da.

Autonomia eta kritikoa

Bere iritzietan ez dela neutroa izango esaten duen aldi berean, edozein alderdi edo mugimendu politikorekiko, *Zabal*-ek bere autonomia osoarekin jokatu duela abisatzen da argi bezain garbi⁶²: Jomuga nagusi horren ildoan (sozialismoarenean eta independentismoarenean, alegia) ez da izanen aurrez ezarritako mugaharirik, idazle bakoitzak bere kontura ezarriko duena besterik. *Zabal* ez da mugimendu politiku batetako, elkar-hizketan landutako pentsakera aniztasuna onartzearen fruitu baino”.

Autonomiarena hain funtsezko elementua zitzaidan, ezen aitzin solas horretan ezin garbiago adierazia baitator aldizkariak edozein alderdi edo mugimendu politikotatik aske behar zuela izan, eta aske pentsamenduaren zein antolaketaren mailan. Bietan. Jokin Apalategi

⁶² Ibid.

Paristik Iparraldera etorri zenean 1973ko udan, bertan geratzeko asmotan, berehala jakinarazi nion, Hazparneko "Eulategi" etxean, zein zen nire ikuspegia puntu horretan. Eta biok, bakoitza bere jardueramundutik, bat etorri ginen aitortzean kulturgintzak bere esparru autonomoa behar zuela, osoki autonomoa. Izan ere, edozein erakunde-mailetan kontrol-sistemak nola funtzionatzen zuen ezagututa, uste izatekoa zen *Zabal*-ek ere, puntu horretan salbuespen izan gabe, ehiza ibiliko zuela bere inguruan. Urtebete pasa orduko, autonomi arazoak biziki harrotzen baitira *Zabal* aldizkariaren inguruan, beronen lekua zein den gogorarazten da berriro zuzendaritzatik 7. zenbakiko aitzinsolasean⁶³: "*Zabal* agertzen da baitezpadako aldizkari bat, bakarra bere mailan, Euskadi guziari idekia. *Zabal* da azterketako aldizkari bat, ideien mailan bai ekonomia, sozial, politika edo kulturako ideietan. Sobera intelektuala dela, gehienik egina izan zaion kritika da. Ideien mailan da beraz intelektuala eta hori izan nahi du, bainan ez du erran nahi 'intelektual' klase hetsi bati mintzo dela (...) *Zabal* ez ditake izan nehola ez talde politiko baten tresna. Erakunde politikari buruz, etorri zauzkigu zenbait lan. Hortakotz azken bi zenbaki hauetan sail ideki batean agertarazten ditugu horrelako lanak. Geroari buruz ez ditugu behar bada beti agertaraziko etortzen zauzkigun lan guziak edo agertarazten baditugu, eginen dugu nahi dugun neurrian. Beraz talde politikoek sor ditzatela beren ideien zabaltzeko behar diren tresnak (...)".

Zabal-ek zergatik berresten duen bere autonomia, eta hain modu esplizituan berretsi, maila intelektualean bezala politikoa? Erantzuna beste nonbait sakonduko dugu, baina aurrera dezagun oraingoz hauxe: aldizkariak bere buruarentzat aldarrikatzen duen autonomia hori, baldin kontuan hartzen bada ETAK oraindik garai hartan lau fronteak –politikoa, militarra, kulturala eta langileena– bateratuta zeuzkala, bere garaian erabaki historikoa hartu zela iruditzen zaigu, zeren gure inguruan, nik dakidala bederen, artean ez baitzen egin horrelako plan-teamendurik eta gutxiago praktikara eramán. ETAREN historian, jakina

⁶³ *Zabal*, 7, 1974, 1-2.

denez, lau fronte horien adarkatzea pixkanaka egin zen, langile-frontearen eta politikoaren kasuan, gainera, haustura mingarrien bidez egin ere; maila kulturalean, ordea, aldizkaria kontrolatzeko asmoak egon ziren, baina berak bere bidea egiten segitu zuen, tartean inolako etenik gertatu gabe. Honetaz irakurtzekoa da *Zabal*-eko 5. zenbakian datorren artikulua, "Kultur mugimenduaz ikuspegi politiko bat" (1974) izenekoa, zeinetan usmatzen baita ETA erakundeak bere kontrolpean nahi zituela *Zabal* aldizkaria eta elkarte honen babesean bide-eratzear zegoen *Irati* argitaletxearen egitasmo osatzailea. Artikulu horren inguruan harrotzen den eztabaidaren edukia ezagututa, hobeto ulertuko da zertara datorren arestian aipatutako hitzaurre hori.

Hitzaurre labur horretan, bada, pildoran bezala, ideia asko datoz emanak, trinko eta garbi. Asmatu ala ez, orduko kultur giroaren lekukotasuna islatzen dute eta, zentzu honetan, hor idatzitakoek badute beren garrantzia, oinarrizkoa delakoan bainago gure inguruan mugitzen zen euskal kulturako sektore baten historia osatu eta ulertu ahal izateko. Eta hemen "gure" diodanean, ez diot *Branka*, edo *Jakin*, edo besterik. Soilki diot *Zabal* eta bere mundua, ez luzago ez laburrago, euskal kulturaren bere lekua bilatu eta egin zuena.

Aitzinsolasetan finkatu ohi da aldizkari baten politika editoriala, bereziki ideologikoa. Harritzekoa bada ere, hamar zenbakietan ez dator hitzaurrerik⁶⁴; beste guztietan, bai. Eta hauetan, aldizkariaren autonomiaz diharduen 9. zenbakikoan izan ezik, ez da lerro berezirik finkatzen politika editorialean. Barruan zein gai jorratzen diren aurkeztera mugatzen da. Beraz, aldizkariaren autonomiari buruzko arazoa sortuko delarik, 9. zenbaki horretan 1. zenbakiko aitzinsolasean finkatutakoa berretsi besterik ez da egingo. Arazoa lehendik bazatorren ere, eztabaida 1974ko ekainean plazaratu zen. Urte-bukaerarako kalean zen *Hitz* bihilabetekariaren 1. zenbakia, Mugalde moldiztegiak Hendaian inprimatua, dotore eta argazki ugariz hornitua.

⁶⁴ *Zabal*-eko 2, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15 eta 16. zenbakietan, hauetan zehazki, ez dator hitzaurrerik.

HAMABIGARREN ATALA

EMAITZAK

Aurreko bi ataletan *Zabal* zergatik eta nola sortu zen, zein xede zituen, eta horrelako puntu historiko batzuk deskribatzen aritu gara. Hemen, haren testuingurua zehaztu eta gero, asmoak asmo, praktikan hark nolako emaitzak utzi dituen azaltzera pasatuko gara. Baina atal honetan emaitzen lehen hurbilketa estatistikoa bakarrik egingo da, edukien aztarketa beste baterako utziz.

Zabal-en testuinguru soziohistorikoari horrenbesteko lekua eta garrantzia eman eta gero, honezkero norbaitek pentsatuko zuen, agian, ez ote garen Bacon-en *phantasmata* antzeko zerbait eraikitzen ari izan, errealitatea desitxuratu eta geure barne-idoloak jainkotzen, alegia. Segidan emango ditugun zifrak ikusita, beroriek soilki bere gordinetan hartuta, normala iruditzen zaigu horrelako edo antzeko irudipenak izatea. Anormalagoa izango litzateke kontrakoa, zeren, azken batean, moldiztegian argitaratua eta normaltasunez gizarteratua izateko aukera azken urtean bakarrik izan zuen aldizkari batek nahitaez mugatua baituke bere irakurleriaren baitan izan zezakeen eragin-indarra. Baina hark ukitzen zuen gizarte-ingurua arras jakin eta mugatua baitzen —ezker abertzalearen ingurukoa, alegia—, jarraiko datu hauek ezin dira bere hutsean irakurri, bezeri ekintzaile eta gaitu horren erreferentzian baizik. Landuko dituen gaiak, orobat, euskal abertzaleak hausnartzen dituenak izango dira.

Emanaldiak

Beheko taula honetan datoz *Zabal*-en emaitzak: lau urtealditan, 19 zenbaki argitaratu zituen, guztira 1.027 orrialdetako lan-bilduma osatuz.

17. taula: *Zabal*-en emanaldiak urtez-urte

<i>Urtea</i>	<i>Egoitza</i>	<i>Zenbakiak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Neurriak zentimetrotan</i>
1973	Baiona	4	232	26 x 18,5
1974	Baiona	6	346	26 x 18,5
1975	Baiona	5	221	26 x 18,5
1976	Baiona	4	228	20,5 x 12,5
4 urtealdi			1.027	

Zabal-ek "offset" izeneko tresna berri baten bidez argitaratu zituen zenbaki gehienak, 26 x 18 cm-ko formatu handian, orriko 48 lerrorekin eta lerroko 71 karaktererekin. Beraz, orri bakoitzeko 3.408 karaktere izango ditu. Demagun azken aroko *Jakin*-ek orriko 1.998 karaktere dituela; *Zabal*-ek, ia-ia bi halako. Azken hiru zenbakiak moldiztegian eginak izan ziren 20,5 x 12,5 cm-ko formatu txikiago batean.

Hasierako asmoa bi hilabetez behin argitaratzea zen. Xede hori, ordea, 1974an bakarrik kunplikatu ahal izan zen. Hasieran bostehun aleko tirada egin zen. Geroko eboluzioaren berririk ez dugu.

Kultur ekarria

Aurreko atalean esan bezala, *Zabal*-ek, gaien sailkapenari dago-kionez, bere egiturari eusten dio. Guk ordea, artikulua gaien arabera banatu eta zenbatzerakoan, aldizkariak dakarren banaketa laukoitza utzita, sailkapen-sistema estandarizatua erabiliko dugu, metodo zien-

tifiko honek, beste hamaika aplikazioen artean, neurketa konparati-
boak egin ahal izateko modua eskaintzen baitu.

Zabal-ekoen ekarpen intelektuala –18. taulan zehaztua datorre-
na–, lau urtealditan egina izateko, ez da batere hutsala: 251 titulu argi-
taratzen dira, horietako batzuk artikuluko-eritzi sotil bat baino gehiago
saio mardulak direnak. Baina taula horretan nabarmentzekoak, batez
ere, bi alderdi dira. Lehenik, sailen zutabean, ohartzen gara Gizarte-
Zientzietan sekulako urratsa ematen dela, Soziologiaren sailen berezi-
ki, artikuluen % 54,18 sail horretakoak baitira. Bigarrenik, atseginez
egiaztatzen da nola lantzen diren gai berriak era sistematiko batez.
Honela, irakaskuntzak, feminismoak, ekologiak eta beste sail batzuk
trataera berezi eta autonomoa dute *Zabal*-en eta, zentzu honetan,
aitzindari bihurtzen da. Bi ezaugarri hauek, *Euzko-Gogoa*-rekin nahiz
bere aurreko beste kultur aldizkariekin konparatuta, nolabaiteko berri-
tasuna dakartenak ditugu.

18. taula: Artikuluen sailkapena gaien arabera

<i>Sailak</i>	<i>Tituluak</i>	<i>%</i>
1. Soziologia	136	54,18
– Politikaren soziologia	106	42,23
– Kulturaren soziologia	21	8,36
– Lanaren soziologia	9	3,58
2. Literatura	27	10,75
– Poesia	23	9,16
– Besterik	4	1,59
3. Irakaskuntza	24	9,56
4. Orotarik	24	9,56
– Liburu-kritikak	10	3,98
– Atarikoak	6	2,39
– Gai desberdinak	8	3,18

<i>Sailak</i>	<i>Tituluak</i>	<i>%</i>
5. Hizkuntzalaritza	13	5,17
6. Ingurunea	9	3,58
7. Etnologia: feminismoa	8	3,18
8. Erlijioa	7	2,78
9. Zientzia Politikoak: ekonomia	5	1,99
10. Arte Ederrak	3	1,19
11. Kirolak	2	0,79
12. Besterik	4	—
	251	

Bestalde, prosa akademikoa da askogatik nagusi, ia absolutuki, zeren, horko taulan bigarren lekuan badator ere Literaturarena 28 titulurekin, hitz neurtuz idatzitako 28 orrialde horiek % 2,97 besterik ez baitute ematen (Ikus 8. eranskinean egileak eta tituluak). Era berean, itzulpenek leku gutxi dute: hots, orri idatzietan % 2,97 bakarrik, 8 titulurekin. Itzulpen hauek Mikel Urteagak eta Jokin Apalategik eginak dira, azken honek zentru nuklearren gainean (Ikus 9. eranskinean egileak eta tituluak).

Goiko datu horietan agertzen da ondoenik *Zabal*, izan, batik bat, pentsamendu-aldizkaria dela eta, neurri handi-handi batean, gai biziak lantzen dituela, eta landu, gainera, ez hartzaile edo informatzaile huts gisa jokatzuz —horrelakoak ere badira, noski, itzulpen-lanetan edo mol-daeretan gertatzen den bezala—, baizik eta arazoak nortasunez hausnartzuz. Luma ausart eta sortzailerik ez da falta *Zabal*-eko orrialdeetan.

Lankideak

Argitara emandako 251 tituluren sinatzaileak, guztira, 68 dira. Horietatik 34 lankideren izen-abizenak ezagutzen ditugu, beste 25eko

zerrendak oraindik bere izenordeekin segitzen duen bitartean (Ikus 10. eranskinean lankide guztien zerrenda eta tituluak). Denborak beteko al ditu guk zurian utzitako hutsuneak. Bestalde, fitxa biografikorik bete ez dugun arren, zerrendako lankideen erreposoa banan-banan egin eta gero, ageri da lankide gehienak gazteak eta helduak direla, hortxe 25-40 urte bitartekoak, eta gehientsuenak, halaber, unibertsitatean graduatuak.

Lankideen zerrendan Ipar eta Hego Euskal Herriko lankideak aurkitzen dira. Xedea ere, hasiera-hasieratik, bi aldeko lankideak batera aritzea zen. Esan dezakegu neurri handi batean lortu egiten dela xede hori, zeren 34 autore ezagutu horietatik, 14 Iparraldekoak baitira. Balantzak azken urtean egiten du nabarmenki Hegoaldekoen aldera.

Baina goiko datu hori osatu beharra dago, zeren lankidetzan, ez idazle-kopuruaren, baizik eta emankortasunaren aldetik neurtzen bada, orduan daukaguna da, 19. taulan datorrenez, lehen hamaika autore emankorrenen artean, berriro Iparraldeko eta Hegoaldeko idazleak parekatu samarrak datozela, baina oraingoan gehiago hangoak 6ko kopuruarekin. Idatzitako orrialdeen arabera, lehen bost oparoenak, hurrenez hurren, Jokin Apalategi, Jean Louis Davant, Mikel Urteaga, Paulo Iztueta eta Gexan Alfaro azaltzen dira, lehenengotik azken aipatura % 12,50etik % 6,76ra bitarteko tartearekin. Horietako gehienek, gainera, lankidetzan urtez urteko leialtasuna gorde izan diote.

19. taula: Lankide emankorrenak urtez urte

Lankideak	Orrriak		Urteak
	Kopurua abs.	%	
Apalategi, Jokin	122	12,50	1973-76
Davant, Jean Louis	115	11,78	1973-76
Urteaga, Mikel	92	9,43	1973-76
Iztueta, Paulo	69	7,07	1973-75
Alfaro, Gexan	66	6,76	1973-76
Odriozola, Jose Manuel	46	4,71	1975-76
Idiart, Kattalin	32	3,28	1973-75

<i>Lankideak</i>	<i>Orrriak</i>		<i>Urteak</i>
	Kopurua abs.	%	
Lartzabal, Battita	27	2,77	1973-74
Xarritton, Piarres	27	2,77	1973-76
Lartzabal, Mattin	23	2,36	1973
Sudupe, Jon	21	2,15	1975-76
Besteak	640	65,58	1973-76
Guztira	976 ⁶⁵		

Lehen atalean luze jardunak gara Iparraldeko eta Hegoaldeko idazleen artean, zehazki proiektu bateratu baten inguruan elkarrekin lan egiteari dagokionaren gainean, nagusitu izan den gaixotasun endemikoaz. Taula hauen edukia ikusita, esan dezakegula uste dugu euskal kulturaren historian lehen aldiz gertatuko zela seguru asko mugaz bi aldeetako lankideen artean horrelako lankidetzak orekatua ematea. Hala balitz, hala bada, lorpen historikoa izango genuke. Biziki poztekoa. *Euzko-Gogoa*-ri ezinezkoa egin zitzaiona erdietsiko du *Zabal*-ek.

Zabalkundea

Zabal Ipar eta Hego Euskal Herrian banatzen da. Iparraldeko geografia osoan zehar dauzka bere salguneak, zehazki, Hendaia, Donibane Lohizune, Baiona, Ezpeleta, Sara, Senpere, Azkaine, Hazparne, Donibane Garazi, Donapaleu eta Mauleko liburutegietan. Hegoaldean, azken urtean izan ezik, isilpean egiten da zabalkundea, eskuz

⁶⁵ Taula honetan 3. taulan baino 51 orrialde gutxiago agertzen dira. Hala da, zeren hemen marrazkiz osatutako orriak ez baitira kontatu, ezta publizitatekoak ere, artikuluko-orrialdeak baizik. Hemendik diferentzia hori.

esku, Jaka Auzmendi anaien bidez. Ahal bezala banatzen dira, bada, bostehun ale horiek. Baina tirada mugatukoa izan arren, *Zabal*-en oihartzunak berehala inarrostean ditu euskaltzaleen belarriak eta Iparraldean kultur erakunde bat izatera iristen da, bereziki, Baionako liburu-dendaren inguruan.

Zer da, bada, bostehun ale?, esango da arrazoi guztiarekin. Ezer gutxi, baldin *Jakin*-en 1969ko 1.000 harpidedunekin konparatzen bada⁶⁶; baina baldin *Euzko-Gogoa*-ren 1951ko 47 harpidedunekin konparatzen bada, asko⁶⁷. Eta baldin *Zabal*-ek banatzen ziren aleen ordaina jasotzen bazuen, berriz, oraindik askoz gehiago, zeren, *Euzko-Gogoa*-ren kasuan, kobratu ezinaren lantua askotan errepikatzen baita.

⁶⁶ *Jakin*. 25 urte euskal kulturaren, op. cit., 254.

⁶⁷ Intxausti, J., "Zaitegi eta *Euzko Gogoa*. Hamar urteko lana (1950-1959)", II, *Jakin*, 13, 1980, 112 .

HAMAHIRUGARREN ATALA

BIZIALDI AZKARRA ETA BUKAERA AZKARRAGOA

Zabal-en bizialdi laburrean, bai lankideen partaidetzaren bai ikuspegi ideologikoen aldetik begiratuta, bi aro garbiki bereiz daitezkeelakoan nago.

Lehen bi urteetan (1973-74) argitaratzen dituen hamar zenbakitan, zeinetan aldizkariak bere erroak botatzen baititu eta bere azpiegitura finkatzen, lankide gehienak –salbu bizpahiru idazle erbesterratu–, Iparraldekoak dira eta hauek orokorrean lekuko gaiak zuzen-zuzenean ukitzen dituzte. Gai desberdinen trataeran agertzen diren ikuspegiak ere, edozein korrante ideologikoren aurrean, aski zabalak dira, marxismoari buruzko irakurketan ekletikoak, baina horregatik jarrera kritikoa izateari uko egin gabe. Ikuspegi liberal eta ireki honen barruan sortuko da EHAS, *Zabal*-eko berotegi intelektualean, hain zuzen. Iparraldeko abertzaleen sozialismoak kutsu berezi hori du, bere-berea, jarrera dogmatikotik gutxi duena.

Azken bi urteetan (1975-76), Espainian frankismoa bukatzeaz dagoen eta trantsizioari hasiera ematen zaion epealdi honetan, Hegoaldeko euskal politikagintzan egoera berria sortzen da eta honek bere eragina izango du Iparraldean ere. Franko hil ondoko liberalizazio herabeak, hain zuzen ere, bere ondorioak ekarriko ditu Iparraldeko euskal errefuxiatuentzat, hauek asko orduan hasiko baitira etxeratzeko. Datu hau honela jasotzen du *Zabal*-ek 1976ko martxoko zenba-

kian⁶⁸: “Eta lehen ondorioa, gertatzen ari dela nornahik ikus daitekeena da: iparraldean genituen politik iheslarietatik andana batek bere herrira, bere etxera itzuli nahi duela, ahalbide bat eskainia izan baitzaio. Eta oraingoz, badira itzuli direnak. Ez dira, zorigaitzez ezin etxeratuz hemen geldituko direnentzat, denak joaiten ahalko, zeren mugida berri horren oraina eta geroa ere, ETAk hego aldean eramanen duen ekintzabideari hertsiki loturik gelditzen baita. Halere, politik iheslari multzo haundi bat bere herrira itzultzen ahalko dela badirudi”.

Hegoaldeko lankideen –bereziki gazteen– partaidetza, batez ere, azken epealdi honetan gehitzen da nola kopuruz hala intentsitatez. Jesus Maria Larrazabal, Jon Sudupe, Joxe Manuel Odriozola, J. R. Etxeberria eta abarren izenak, hauetako batzuk lehendik ere parte hartuz badatoz ere, orduan nabarmentzen dira gehienik. Aldizkariak ere orduan bereganatzen du marxismo-kutsurik gehien, marxista-leninisten harira. Louis Althusser urre-aroan dago Frantzia eta zale asko ditu gurean. LAIAren ideologia, hain zuzen, gehienbat marxismo-leninismo puruan oinarritzen da, eta EHASen antzera, hau ere, nolobait esateko, etxekoa da *Zabal*-en.

Gertatzez, 1976ko urtean bertan bukatzen da *Zabal* aldizkaria. Justu moldiztegi argitaratzen hasi zen urte berean. Zalantzarik ez da, politikan aldaketak gertatzean eta, honen ondorioz, euskal errefuxiatuak Iparraldetik Hegoaldera pasatzean, desegina geratu zen. Gero hemen, Hegoaldean, *Zehatz*-en bidez, Jesus Mari Larrazabalekin eta, *Zabal*-en herentzia jaso eta hari segida eman nahi izan zitzaion, baina asmoak oso bide laburra egin zuen⁶⁹. *Zabal* aldizkaria ondorengorik gabe geratu zen eta *Zabal*-kideak, berriz, bizirik, bai, baina sakabaturik, bakoitza bere aldetik. Hemendik etorriko da *Zabal*-eko idazleen

⁶⁸ “Iparraldean kultur olde berri bati buruz”, *Zabal*, 17, 1976, 18.

⁶⁹ Kultur proiektua lehengoaren antzeko samarra bazen ere, oraindik behar bezala zehaztu gabe dauden arrazoiengatik, aski berehala egin zuen porrot. Nolanahi ere, esan beharrik ez dago gizarte-testuinguru berri batean aurkitzen zela euskal kulturegintza: *Zabal*-eko lehengo lankideak ere barreiatuak zebiltzan, bakoitza bere bizibidearen bila, *Elkar*-en argitaletxe-interesak ere beste batzuk ziren, ez hasierako

eta *Elkar*-eko kudeatzaileen arteko etena, beste nonbait aztertu beharrekoa. Dirigismoak hain erro sarkorrak botatzen ditu okultismoaren hondoan, ezen *Elkar*-eko bazkide batzuk beren lanak non argitaratu ez dakitela geratzen baitira. Argialetxeak argitara emandako lanen bilduma ikusi besterik ez dago.

Nolanahi ere, *Zabal* desagertzearen arrazoiak azaltzea baita gure egitekoa, iruditzen zaigu goian aipatu den arrazoi politikoa –frankismoaren bukaera, alegia–, ez dela aski arrazoiak. Egia da, Franco hiltzean, euskal kultura lehengo klandestinitate-egoera hertsirik pitinka askatuz joan ahala, erbesteko baldintzak ere asko aldatu ziren eta, normala zenez, belaunaldi berriko euskaltzaileen dinamika erbestetik barrura aldatu zen. *Zabal*-en kasuan, Iparraldetik Hegoalderako ixuria beste inon baino argiago nabarmenduko da, haren azken urteetan, esana daukagunez, lankide gehienak Hegoaldekoak baitira. Beraz, aldizkariak hasieran ezarritako xede nagusienetakoa baitzen alde bietako idazleak bateratzea, ezin esango dugu, nahiz eta denbora aski luzez oreka mantendu izan, erabat bete zuenik bere ametsa. Bizitza laburregia izan zuen fruitu heldutzat hartua izateko.

Azken batean, *Euzko-Gogo*a-ren kasuan bezala *Zabal*-enean, bietan erabakigarri gertatzen da erbeste-egoerak euskal kulturgintzan ezartzen dituen muga politiko eta psikosozialak. Zaitegi bakarrik gertatu zen bere aldizkariarekin: bakarrik, Hegoaldeko bere belaunaldikoek bazter utzita eta belaunaldi berrikoak irabazi ezinda; bakarrik, PNVko bere alderdikideen laguntza ekonomikorik jaso gabe; bakarrik, Iparraldeko euskaltzaileen berorik gabe. Antzeko zerbait gertatuko zaio *Zabal*-i ere. Honek abegi ezin hobea izan zuen Iparraldean, hain ona, ezen bertakotzat hartua izan baitzen eta bertakoek sustengatua eta zuzendua. Hala izanik ere, ez zuen jarraipenik izan. Zergatik? Ez dugu

milante-izpituari zegozkionak, idazketa-taldearen antolakuntzak ere nolabaiteko prekaritate-egoeran funtzionatzen zuen. Horregatik, lankide-talde finko eta sendo gisa jokatzeko duenak egingo du aurrera. Eta horren adibiderik adierazgarriena, kultur aldizkariaren artean, *Jakin* aldizkariaren ordutik honako ibilbidea da. Horretara jarritako talde profesionaldu baten talde-lan jarraitua da azken honena, egonkortasunari eusten diona.

erantzun borobilik. Ziurrenik, halere, bertako gazteria bereganatzen jakin ez zuelako, bere inguruan bertako intelektualez osaturiko talderik osatu ez zelako. Beste behin, Francoren heriotzak, erbesteko euskaltzaleak Hegoaldera begira jarriko ditu.

Aldizkari biak, izan, erbesteko emaitzak ditugu hitzaren zentzurik hertsienean, giro horretan sortuak eta berorretan desagertuak, antzeko xedeengatik bideratuak eta antzeko arrazoengatik itzaliak. Erbestea bera da bien mugarik handiena eta, aldi berean, bien loturarik handiena.

HAMALAU GARREN ATALA

BI BELAUNALDIKOEN ARTEKO LOTURA ZAILA

Azkenean, bidean esandakoen gainean gogoeta zenbait egin eta ondorio batzuk ateratzeko garaia heldu zaigu. Horietako batzuk gogoeta hutsak dira, oroimenari hutsak kentzerakoan edota orduan idatzitakoak berrirakurtzean, besterik gabe, bururatu zaizkigunak. Boteprontoan doazkizu, etorri bezala. Beste batzuek, berriz, *Euzko-Gogoa* eta *Zabal*-eko emaitzak kontuan hartu eta, elkarrekin konparatuz gero, zertan datozen ados eta zertan ez azaltzera eramango gaituzte.

Kultur aldizkarien arteko emaitza konparatiboak

Zabal-ek euskal kulturgintzan egin duen ekarpena baloratu ahal izateko bide bat, izaera bertso edo antzeko beste kultur aldizkarietara konparatzea da, nahiz eta ez izan konparatzen direnak aldi kronologiko berekoak. Horrela ikusiko da zer duten batera, zer ez, batetik bestera nolako eboluzioa egon den, eta besterik. Xede honekin landu dugu 20. taula, zeinetan agertzen baita *Zabal*-en ekarpena zertan den berezia.

Taula honetako zutabe batzuetan hutsuneak daude, betetzerik ahal izan ez dugulako. Halere, bertan datozen datu solteen gainean, behin-behineko ondorio batzuk atera daitezke. Lehenengoa da, bera baino tradizio askoz luzeagoa duten *Egan*, *Jakin* eta *Euzko-Gogoa*-rekin

konparatuta, bistan da, *Zabal*-ek curriculum kaxkarra du: 4 urteko bizitza, 33 idazle –ezagutzera iritsi garenak– eta 1.027 orrialde besterik ez; *Euzko-Gogoa*-k, aldiz, 10 urteko bizialdian, 127 idazle eta 3.658 orrialderekin, hirukoiztu egiten ditu haren emaitzak. Bada aldea, beraz.

20. taula: Kultur aldizkari batzuen emaitzak

<i>Aldizkariak</i>	<i>Idazleak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Gai nagusienak ehunekotan</i>	
<i>Euzko-Gogoa</i> (1950-60)	127	3.658	Literatura	57,48
<i>Egan</i> (1948-77)		5.847	Literatura	57,02
<i>Jakin</i> (1956-69)	229	—	—	—
<i>Komentualak</i> (1950-74)	454	10.642	Literatura	23,02
<i>Zabal</i> (1973-76)	33	1.027	Soziologia	54,18

Baina kopuruak bakarrik ez du dena egiten, zeren hala balitz, komentu-aldizkariak gaineratiko beste guztiak errazki hirukoizten baitituzte. Zentzu honetan, *Zabal*-ek eskaintzen du besteek ez duten zerbait berezia, zerbait berria, eta da, euskal kulturaren lanketan, produkzio-sorkuntza ohiko literatur esparrutik soziologikora eramaten duela: *Euzko-Gogoa* eta *Egan*-en % 57,48 literatura zena, *Zabal*-en alderantziz gertatzen da, hots, % 54,18 dela soziologian kokatzekoa. *Zabal* da, bera batez ere, euskal kulturaren diskurtso akademikoan gogoeta soziologikoari lekuri gehien egiten diona eta, halaber, ezkerreko pentsamendu-korronteak etxeratzen eta bertakotzen aparteko ahalegina egiten duena. Paradigma-aldaketa bat dakar euskal kulturara, ezker abertzaletasunaren ikuspegitik egina. Beharrezkoa zena. *Zabal*-eko iturritik edanez freskatu du zintzurra hainbatek.

Bi belaunaldien arteko etena

Atalaren izenburuan “lotura zaila”, genion. Zaila ezezik, zenbait mailatan ezina ere gertatu dela esan beharrean gaude. Izan ere, *Euzko-Gogoa*-tik *Zabal*-erako bidean, etenak lotura adina edo gehiago dira.

Bat: Orduan, gaur bezala, kultur munduan murgilduta genbiltzanok ez genituen kultur egitateak ez begi berekin ikusten ez aztertzen eta, beraz, ezta ondorio berberak ateratzen. *Zabal*-en sorrerak eten bat zekarren, halaxe nahi baitzuen, eta, aldizkariaren beraren emaitzek frogatu ahal izan duten bezala, gertatzez hala gertatu da. Baldin kontuan hartzen bada belaunaldi bakoitzak zein gai landu dituen eta zein xede aldarrikatu, egiazko etenaren sintomak maila askotan egiaztatzen dira. *Euzko-Gogoa*-koak, orokorrean, euskaltzaleak dira eta abertzaleak, baina, kasu!, azken kontzeptu hau zentzu gehienbat autonomistan ulertuta. Politika-mailan kristau-demokraziari atxikirik daude eta konfesionaltzat dauzkate beren buruak. Guztien gaintik –liberal banaka batzuk salbu–, jeltxide garbiak dira. Maila sozialean, Elizaren doktrina soziala hartzen dute irizpidetzat, beti ere ongizateko estatuan oinarritutako neoliberalismoa onartuz. Guztiz alderantzizkoa da *Zabal*-ekoen *itinerarium* ideologikoa: akonfesionala, sozialista eta independentista. Eskuinetik ezkerrara dagoen aldea dago batetik bestera. Gizarte-eredu desberdinak irudikatzen dituzten bi mundu dira, euskaltzaletasunean izan ezik, beste oinarritzko hainbat puntutan desadostasuna erakusten dutenak. Eten hau, inon ageri bada, *Zabal*-en ageri da, kultur aldizkarien artean bederen.

Bi: *Zabal*-ek ez zuen suposatu bi belaunaldien –gerraurrekoen eta ondorengoen– arteko etena bakarrik, baita, ezker pluriformearen barruan, ETaren inguruko eta ez-inguruko artekoa ere. Eta binomio honek gaur arte iraun du, eta badirudi etorkizunean ere, puska batean, halaxe izanez segituko duela. Euskal ezker abertzalean zatiketa asko gertatu dira, desmemoriatu gehiegirentzat gehiegi, baina, ezkerreko zein eskuineko enbata guztien astinaldietatik zutik irauten jakin duen bakarra, ETA izan da. Batzuk bidea egiten hasi orduko desageru ziren: ESB, ESEI, EKIA. Beste batzuk, gobernu zentralak bere

laguntza guztia emanda ere, azkenean hauteskunde-bezerorik gabe geratu ziren. Hori izan zen Euskadiko Ezkerraren paradoera.

Hiru: Nahikoa da ikustea zein diren *Zabal*-eko lankideak eta zein ez. Hor funtsean, Parisko taldeko batzuk aurkitzen dira, edo gaude, eta Iparraldekoak. Atzerri-herrialdeetako beste euskal idazlerik ez. Eta agertzen direnean, eztabaida puntaletan parte-hartuz agertzen dira, kasurik gehienetan artikulatu batekin. Eta datu hau ere ulertzekoa da, bere barne-logika duena, zeren *Zabal*-ek, berau sortua izan zen tesuinguru ideologikoa kontuan hartzen bada, bere labaki intelektuala zedarrizten baitu, guztientzat irekia bai, “zabala” ere bai, baina lehenik eta bereziki sorrera eman zioten lankideentzat, beren gogoetak zein larretan egin ez zeukatenentzat. *Zabal*-ek horientzat goldetu zuen alor hura. Hori, bai, barrutia hesitu gabe.

Erbesteko ezkerreko kultur gile barreiatuen artean, asko arrazoi geografikoengatik, ez gutxi ideologikoengatik ere, batasuna ez da erabatekoa. Agian, familia abertzalean ikusmolde beretsukoak izanda ere, ez genuen sentikortasun politiko bera bizi. Horregatik, norberaren ibilbide historikoak eragindako bizipen eta sentipen desberdinen arabera, herrialde desberdinetan kokatutako idazle-talde bakoitzak antolatua zeukan bere argitalpen-mundua euskal kulturaren orbitan, gutxi-asko azalduak zeuzkan bere jarrerak. Euskal ezkerraren abanikoan, aukera ideologikoen zerrenda, akordioi-hauspoaren antzera, aski zabala da: marxismoa, sozialismo humanista, anarkismoa, eta besterik. Eta horietako bakoitzaren barruan, irakurketak mila dira, esateko modu batez. Marxismoaren barruan, adibidez, errusiarretik hasi eta txinarraino doana dago edota, halaber, humanismotik zientifikora hedatzen dena. Eta abar. Irakurri besterik ez dago *Zabal*-en bertan agertu eta landu diren ikuspegi desberdinak, beste nonbait zehaztasunez azalduko ditugunak. Behin eta berriro diogu: euskal ezker koloreanitzekoa izan da, eta da. Eta egile historiko askok egindakoa. Eta ikusten denez, orduko ikuspegiak egun ere produzitu eta erreproduzitu egiten dira. Azken hau bego, oraingo, geroagoko azterketarako bide eman lezakeen hipotesi gisa.

Lau: *Zabal*-ena, aldizkari soil bat sortzea baino areago zihoan beste kultur proiektu orokorrako baten barruan gogoeman behar da. Jadanik aldizkaria martxan jarria zelarik, *Irati* argitaletxea sortzearena buruan genebilkien. Lana zatika egiteak bakarrik banatzen zituen bata eta bestea kultur proiektu beraren barruan. Kultur proiektu oso bat zegoen pentsatuta, bere autonomia osoa behar zuena, euskal pentsamendua lantzerantz bideratua zegoena. Halakoak ziren jatorrizko ideiak. Geroak erakutsi digunez, ordea, zailtasun handiak sortu izan zaizkio bidean. *Zabal*-en bidetik *Irati*-rena martxan jarri orduko, kontrol politikoaren abisua etorriko zaio kanpotik; gero, *Irati*-ren hasierako proiektua Iparraldeko *Elkar*-en urtuko denean Hegoaldekoarekin bat egiteko, luzaro gabe administratzaileen kontrol ekonomikoa nagusituko da. Gaur arte.

Bi belaunaldikoen arteko antzekotasuna

Zabal-ek belaunaldien arteko etena inplikatu zuela esan da. Hau esatean, kultura landuaz ari baikara, *Euzko-Gogoa* dugu gogoan. Euskarazko lehen kultur aldizkari hau, Guatemalako lurraldean sortu zuen Jokin Zaitegik 1950ean, Euskal Herritik oso urrun, euskal girorik gabeko gizarte batean, erabateko bakardade pertsonalean. Labortegi batean produktu kimikoak sortzen diren bezalatsu. Eta berak bakarrik sortu zuen ekintza heroiko baten ondorioz. Lehen zenbakia ia osoki berak idatzia da abizen desberdinak erabiliz. Gero ingururatu ahal izan zituen munduan zehar barreiatuta zeuden erbesteko beste euskaltzaleak. Haren lankide hurbilekoenak Orixe eta Andima izan ziren. Eta horrela, asko kostata, Kixote haren buru ameslarian sortutako proiektu hark gorputz hartu zuen. Hor dago 1936ko belaunaldia ordezkatzeko duen euskaltzale-sektore handi baten —bereziki erbestekoa—ren — lana.

Zergatik dakargun hona *Euzko-Gogoa*-rena? *Mutandis mutatis*, *Zabal*-en sorrera-arrazoiekin antzik baduelako. Biak dira euskarazko kultur aldizkariak, pentsamendua lantzeko, zuzenean horretarakoxe, pentsatuak; biak dira Hegoaldeko erbestetuek sortuak, bata atzerri-atzerrian

eta bestea Iparraldean; biek bizitza laburra dute, batak hamar urtekoa eta besteak doi-doi laukoa, eta biak Iparraldean hilko dira, bata Miarrizten eta bestea Baionan. Bi aldizkari hauek, batez ere, erbestek berak uztartzen ditu, bera baita barrukoen eta kanpokoen arteko muga finkatzen duena, baita euskal kulturgintzaren bilakaera baldintzatzen duena ere. Barruko plataformek bertako erakundeen modu bateko edo besteko babesa dute eta beren bezeroak etxean bertan aurkitzen dituzte; erbesteko gehienak, aldiz, autofinantzatzerak behartuak daude eta, gainera, bezeroak basamortutik egin behar dituzte, klandestinitateari aurre eginez. Horregatik, frankismo-garaian egindako euskal kultura-barrukoa nahiz kanpokoa- erbesteko kulturgintza izan dela esaten denean, erbeste politikoaren oinarritzko izaera “barne-erbestea” deitu ohi zaionarekin berdintzen ari gara. Eta hau, jakina, kultur errealitatean sostengurik ez duen gehiegikeria hutsa da, forum akademiko batean lekurik izan behar ez lukeen topos literario bat.

Baina antzekotasunen ondoan, badituzte, lehentxeago esan bezala, beren desberdintasunak ere. Nabarmenena, bi belaunaldi desberdinetakoak izatearena, agian. *Zabal*-eko lankideok, gerratea ezagutu ez zuen 1960ko belaunaldikoak gaituzue, haien umeak. Oraindik zehatzago esanda: ETA fenomenoaren inguruan sortutako zapalkuntzaren erauntsiak erbestera bidalitako ingurunean ereindako haziaren landarea da *Zabal*. Baina, *Euzko-Gogoa* ez bezala, hura sortu eta hazi, Ipar Euskal Herrian egiten da, lankidetzan bi aldetakoek parte hartzen dutelarik. Eta hau guztia, bere gorabehera eta akats guztiekin, euskal kulturarentzat zerbait positiboa izan delakoan gaude.

Atea zabalik geratzen da saio berriak etor daitezten. Seguru gaude esatekoak gehiago direla esandakoak baino.

HIRUGARREN ZATIA

ERANSKINAK

1. eranskina: *Euzko-Gogoa*-ko lankideen izen-abizenak eta izenordeak

<i>Abizenak</i>	<i>Izenordeak</i>
Abando, Yon	Abandotarra
Abarrategi?	Ezezaguna
Agerre, Jose	Xabier
Agirrezabal, Andoni	
Aiton-Zar	Ezezaguna
Aitzorrotz	Ezezaguna
Akesolo, Lino	Zubero' tar A; Lizarrazpi
Albitsu' tar, J.	Ezezaguna
Aldabe, Joakin	
Altube, Sebero	
Altuna, Patxi	
Alzola, Nikolas	Bitafio; Oxinodo'ko Txoria; N.A.G.
Alvarez Enparantza, Jose Luis	Txillardegi
Ametzaga, Bingen	
Andonegi, Ziriako	
Apalategi, M. A.	Sabiaga
Arana, Sabino	†
Aresti, Gabriel	
Argarate, Erraimun	
Arymbat, Aita	
Ariztieta	Ezezaguna
Arostegi, Yokin	A' tar Yok
Arozena, Andoni	A-Bi
Arrese, Emeterio	†
Arriandiaga, Imanol	†
Arrue, Antonio	

<i>Abizenak</i>	<i>Izenordeak</i>
Arteaga, Lorentzo	Artega
Artola, Fernando	Bordari
Astigarraga, Andoni	Sorginpikoeta
Atarpe	Ezezaguna
Aurre-Apraiz, Balendin	Aurrantz; Agerrekoa
Axeriko?	Ezezaguna
Aiestaran, Sabino	
Azpeitia, Julene	Arritokieta
Barandiaran, Gaizka	Aranargi; Aitzarte
Barandiaran, Jose Migel	
Batiz, Bizente	Xalokin
Baztarrika, Jakoba	
Beiztegi, Jon	
Berasaluze, Sabin	
Bereziartua, Iñaki	
Bertzek	Ezezaguna
Bibao, Felix	Aizkorri
Bilbao, Jon	
Bordagaray	Ezezaguna
Bustintza, Ebaristo (Kirikiño)	†
Diharce, Xabier	Iratzeder
Dornaku, Erraimun Miren	Aita Bera
Egaña, Gotzon	Antxeta; Iradi'tar Adaro
Egiluz, Andima	
Emakume batek?	Ezezaguna
Erdozeintzi, Manex	
Erkiaga, Eusebio	
Errazti, Klaudio	Etxakin
Errexil	Ezezaguna

<i>Abizenak</i>	<i>Izenordeak</i>
Errezola, Joseba	
Errutza Egia, Mikel	
Etxaide, Jon	Aldapeko; Etxaitar; Zelai; Uarrain
Etxaniz, Nemesio	Amilaitz; E'tar N.
Etxeberria Tolosa, Frantzisko	Abalegiko, P.; E. Tolosa; Utsa; Ibiltari
Etxeberria, Toribio	Arratetiko bat
Etxegoiena	Ezezaguna
Euskaltzaleak	Ezezaguna
Euzko-Gogoa	
Forkada, Mark	
Galarraga, Joxe	
Gametxo, Erraimun	
Gandiaga, Bitoriano	Orbelaun
Gar	Ezezaguna
Garaialde, Jose Manuel	Jose Errota
Garate, Gotzon	
Garate, Justo	Eneko Mitxelena
Garde, Markelin	
Garmendia Kortadi, Jon	Zeleta
Garriga, Gabino	
Gaztañaga, Jesus	
Gazte'k	Ezezaguna
Goikoetxea, J. Inazio	Bordatxuri
Goikoetxea, Jon	Iru-Garate
Goiria, Jose Antonio	Goiria
Gorostiaga, Joanes	
Ibargutxi, J. K.	

<i>Abizenak</i>	<i>Izenordeak</i>
Ibargutxi, Miren Arrate	Miren A.
Ibinagabeitia, Andima	Elantxobe; Elentxun
Ilaunbe	Ezezaguna
Insausti, Josu	Uzturre
Inurrieta, Engrazi	Sagar-Erreka
Irigoién, Alfontso	Edozein
Iriondo, J. M.	
Irizar, Peli	
Iturria, Karmelo	
Iturrioz, Antonio	
Ixilki	Ezezaguna
J. M.	Ezezaguna
Jakakortajarena, Txomin	Arabagu
Jauregi, A.	Julibe
Jauregi, Koldobika	Jautarkol
Jauregiberri	Ezezaguna
Jemein, Zeferino	Belandia, Jadarka
Juaristi, Mikel	Izarraitzpe
Kapanaga, Bitor	
Kerexeta, Jaime	Arantzibia
Krutwig, Federiko	
Labaien, Antonio Maria	Aspaldiko; Ibalan; Ibargi
Laffite, Piarres	Ithurralde
Langile batek	Ezezaguna
Larrakoetxea, Bedita	
Larrañaga, Gilermo	A.; Azkoiti
Laspiur, Imanol	Laztarri; Maitale
Leizaola, Jesus Maria	
Lekuona, Joan Maria	Oianburu

<i>Abizenak</i>	<i>Izenordeak</i>
Lekuona, Manuel	B; Berrospe; Lizarrazpi
Lizarribar	Ezezaguna
Lopez Mendizabal, Isaak	
Loramendi	†
Mendiola, Imanol	
Miner, Agustin	Zaloña
Mirande, Jon	Jon Chao
Michel Bihar	Ezezaguna
Mitxelena, Salvatore	Abendats; Egarin; Tailamendi
Mix eta Garai, Yon	
Mokoroa, Justo Maria	Ibar
Monzon, Telesforo	Menditarrak; Otea
Mujika, Luis Maria	Otsabio
Muxika, Plazido	
Oiartzabal, Martin	O'dar Martin
Olabeaga, Iñaki	
Olabide, Erraimun	†
Onaindia, Santiago	Otarri
Ormaetxea, Nikolas	Orixe
Peillen, Txomin	Andoze'ko Txomin
Peña, Xabier	G.E.A.
Sabindiar Batza	
Sagastune, Luis	Txintxarri
Salaberry, Etienne	
San Martin, Joan	Otsalar
Sarasola, Koldobika	Satarkol
Sarobe, Frantzisko	Amayur
Sorrarain, Antonio	Ameslari
Tauer, Norberto	

<i>Abizenak</i>	<i>Izenordeak</i>
Tx.	Ezezaguna
Tx'tar Txabi	Ezezaguna
Txinaurri	Ezezaguna
Ugarteburu, Jose Luis	Ugarrieta
Unzueta, Sorne	Utarsu
Urrestarazu, Antonio	U.; Gazteiztarrak
Urrutia, Gotzon	Gotzon
Urruzola, Estanislao	
Villasante, Luis	
Zaitegi, Jokin	Arrasate; Udalaizpe; Artzai; Ibarzabal; Izurtza; Etxetxo; Urizar
Zarate, Pio	Pasionista batek
Zarrantz, Agustin	Aita Iraizoz; I'tar Xabier; Xabier Irisarri
Zatarain, Ambrosio	Basati
Zerio, Faustino	Biurko
Ziartsoro, Manuel	Abeletxe
Zinkunegi, Joseba	
160	

2. eranskina: *Euzko-Gogoa*-ko prosista oparoenak orrialdeka

<i>Idazleak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Ehunekatotan</i>
Zaitegi, Jokin	570	17,29
Larraikoetxea, Bedita	281	8,52
Ibinagabeitia, Andima	204	6,19
Ormaetxea, Nikolas	175	5,31
Etxaide, Jon	94	4,76
Labaien, Antonio Maria	76	2,30
Larrañaga, Gilermo	75	2,26
Urrestarazu, Andoni	73	2,21
Etxeberria, Frantzisko	65	1,97
Garmendia, Jon	59	1,79
Salaberry, Etienne	58	1,76
Sorrorain, Antonio	57	1,72
Kerexeta, Jaime	57	1,72
Onaindia, Santiago	54	1,63
Ametzaga, Bingen	48	1,45
Etxaniz, Nemesio	44	1,45
Mirande, Jon	48	1,45
Lekuona, Manuel	44	1,33
Ormaetxea-Oiartzabal	35	1,06
Urrutia, Gotzon	34	1,03
Insausti, Yosu	32	0,91
Villasante, Luis	29	0,88
Jemein, Zeferino	28	0,84
Argarate, Erraimun	27	0,81
San Martin, Jon	26	0,78
Oiartzabal, Martin	25	0,75
Leizaola, Jesus Maria	23	0,69

<i>Idazleak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Mendiola, Imanol	23	0,69
Barandiaran, Gaizka	22	0,66
Iturria, Karmelo	20	0,60
Tauer, Norberto	20	0,60
Beiztegi, Jon	17	0,51
Sarobe, Frantzisko	17	0,51
Zaitegi-Ibinagabeitia	17	0,51
Zarate, Pio	16	0,48
Altzola, Nikolas	15	0,45
Altube, Sebero	14	0,42
Arriandiaga, Imanol	14	0,42
Arrue, Antonio	14	0,42
Mitxelena, Salbatore	14	0,42
Aurre-Apraiz, Balendin	13	0,39
Bilbao, Jon	13	0,39
Laffite, Piarres	13	0,39
Juaristi, Mikel	13	0,39
Mujika, Luis Maria	11	0,33
Krutwig, Federiko	11	0,33
Zunzunegi, Joseba	11	0,33
Alvarez Enparantza, J. Luis	10	0,30
Barandiaran, Jose Migel	10	0,30
Bilbao, Felix	10	0,30
Kapanaga, Bitor	10	0,30
Egafia, gotzon	10	0,30
Aiestaran, Sabino	9	0,27
Zarranz, Agustin	8	0,24
Muxika, Plazido	8	0,24
Sarasola, Koldobika	8	0,24

<i>Idazleak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Iturrioz, Antonio	7	0,21
Errezola, Joseba	7	0,21
Jauregi, A.	7	0,21
Goiria, J.A.	7	0,21
Arozena, Andoni	6	0,18
Peillen, Txomin	6	0,18
Goikoetxea, Joan	6	0,18
Irigoien, Alfontso	5	0,15
Miner, Agustin	5	0,15
Gaztañaga, Jesus	5	0,15
Olabide, erraimun	5	0,15
Lekuona, Joan Maria	5	0,15
Garaialde, Joxe Manuel	5	0,15
Bereziartua, Iñaki	5	0,15
Baztarrika, Iñaki	5	0,15
Altuna, Patxi	5	0,15
Arostegi, Jokin	5	0,15
Garate, Gotzon	5	0,15
Ibargutxia, J. K.	5	0,15
Jakakortajarena, Txomin	5	0,15
Mokoroa, Justo Maria	4	0,12
Batiz, Bizente	4	0,12
Errutza Egia, Mikel	4	0,12
Erkiaga, Eusebio	4	0,12
Sabindiar Batza	4	0,12
Urruzola, Estanislao	3	0,09
Errazti, Klaudio	3	0,09
Ziarsoro, Manuel	3	0,09
Galarraga, Joxe	3	0,09

<i>Idazleak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Gorostiaga, Joannes	3	0,09
Arynbat, Aita	3	0,09
Berasaluze, Sabin	3	0,09
Abando, Jon	2	0,06
Akesolo, Lino	2	0,06
Agirrezabal, Andoni	2	0,06
Azpeitia, Julene	2	0,06
Egiluz, Andima	2	0,06
Garriga, Gabino	2	0,06
Diharce, Xabier	2	0,06
Laspiur, Imanol	2	0,06
Lopez Mendizabal, Isaak	2	0,06
Arrese, Emeterio	1	0,03
Garate, Justo	1	0,03
Forkada, Mark	1	0,03
Irizar, Feli	1	0,03
Mix eta Garai, Yon	1	0,03
Sagastune, Luis	1	0,03
Dornaku, Erraimun Miren	1	0,03
Euzko-Gogoa	1	0,03
122	3.295	100

3. eranskina: *Euzko-Gogoa*-ko poeta oparoenak lerroka

<i>Poetak</i>	<i>Lerroak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Mitxelena, Salvatore (Egarin)	2.078	11,85
Etzaniz, Nemesio (Amilaitz)	1.975	11,26
Ormaetxea, Nikolas (Orixe)	1.415	8,06
Aurre-Apr aiz, Balendin (Aurraitz)	1.400	7,98
Olabeaga, Iñaki	691	3,94
Mirande, Jon	655	3,73
Zaitegi, Jokin (Udalaizpe)	644	3,67
Iraizozkoa, Polikarpo (Irisarri)	526	3,00
Diharce, Xabier (Iratzeder)	480	2,73
Zerio, F. (Biaruko)	426	2,42
Jauregi, Luis (Jautarkol)	420	2,39
Agerre, Joxe	384	2,18
San Martin, Joan (Otsalar)	364	2,07
Kerexeta, Jaime (Arantzibia)	354	2,01
Etxeberría, Toribio	303	1,37
Jakakortajarena, Txomin	280	1,59
Aresti, Gabriel	238	1,39
Etxeberría, Frantzisko	235	1,34
Laspiur, Imanol	230	1,31
Batiz, Bizente	220	1,25
Gametxo, Erraimun	217	1,23
Onaindia, Santi	206	1,17
Erkiaga, Eusebio	187	1,06
Andonegi, Ziriako	177	1,00
Loramendi	156	0,88
Astigarraga, Andoni	147	0,83
Lekuona, Juan Mari	147	0,83

<i>Poetak</i>	<i>Lerroak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Salaberry, Etienne	141	0,80
Ilaunbe	132	0,75
Agirrezabal, Andoni	128	0,68
Arteaga, Lorentzo	122	0,61
Apalategi, M. M.	108	0,61
Goikoetxea, J. Inazio	108	0,61
Artola, Fernando (Bordari)	106	0,60
Krutwig, Federiko	103	0,58
Gandiaga, Bitoriano	99	0,56
Alzola, Nikolas	92	0,52
Muxika, Luis Mari	90	0,51
Mitxel Bihar	89	0,50
Garmendia, J.	73	0,41
Arriandiaga	73	0,41
Urkiaga, E. (Lauaxeta)	72	0,40
Langile batek	72	0,40
Aldabe, Joakin	72	0,40
Zatarain, Ambrosio	70	0,39
Jauregiberri	64	0,36
Bordagaray	64	0,36
Lizardi	64	0,36
Peña, Xabier	63	0,35
Arana, Sabino	56	0,31
Ariztieta	56	0,31
Erdozeintzi, Manex	56	0,31
Elizalde, K.	51	0,29
Urruzola, Estanislao	48	0,27
Abarrategi	48	0,27
Unzueta, Sorne	48	0,27

<i>Poetak</i>	<i>Lerroak</i>	<i>Ehunekotan</i>
Axeriko	47	0,26
Iriondo, J. M.	44	0,25
Gazte	41	0,23
Gaztañaga, Jesus	41	0,23
Inurrieta, Engrazi	40	0,22
Enbeita, Kepa	40	0,22
Monzon, Telesforo	37	0,21
Ugarteburu, Jose Luis	36	0,20
J. M.	32	0,18
Ixilki	32	0,18
Goiria, J. Antonio	32	0,18
Txinaurr	32	0,18
Tx'tar Txabi	32	0,18
Garde	29	0,16
Lizarribar	28	0,15
Gar	26	0,14
Bera, Erraimun	24	0,13
Arrate Ibargutxi, Mirena	22	0,12
Kirikiño	16	0,09
Labaen, Antonio Maria	16	0,09
Aiton-Zar	16	0,09
Leizaola, Jesus Maria	16	0,09
Ziarsolo (Abeletxe)	16	0,09
Ametzaga, Bingen	14	0,07
80	17.535	100

4. eranskina: *Euzko-Gogoa*-ko lankideen adina

<i>Lankideak</i>	<i>Jaiotze-data</i>
Abando, Yon	1885-02-08
Agerre, Jose	1889-12-29
Akesolo, Lino	1911-04-07
Aldabe, Joakin	1893-11-09
Altube, Sebero	1877-11-08
Altuna, Patxi	1927-09-08
Alvarez, Jose Luis	1929-11-08
Altzola, Nikolas	1927-12-30
Ametzaga, Bingen	1901-07-04
Andonegi, Ziriako	1912-03-16
Apalategi, M. A.	1901-06-13
Aresti, Gabriel	1933-10-14
Argarate, Erraimun	1906-01-07
Arostegi, Yokin	1914-01-10
Arozena, Andoni	1907-05-30
Arrese, Emeterio	1869-03-03
Arriandiaga, Imanol	1876
Arrue, Antonio	1903
Arruza Egia, Mikel	1890-03-03
Arteaga, Lorentzo	1917-05-16
Artola, Fernando	1910-02-14
Arymbat, Aita	1926-06-18
Astigarraga, Andoni	1932-07-28
Aurre-Appraiz, Balendin	1912-11-03
Aiestaran, Sabino	1936-01-19
Azpeitia, Julene	1888-01-08
Barandiaran, Gaizka	1916-03-03

<i>Lankideak</i>	<i>Jaiotze-data</i>
Barandiaran, Jose Migel	1889-12-31
Batiz, Bizente	1907-12-23
Baztarrrika, Jakoba	1934-07-25
Beiztegi, Jon	1911-10-12
Berasaluze, Sabin	1935-01-01
Bereziartua, Iñaki	1935-01-09
Bibao, Felix	1932-02-29
Bilbao, Jon	1914-10-29
Diharce, Xabier	1920-01-04
Dornaku, Erraimun Miren	1878-08-09
Egaña, Gotzon	1920-04-27
Erdozeintzi, Manex	1934-07-15
Erkiaga, Eusebio	1912-08-04
Errezola, Joseba	1900-04-18
Etxaide, Jon	1920-03-27
Etxaniz, Nemesio	1899-12-19
Etxeberria Tolosa, Frantzisko	1900-04-23
Etxeberria, Toribio	1887-04-27
Galarraga, Joxe	1929-02-11
Gandiaga, Bitoriano	1928-10-08
Garaialde, Jose Manuel	1927-12-06
Garate, Gotzon Maria	1934-09-01
Garate, Justo	1900-08-05
Garde, Markelin	1925-10-02
Garmendia Kortadi, Jon	1898-03-21
Garriga, Gabino	1885
Gaztañaga, Jesus	1932-12-02
Goikoetxea, J. Inazio	1908-05-05
Goikoetxea, Jon	1913-05-08

<i>Lankideak</i>	<i>Jaiotze-data</i>
Goiria, Jose Antonio	1908-10-25
Gorostiaga, Joanes	1905-03-30
Ibinagabeitia, Andima	1907-01-26
Insausti, Josu	1912-01-11
Irigoiien, Alfontso	1929-11-14
Iriondo, J. M.	1938-06-10
Iturria, Karmelo	1923-02-04
Iturrioz, Antonio	1900-03-12
Jakakortajarena, Txomin	1906
Jauregi, Koldobika	1896-06-19
Jemein, Zeferino	1885
Juaristi, Mikel	1923-02-02
Kapanaga, Bitor	1925-10-15
Kerexeta, Jaime	1918-07-31
Krutwig, Federiko	1921-02-15
Labaien, Antonio Maria	1898-12-01
Laffite, Piarres	1901-05-21
Larrakoetxea, Bedita	1894-06-24
Larrañaga, Gilermo	1905-04-10
Laspiur, Imanol	1929-02-21
Leizaola, Jesus Maria	1896
Lekuona, Joan Maria	1927-11-11
Lekuona, Manuel	1894-02-09
Lopez Mendizabal, Isaak	1879-04-11
Mendiola, Imanol	1895-09-05
Miner, Agustin	1914-08-28
Mirande, Jon	1925-10-10
Mitxelena, Salvatore	1919-01-01
Mokoroa, Justo Maria	1901-05-28

<i>Lankideak</i>	<i>Jaiotze-data</i>
Monzon, Telesforo	1904-04-01
Mujika, Luis Maria	1939-10-10
Muxika, Plazido	1906-04-16
Oiartzabal, Martin	1892-11-10
Olabeaga, Iñaki	1901-10-14
Onaindia, Santiago	1909-03-24
Ormaetxea, Nikolas	1888-12-06
Peillen, Txomin	1932-11-17
Peña, Xabier	1914-06-30
Sagastune, Luis	1906-05-29
Salaberry, Etienne	1903-02-18
San Martin, Joan	1922-06-23
Sarobe, Frantzisko	1906-04-21
Sorrarain, Antonio	1928-01-02
Tauer, Norberto	1898-06-06
Unzueta, Sorne	1900-11-27
Urrestarazu, Antonio	1902-07-16
Urrutia, Gotzon	1890
Urruzola, Estanislao	1909-12-13
Villasante, Luis	1920-03-28
Zaitegi, Jokin	1906-08-26
Zarrantz, Agustin	1897-01-31
Zatarain, Ambrosio	1912-09-27
Ziartsoro, Manuel	1902
Zinkunegi, Joseba	1886-04-29

5. eranskina: *Euzko-Gogoa*-ko lankideen sorterrria

<i>Lankideak</i>	<i>Herria</i>	<i>Herrialdea</i>
Abando, Yon	Bilbo	Bizkaia
Agerre, Jose	Iruñea	Nafarroa
Akesolo, Lino	Dima	Bizkaia
Aldabe, Joakin	Bera	Nafarroa
Altube, Sebero	Arrasate	Gipuzkoa
Altuna, Patxi	Azpeitia	Gipuzkoa
Alvarez, Jose Luis	Donostia	Gipuzkoa
Altzola, Nikolas	Izurtza	Bizkaia
Ametzaga, Bingen	Algorta-Getxo	Bizkaia
Andonegi, Ziriako	Motriku	Gipuzkoa
Apalategi, M. A.	Ataun	Gipuzkoa
Aresti, Gabriel	Bilbo	Bizkaia
Argarate, Erraimun	Urretxua	Gipuzkoa
Arostegi, Yokin	Orio	Gipuzkoa
Arozena, Andoni	Lasarte	Gipuzkoa
Arrese, Emeterio	Tolosa	Gipuzkoa
Arriandiaga, Imanol	Elantxobe	Bizkaia
Arruc, Antonio	Asteasu	Gipuzkoa
Arruza Egia, Mike	Bilbo	Bizkaia
Arteaga, Lorentzo	Mañaria	Bizkaia
Artola, Fernando	Hondarribia	Gipuzkoa
Arymbat, Aita	Tandil	Argentina
Astigarraga, Andoni	Errezil	Gipuzkoa
Aurre-Apraiz, Balendin	Alanguiz	Bizkaia
Aiestaran, Sabino	Aia	Gipuzkoa
Azpeitia, Julene	Zumaia	Gipuzkoa
Barandiaran, Gaizka	Oñati	Gipuzkoa

<i>Lankideak</i>	<i>Herria</i>	<i>Herrialdea</i>
Barandiaran, Jose Migel	Ataun	Gipuzkoa
Batiz, Bizente	Gerrikaiz	Bizkaia
Baztarrika, Jakoba	Ibarra	Gipuzkoa
Beiztegi, Jon	Eibar	Gipuzkoa
Berasaluze, Sabin	Forua	Bizkaia
Bereziartua, Iñaki	Eskoriatza	Gipuzkoa
Bibao, Felix	Morga	Bizkaia
Bilbao, Jon	Laiei	Puerto Rico
Diharce, Xabier	D. Lohizun	Lapurdi
Dornaku, Erraimun	Bera	Nafarroa
Egaña, Gotzon	Donostia	Gipuzkoa
Erdozeintzi, Manex	Ibarrolle	Nafarroa Beherea
Erkiaga, Eusebio	Lekeitio	Bizkaia
Errezola, Joseba	Ordizia	Gipuzkoa
Etxaide, Jon	Donostia	Gipuzkoa
Etxaniz, Nemesio	Azkoitia	Gipuzkoa
Etxeberria Tolosa, Frantzisko	Andoain	Gipuzkoa
Etxeberria, Toribio	Eibar	Gipuzkoa
Galarraga, Joxe	Errezil	Gipuzkoa
Gandiaga, Bitoriano	Mendata	Bizkaia
Garaialde, Jose Manuel	Orendain	Gipuzkoa
Garate, Gotzon Maria	Elgoibar	Gipuzkoa
Garate, Justo	Bergara	Gipuzkoa
Garde, Markelin	Carkastilo	Nafarroa
Garmendia Kortadi, Jon	Lasarter	Gipuzkoa
Garriga, Gabino	Bilbo	Bizkaia
Gaztañaga, Jesus	Asteasu	Gipuzkoa
Goikoetxea, J. Inazio	Gaztelu	Gipuzkoa
Goikoetxea, Jon	Zerain	Gipuzkoa

<i>Lankideak</i>	<i>Herria</i>	<i>Herrialdea</i>
Goiria, Jose Antonio	Galdakano	Bizkaia
Gorostiaga, Joanes	Deustu	Bizkaia
Ibinagabeitia, Andima	Elantxonbe	Bizkaia
Insausti, Josu	Tolosa	Gipuzkoa
Irigoién, Alfontso	Bilbo	Bizkaia
Iriondo, J. M.	Azpeitia	Gipuzkoa
Iturria, Karmelo	Zarautz	Gipuzkoa
Iturrioz, Antonio	Eibar	Gipuzkoa
Jakakortajarena, Txomin	Berastegi	Gipuzkoa
Jauregi, Koldobika	Errenteria	Gipuzkoa
Jemein, Zeferino	Bilbo	Bizkaia
Juaristi, Mikel	Azkoitia	Gipuzkoa
Kapanaga, Bitor	Otxandio	Araba
Kerexeta, Jaime	Elorrio	Bizkaia
Krutwig, Federiko	Getxo	Bizkaia
Labaien, Antonio Maria	Tolosa	Gipuzkoa
Laffite, Piarres	Louhois	Biarno
Larrakoetxea, Bedita	Zeanuri	Bizkaia
Larrañaga, Gilermo	Azkoitia	Gipuzkoa
Laspiur, Imanol	Eibar	Gipuzkoa
Leizaola, Jesus Maria	Donostia	Gipuzkoa
Lekuona, Joan Maria	Oiartzun	Gipuzkoa
Lekuona, Manuel	Oiartzun	Gipuzkoa
Lopez Mendizabal, Isaak	Tolosa	Gipuzkoa
Mendiola, Imanol	Donostia	Gipuzkoa
Miner, Agustin	Astigarraga	Gipuzkoa
Mirande, Jon	Paris	
Mitxelena, Salvatore	Zarautz	Gipuzkoa
Mokoroa, Justo Maria	Tolosa	Gipuzkoa

<i>Lankideak</i>	<i>Herria</i>	<i>Herrialdea</i>
Monzon, Telesforo	Bergara	Gipuzkoa
Mujika, Luis Maria	Lizartza	Gipuzkoa
Muxika, Plazido	Urnieta	Gipuzkoa
Oiartzabal, Martin	Azpeitia	Gipuzkoa
Olabeaga, Iñaki	Donostia	Gipuzkoa
Onaindia, Santiago	Amoroto	Bizkaia
Ormaetxea, Nikolas	Orexa	Gipuzkoa
Peillen, Txomin	Paris	
Peña, Xabier	Tolosa	Gipuzkoa
Sagastune, Luis	Alegia	Gipuzkoa
Salaberry, Etienne	Heleta	Nafarroa Beherea
San Martin, Joan	Eibar	Gipuzkoa
Sarobe, Frantzisko	Lesaka	Nafarroa
Sorrarain, Antonio	Alegia	Gipuzkoa
Tauer, Norberto	Pizen-Pilsen	Txekoslovakia
Unzueta, Sorne	Abando-Bilbo	Bizkaia
Urrestarazu, Antonio	Araia	Araba
Urrutia, Gotzon	Narbaiz	Bizkaia
Urruzola, Estanislao	Tolosa	Gipuzkoa
Villasante, Luis	Gernika	Bizkaia
Zaitegi, Jokin	Arrasate	Gipuzkoa
Zarrantz, Agustin	Iraizoz	Nafarroa
Zatarain, Ambrosio	Donostia	Gipuzkoa
Ziartsoro, Manuel	Bilbo	Bizkaia
Zinkunegi, Joseba	Errezil	Gipuzkoa

6. eranskina: *Euzko-Gogoa*-ko lankideen egoera zibila eta ikasketak

<i>Lankideak</i>	<i>Egoera zibila</i>	<i>Ikasketak</i>
Abando, Yon	Laikoa	Merkatal peritua
Agerre, Jose	Laikoa	Irakaslea
Akesolo, Lino	Klerikoa (karmelita)	Eliz ikasketak
Aldabe, Joakin	Laikoa	Autodidakta
Altube, Sebero	Laikoa	Autodidakta
Altuna, Patxi	Klerikoa (jesuita)	Eliz ikasketak
Altzola, Bikolas	Klerikoa (lasalletarra)	Eliz ikasketak
Alvarez, Jose Luis	Laikoa	Hizkuntzalaria
Ametzaga, Bingen	Laikoa	Zuzenbidea
Andonegi, Ziriako	Laikoa	Jostuna
Apalategi, M. A.	Klerikoa (kaputxinoa)	Eliz ikasketak
Aresti, Gabriel	Laikoa	Merkatal peritua
Argarate, Erraimun	Klerikoa (jesuita)	Eliz ikasketak
Arymbat, Aita	Klerikoa (beneditarra)	Eliz ikasketak
Arostegi, Yokin	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Arozena, Andoni	Laikoa	Pintorea
Arrese, Emeterio	Laikoa	Autodidakta
Arriandiaga, Imanol	Klerikoa (korazonista)	Eliz ikasketak
Arrue, Antonio	Laikoa	Zuzenbidea
Arteaga, Lorentzo	Klerikoa (karmeldarra.)	Eliz ikasketak
Artola, Fernando	Laikoa	Administratiboa
Astigarraga, Andoni	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Aurre-Apr aiz, Balendin	Laikoa	Autodidakta
Aiestaran, Sabino	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Azpeitia, Julene	Laikoa	Maistra
Barandiaran, Gaizka	Klerikoa (jesuita)	Eliz ikasketak
Barandiaran, Jose Migel	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak

<i>Lankideak</i>	<i>Egoera zibila</i>	<i>Ikasketak</i>
Batiz, Bizente	Klerikoa (O.C.D.)	Eliz ikasketak
Baztarrika, Jakoba	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Beiztegi, Jon	Laikoa	Batxilerra
Bera, Erraimun Miren	Klerikoa (kaputxinoa)	Eliz ikasketak
Berasaluze, Sabin	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Bereziartua, Iñaki	Kleikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Bibao, Felix	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Bilbao, Jon	Laikoa	Filosofia
Diharce, Xabier	Klerikoa (beneditarra)	Eliz ikasketak
Egafia, Gotzon	Laikoa	Zuzenbidea
Erdozeintzi, Manex	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Erkiaga, Eusebio	Laiakoa	Banku-enplegatua
Errezola, Joseba	Laikoa	Zuzenbidea
Errutza Egja, Mikel	Laikoa	Irakaslea
Etxaide, Jon	Laikoa	Batxilerra
Etxaniz, Nemesio	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Etxeberria, Frantzisko	Klerikoa (jesuita)	Eliz ikasketak
Etxeberria, Toribio	Laikoa	Autodidakta
Galarraga, Joxe	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Gandiaga, Bitoriano	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Garaialde, Jose Manuel	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Garate, Gotzon	Klerikoa (jesuita)	Eliz ikasketak
Garate, Justo	Laikoa	Medikuntza
Garde, Markelin	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Garmendia Kortadi, Jon	Laikoa	Autodidakta
Garriga, Gabino	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Gaztañaga, Jesus	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Goikoetxea, J. Inazio	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Goikoetxea, Jon	Klerikoa (jesuita)	Eliz ikasketak

<i>Lankideak</i>	<i>Egoera zibila</i>	<i>Ikasketak</i>
Goiria, Jose Antonio	Klerikoa (karmelita)	Eliz ikasketak
Gorostiaga, Joanes	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Ibinagabeitia, Andima	Laikoa	Eliz ikasketak
Insausti, Josu	Laikoa	Autodidakta
Irigoién, Alfontso	Laikoa	Hizkuntzalaria
Iriondo, J. M.	Laikoa	Merkataritza
Iturria, Karmelo	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Iturrioz, Antonio	Laikoa	Arma-maisua
Jakakortajarena	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Jauregi, Koldobika	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Jemein, Zeferino	Laikoa	Autodidakta
Juaristi, Mikel	Klerikoa (O.C.D.)	Eliz ikasketak
Kapanaga, Bitor	Laikoa	Industri maisua
Kerexeta, Jaime	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Krutwig, Federiko	Laikoa	Merkataritza
Labaien, Antonio Maria	Laikoa	Arkitektoa
Laffite, Piarres	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Larraoetxea, Bedita	Klerikoa (laterandarra)	Eliz ikasketak
Larrañaga, Gilermo	Klerikoa (jesuita)	Eliz ikasketak
Laspiur, Imanol	Laikoa	Industri maisua
Leizaola, Jesus Maria	Laikoa	Zuzenbidea
Lekuona, Joan Maria	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Lekuona, Manuel	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Lopez Mendizabal, Isaak	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
San Martin, Joan	Laikoa	Autodidakta
Sarobe, Frantzisko	Klerikoa (jesuita)	Eliz ikasketak
Sorrarain, Antonio	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Tauer, Norberto	Laikoa	Merkataritza
Unzueta, Sorne	Laikoa	Maistra

<i>Lankideak</i>	<i>Egoera zibila</i>	<i>Ikasketak</i>
Urrestarazu, Antonio	Laikoa	Batxilerra
Urrutia, Gotzon	Klerikoa (korazonista)	Eliz ikasketak
Urruzola, Estanislao	Laikoa	Administratiboa
Villasante, Luis	Klerikoa (frantziskotarra)	Eliz ikasketak
Zaitegi, Jokin	Klerikoa (apaiza)	Eliz ikasketak
Zarrantz, Agustin	Klerikoa (kaputxinoa)	Eliz ikasketak
Zatarain, Ambrosio	Laikoa	Injinerua
Ziartoro, Manuel	Laikoa	Autodidakta
Zinkunegi, Joseba	Laikoa	Medikuntza

7. eranskina: Itzultzaileak eta itzulitako lanak

<i>Itzultzaileak</i>	<i>Egileak</i>	<i>Itzulia</i>	<i>Noiz</i>
Larrakoetxea, B.	Shakespeare	<i>Macbeth</i>	1957
		<i>Lear Errege</i>	1958
		<i>Ekatxa</i>	1959
Zaitegi, Jokin	Eichendorff	<i>Irukoitza</i>	1950
	Costa Llobera	<i>Formentor'ko lerrondoa</i>	1950
	Dehmel	<i>Bi gogoen eresia</i>	1951
	Uhland	<i>Arroztetxeko alaba</i>	1951
	Baroja	<i>Angelus</i>	1952
		<i>Mari beltza</i>	1952
	Sully-Proudhon	<i>Begiak</i>	1952
		<i>Sinesten dut</i>	1956
	Sofokles	<i>Aiatz</i>	1957
	<i>Tarakinm'go emaztekiak</i>	1957	
	<i>Piloktete</i>	1957	
	Pascoli	<i>Umezurtz</i>	1959
Larrañaga, Guillermo	Shakespeare	<i>Neguko ipuia</i>	1950
		<i>Lear Erregea</i>	1951
	Ezezaguna	<i>Milla ta bat gauetako ipuiak</i>	1956
	Kanpion	<i>Izkuntza ta abenda</i>	1959
Ametzaga, Bingen	Zizeron	<i>Adiskidetasuna</i>	1952
	Shakespeare	<i>LXVI'gn. Amalaukoa</i>	1954
	Eskilo	<i>Prometeu burdinetan</i>	1959
Onaindia, Santiago	Virgilio	<i>Enea'rena</i>	1956

<i>Itzultzaileak</i>	<i>Egileak</i>	<i>Itzulia</i>	<i>Noiz</i>
Insausti, Yosu	Saroyan	<i>Zaldi zuriaren edestia</i>	1952
		<i>Handford'erako ibillaldia</i>	1952
		<i>Ibillaldietako oharrak</i>	1954
		<i>Antziñako maitasun edestia</i>	1955
	Lagerlof	<i>Gau donea</i>	1954
	Sterne	<i>Neskazarra</i>	1955
Mirande, Jon	Poe	<i>Bela</i>	1950
		<i>Isiltze</i>	1951
		<i>Arnontillado upela</i>	1952
	Per Denez	<i>Lotazillak amabi</i>	1950
		<i>Breizera</i>	1951
	Jasson	<i>Goiztar txoriek kanta bezate</i>	1951
Hofmannsthat	<i>Lekhoreko biziarena</i>	1954	
Kafka	<i>Legearen aitzinean</i>	1954	
O'Neill	<i>Bi fraideak</i>	1956	
Zaitegi-Ibinagabeitia	Benavente	<i>Abere-indarra</i>	1950
Ibinagabeitia	Ovidio	<i>Maita-bidea</i>	1952
	Virgilio	<i>Unai-kantak (Bukolikak)</i>	1954-55
Juaristi, Mikel	Wilde	<i>Adiskide zintzoa</i>	1959
Mujika, Luis Maria	Collodi	<i>Pinoxo'ren biurrikeriak</i>	1959
Etxaniz, Nemesio	Baroja	<i>Tellagorri</i>	1957
Garate, Gotzon	Hilckman	<i>Europako erri zaarrena</i>	1959
Irigoiien, Alfontso	Benavente	<i>Gaitzetsia</i>	1955

<i>Itzultzaileak</i>	<i>Egileak</i>	<i>Itzulia</i>	<i>Noiz</i>
Sorrarain, Antonio	Kanpion	<i>Itzaltzuko klobaria</i>	1954
Arrutza, Mikel	Petronio	<i>Efeso'ko Anderaurena</i>	1956
Etxeberria, F.		<i>David'en eresiak</i>	1957
Mokoroa, J. M.	Kanpion	<i>Erraondoko danbolirentoa</i>	1952
Aresti, Gabriel	Verlaine	<i>Udazken kantua</i>	1954
	Goethe	<i>Ilhargiari</i>	1955
	Baudelaire	<i>Gauontza</i>	1954
	Shakespeare	<i>CIX'gn. Sonetua</i>	1954
	J. R. Jimenez	<i>Ezer ez</i>	1955
Erkiaga, Eusebio	Maragall	<i>Bei itsua</i>	1958
Iturrioz	Baroja	<i>Altzateko Jauna</i>	1955
Labaien, A. M.	Goethe	<i>Linkeus dorrezaia</i>	1951
Arana	Julibe	<i>Arrigorriagako guda</i>	1956

8. eranskina: *Zabal*-eko poetak

<i>Izenak</i>	<i>Zenbat titulu</i>	<i>Zenbat orri</i>
Azurmendi, Joxe	4	4
Bellaritze (?)	2	3
Erdozaintzi-Etxart, Manex	2	4
Landart, Daniel	2	3
Legarralde, Martin (?)	2	2
Mendizazbal, Eustakio	2	2
Davant, Jean-Louis	1	1
Idirin, Maite	1	1
Garralde- seme (?)	1	1
Oton Zupancic/Apalategi, Jokin	1	1
Raul González, Otto	1	1
Udaberri (?)	1	1
Xabaldor (?)	1	1
Xori Sorgin (?)	1	2
Izenik gabea	1	2
15	23	28

9. ernaskina: *Zabal*-eko itzultzaileak eta itzulitako lanak

<i>Itzultzaileak</i>	<i>Egileak</i>	<i>Itzuliak</i>	<i>Noiz</i>
Urteaga, Mikel	Ceterchi, Ioan	<i>Nazioneak</i>	1975
	Mguyen Khonh Toan	<i>Zendako zaintzen dugun nazio hizkuntza</i>	1976
	Pekin Informe	<i>Estudianteen lana</i>	1976
Apalategi, Jokin	Franc, Robert	<i>Hamar galdera giltzarri erra diotibitateaz</i>	1975
		<i>Nuklear zentralak: Kontuz</i>	1975
	J. eta J.	<i>Nukleartegiak</i>	1976

10. eranskina: *Zabal*-eko lankideen izen-abizenak eta izenordeak

<i>Lankide ezagutuak</i>	<i>Izenorde ez-ezagutuak</i>
Alfaro, Gexan (Gexan Lantziri)	A.H. Laboraria
Alvarez, Jose Luis (Txillardeggi)	Astigarribia
Apalategi, Jokin (Begiko)	Azpikota
Apalategi, Joxemartin (D2T5)	Beltzuntze
Arbelbide, Xipri	Bellaritze
Aristegi, Koldo (Errezabal)	Ekitzeta (J.M. Odriozola?)
Arroiabe, Karmelo	Emazte batek
Bakaikoa, Balere	Eneko (J.M. Odriozola?)
Bidart, Gexan	Errefera
Bortairu (Kalakari)	Estalbi
Davant, Jean-Louis (Johañe Aizager, Arño Heguiaphal)	Garralde-sume Goxo Xume
Eguzkitza, Andolin (Altzürükü)	Hans Yolsmile
Erdozaintzi-Etxart, Manex	Hegitar
Etxebarria, Joxe Ramon	Ipar eta Hegoko talde batek
Goienetxe, Manex	Iparreko zenbait
HAS	Iparretik
Idiart, Kattalin (Kattalin)	Iraun
Idirin, Maite	Jauregi
Iztueta, Paulo (Meakaberri)	Legarralde, Martin
Kamblong, Ramontxo	Leon Ximiko
Kintana, Xabier (Xabier Armendaritz)	P. L.
Krutwig, Federiko	Udaberri
Landart, Daniel	Xalbador
Larrazabal, Jesus Maria	Xori Sorgin
Larزابal, Battita (F.B. Munho)	Zaldunbide, Gilen

<i>Lankide ezagutuak</i>	<i>Izenorde ez-ezagutuak</i>
Larzabal, Mattin (Mattin Uztarpekoa?)	
Mendibehere, K.	
Odriozola, Jose Manuel (Izarreko)	
Oiharzabal, Beñat (B.O.)	
Sudupe, Jon (Perugorria)	
Urteaga, Mikel (Baigura, Uharte)	
Xarriton, Piarres (Ehulatei)	
Zabal (aldizkaria)	
Zabaleta, Patxi (Gorka Txinperta)	
34	30